Saroiak eta kortak



Luis Mari Zaldua Etxabe

Saroiak eta kortak

Mendialdeko antzinako gizartearen oinordeak

2006

Luis Mari Zaldua Etxabe

ZALDUA ETXABE, Luis Mari
Saroiak eta kortak / Luis Mari Zaldua Etxabe. Urnieta, 2006.
218 orrialde; 21 zentimetro.

Marrazkiak: Eduardo Etxenike

Hitzaurrearen itzulpena: Koro Garmendia

ISBN: 84-611-1564-8

Anastasio Zaldua Zabalari,
nire aitari.

Aurkibidea

Hitzaurrea IX
Sarrera XI
1. Historiaurreko eraikin biribil handiak 1
2. Saroiak eta megalitoak 15
3. Saroiekin zerikusia duten lehen aipamen idatziak 33
4. Eliak, garai bateko behi-azienda handiak 49
5. Iruñerriko *sarioak* 61
6. Saroiak sartaldeko eremuan 73
7. Saroiak erdiguneko eremuan 99
8. Zuberoako olak 125
9. Erdiko guneen behin-behineko sailkapena 143
Labur esanda 161
Iturriak 189
Bibliografia 197
Kartografia 211
Irudiak eta argazkiak 213

Hitzaurrea

> *"La historia de la ciencia nos demuestra que para arraigar una verdad es preciso que la época esté dispuesta a recibirla, pues muchas ideas no dieron fruto por haber caído en suelo estéril; pero tan luego como el tiempo puso el abono germinó la simiente".*

Thomas Cooke (1807-1868) fisikari ezagunaren hitzok ezin egokiagoak iruditzen zaizkit Luis Mari Zalduaren *Saroiak eta kortak* lana ilustratzeko.

Orain dela gutxira arte, ikerketa arkeologikoak oro har "garrantzitsu" edo "azpimarragarritzat" jo ditzakegun alderdiak aztertzera mugatzen ziren nagusiki.

Duela hamarkada gutxi batzutatik hona, ordea, ikertzaileen belaunaldi berria sortu da, a priori "maila gutxikotzat" jotzen ziren elementuak aztertzeari ekin diona. Horrela, "Erdi Aroko arkeologia" garrantzitsua garatu da, eta baita "industria aurreko arkeologia" zein "arkeologia modernoa" ere, azken gerra zibil espainiarrean fusilaturikoen aztarnei metodo arkeologikoak aplikatuz. Hauen guztien emaitzak interesgarriak dira zinez.

Ikertzaile berrien talde horretakoa dugu, hain zuzen ere, Luis Mari Zaldua. Liburu honetan aurkezten digun gaiari 15 urte baino gehiago eskaintzeko gauza izan da egile hau, etenik gabe, bere gogoeten heldutasunak garbi erakusten digun bezala.

Edonola ere, obra honetan interesa pizten duena ez da aztergaia bakarrik, *Saroiak eta kortak*, orain arte apenas landutako arloa

berau, baizik eta lanerako erabili duen tratamendua, erabat kontrajarriak eta, aldi berean, osagarriak diren bi ikuspegitara jo baitu: azterketa sinkronikora batetik, antzekotasunak dituzen elementuak bilatzeko, bai itxura fisikoaren aldetik, bai beste latitudeetan eman zaien erabilerari dagokionez; eta diakronikora bestetik, Historiaurretik hasi eta gaur arte.

Horrez gain, diziplinarteko ikuskera erabili du, filologia, arkeologia, dokumentazio historikoa, etnografia zein topografiaz baliatu baita.

Faktore hauen guztien emaitza dugu *Saroiak eta kortak* obra.

Telesforo de Aranzadik behinola esan bezala: *"Beste batzuek hobeto egingo zuketen, baina guk egin egin dugu"*.

Litekeena da denborarekin gai honen inguruko beste obra batzuk agertzea, ekarpen zientifiko handiagokoak beharbada —beti espero da halakorik—, baina ziurtatzen dizuet ez dela honako lan hau baino zehaztasun, ardura eta maitasun handiagoarekin egina izango.

Antxon AGUIRRE SORONDO
Donostia, 2006ko maiatzaren 1a, astelehena
Langilearen eguna

Sarrera

Hamar urte joan dira zorioneko *Saroiak Urnietan* argitaratu genuenetik. Ordutik hona hiruzpalau lan txiki baizik ez ditugu plazaratu, azkenekoa *Oiartzun* urtekariaren 36. zenbakian. Ezer gutxi. Urnietako Udalari esker, gure lehen ekarpenak (eta hankasartzeak) egiteko parada izan genuen estreinako lan hartan. Denborak ematen duen patxadarekin ikusita, asko zor diogu aurreneko eginahal hari. Izan ere, adiskide berriak ezagutu ditugu hari esker.

Hau, berriz, lan akademiko baten ordezkoa da. Hasieran, lan hura egiten ari ginenean, buruak arnasa har zezan ekiten genion saroien ikerketari. Ez geneukan batere presarik; orain ere ez gehiegi. Bagenekien, eta badakigu, gaiaren aberastasunak erabat gainditzen gaituela, ez dugula nahiko denbora, ez orain, ezta etorkizunean. Egun batean, ordea, Jakue Belakoaren pasartearekin topo egin genuen eta... hara non bukatu dugun berriz: zurekin solasean, irakurle.

Presaka bazabiltza, denbora gutxi badaukazu, zoaz zuzenean azken atalera, han aurkituko duzu-eta behar duzun laburpena. Nolanahi ere dela, datuen premia baduzu, barruan begiratu, atalez atal.

Saroien auzia mendialdeko antzinako gizarteari buruzko testua da, liburu bat, gizaldietan zehar hainbat tokitako lekukotasunekin idatzi dena, eta hitz eder bezain ezezagunek osatzen dutena: *hausterretza*, *artamugarri*, *unamaizter*, *eli-jaun*, *gorabila*, *hamalauoin*. Hitzen ondoan irudiak daude: *gurutzeak* +, *izarrak* *, *biribilak* .

Aitortu beharrean gara hitz solte gutxi batzuk baino ez ditugula ulertu orain arte, eta irudi bat bera ere ez. Saroien testua ezin dugu irakurri, ezin dugu barneratu. Hori horrela delarik, zundaketa modukoa egiten saiatu gara, baina ez lurrean, hitzen eremuan baizik. Ulertzen ez diren hitzen esanahira iristeko dagoen bide bakarra hartu dugu guk ere: testuinguruari erreparatzea. Alabaina, artxiboetan maiz aski eskuratzen dena besterik ez dugu lortu: hitz solteak aurkitzea, testua ezer ulertu gabe.

Diogun hemen primeran pasa dugula saroien liburutik ikasten, mendiko lezioetan batez ere. Egun xoragarriak gozatu ditugu. Elgoibarren hasi genuen urtebetetze hura datorkigu burura, edota Aveburyn izan ginenekoa. Liburutegi eta artxiboetan une ederrak bizi izan ditugu eta Interneten barrena ere bai. Hori guztia gutxi balitz, lagun berriak egin ditugu, Manu Arregi, Xavier Lopez de Munain, Iratxe Uriguen, Txema Arenzana, Luis Millán, Emilio Lizoain edota Joxe Mari Sanzberro kasu. Lehendik bagenituen beste batzuen adiskidetasuna noraino iristen den ere ikusi ahal izan dugu, Patxi Salaberri, Xavier Peñalver, Sonia San José, Roz Frank, Mikel Arbeloa edota Antxon (Aguirre) gurearena lekuko.

Oinarri hutsetan gelditu behar ordea, handik aurrera urratsik egin gabe. Zein da *ikorte*-en et *sario*-en arteko lotura? Eta, *hausterretzen* eta *artamugarrien* artekoa? Nola esan ote zaio saroien erdiko guneari Nafarroan? Olak eta saroiak funtsean gauza bera al dira? Eta Nafarroako ikurrak, nolako zerikusia du zehatz-mehatz saroiekin? *Sala*- erroa *sel*-ekin al dago lotua? Zein da etimoa: *sel*, *sar*-?

Galdera askoren erantzuna saroietan bertan dago, erdiko guneetan bereziki. Oroit gaitezen beti, hemen, Euskal Herrian, Pirinioen eremu sartaldekoan, saroiak idazkiak bezain zaharrak direla. Merezi du, beraz, ikertzea ez ezik, saroiak babestea, erdiko guneak bereziki, aurrerantzean ere guztiok ikertzen jarraitu ahal izateko, zuk, guk eta haiek, liburua irakurtzen segitzeko, mendialdeko antzinako gizartea ulertzeko.

1

Historiaurreko eraikin biribil handiak Europan barrena saroien aurrekari bila

Henge-ak, *causewayed camp*-ak eta *hillfort*-ak

"—¿De qué se trata? ¿Refugios para los pastores?
—No. Son los hogares de nuestros antepasados."

A. Conan Doyle[1].

1. Hasteko, Europa atlantiarrean dauden historiaurreko eraikin biribil handiak hartuko ditugu ahotan. Caro Baroja (1977: 180) da saroien eta historiaurreko eraikin biribil handien artean loturaren bat egon litekeela esaten duen aurrenekoa[2]. Berako ikertzailea ez da,

[1] Honela jarraitzen du pasarteak: "El páramo estuvo muy poblado por el hombre prehistórico y, como nadie ha vueto a habitarlo con mucha densidad desde entonces, encontramos las cosas tal como las dejaron ellos". Burutako testuak aukeratzea ez da erraza izan. *El perro de los Baskerville* idazlaneko hau ere oso gustukoa dugu: "El detalle más grotesco y outré es con frecuencia el que debe ser estudiado con mayor atención, y cuando parece que algo complica más que antes un caso, si se le estudia científica y sistemáticamente, normalmente suele ser la pista que ayuda a clarificarlo por completo."

[2] Hona zer idatzi zuen *Los Pueblos del Norte de la Península Ibérica* lanean: "Podría relacionarse la forma circular del «sel», dispuesto en medio de un terreno arbolado, con su choza en el centro, con la forma de habitación más común en el S. de Inglaterra en la época de Estrabón. Según éste, IV, 5, 2; o 200, los pueblos britanos vivían en medio de los bosques en espacios circulares que habrían temporalmente (...). Claro es que aquí se habla de recintos mayores que el «sel», con empalizadas y varias

halaz ere, Euskal Herriko saroiak eta Europako beste alderdi batzuetako eraikin biribilak lotzen dituen bakarra[3].

Aurrekari horiez gainera, badira bestelako arrazoiak Europako eraikin biribil handi antzinakoen eta saroien arteko balizko harremana mintzagai hartzeko. Hurrengo atalean aztertzen saiatuko garen saroien eta Euskal Herriko monumentu megalitikoen arteko harremana dago, adibidez. Garbi dago ezin litekeela Euskal Herriko historia ulertu inguruko herrietakoa ezagutu gabe, azaletik bederik. Hurrengoa eta hau atal osagarriak dira. Ezin litezke bata bestea gabe erabat ulertu. Guk, behintzat, hori uste dugu.

2. Europan dauden historiaurreko eraikin ospetsuenak Britainiar Irletakoak izango dira segur aski, Bretainiakoak gutxietsi gabe. Britainiar Irletako egitura biribil handiei begiratzen badiegu, besteak beste, *henge*-ak, *causewayed camp*-ak, harrizko zirkuluak eta gotorleku edo *hillfort*-ak ikusiko ditugu. Litekeena da atentzioa gehien ematen dutenak *henge*-ak izatea, ez baitago horrelakorik Euskal Herrian.

Henge izeneko itxiturak biribil antzeko egiturak dira. Itxitura lurresiak eta zangak osatzen dute. Bat baino gehiago egon litezke. Zanga, eskuarki, lurresiaren barnean egoten da. Harrizko zirkulua egon liteke itxituraren barruan, baita egurrezko egitura edota hilobia[4]. *Henge* batzuek sarrera bakarra dute eta beste batzuek bi edo gehiago.

Azken urteotan *henge*-etariko batzuek *super-henge*-en eliteko taldea osatzen dutelako ideia indarra hartzen joan da. Hain justu, *Durrington Walls*, *Marden*, *Mount Pleasant* eta *Avebury*-ko *henge*-ek

---

cabañas dentro, situados no en sierras y montes sino en los bosques de país ligeramente ondulado. Hay que distinguir, por otra parte, las quemas de trozos de bosque organizadas por los agricultores, de las llevadas a cabo por pastores, que han sido base de la despoblación forestal sucesiva de Europa".

[3] Ikus, konparazio batera, Frank eta Patrick (1993: 80).

[4] Cavendish (1993 [1983]: 147).

osatuko lukete, besteak beste[5], elite hori. Labur esateko, *mini-henge*-ak (10 metroko diametroa, edo gutxiago), *henge*-ak (100 metro inguruko diametroa) eta *super-henge*-ak genituzke oraingo zenbaiten ustez (400 metroko diametroa, edo gehiago).

Haiek eraiki aurretik erabiltzen ziren bizilekuen ondoan azaltzen dira *Henge*-ak[6]. Hain zuzen, itxitura osatzen duten lurrezko hesiek eta zangek han sartzen ez uzteko eginak dirudite. Lubakiz babesturiko historiaurreko barrutiak, Britainiar Irlez landa, Europako beste toki batzuetan ere azaltzen dira, Alemaniako *Goloring* lekuko.

Causewayed camp edo *causewayed enclosure* direlakoak, lubakiak dituzten heinean, *henge*-ekin dute antza, edota alderantziz. Ingalaterrako hegoalde-erdialdean horrelako berrogei bat egitura aurkitu dira gaurdaino. Biribil edo arrautza tankerako itxiturak dira, gehienetan mendi-gainetan eginak eta bizpairu lubaki (lurresi eta zanga) edo gehiago dituztenak. Ez dirudi denbora osoko bizilekuak zirenik, ezta gotorlekuak edota abereentzako korraleak ere. Zangetan giza-hezurrak aurkitu dira, ondoan harrizko aizkorak, ontziak eta hezur moztuak dituztela.

Lurrezko (edo harrizko) hesiak *hilfort* izeneko gortorlekuetan ere ikus daitezke. Horrelakoetan *rampart* esaten zaiei itxiturei. *Hillfort*-ak muinoen gaineko aldean eraikitako itxitura edo gotorlekuak dira. Batzuetan lubaki sail bat baino gehiago izaten dituzte. Bizilekuen aztarnak egoten dira sarritan barruan.

Esan dugu *henge* batzuek harrizko zirkulua dutela barnean[7], baina, kanpoko aldean lurresirik eta zangarik ez duten heinean, harrizko zirkulu guztiak ez daude *henge*-etan. Ezin dira ahantzi lurrean sarturiko harri edo *menhir*-ak ere. *Henge*-en barruan edota kanpoan egon daitezke, zirkulu handi baten osagarritzat, nahiz harri

[5] *Knowlton*-go *henge* handiena ere, agian, *super-henge*-en taldean sar liteke.

[6] *Durrington Walls*-en, adibidez, lehen giza aztarnak K.a. 3.200. urtekoak dira. *Henge*-a zazpiehun urte geroago eraiki zen.

[7] *Avebury*, *Mayburg* eta *Arbor Low henge*-ak lekuko.

bakar moduan. Hitz batean, kategoria nagusien osagaiak nahasi egiten dira, hau da, *henge*, *causewayed enclosure* eta gortorleku edo *hillfort*-ek elementu berak dituzte maiz aski: lubakiak, harrizko zirkuluak eta menhirrak.

3. Europako zirkulu handien lagina lortzeko asmoz dozenaka egitura biribil begiratu ditugu, baina, azkenean, hamasei baizik ez ditugu aukeratu hemen aztertzeko, guztiak ezagunak edo oso ezagunak. Hona ekartzeko aintzat harturiko lehen baldintza tamaina izan da: guztiek dute 2 hektarea baino azalera hadiagoa (160 metroko diametroa), batek izan ezik[8], hau da, saroi txiki baten tamaina dute gutxienez. Bigarren ezaugarria itxura edo tankera izan da: biribilak edo arrautza tankerakoak behar genituen. Kristo jaio aurreko eraikinak dira guztiak, jakina. Batzuek ongi eta besteak hainbestean, gaurdaino iraun dute, lauk izan ezik. Dakigunez, *Mount Pleasant*, *Holkham Camp*, *Hindwell* eta *Knowlton* ez beste guztiak ikus daitezke aurrez aurre.

Ingalaterrakoak dira nagusi laginean. Hiru baino ez dira Irlandakoak, bat Galesen dago eta bestea Alemanian. Hona hemen aukeratu ditugun historiaurreko eraikin biribil handiak: *Durrington Walls* (Wiltshire, Ingalaterra), *Marden* (Wiltshire, Ingalaterra), *Avebury* (Wiltshire, Ingalaterra), *Mount Pleasant* (Dorset, Ingalaterra), *Ballynahatty* (Down, Irlanda [Ulster]), *Stowe's Pound* (Cornwall, Ingalaterra), *Hill of Tara*[9] (Meath, Irlanda), *Wolstonbury* (Sussex,

[8] *Grimspound* da salbuespena: 1,6 hektareako azalera du (145 bat metroko diametroa).

[9] *Tara* muinoa Irlandako Errege Nagusien (*High King*) tronua izan zen. Hango egitura zaharrena Neolito Aro berantiarreko-Brontze Aro goiztiarreko *passage grave* edo *chambered tumulus* txikia da; *Mound of the Hostages* du izena (K.a. 2000). Egitura handiena, berriz, arrautza tankerako lurrezko itxitura da (*Rath na Rioch* / *Royal Enclosure*). 230-250 metroko diametroa du. Barruan (*Mound of the Hostages*-ez gainera) bi *conjoined rath* edo *ringfort* daude: *Forradh* edo *Cormac's House* eta *Royal Seat*. *Forradh*-en erdian *Lia Fáil* zegoen, antzinako Errege Garaien koroatze-harria (*Stone of Destiny*). Hain zuzen, atal honetan *Hill of Tara* esaten dugunean *Rath na Rioch* edo *Royal Enclosure* izeneko egituraz ari gara. Egitura handienetik hegoaldera beste itxitura handia dago: *Rath Laoghaire* edo *Fort of King Laoghaire* (120 metro

Ingalaterra), *Holkham Camp* (Norfolk, Ingalaterra), *Navan Fort* (Armagh, Ingalaterra [Ulster]), *Goloring* (Koblenz, Alemania), *Robin Hood's ball* (Wiltshire, Ingalaterra), *Hindwell* (Powys, Gales), *Grimspound* (Devon, Ingalaterra), *Thornborough* (Yorkshire, Ingalaterra) eta *Knowlton* (Dorset, Ingalaterra).

Historiaurreko zirkulu handien lagina. Kokapena.

Azalerari dagokionez, hamasei egitura horien artean sekulako aldea dago[10]. Handiena *Hindwell* da (34 bat hektarea) eta, esan

---

inguruko diametroa du). Iparraldera ere *rath*-a dago (*Rath of the Synods*), eta ondoan lurresi laukiluzea (*Banquet Hall*). *Tara*-tik gertu, hegoaldera, *Rath Maeve* izeneko eraikin biribila dago (230 bat metroko diametroa du). *Tara*-ra, diotenez, 7. gizaldia arte erabili zen. Itxiturak Kristau Aroaren mugakoak dirateke (Powell, 2000 [1958]: 217).

[10] Zailtasunak izan ditugu behin baino gehiagotan azalera zehazteko, besteak beste, irakurri ditugun argitaralpenetan erabat bat ez datozen datuak erabiltzen direlako. Askotan ez dago garbi itxitura osoa ala barruko eremua neurtzen den. Noski,

bezala, txikiena, berriz, *Grimspound* (1,5 ha). Muturreko bi hauek alde batera utziz gero, hiru talde bereiz litezke azalerari bagagozkio. *Super-henge*-ek osaturiko multzoa dago lehenbizi: *Durrington Walls* [20-21 ha], *Marden* [18-19 ha], *Avebury* [15-16 ha] eta *Mount Pleasant* [11-12 ha]. Horrenbestez, 21-10 hektarea arteko azalera duten egiturek osatuko lukete aurreneko talde hori[11]. Bigarren taldean 4-5 hektareako azalera duten egiturak sartuko genituzke: *Stowe's Pound, Hill of Tara*, *Navan Fort* eta *Robin Hood's ball, Thornborough* eta *Knowlton*. Azkenik, 2,2-2,5 hektareako itxiturak daude, hots, *Ballynahatty, Wolstonbury, Holkham Camp* eta *Goloring*.



Historiaurreko zirkulu handiak eta saroiak. Erradioen konparaketa.

azalera kalkulatzeko moduaren arabera ere emaitzak aldatu egin dira. Arazoa erabat biribilak ez diren egituretan gertatzen da larrienik.

[11] Laurak Neolito Aro Berantiarrekoak-Brontze Aro Goiztiarrekoak dira.

Formei dagokienez, bi tankerako egiturak daude: biribiltzat jo daitezkeenak eta erabat biribilak ez direnak, arrautza tankerakoak gehienak. Biribilen artean *Durrington Walls*[12], *Avebury, Ballynahatty, Navan Fort*, *Goloring*, *Hindwell, Grimspound Thornborough* eta *Knowlton* daude. *Hill of Tara* eta *Holkham Camp*[13] arrautza tankerakoak dira. Ez dirudi tankera eta monumentuen garaia hertsiki lotuak daudenik, eraikin biribilak Neolito Arotik Burdin Aroa arte azaltzen direlako.

Eraikin guztiek nolabaiteko hesia dute kanpoko aldean, eta askok zanga ere bai. Zangaz horniturikoek lurresia dute beti. Hauek dira zanga lurresiaren barruan duten eraikinak: *Durrington Walls*, *Marden*[14], *Avebury*, *Mount Pleasant*, *Wolstonbury*, *Holkham Camp*, *Navan Fort*, *Goloring* eta *Robin Hood's ball*. *Knowlton*-go lubakian zanga lurresi-barruan dago eta *Thornborough*-ko hiru itxituretan lurresiek alde bakoitzera zanga bana dute[15]. *Ballynahatty*[16] eta *Hill of*

---

[12] *Durrington Walls* izeneko hengeak 475-490 metro inguruko diametroa du eta, horrenbestez, *Avebury* baino handiagoa da. Nahikoa forma biribila du, lurrezko hesi (30 m x 8 m), zanga (9 m x 5 m) eta guzti. Egun A345 errepideak bitan zatitzen du. Ik. Richards (1996: 98-99).

[13] *Holkham Camp* izeneko gotorlekua, lur baxuetan eraikia, lurresi eta zanga batek babestua zegoen alde guztietatik, hego-sortaldetik izan ezik; bi lurresi zeuden alde hartan. Bildutako eremua 2 hektarea ingurukoa zen. Badirudi Bikingoek berrerabilia izan zela.

[14] *Marden*-goa ere *henge* handienetarikoa da. Arrautza tankerakoa da eta lurresia eta barruko zanga ditu. Ik. Cavendish (1993 [1983]: 60). *Hatfield Barrow* (*huge barrow*) hilobia du barruan.

[15] *Hutton Moor*-en (*Thornborough*-tik 10 kilometrora) lubaki biribila dago, 173 metroko diametroa duena. Bi sarrera ditu. *Thornborough*-koek bezala, *Hutton Moor*-ko itxiturak bi zanga ditu lubakian, lurresiaren alde bakoitzera bana. Urruti ez dagoen *Cana Barn*-ko itxitura *Hutton Moor*-en oso antzekoa da. 173 metroko zabalera duen lubaki biribila dago han, lurresiaren alde bakoitzean bi zangarekin. Bi *henge*-ok *burial mound* multzotxoak dituzte bueltan.

[16] *Ballynahatty*-ko henge-a, *The Giant's Ring* izenaz ere ezagutzen dena, biribil tankerakoa da. Lurresiak 180 metroko diametroa du. 2,5 hektareako azaldera duen barrutia biltzen du eta zenbait tokitan 3,5 metroko garaiera eta 20 metroko zabalera ditu. Bost sarrera daude. Erditik zertxobait sortaldera *passage-tomb* txikia dago *Henge*-a baino pixka bat lehentxeago eraikia dateke.

Tara-ko egiturek ere lurresiak dituzte, baina zangarik ez ordea. Hesia egiteko erabilitako gaiaren arabera[17] salbuespen nagusiak, lurrezkoak ez direnak alegia, *Hinduell* eta *Grimspound* dira; batak egurrezkoa eta besteak harrizko itxitura izan dute.

Hamasei monumentutatik hamarrek beste egituraren bat dute barruan, bai harrizkoa bai egurrezkoa, izan hilobitako izan beste edozein zereginetako. Itxituraren barruan harrizko zirkulu handia duen bakarra *Avebury*[18] da (kilometro pasatxoko perimetroa du[19]).

Egurrezko egiturak eduki dituzte barruan *Durrington Walls*, *Marden*, *Mount Pleasant*[20] eta *Navan Fort*-ek. Aipatu ditugu *Avebury-ko* bi zirkulu txikiak. *Mount Pleasant*-en ere harrizko bi egitura zeuden. *Hill of Tara*-n *Cajoined rath* (*ring fort*) izeneko egitura dago (lurresi biribila). Bestalde, *Stowe's Pound*[21] eta *Grimspounden* etxola

---

[17] *Priddy*-n, *Mendip* izeneko parajean, lau *henge* daude ilaran jarrita (Somerset, Ingalaterra), *Thornborough*-en bezala, baina 180 metroko diametroekin. Lurresiak zangen barruan daude eta sarrea bana dituzte. Indusketen arabera, zangatik ateratako materiala 3 metroko garaierako zutoinekin egindako bi zirkulu artean botatzen zuten, ondoren harrilegorrez estalzeko. *Priddy*-ko eraikin biribilen ilarak 1,2 kilometroko luzera du. Litekeena da "proto-henge" zaharrak izatea. *Round barrow* multzo garrantzitsua dago ondoan.

[18] Badira, *Avebury*-n bezala, itxituraren barruan harrizko zirkulua duten *henge* gehiago, *Arbor Low* lekuko (*Derbyshire*, Ingalaterra). *Henge* dotorea da benetan hangoa. 80 metroko diametroa duen itxituraren erdian berrogei harri handi baino gehiagoz osaturiko harrizko zirkulua dago. Nolanahi ere dela, itxitura baino berriagoa dateke harrizko zirkulu hori. Atzeko aldean Brontze Aroko *round barrow*-a dago txertatuta. Urruti ez dagoen *Bull Ring* izeneko *henge*-ak *Arbor Low*-en antza du.

[19] Harrizko zirkulu nagusiak 100 metro inguruko diametroa duten beste bi zirkulu ditu barruan. Harrizko zirkulu handia zanga sakonak eta lurresiak biltzen dute. Jatorriz ia hamar metroko sakonera zuen. *Avebury*-tik *menhir*-ez hornituriko etorbidea dago *Overton Hill* aldera.

[20] *Mount Pleasant* izeneko *henge*-a arrautza tankerakoa zen (370 m x 320 m). Lurresiak jatorriz lau metroko altuera zuen eta badirudi lau sarrera zituela. Barruan bi eraikuntza biribil azaldu ziren. (Malone, 1996 [1989]: 82).

[21] *Stowe's Pound hillfort*-a *Stowe's Hill* izeneko muinoaren geineko aldean dago. Dakigula, ez da indusketarik egin han, baina Burdin Aroaren aurrekotzat jotzen da. Gotorlekuak bi itxitura ditu. Handiena iparraldean dago eta 5 hektareako azalera du. Honek biltzen du, hain justu, mendi-gaineko hutsunea. Dozenaka etxola biribilen

biribilen oinarriak daude. Hilobiak ditugu *Marden* (*barrow*[22]), *Ballynahatty* (*passage tomb*), *Hill of Tara* (*passage grave*) eta *Navan Fort*-en[23] (*mound barrow*[24] eta *ring barrow*).

Hill of Tara eta *Goloring*-eko[25] egituren kasua bestelakoa da, barruan dituzten elementuen arabera. Ematen duenez aurrenekoak menhir berezia izan du barnean [26] eta bigarrenak, berriz, tente jarritako enborra[27] erdian[28].

---

hondakinak daude. Hegoaldean harresiz inguraturiko hektarea bateko barrutia du erantsita.

[22] *Barrow*-ak ehorzketa-tumuluak dira. Bi mota daude: *long barrow*-ak eta *round barrow*-ak. Aurrenekoak Neolito Arokoak izaten dira, eta bigarrenak Brontze Arokoak, edo beranduagokoak. *Round barrow*-ak ugariagoak dira; *long barrow*-ek, ordea, hilobi gehiago izan ohi dituzte barruan. *Round barrow* mota asko daude, baina arruntena hau izan daiteke: tankera hemisferikoa duen lur-pilaketa, inguruan zanga duena. Harrizko ehorzketa-tumuluei *cairn* ere esaten zaie.

[23] *Navan Fort* nahiz *Emain Macha* ('*Macha* jainkosaren bikiak') izeneko tokian dagoen lurrezko itxiturak biribil tankera du (240 metroko barruko diametroa). Barruan zanga eta kanpoan lurresia ditu. Lubakiak munioaren gaineko aldean dauden bi hilobi biltzen ditu. Itxitura nagusia K.a. 90. urtearen inguruan eraiki zuten, antza denez. Cf. Powell (2000 [1958]: 169).

[24] Tumulua, barruan kamara edo hilobia izan ohi duena.

[25] *Goloring* izena duen lur-lanak tankera biribila du. Lurresiak eta zangak bilduriko barrutiak 190 metro inguruko diametroa du (2,5 ha). Garaiago dagoen esparrua dauka erdian (88 metroko zabalera). Eremu horren erdian zuloa aurkitu zen, nahiko luzea izan behar zuen egurrezko zutabea hartzen zuena. *Goloring*-en ehorzketa aztarnarik ez da aurkitu orain artean, ezta bestelakorik ere. Azken *Hallstat* garaikoa dateke (K.a. 500 urte). Powel (2000 [1958]: 217).

[26] Gogora gaitezen *Rath na Rioch* edo *Royal Enclosure* deituriko egituraren barruan *Forradh* edo *Cormac's House* izeneko *rath*-a dagoela. Erdian *Lia Fáil* izeneko harria zegoen.

[27] Zuhaitzak erabili direlako aztarna arkeologiko gehiago badaude. *Goloring-en* bezala, *Goldberg*-ko itxitura biribil handian egurrezko poste handia ezartzen zuten erdian (Hego Alemania; K.a. 500-600).

[28] *Knocknahorna*-n 50 metroko diametroa duen harrizko zirkulua dago (*Tyrone, Irlanda* [*Ulster*]). Erdian tumulu txikia du. *Mayburgh*-ko *henge*-a *Penrith*-en dago (Cumbria, Ingalaterra). *Cobble stones* motako harriekin eraikitako hesia du, 85-105 metroko barrutia biltzen duena. *Henge*-aren erdian harri handia dago, garai batean han zegoen harrizko zirkuluaren lekuko.



Goloring-eko egituraren berreraiketa

Monumentu hauek guztiak askotariko izen generikoekin sailkatu izan dira. Lehenik eta behin, lau *super-henge*-ak ditugu (*Durrington Walls, Marden, Avebury* eta *Mount Pleasant*) azalera handiak biltzen dituzten lubakiekin. Hauen ondoan *Ballynahatty*, *Thornborough*[29] eta

[29] Ingalaterrako iparraldeko *henge* multzorik garrantzitsuena *Ripon* inguruan dago (Yorkshire). Ederrenak *Thornborough*-ko hiru zirukuluak dira seguruenera, bakoitza 240-245 metro inguruko diametroarekin. Bina sarrera dituzte, jatorriz hiru metroko garaiera zuen hesian eginak. Lurresiek alde bakoitzera zanga bana dute, hogei bat metrora. Zangek hogei metroko zabalera dute eta toki batzuetan hiru metroko sakonera. Horrelako multzoak ez dira arruntak. Hiru itxiturak 500 bat metrora daude bata bestetik eta 1,7 kilometro hedatzen dira. Neolito Berantiarrekoak direteke. Ez oso urruti, *Nunwick*-en (*Thornborough*-tik 5,6 kilometrora), 210 metro diametroko itxitura biribila dago, bi sarrerarekin. Jatorriz lurresiak hamazortzi metroko zabalera zuen. Monumentuaren barruan beste lurresi biribila zegoen.

Knowlton-go[30] *henge*-ak daude, Neolito Aro berantiarrekoak-Brontze Aro goiztiarrekoak hirurak.

Stowe's Pound eta *Holkham Camp* (*lowland fort*) dira *hillfort* edo gotorlekuak darabiltzagunen artean, baita, agian, *Wolstonbury* ere[31]. *Hillfort*-ak Burdin Arokoak dira maiz aski, baina garai horretakoak izan beharrik ez dute. *Causewayed enclosure* bakarra dago laginean (*Robin Hood's ball*[32]). Bizilekua ere bakarra da (*Grimspound*[33]).

Henge, *hillfort* eta *causewayed enclosure* izena dutenen ondoan, izen generiko jakinik ez duten egiturak daude. Adibidez, *Hill of Tara* eta *Wolstonbury* "arrautza tankerako itxiturak" baino ez dira (*oval enclosures*). *Navan Fort* eta *Goloring* "lurrezko lanak" dira zenbait argitalpenen arabera (*earthwork*). Ildo horretan, izen generiko ezagunik ez duten eraikinak lirateke berrienak. *Wolstonbury* da salbuespena, eta *Hindwell*[34] ere berezia da (*enclosure*).

---

[30] *Henge* talde ederra dago baita ere *Salisbury Avon* haranean. *Knowlton*-en (Dorset, Ingalaterra) hiru *henge* daude ilaran, *round barrow* taldeez inguratuta. Hegoaldeko itxiturak 220-244 metroko diametroa du eta zanga lurresi barruan dago. Bi sarrera daude. Erdikoak 96-105 metroko diametroa du (lurresia eta zanga) eta iparraldekoak 82-84 metrokoa. Erdiko *henge*-aren erdian Erdi Aroko elizaren hondakinak daude (12. gizaldia). Multzoa Neolito Aro Berantiarrekoa da jatorriz. Hemen hegoaldeko itxitura besterik ez dugu aintzat hartu.

[31] *Wolstonbury*-ko (lurrezko) historiaurreko itxiturak izen bereko munioan daude. Itxitura nagusiak (*C itxitura*) arrautza tankera du eta 2,2 hektarea biltzen ditu (166 metroko diametroa). Txikiagoak diren beste bi itxitura daude (*A* eta *B*), itxitura handiaren barruan biak. Zanga lurresiaren barruan dago han. Hori dela eta, Neolito Aro berantiarreko-Brontze Aro Goiztiarreko *henge* baten oinordekotzat jotzen da.

[32] *Robin Hood's ball* izeneko *causewayed enclosure*-a (4,5 ha) tankera irregularreko bi lubakiz osatua dago (lurresia eta zanga). Ematen du moztutako basoa zegoen tokian eraiki zutela itxitura, lehendik bizilekua zegoen tokian egin zutela, alegia. Richards (1991 [1996]: 73). Neolito Aro goiztiarrekoa dateke.

[33] *Dartmoor* inguruan historiaurreko bi mila toki baino gehiago daude. Deigarriena *Grimspound*-go Brontze Aroko bizilekua da seguruenera. Harrizko horma bikainak hiru metroko zabalera du zenbait tokitan. Harrizko hogeita lau etxola biribilen oinarriak daude itxituraren barruan. Bizilekua izan delako aztarnak daude, hortaz. Ez dirudi gotorlekua izan zenik, hormaren zabalerari erreparatu bestela.

[34] Egurrezko hesiz egindakoak salbuespena dira Neolito Aroko (Europako) itxituren artean, are gehiago Galesko *Hindwell*-en dagoena bezain handiak direnak (K.a. 2700).

Zaila da Europa atlantiarreko egitura biribil handiak eraiki ziren aroa zehaztea: garai eta mota ezberdineko elementuak daude aztertu dugun multzoan. Askotan ez dirudi bat-batean eraikiak direnik. Urteetan zehar buruturiko lanak ematen dute. Nolanahi ere dela, hamaseiko taldean Neolito Aro berantiarra-Brontze Aro goiztiarra mugakoak dira nagusi: *Durrington Walls, Marden, Avebury, Mount Pleasant, Ballynahatty*, *Wolstonbury*, *Hindwell*, *Thornborough* eta *Knowlton*. Alboan Neolito Aro goiztiarreko *Robin Hood's ball* eta Neolito Aroko eraikinak dituen *Hill of Tara* daude. Beste buruan *Stowe's Pound* eta *Grimspound* leudeke (bata Burdin Aro aurrekoa eta Brontze Arokoa bestea). Ezin dira alde batera utzi hemen *Hill of Tara*-ko itxitura, *Holkham Camp*, *Navan Fort* eta *Goloring*, gutxi edo gehiago, Burdin Arokoak guztiak.

Argi ibili behar da horrelako sailkapenekin, Brontze Aroko ezaugarri batzuk Neolito Aroan azaltzen direlako, eta alderantziz ere bai[35]. Onartua dago Britainiar Irletan Neolito Aroa, gutxi gorabehera,

---

Inguruan historiaurreko aztarna ugari daude. Itxiturak, *round barrow*-ak, *menhir*-ak eta harrizko zirkuluak aurkitu dira aireko argazkiak erabiliz. 1994ko hegaldian zangaren arku handia aurkitu zuten. Indusketek erakusten dute itxituraren zanga itxita jarritako poste-zulo ilaraz osatua zegoela (2 metroko zabalera eta 2 metroko sakonera). 1995ean beste arku zatia aurkitu zen eta, horri eskerrak, egun perimetroaren % 75a ezagutzen da. Hasieran uste zena baino handiagoa da itxitura (2,35 kilometroko perimetroa du). Hutsik egoten zela pentsatzen zen, barruan zulo mordoa azaldu zen arte. Badirudi hesi biribila batzuetan bikoitza zela. Sarrera ipar-sartealdean zegoen. Barruko tokiak eta gauzak perimetroan daudenen garaikideak direla onartuz gero, hesi horrek *Durrington Walls* eta *Avebury*-rekin luke antza. Izan, egurrezko edota harrizko egiturak lurrezko itxituren garaikideak dira oro har. *Dorchester*-ko *Greyhound Yard*-en (K.a. 2100) egurrezko zirkulu handiaren zatiak aurkitu dira (Dorset, Ingalaterra). 380 metroko diametroa duen azalera hartzen du. Esan moduan, Neolito Aroko egurrezko hesi gutxi aurkitu dira Britainiar Irletan orain arte: *West Kennett*-en (Wessex; bi itxitura daude), *Dunragit*-en (*Stranraer* ondoan, *Dumfries and Galloway*, Eskozia) eta *Blackhouse*-n (*Lanark* ondoan, *South Lanarkshire*, Eskozia). Dena dela, guztiak *Hindwell* baino askoz txikiagoak dira. Ikus *British Archaeology* 14 (1996ko maiatza).

[35] Ingalaterran, landa eremuaren antolaketa K.a. laugarren milurterako hasia zegoen. Hori erakusten dute, behinik behin, *Avebury* inguruan egindako aurkikuntzek (Malone, 1996 [1989]: 14). *Nene* ibaiaren ekialdeko ubidearen inguruan (*Yorkshire North*) banaketa eredu koaxialaren aztarnak daude, hori bai, beranduagokoak (K.a.

K.a. 4000. urtean hasi zela, eta K.a. 2000-1800 aldera amaitu zela. Zebaiten ustez, Cavendish (1993 [1983]: 146) lekuko, Neolito Aroaren hasiera K.a. 4500. urtera aurrera daiteke[36].

Brontze Aroa K.a. 2000-1800. urtean hasi bide zen, batzuek hasiera hori K.a. 2500 urtera luzatzen badute ere. Amaitu, Brontze Aroa K.a. 800-700. urte aldera amaitzen dela onesten da. Neolito Aroaren eta Brontze Aroaren azken gizaldiei *Neolito Berantiarra* eta *Brontze Aro Berantiarra* esaten zaie, eta aurrenekoei *Neolito Aro Goiztiarra* eta *Brontze Aro Goiztiarra*. Burdin Aroa, berriz, K.a. 700-800. urtean hasten da, baina ez dago hain argi noiz amaitzen den. Batzuek erromatarrak iristearekin amaitu zela dioten arren, beste batzuek lehen milurtearen aurreneko gizaldietaraino luzatu zela deritzote.

Labur esateko, badirudi *Causewayed camp* motako egiturak direla zaharrenak, eta ondoren *henge*-ak. Biak Neolito Aro Goiztiarrean azaltzen dira (K.a. 4000-3500). Aurreneko *hillfort*-ak, berriz, Brontze Aro berantiarrekoak dira (K.a. 1000). Nolanahi ere den, garbi dago Europan egitura biribil handiak ez direla atzokoak. Eta Pirinioen eremu sartaldekoan, Euskal Herrian alegia, ez al dago horrelako egiturarik?

1370-1137). Hainbat marka zuzen eta estuk alderdi hura zati laukiluzeetan banatzen dute.

[36] Cf. Malone (1996 [1989]: 14-15) eta Richards (1991 [1996]: 18).

2

Saroiak eta megalitoak: aspaldiko auzoak

Trikuharriak, tumuluak, mairu-baratzak eta iruinarriak

> "Frente a *arri* = piedra, ¿cuándo nace *arro* = hueco, su opuesto que desde el cromlech tiene que adquirir un sentido espiritual, como concepto receptivo, des-ocupado?"
>
> J. Oteiza

1. Atal honetan saroien eta megalitoen arteko auzotasunari begiratuko diogu. Saroiak eta megalitoak lotzen dituen aurreneko ikertzailea Barandiaran (1972: 214) da. Bi lotura ikusten ditu bien artean eta, *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca* liburuan biltzen ditu biak. Aurrenekoa: saroiak eta megalitoak elkarren ondoan daude hemengo mendietan. Bigarrena: saroiek mairu-baratzen tankera dute.

Barandiaranek dio udako saroien eremua eta goiko larreena (portuena) bat datozela, baita trikuharriak dauden eremuarena, eta, neurri handi batean, Burdin Aroko mairu-baratzena ere bai. Aitortzen duenez (1935: 397), askotan saroiak dauden tokietan (edo ondoan) trikuharri multzoak egoteak atentzioa eman dio. Saroien eta mairu-baratzen arteko lotura, ordea, bestelakoa da. Biek tankera bera dute

(biribila) eta *austarriak* mairu-baratzen erdian egon ohi den errauts-kutxa ekartzen dio gogora. Antzekotasun hori dela-eta, zer pentsatua ematen du Leitzarango saroiez mintzatzen zaigun 18. mendearen hasierako pasarte honek[37]:

> "*Y para el mismo fin acordaron que según las lineas que sean corrido de cada moxon del centro de los dichos quince seles, a distancia y tira de cada uno de ellos de quatro estados se ponga cada moxon por index y demostrador como las miras de una escopeta para dirigirse al moxon de la circunferencia, y para dar con el con mas bervedad y seguridad y para que los moxones del centro sean allados y encontrados con mas facilidad*[38]".

Eta menhir edo iruinarriek, ez ote dute zerikusirik saroiekin? Agian bai; hori dio behintzat Ondarrak (1982: 9) Baztanen aurkitako megalitoez idazten duenean[39].

Labur esateko, gaia jorratzen duten ikertzaileek saroien eta megalitoen arteko harremana espazioaren eta denboraren arabera

---

[37] 1701, VEKA8.

[38] Lau *estado* 7,84 metro dira. Pixka bat aurrerago honakoa irakur daiteke: "…*y por la espesura de los parages, peñas, altos, y vaxos no se pudo dar por ahora la buelta redonda del compas, y quando las primeras cortas de los montes protestaron* (…)".

[39] "*Saroiko-Bixker* es la 'loma del sel', lo que nos hace pensar si no se trataría de la piedra central de algún sel ubicado aquí. El mismo informante relacionó espontáneamente esta piedra con la que se halla situada en *Bagordiko-Zelai* y que López Sellés publicó como posible menhir. Actualmente sirven ambos monolitos de mojones divisorios de helechales, pero tales mojones no suelen ser tan grandes. Consta que hubo seles por estos lados, siendo el nombre de uno de ellos *Bagoerdi*, origen del actual *Bagordi*. (...) Una piedra solitaria se alza verticalmente en el paraje. Sus dimensiones son: 1,22 de altura, 1,00 de largura y 0,25 de grosor. A su lado asoma otra de 0,08 de altura, 0,60 de largura y 0,10 de grosor, formando un ángulo muy agudo entre ambas. La dirección u orientación de la piedra es a los 145º. No se aprecian a primera vista elementos que pudieran apuntar a la existencia de un túmulo o galgal, el cual por otra parte no se puede excluir sin alguna cata. Areniscas del terreno."

aztertzen dute. Gauza bera egiten saiatuko gara gu eta, ikusiko den moduan, toponimiak lagunduko digu, bai, eginahal horretan.

2.1. Toponimia saroien eta megalitoen arteko hurbiltasunaren lekuko da. Izen (toponimo) bera duten saroi eta megalito asko daude. Gehiago esango dugu: badira *saroi* osagaia duten megalito-izenak. *Saroiko bizker* da adibide garbia, baina badira gehiago, *Apatesaro* kasu. *Apatesaro* izeneko mairu-baratze multzoa (1130 m) *Errozate-Okabe* megalitotegian dago (Nafarroa Beherea). Lekunberriko *Okabe* mendiaren Ipar-Sartaldeko hegian daude mairu-baratzak eta tumuluak, *Artxilondo* haranetik igotzen den altxonbidetik ez oso urruti, *Apatesaro* (1057 m) izeneko saroiaren gainean, handik 175-200 bat metrora. Bost dira guztira hango megalitoak[40]: hiru tumulu (*Apatesaro IV*, *V* eta *VI*) eta bi mairu-baratze (*Apatesaro I* eta *I bis*). Toponimo gardena dirudi: *Abade* + *saro(i)*. Hortaz, megalitoari izena eman dion saroia noizbait monasterio edo abaderen batena izan zela ematen du.

Apatesaro-ren ondoan *Nekexare* izeneko saroia dago, *Okabe* mendiaren sartaldeko alderdi edo mazelan hura ere. Han izan ginenenean[41] Ahatsako J. P. Bidarterekin eta Arrangoitzeko J. Plattierekin elekatzeko parada izan genuen. Udako larretokiei *saroak* esaten diete eta, euren ustez, *Nekexare* toponimoa *saro* terminoarekin dago lotua[42]. *Nekexaren* lau etxetako artaldeak bazkatzen dira eta azienda hori gobernatzeko artzaina hartzen dute. Saroiaren norainokoa ez dago mugarriztatua. Erreferentzia nagusia

[40] Inguruan *Errozate* (hiru mairu-baratze eta tumulu bat), *Irau* (mairu-baratze bat eta tumulu bat), *Artxilondo* (trukuharri bat) eta *Okabe* (hogei mairu-baratze baino gehiago) daude. *Apatesaro*-tik iparraldera, hiru bat kilometrora, *Saroberri* izeneko mendi ezaguna dago (1.388 m) eta hegoaldean, ostera, *Kontrasario* izeneko saroia, hiru bat kilometrora, *Urkulu* mendiaren hegoaldeko hegian.

[41] Gauzak nola diren, goiz hartan bertan igo zuten artaldea saroira (03/05/16).

[42] Ez dirudi hori horrela denik. Ibarraren (1935: 279) *Historia de Roncesvalles* liburuan hau irakur liteke: "Ciertos caballeros, albaceas del noble Uson Arnalt de Sanz, Señor de Assa, entregan la bustaliza de Nequezaurre, en vez de limosna de quinientos sueldos morlanes que había dejado para el Hospital". 133 dokumentua, 1243 urtea.

paisaia da: hango hegia, hemengo bidea, beheko erreka, goiko basoa. Erdian ez dago mugarririk. Esan zigutenez, *Nekexare* saroi handia da, baina ez zekiten zehatz-mehatz zenbateko azalera duen[43]. Saroiak oihan txikia dauka, baita errekastoa ere. Etxolak gaur egun ur beroa eta argindarra baditu (eguzki-panelak). Donibane Garaziko *Sindikat*-ari urtero hainbateko bat (diru sari bat) ordaintzen diote saroiaz baliatzeagatik.

Gurera etorriz, eta *saroi* osagaia duten megalito-izenekin jarraituz, Aralarren, Lakuntzako udalerrian, *Otsotesare* (*Otsosare*[44]) izeneko trikuharria dago. Aldez aurretik jakina daukagu: Sakanan eta Ergoienen aldaera arrunta *sare* da[45]. Badira *saroi* osagaia duten toponimo gehiago, adibidez, *Arteko saro* trikuharria (Urbasa) edota *Negusaro* izeneko mairu-baratze tumuluduna[46] (Arnegi). *Zaho* megalito-izena ere *saroi* hitzarekin egon liteke lotua[47]. Nafarroa Beherean *saro* aldaera nagusitzen da, baina Zuberoan *zar(h)o* eta *sa(h)o* aldaerak daude bilduak. *Zaho* izeneko beste megalito-gunean (Aldude-Baztan mugan) hiru mairu-baratze eta monolitoa egon dira[48].

Oiartzunen, azkenik, *Kauso I* eta *Kauso II* mairu-baratzak ditugu, Artikutzatik gertu (620 eta 638 metroko altueran). Ez dago idatzizko lekukotasunik, baina badaiteke hemen ere jatorriz *saroi* terminoa

---

[43] Behatzarekin erakutsi eta mapan bertan margotu zigutenez, saroiak 115 bat hektarea dituzke. Ez da biribila, eta, izatekotan, lauki tankerakoa litzateke. Goiko basoaren mugan, halere, biribil tankera duela dirudi.

[44] *NIEM-XII*, 206.

[45] Cf. Aralarko *Tristansare*; *NIEM XII*, 207-208. Halaz ere, antzinako idazkietan *saroe* eta *saroi* nagusitzen dira Ergoienan.

[46] Peñalver (2004).

[47] Baita *Zagua* ere (Kintoko bi mairu-baratze, 1.195 m). Ondarrak *Ernazabalgo-soroa* deitzen die.

[48] *Zahoko* mairu-baratzak hiru dira (990 m), tumuludunak hirurak (Ondarra, 1976a: 38; Blot, 1993: 134-135.). Bestalde, hor dago Zahoko monolitoa (Ondarra, 1976a: 38; Blot, 1993: 135-136). Ondarrak (1976a: 38) *Zahoko* trikuharria aipatzen du, Erratzu-Alduden hori ere.

egotea[49], *sarve* > *soro*[50] herri-etimologia ezaguna delako. *-Soro* > *-so* laburtzea ere arrunta da: *Kauso* (OBIE, 1988) vs. *Kausoro* (Goikoetxea eta Leibar, 1989). *Larraundi*-ko saroia gertu dago, baita *Oianleku* eta *Basate* ere. *Kausoro* saroi-eremuan dago, beraz.

2.2. *Saroi* osagaia duten megalito-izenak ez ezik, izen (toponimo) bera duten megalito eta saroi franko daude. Hauek dira guk ezagutzen ditugunak. Aurrena saroia eta ondoan megalitoa idatzi ditugu.

Trikuharriak: *Albia* (1054-1076; Goñi Gaztanbide, 1997: 40), *Albina* (1074; Goñi Gaztanbide, 1997: 53) / *Albi* (*NTEM-XII*, 192); *Acola de en medio* (1773, VEKA9) / *Akolako lepua* (1982, CAG, 192-193); *Ançiz* (1178, IKA1) / *Altxista* (1982, CAG, 185-186); *Añon* (1863 [1792], Breans) / *Añoenea* (Peña Basurto, 1960: 95); *Autrin-garaicoa* eta *Autrin-verecoa* (1612-1774, NAO4) / *Autrin*, (Ondarra, 1976a: 21); *Azaldeguia* (1324, Aldude, NAO4) / *Azaldegiko lepoa*, (Ondarra, 1976a: 23); *Ibañeta*, *Ibañetaco Urriztia* eta *Ibañetaco Soroandia* (1774 [1584], BHA0) / *Ibañeta* (Ondarra, 1975a: 43); *Iguzquieguiea* (1774 [1584], BHA0), *Iguzquieguia* (1774 [1746], BHA0, 269), *Eguzquieguia* (1774 [1746], BHA0, 282), *Iguzquieguico Urriztia* (1774 [1584], BHA0), *Iguzquieguiaco Urriztia* (1774 [1746], BHA0, 269), *Eguzquieguiaurruztia* (1774 [1746], BHA0, 282) / *Iguzki* (Ondarra, 1975a: 29-30, Blot, 1993: 103); *Mendizuria* (1612-1774, NAO4; Aldude) / *Mendizuri*; *Organbidea* (1774 [1746], BHA0, 273) / *Organbide* (Blot, 1993: 157); *Sorandi* (1774 [1746], BHA0, 221) /

[49] Badaiteke *saroi* osagaia dutenak egotea honako megalito-izenen artean: *Sorogain* (Erroibarko mairu-baratza; 1.060-1.070 m), *Iratisoro* (Lekunberriko [NB], lau mairu-baratze; Barandiaran, 1978 [1952]: 309) eta *Adiko soroa* (Kintoko sei-zazpi mairu-baratze; 1.213 m). Megalitoa dela ziurra balitz, Urbasako (Olazti) *Juakosoro* trikuharria ere (910 m) talde horretan sartuko genuke; Ondarra, 1976b: 360. Bederatzi metroko diametroa du eta borda dago berrogei metrora.

[50] Asko dira lekukotasunak. Aski bekigu hemen aipatzea Usurbilgo *Joanesarve* (1573) > *Juanasoro* (1992), *Calamusarve* (1573) > *Kalamusoro* (1992) edota Aldudeko *Sarogoien* (1313, NAO4) > *Sorogoien* (1501, NAO4) adibideak. Cf. Aralarko *Intzensao*.

Soroaundi (Ondarra, 1975a: 43); *Zacua*[51] (1321, Aldude, NAO4) / *Zagua* (Ondarra, 1976a: 45-47; Baztan).

Tumuluak[52]: *Aransestegui* (1774 [1584], BHA0) / *Ansestegikolepoa* (Ondarra, 1976b: 330); *Arri-urdiñeta* (1780, NAO5[53], 311 au.-311 bin.) / *Arriurdiñeta* (Del Barrio: 1989: 122-123), *Beasquin* eta *Beasquinarbe* (1452, Mutiloa Poza, 1976 I: 329) / *Beaskin* (1982, CAG, 145); *Uzulla Maiore* eta *Uzulla Minore* (1072, Martín Duque, 1983: 97), *Bezulla Maiore* (2) (1115, Martín Duque, 1983: 257), *Bezulla Minore* (1120, Martín Duque, 1983: 266) / *Betzulagaña* (Blot, 1993: 214; Peña Santiago, 1990: 160); *Dindus* (1284, Ostolatza, 1978: 291) / *Lindus* (López Sellés, 1973: 4); *Meaze* (1324, NAO4) / *Mehatze* (Blot, 1993: 137); *Okorin* (1072, Larrasoain, Martín Duque, 1983: 96) / *Okolingo lepoa* (Ondarra, 1975b: 414); *Urdinarizpuru* (1321, Aldude, NAO4) / *Urdanarre* (Blot, 1993: 143-144); *Urrilegui* (1774 [1584], BHA0) / *Urlegi* (López Sellés, 1973: 5; Ondarra, 1975a: 22-23).

Mairu-baratzak: *Adi* (1612-1774, NAO4[54]) / *Adiko soroa* (López Sellés, 1973: 4); *Amunola* (1178, IKA1) / *Amunola* (2002, GKAI; Peñalver, 2004: 238); *Arri-urdiñeta* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Arriurdiñeta* (Del Barrio, 1989: 122-123); *Ateuztiri* (1284, Ostolatza, 1978: 291), *Atrauste-goiticoa* eta *Atrauste-veiticoa* (1612-1774, NAO4) / *Atalosti* (Barandiaran, 1978 [1949]: 198); *Azaldeguia* (1324, Aldude, NAO4) / *Azaldegiko lepoa* (Ondarra, 1976a: 23); *Basata*[55] (1508, Aierbe, 1997: 42) / *Basate* (1982, CAG, 201-202); *Belzunza* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Beltzuntza* (Del Barrio, 1989: 116); *Bidangogañeco-saroia* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Bidangoko gaña* (Del Barrio, 1989: 107-108); *Enubieta-andia* eta *Enubieta-chiquia* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Enobieta txikia* (Del Barrio, 1989: 109-110); *Errenga* (1270, Mutiloa Poza, 1976-I: 39) / *Errenga*

[51] Cf. *Sabucaldea* (1774, NAO4).

[52] Cf. *Eskantolha* (Ott, 1994: [1981]: 67) / *Eskantola* (Blot, 1993: 219).

[53] 1780, NAO5.

[54] 1774, NAO4.

[55] "Garazbizcay, AMO, C/4/2/1, fol LXXI au."

(2002, GKAI; Peñalver, 2004: 48-49); *Esnazabal* (1612-1774, Aldude, NAO4) / *Ernarazabalgo-soroa* (Ondarra, 1976b: 349); *Escas* eta *Escas-berea* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Ekaxpe* (Del Barrio, 1989: 105); *Ibañeta*, *Ibañetaco Urriztia* eta *Ibañetaco Soroandia* (1774 [1584], BHA0) / *Ibañeta* (Ondarra, 1975a: 43); *Ibarlacoaga* (1774 [1584], BHA0) / *Iparla* (Ondarra, 1975a: 19-21); *Iguzquieguiea* (1774 [1584], BHA0), *Iguzquieguia* (1774 [1746], BHA0, 269), *Eguzquieguia* (1774 [1746], BHA0, 282), *Iguzquieguico Urriztia* (1774 [1584], BHA0), *Iguzquieguiaco Urriztia* (1774 [1746], BHA0, 269) / *Eguzquieguiaurruztia* (1774 [1746], BHA0, 282) / *Iuskadi*, *Iuzkai*, (Barandiaran (1978 [1949]: 202); *Yzcue* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Izu* (Del Barrio, 1989: 112-113); *Yzurrizti* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Izurrizti* (Del Barrio, 1989: 113-114); *Jassenegogue* (1284, Ostolatza, 1978:, 291), *Jasarra*…(1297, Ostolatza, 1978: 331), *Jasogune* (1321, NAO4), *Jasagogue* (1313-1507, NAO4), *Jassaragune Arrburua* (1297, Ostolatza, 1978: 333), *Ytsarcun arlepoa* eta *Jatsarcun aldapea* (1612-1774, NAO4) / *Jatsagune* (Blot, 1993: 144-145); *Dindus* (1284, CDSMR 291), *Lindus*[56] (Peñalver, 2004: 96). *Luru* (1774 [1584], BHA0) / *Luruko-Atekak* (Ondarra, 1975a: 24); *Meaze* (1324, NAO4) / *Mehatze* (Blot, 1993: 137); *Muniscue* (1516, HUA7) / *Mulisko gaña* (1982, CAG, 180); *Oyaleco* (1508, Aierbe, 1997: 42) / *Oianleku N eta Oianleku S* (1982, CAG, 202-203); *Unalbidegui* (1780, NAO5, 311 au.-311 bin.) / *Unalbide* (Del Barrio, 1989: 125); *Urdinarizpuru* (1321, Aldude, NAO4) / *Urdanarre hegoa*[57] (Blot, 1993: 143-144); *Urrilegui* (1774 [1584], BHA0) / *Urlegi* (López Sellés, 1973: 5; Ondarra, 1975a: 22-23); *Zacua* (1321, Aldude, NAO4) / *Zagua* (Ondarra, 1976a: 45-47).

Iruinarriak: *Alcurruizberea* eta *Alzuruzco* (1584 [1774], BHA0) / *Alkurruntz*[58] (Ondarra, 1975a: 31-32); *Bagordi* (Ondarra, 1982: 9) / *Bagordi* (López Sellés, 1973: 7); *Ibarlacoaga* (1774 [1584], BHA0) / *Iparla* (Ondarra, 1975a: 19-21).

---

[56] Ikus *Atalosti*.

[57] 4,5 metroko diametroa duen zirukulua ez da mairu-baratza (Eiheralarre).

[58] *Artxubieta* o *Artxuetan* bi menhir daude (Baztan, 770 m). *Alkur* terminoari buruz ohar interesgarria egiten du Ondarrak.



Zerikusia duten aroien eta megalitoen izenen mapa

Izen bera duten aroi eta megalitoak asko badira, izen ezberdina izanagatik, elkarren ondoan dauden aroiak eta megalitoak ez dira gutxiago. Hona hemen, konparazio batera, gertutik ezagutzen ditugun batzuk. Trikuharriak: *Zuloeta* (1178, IKA1) / *Pozontarriko lepoa* (1982, CAG, 185); *Intzensao* / *Arraztaran gaña* (1982, CAG, 134); *Pagamanedi* / *Venta Zarate* (1982, CAG, 175); *Acola* (1467, HUA5) eta *Alcaycuren de yuso* (1467, HUA1) / *Sagastietako Lepoa* (1982, CAG, 191-192). Mairu-baratzak: *Alsuru* (*Zorro-zocun*) (1863 [1792] Breans) / *Errekalko* (Peñalver, 2004: 82); *Bigandiz* (1508-1514, OUA1, 154 bin., 127 bin.) / *Arritxulangaña* (2002, GKAI; Peñalver, 2004: 45); *Emieta* (1508-1514, OUA1) / *Arritxurietako gaña* (2002, GKAI); *Arandauren* (1508-1514, OUA1) / *Elorritako gaña* (2002, GKAI; Peñalver, 2004: 47-48); *Zaminola* (1178, IKA1) / *Unamene* (*San Miguel soro*) (1982, CAG: 188).

2.3. Euskal Herrian zortziehun bat trikuharri egongo dira, eta horietatik hirurehun Nafarroan daude. Halaz ere, Nafarroako erdialdean eta hegoaldean gutxi dira trikuharriak. Eremu hartan Artaxoan baizik ez dira aurkitu orain arte[59]. Artaxoako trikuharririk ezagunenak *Ferrangortea* du izena. Toponimo hori 1554. urtean azaltzen da aurreneko aldiz[60]. Jakina da *korta* hitza zenbait tokitan *saroi*-ren sinonimoa dela eta, horregatik soilik, Artaxoan saroirik egon den ikertzea merezi du. *Garziaren saroia* (1593, 1598, 1822) toponimoak segurantzia gehixeago eskaintzen du. Garai berean (16. mendean) *saroi* eta *korta* mugakizunak dituzten toponimoak egoteak atentzioa ematen du, are gehiago bietan mugatzailea izen propioa denean (*Ferrando*, *Garzia*). *Gorteak* (korraleak) eta saroiak gauza ezberdinak zirela dirudi, garai eta leku hartan bederik.

Artaxoako adibidea ikusirik, megalitoak aurkitu diren toki guztietan saroiak egon direla pentsa liteke, baina, dakigula, hori ez da oraingoz Euskal Herri osoan gertatzen. Salbuespen nagusia Arabako Errioxa da (Villar, Guardia, …), inguru hartan ez baita saroirik aurkitu. Esan dezagun hemen megalitoen eta "udako" saroien eremuak bat datozela, baina "neguko" saroiekin orobat gertatzen den ikusteko dagoela[61].

Aralar gipuzkoarraren sartaldean (Arantsao-Oidui inguruan) saroiak eta megalitoak ondo-ondoan daude[62]. Sortaldean (Arritzaga inguruan), ordea, saroi mordoa dago, baina megalito bakar bat ere ez. Saroi horiek berriagoak direteke gure ustez. Beste adibide esanguratsua Urumeako zilegimendietakoa da. Urumearen alde banatara trikuharriak daude, baina mairu-baratzak sartaldeko aldean

---

[59] Armendariz (1988: 48).

[60] Ikus Jimeno Jurio & Salaberri Zaratiegi (1998). Trikuaharria, jakina, ez da garai horretakoa.

[61] Ildo horretan, diogun Akola inguruan, adibidez, saroi handiak eta arruntak elkarren ondo-ondoan daudela (Hernani).

[62] Bi egiturek osagarriak dirudite behin baino gehiagotan. Saroi bakoitzeko megalitoa dagoela ematen du.

baino ez dira azaltzen. Saroiak bi aldeetan daude, baina sartaldean txikiak baizik ez daude, ez dago saroi nagusirik.

Nolanahi den, megalitoak dauden inguru gehienetan saroien arrastoa dago Euskal Herrian. Megalitoen ondoko egungo etxola eta larretokiak saroietan daude ia beti, beti ez esateagatik. Besterik da saroiak dauden toki guztietan megalitorik badagoen zehaztea, eta badirudi ez dela horrela, saroiak dauden inguru askotan ez delako megalitorik aurkitu, trikuharriak eta mairu-baratzak bereziki[63].

3. Barandiaranekin bat gatoz: saroiek eta mairu-baratzek tankera bera dute. Biak dira biribilak eta bietan erretako zerbait egon liteke erdian, hala errauts nola ikatz[64]. Badira antzekotasun gehiago eta, jakina, hainbat ezberdintasun ere bai, tamaina esate baterako. Mairu-baratzek saroien aldaera txikituak dirudite, sarri askotan trikuharriek etxola txikiak diruditen bezalaxe. Tamanina askoko mairu-baratzak daude, bata bestearen alboan sarritan. Saroiekin antzeko zerbait gertatzen da, saroi txikiak eta handiak egon bailitezke elkarren ondoan. Bi udalerriren arteko mugan dauden mairu-baratzak badira, baita saroiak ere, Untzuegaraikoa (Hernani-Errenteria), Amunolagaraikoa (Hernani-Urnieta), Burgo (Mutriku-Berriatua) edota Zabaleren korta (Elgoibar-Mendaro) lekuko.

Esan dugu lehen elkar ukitzen duten mairu-baratzak daudela. Oianlekun (Oiartzun) edota Okaben ikus daitezke. Elkar ukitzen duten saroiak ere badaude, asko gainera, Hernani (Akola-Alkatxurain), Leitzaran[65] edota Zeanurikoei begiratu bestela.

Mairu-baratzek eta saroiek barruti biribilak mugatzen dituzte, baina ez dituzte esparru horiek erabat ixten. Puntu kardinalak adierazteko harri handiagoak dituzten mairu-baratzak daude,

---

[63] Saroia txikia ala handia izateak ez dauka zerikusirik megalitoa egoteko edo ez.

[64] Ikus 9.1.§

[65] "*De forma que todos los seles así referidos son quince (..), se pusieron en cada uno de los ochavos cada moxon y señal de la santa cruz a todos ellos y testigos junto a ellos, menos a los que llegan y se encuentran con otros* (..)". 1739, VEKA8.

Mugarriluzekoa (Entzia) edota Errekalkokoak (Arano) lekuko. Gauza bera gertatzen da saroi frankotan. Hor dago, bestalde, Jatsaraguneko (Leizarratekako) megalitoa. Ez dirudi mairu-baratza denik eta han saroiak egon direla berritu dugu lehen. Tumulua duten mairu-baratzei legokiekeen saroi-mota aurkitzeke dago oraindik, bestela esan, mairu-baratze horien "pareko" saroirik zergatik ez dagoen ez dakigu[66].

4. Euskal Herriko monolitoen bilduma egiten du Peñalverrek (1983: 439) eta ondorietako bat da ia monolito guztiak artaldeek erabilitako larretokietan daudela, altxonbideetatik hurbil. Monolitoetan indusketa gutxi egin dira eta, egin direnean, emaitzak ez dira oparoak izan. Megalito horiekin zerikusia duten aztarna gutxi daude. Hori dela-eta, ondoan dituzten beste megalitoen antzinakotasuna egotzi zaie sarritan menhirrei[67], baina garbi dago ez dela biderik egokiena.

Saroien erdiko guneekin antzeko zerbait gertatzen da, hein batean. Zenbait erdiko gunetan —monolitoetan bezalaxe— inolako materialik ez da agertu. Erdiko gune horiek monolitoekin duten antzekotasuna nabarmena da, inolako markarik ez dutenena batez ere. Ez da harritzekoa, hortaz, megalitotzat jo diren zenbait harritzar segur aski saroien erdiko guneak izatea, *Saroiko bixker* edota *Bagordi* kasu.

5. Saroi asko megalitoen muga-mugan daude. Pentsa liteke megalitoak aintzat hartu zituztela saroiak eta etxolak finkatu zituztenean[68]. Gehiago ere esango dugu: baliteke megalitoak

---

[66] Batek daki. Badira ondazilegiak diren saroiak, alegia, erabilpen eskubidea herritarrena izanagatik, zuhaitzak aldatu eta mozteko eskubidea jaun batzuena baizik ez zen saroiak. Ikus Karrera (2002).

[67] Ikus Peñalver (1983: 432).

[68] Aitor dezagun hemen saroien eta megalitoen neurrien artean harreman zuzena egon litekeela *Los grupos humanos en la prehistoria de Encia-Urbasa* (262) liburua irakurtzen ari ginela bururatu zitzaigula. Urbasako trikuharrien tumuluen diametroa 15,7 metrokoa da batez beste, eta Entziako trikuharrien tumuluena 13,7 metrokoa.

eraikitzen zituztenean etxola eta saroietatik gutxieneko bat urruntzea. Orain arte, megalitoen ondoan dirauten etxolak garai berekoak direla frogatzen duen azterketarik ez dago. Hori horrela delarik, uste dugu megalitoak eraiki zituztenean inguruan (aldi baterako) bizilekuak bazeudela, beti ez bazen ere. Zer lotura ote zegoen, ordea, bizilekuaren eta hilobiaren artean? Bestela esan, etxearen eta hilobiaren artean Euskal Herrian egon den lotura bera al zegoen mendiko etxolen eta hilobien artean?

Baserri bihurturiko saroiak badira, mordoa gainera. Batzuek saroi izaten jarraitu dute; beste batzuek, berriz, saroi izateari utzi dute. Urnietan, adibidez, urte osoan erabilitako hiru saroi egon dira 20. mende arte, hirurak baserri bihurtuak orduko. Batek, Amunolakoak hain zuzen, elizan bi hilobi zeuzkan[69]. *Amorola nagusi* eta *Amorola maizterra* izenarekin azaltzen dira hilobi-zerrendan. Badakigu, hala berean, 20. menderako Amunola ez zela saroia[70]. Baserri bihurtuagatik saroi izaten jarraitu duten beste biek, Legarraldek eta Zuloetak alegia, ez zeukaten hilobirik elizan, edo ez dira izendatzen. Saroi izateari uztea eta elizan hilobia edukitzea lotuta daudela iradokitzen du datu horrek, baina, noski, ez du esanahi beti horrela izan denik. Baliteke Amunolak saroia izaten segitzen zuen artean ere elizan hilobia edukitzea[71].

"Gorabil bat" pentsatu genuen geure artean. Neurri hori, ordea, halabeharrezkoa da, jakina baita Entzia-Urbasan 6,5 metro nahiz 25 metroko diametroa duten trikuaharrien tumuluak daudela, nahiz eta erabateko batez bestekoa 14,7 metrokoa izan. Guztiarekin, ukaezina da hamar-hamabost metroren bueltan dabilen tumulua duten trikuharri ugari dudela Euskal Herriko mendietan. Aurrerago ikusiko dugu saroiak neurtzeko gorabilaren jatorria sakratua izan daitekeela; saroiak neurtzeko erabilitako neurri sakratuek zenbait megalitoren neurriekin zerikusia izatea ez litzateke harritzekoa, beraz.

[69] 1900. urtea, UEA1 eta UEA2.

[70] Gogora gaitezen, bidenabar, *Amunola* 1178. urtean aipatzen dela estreinakoz eta saroiaren muga-mugan mairu-baratze tumuluduna dagoela.

[71] Amunola saroiaren azken lekukotasun idatziak 1773. urtekoak dira, agian, 1838. urtekoak. Baserriaren aurrenekoak, berriz, 1855. urtekoak dira. Dena dela, 1467 urtean esaten da, orduko, *tierra labradía* zegoela han.

Baina begira diezaiogun astiroago auzi horri. Ikus dezagun saroien eta elizako hilobien arteko harremanaren beste adibide bat. 1488ko idazki batean biltzen denez, Ziortzako monasterioak (abadeak eta kabildoak) *Fortún Martinez de Sarasu*-ri, eta emazteari, Akaiturri izeneko saroia alokatu zien. Agirian garbi uzten da maizterrak (eta ondorengoak) hiltzean monasterioan ehortziak izango zirela[72], beste betebehar eta zerga batzuekin batera. Gauza bera esaten da *Astobiza*-ko (Ziortza) saroiaren alokairua dela-eta 1490. urtean idatziriko testuan[73].

1500. urteko beste idazki batek erakusten du maizterrak ez zituztela beti Ziortzako monasterioan hilobiratzen. *Joan Martínez de Andinogorta* izen bereko etxeko maizterra zen. Hain justu, *Orurdegui*-ko saroia *Andinogorta* baserriko maizterrek erabiltzen zuten. Hori bai, monasterioan ez hilobiatu arren, hileta-zergak hari ordaindu behar zizkioten urtero[74].

Honenbestez, 14. mendean Ziortzako kabildoarentzat saroietako maizterrak monasterioan lurperatzea diru iturria zen. Alde horretatik bederik saroiek eta hilobiek lotura badute. Badirudi, baserri edo urte osoko bizileku izan diren heinean, etxe askok elizako hilobiarekin edukitako lotura estua izan dutela saroiek. Jakina, horrek baserri izan aurretik mendiko hilobiekin harreman bera zutela ez du frogatzen inolaz. Hori bai, saroietan egun dauden bizilekuak zenbait kasutan antzinakoak izan litezkeela onartzen badugu, alegia, saroi horien ondoan dauden megalitoak eraiki zirenean han egon zitezkeen etxolen oinordekoak direla uste badugu, zaila ematen du etxola horiek erabiltzen zituzten artzainek gertuen (ondo-ondoan) zeuden

---

[72] Enríquez & Sarriegi (1986: 167).

[73] Ziortzako monasterioaren maizterra *Juan Pérez de Astobiza* zen: "..ayian de seer e sean sepultados vuestros cuerpos e los de los dichos vuestros herederos que en el dicho sel e casa subçedieren en el dicho monesterio..", *Op. Cit.*, 185.

[74] "...esepto que la relaxaçion tan solamente que el dicho monasterio, abbad e cavildo del fizieron al dicho Joan Martinez e a sus herederos que heredaren la dicha casa y casería de Andinogorta que fuesen libres e esentos de enterrar sus cuerpos donde quisieren..", *Op. Cit.*,219.

hilobiez (megalitoez) ez baliatzea. Besterik da garai hartan etxolak zeuden tokiak saroi ziren ala ez jakitea. Nolanahi ere den, larretokietako etxolen eta ondoko hilobien artean nolabaiteko lotura egon dela ematen du[75], zerikusia bata bestetik gutxieneko bat urruntzea besterik ez bada ere.

6. Aldez aurretik jakina daukagu: ez dago megalitorik saroien barruan, orain arte aurkiturikoaren arabera bederen. Begira diezaiogun bi egituren arteko gertutasuna zertan gauzatzen den, nola gertatzen den tokian bertan.

Oianleku eta *Basateko* mairu-baratzak *Oiartzun* izeneko megalitotegian daude kokatuak, Artikutzatik gertu. Mairu-baratzak *Basate* mendiaren hego aldeko mazela edo alderdiaren gaineko partean daude. Hamar dira guztira *Gipuzkoako Karta Arkeologikoan* bilduriko megalitoak. Hiru gunetan banatzen dira, hegoaldetik iparraldera: *Oianleku Hegoa*, *Oianleku Iparra* eta *Basate*. Mairu-baratze horien berri Aranzadik eman zuen aurreneko aldiz, 1915 urtean. Beranduago, Altunak eta Aresok (1977) *Oianleku Iparreko 1 mairu-baratze bikoitza* induskatu zuten. Lehen esan dugu inguru haietan saroiak egon direla (*Oyaleco* eta *Basata*, 1508; Díez de Salazar, 1997: 42). Ez dakigu saroi horien kokapen zehatza zein den baina paisaiari erreparatzen badiogu pentsa genezake mendiaren gaineko aldean edota sartaldeko isurialdean zeudela. Hain justu, Basate mendiaren gaineko alderdia *Basateko soroa* izenarekin azaltzen da mapetan[76]. *Oianleku H*-tik *Oinaleku I*-ko mairu-baratzetara 350 bat metro daude (1982, CAG, 202-202), 12 gorabileko saroi baten diametroa (328 m) edota 6 gorabileko bi saroirena[77]. Oiartzunen saroiei buruz gauza bat eduki behar dugu gogoan: asko 6 gorabilekoak izan zirela (82 metroko erradioa), baina 12 gorabilekoak ere bazirela (164 metroko erradioa). Basateko mairu-baratzak *Basatesoro*-ko gainaren (zabalgunetxoaren) ertzean

[75] Ikus Jarman & Bailey & Jarman (1982: 246-252).

[76] OBIE (1988); Goikoetxea eta Leibar (1989).

[77] *Oianleku I*-ko *1 mairu-baratza* bikoitza izatearekin zerikusirik ba ote du horrek?

daude[78]. Basatesoroko gainean, lekurik garaienean, mugarria dago. Ez dauka inolako markarik eta udalerriaren muga ez da handik igarotzen. Erdiko gunea balitz, Basateko mairu-baratzak saroiaren muga-mugan leudeke. Baztermugarria balitz aukerak zabaldu egiten dira, baina, seguruenera, horrela ere mairu-baratzak saroiaren barruan egongo lirateke.

Arraztaran eta *Jentillarri*-ko megalitoak Enirio-Aralarren daude. Inguru hartan Barandiaranek bilduriko hainbat kontakizun mitologiko gertatzen dira. *Arraztarangaña* eta *Jentillarri*-ko trikuharriak eta izen bereko (*Jentillari*) monolitoa daude han. Megalitoetatik gertuen dagoen bizilekua *Intzensao* saroia da (< *Intzensaroi*). Saroi horrek erdiko gunea badu oraindik[79]. 230 bat metro daude erdiko gunetik *Arraztarangaña*-ko trikuharriraino. *Jentillarri*-ko trikuharritik izen bereko monolitoraino 190 metro inguru daude eta *Arraztarangaña*-ko trikuharriraino 180 metro (1982, CAG, 135, 137). *Intzensao*-ko etxolak *Arraztarangaña*-ko trikuharriaren gainetik daude.

Sagastietako lepua I eta *Sagastietako lepua II* trikuharriak *Igoin-Akola* megalitotegian daude (Hernanin), Saratsetako lepoa izeneko lekuan, Akola mendiaren sartaldeko mazelan. Bata bestetik oso gertu daude, Akola izeneko saroairen muga-mugan biak. Nabarmenago oraindik: saroiaren muga bi trikuharrien tumuluetaraino iristen dira ia-ia. Akolako saroiak, azpiko aldetik, Alkatxuraingo saroia ukitzen du eta bi saroiek bat egiten dute alderdi hartan.

[78] *Oianleku I*-tik Basatera 100 bat metro daude eta Basateko mairu-baratzetatik *Basatesoroko gainera* 80 inguru. Horrenbestez, 6 gorabileko saroi bat ez da sartzen, oso gutxigatik.

[79] *Intzensao*-tik ez oso urruti *Ondarre*-ko erdiko gunea dago.



Akola-Alkatxuraingo planoa

Ondoan beste hiru saroi daude, bi arrunt eta handi bat (arrunt bati erantsita). Megalito gehiago ere badaude inguruan. Akolako lepoan, adibidez, *Akolako lepua I* eta *Akolako lepua II* trikuharriak daude ehunda hogei metrotan. Akolako lepotik Akolaerdiko saroia ehunda hogeita bost metrora dago, eta Akoliturrieta-Arlotegiko saroietara berrehun metro daude.

Akolako saroia. Gaineko aldean *Sagastietako lepua I* trikuharria ikusten da.

Akola ingurutik hurbil, *Mulisko gaña* izeneko gune megalitiko ezaguna dago, Oindi-Mandoegi megalitotegian hura. Oindi mendiaren Hego-Sortaldeko mazelan kokatzen da. Hiru mairu-baratze, zista eta monolitoa daude han, Hernani-Urnietako mugan. Gertu, hirurogei bat metrora, Muniskueko saroia dago. *Mulisko gañetik* kilometro batera *Pozontarri* izeneko trikuharria dago, peristalito batez inguratua hura. Trikuharria dagoen lekutik (Bisasabetik) Zuloteako saroiaren goiko alderaino laurogei bat metro egongo dira gehienera jota. Mulisko gaineko bizilekua ez da baserri bihurtu, baina, ikusi dugunez, Zuloteakoa (1178) bai. Bi kasuetan saroiak megalitoen azpian daude, Akolan eta toki frankotan bezalaxe.

Hauxe zen, besterik ez aipatzeko, saroien eta megalitoen auzotasunaz esateko genuena. Arkeologiari esker, megalitoen jatorria jakite ziurra eta egiazkoa da, baina ezin esan liteke gauza bera

saroiez. Zuzeneko datu (arkeologiko) urri ditugularik, zeharkako informazioa, idatzia alegia, oso berankorra da. Eragozpen hori behin eta berriro agertuko zaigu hemen darabilgun auzian.



3

Saroiekin zerikusia duten lehen aipamen idatziak Erdi Aro Goiztiarra Nafarroako sartaldean

Pardina-k eta *kubilareak*

"Sólo los monjes de la época conocemos la verdad,
pero a veces decirla significa acabar en la hoguera."

U. Eco

1. Saroien idatzizko lehen lekukotasun idatziez arituko garen hirugarren atal honetan, lehenik eta behin, gauza bat hartu behar dugu gogoan: Erdi Aro Goiztiarrari buruz iritsi zaigun informazio gehiena elizgizonek idatzitakoa dela, hala euren kabuz nola agintarien eskariz. Estilo baldarreko idazleok latinarekin zorretan zeuden, hiztegi teknikoa eta juridikoa hizkuntza hartatik hartzen zutelako. Jakina, zailtasunetariko bat horretan datza, pentsalmolde horren kutsua noraino iristen den jakitean. Bi idazki mota gailentzen dira, kartularioak (jabetza-bildumak) eta elizgizonen arteko gutunak. Elizaren jabetzak hazi ahala poliptiko edo ogasun-zerrendak ugaritu egin ziren.

Idazkion egileek ez digute orduko bizimoduaz hitz egiten inoiz, ezta idazteko zituzten arrazoiez ere. Iturriek orduko biztanleek egindako ekintza ekonomikoen aurrean jartzen gaituzte, baina goiz Erdi Aroko bizitza ekonomikoa nolakoa zen azaltzen duen agiririk ez dago.

Antzaldaturiko idazki batek dioenez, *828. urtean Gartzea Semenoitzek (Iruñeko erregeak) eta Galindok (Aragoiko kondeak) *San Martín de Ciellas* monasterioa eta herria *San Juan de la Peña*-ri eman zizkioten[80]. Handik hogei bat urtera, Gartzea Enekoitzek (Iruñeko erregeak), Gilesindok (Iruñeko gotzainak) eta Fortunek (Leireko abadeak) *Fuenfría*-ko monasterioa sortu eta sagaratu zuten, *Santa Maria* eliza eta guzti[81].

Bi agiriak *San Juan de la Peña* monasterioaren bildumakoak dira, eta horrek, jakina, badu garrantzia. Erdi Aroan agiriak aizuntzen gehien nabarmentzen den monasterioa da *San Juan de la Peña*[82], Leirekin batera. Gaur badakigu, ordea, agiri horiek —gezurrezkoak izanagatik— sinesgarriak izan zitezen idatzi zituztela monjeek, sarritan originalak erabiliz. Neurri batean, beraz, egiantzekoak dira[83]. Guztiarekin ere, esan daiteke latinez izkiriaturiko bi dokumentu horietan daudenak izan litezkeela saroiekin zerikusia duten aipamen zaharrenak. Aurrenekoan (*828. urtekoan) *pardina* deitzen diete saroieikin loturik egon litezkeen egiturei, eta bigarrenean (850. urtekoan), aldiz, *cubile*[84].

9. gizaldian gaude. Euskal Herria gai duten idatziak ez dira asko[85] eta, ez hori bakarrik: ez dira aski orduko bizimoduaren gutxieneko irudia izateko. Gainera, egungo Nafarroaren barrutitik at daude gehienak[86]. Lausopean dagoen sasoia da. Iruñeko erresuma sortu zen garaia ikertzen dutenek zailtasunak izan ohi dituzte. Alabaina, lehen idatziekin gizaldi luzeetako iluntasuna argitzen hasten da.

---

[80] Ubieto Arteta (1962: 21-24) eta (1986: 11-12).

[81] Ubieto Arteta (1962: 25-26) eta (1986: 23). Jatorrizko agiria. Cf. Martín Duque (1983: 13-14).

[82] Goñi Gaztanbide (1979: 125). Ikus, hala berean, Ubieto Arteta (1962: 7).

[83] Cf. Ubieto Arteta (1962: 29) eta (1986: 9).

[84] Lanerako Ubieto Artetak egindako argitalpenak erabili ditugu (1962 eta 1986).

[85] *San Juan de la Peña*-ko bilduman, konparazio batera, hirurogeita lau idazki daude 1076. urte arte. Martín Duque (1983: XI).

[86] Ibidem.

2.1. Europako sortaldean, Erdi Aro Goiztiarraren bi ezaugarri nagusiak biztanleriaren ahulezia eta pobrezia dira. Orduko agintea aula eta eragin nahiz egonkortasun gutxikoa izatea ez da harritzekoa. Hiriak erdi-hutsik zeuden eta ia dirurik ez zebilen. Noski, pobrezia eta demografia ahulezia lotuak daude. Aldi gorri honek luze iraun zuen[87].

Aro Karolinjioan biztanleria hazten hasten da eta janari falta areagotu egiten da. 8. gizalditik aurrera nabarmentzen den biztanle-hazkundeak zenbait giza-talderen indartzea ekarriko du. Taldeok aurreko aginte-egiturei uzkur egiten diete.

2.2. Pirinioen eremu sartaldekoan, bere baitan izandako aldaketengatik harridura sortzen duen gizataldea nabarmentzen da Erdi Aro Goiztiarrean: baskoiak. Baskoien lurraldearen egituraketa 5. gizaldian hasi bide zen, Erromako inperioaren gainbeheraren eta bizimodu hiritarrarren atzerakadarekin batera[88]. Baskoiak, politikari eta lurraldeari dagokionez, 10.-12. gizaldietan egituratu ziren behin betiko. Halaz ere, baskoiek indar gehien izan zuten garaia 6.-7. gizaldia da zenbaiten ustez[89].

Guztiok dakigunez, Erdi Aro Goiztiarreko jauneria lurralde zabalen jabe zen eta toki estrategikoen defentsaz arduratzen zen. Horrexegatik beragatik, Iruñeko erresumaren sorrerak Orreagako mendi-pasabidearen zainketarekin izan lezake zerikusia. Garai hartan pasabideak igarotzea garestia izaten zen. Diru-iturri oparoa ziren[90].

Mintzagai ditugun bi testuak Iruñeko erresuma sortzen eta indartzen den garaikoak dira. Saroien aurrekariak diruditenak aipatzen dituzten testuen aitzindari nagusiak familia berekoak direteke. *828. urteko agirian Gartzea Semenoitz izenez aipatzen den errregeak, idazkiaren data aintzat hartuz gero, Eneko Aristaren aita

[87] Doehaerd (1984: 28-32).

[88] Cf. Lakarra (1957:15).

[89] Goñi Gaztanbide (1979:45).

[90] Karlomagnoren garaian mendiko-igarobideetan ehuneko hamarreko zerga ordaintzen zen. Doehaerd (1984: 254).

izan beharko luke[91]. Eneko Aristaren seme bat da, bestalde, bigarren testuaren (850. urte aldekoaren) aitzindarietako bat (Gartzea Enekoitz). Hitz bitan: Gartzea Semenoitz (edo Eneko Semenoitz) eta Gartzea Enekoitz aiton-ilobak ziratekeen. Bistan da erresuma sortu berriko buruzagiok euren agindupea Aragoi aldera hedatzen saiatu zirela.

3. Ikertzaileek iritzi kontrajarriak dituzte, baina badirudi Iruñeko erresumaren oinarria Enekotarren menpeko lurraldea izan zela, hau da, Irati eta Aragoi ibaien ibilbidean zehar Echoraino dauden lurrak: Zaraitzu, Aezkoa, Urraul, Erronkari, agian, Anso eta Nabaskotzeko Almiradioa ere bai. Itxura batean, hortik Iruñea arte hedatu ziren[92]. Jakite ziurra da, ordea, 9. eta 10. gizaldietan zehar hogeita hamar herrixkatik gora sortu zirela Echo eta Anso haranetan. Izan ere, aldi hartan biztanleria nabarmen hazi zen inguru haietan. Hazkunde horrek luberritzeak ekarri zituen. Eguteran zeuden mendi-mazela hoberenetan luberriak atera zituzten. Soroak eta larreak lortu zituzten horrela[93].

10. mendearen hasieran Aragoiko kondeak (Galindo II.ak) Iruñeko erregeari (Antso Gartzeizi) aurre egin zion[94] eta Iruñearen agintea murriztu egin zen ordutik aurrera: Zangozatik *Gallego* ibaiaren ingururaino iristen zen. Aragoiko konderria *Gallego* ibaiaren ezker aldetik zabaldu zen, eta *San Juan de la Peña* alderdi hartako erlijio-gune nagusi izateraino indartu zen[95].

---

[91] Eneko Semenoitz eta Gartzea Semenoitz pertsonaia bera lirateke, hortaz.

[92] Ikus Orella (1996:88).

[93] Cf. Gerbet (2002: 46-47).

[94] Karlomagnoren inperioaren gainbehera alde zuen.

[95] Antso Gartzeizen leinuaren jatorrizko eskualdeko espiritu-gune nagusia Leire zen. Ik. Goñi Gaztanbide (1979: 119).



Pardina-k eta *kubilareak*

4.1. Iruñeko erresumaren sorreraren ondoren etorritako lasaialdian kristautasuna suspertu egin zen[96]. Monasterioak bata bestearen atzetik sortu ziren. Eliza berrantolatzen hasi zen.

829. urtean Opilano gotzainak Erromantzatuan (Zaraitzu haranaren sarreran) zegoen *San Pedro de Usún* monasterioko eliza sagaratu zuen[97]. Hala berean, *San Martín de Ciella* eta *San Pedro de Siresa* monasterioak sortu zituzten Iruñeko gotzainaren agintepean

[96]Lakarrak (1957: 57) dio Iruñean 6. gizaldiaz geroztik gotzaindegia bazegoela. Bere iritziz hasieran erromanizazioa eta kristautasuna eskutik joan ziren, baina aurrerantzean ez.

[97] Goñi Gaztanbide (1979: 63).

zeuden Aragoiko lurretan. Aurrenekoa Anso haranaren sarreran zegoen, *Binié*s-ko arroilatik gertu[98]. Bigarrena, berriz, Echo haranaren barruan. *Ciella*-ko monasterioaren fundazioaren egiazko data ez da ezagutzen, baina 833. urtearen ondoren ezarri behar da. San Eulogiok Pirinio aldeko monasterioak bisitatu zituenean (848. urtea) Atilio zen artean *San Martín de Ciella*-ko abadea[99]. Esan dezagun, hitzak hizpidea ekarrita, 851. urtean San Eulogiok gutuna idatzi ziola Gilesindori. Gutun horren arabera, 9. mendearen erdialdean hainbat monasterio zeuden Pirinio aldean. Kordobako santuak bisitatu zituenak ez ziren Prinioetako haranetan sortu ziren monasterio bakarrak. Hor dugu, esaterako, *Fuenfría*-ko zenobioa, Erronkaribarren sarreran.

Ezin esan liteke eraikin haiek erabateko kulturguneak zirela, ez behintzat Karlomagnok monasterioak nahi zituen moduan. Goñi Gaztanbidek (1979:119) dio haran-sarreretan zeuden monasteriook gotorlekuak zirela. Ez dirudi, nolanahi ere, monasterio haietan elizgizon asko egoten zirenik; monje bat baino ez zen egoten maiz aski[100].

890. urte aldera, Semeno gotzainak (Gilesindoren ondorengoak) *Biozal*, *Elesa*, *Obelda* eta *Lorbés* herrietako zergak, direlako "gotzainaren laurdenak", *Fuenfría*-ko monasterioari eman zizkion[101]. 921. urtean Antso Gartzeizek *Santa María de Fuenfría* monasterio nafarraren dermioak berretsi zituen. Azkenik, 1071. urtean *San Martín de Ciellas* monasterioa *San Juan de la Peña*-ren agindupean sartu zen[102].

---

[98] Cf. Orella (1996: 186). Ez dago *Ciella*-ko *San Martín*-go monasterioaren aztarnarik.

[99] Goñi Gaztanbide (1979: 64). Izen osoa *Atilio Huértalo* zen, monasteriotik gertu zegoen herritik hartua. Broto Aparicio (1991: 27-28).

[100] Lakarra (1957: 68.).

[101] Goñi Gaztanbide (1979: 79). Aragoin Aznar Galindo kondeak agintzen zuen garai hartan (864-893).

[102] Broto Aparicio (1991: 27-28).

Aspaldidanik esana dago Nafarroako ekialdean (eta Aragoin bertan) kristautasunaren loraldia gertatu zela lehenengo milurtearen azken gizaldietan. Agerian ipini nahi genuke hemen inguru hartan aurkitzen direla monasterio zaharrenak (Cillas, Siresa, …), baita aztergai ditugun bi testuetan ageri diren dermio-izenak ere.

4.2. Goiz Erdi Aroko hiri askok bere gotzainari esker irauten zuten zenbait garaitan[103]. Estatu erromatarra (Inperioa) desagertu zenean gotzainak arduratzen ziren askotan janaria banatzeaz gosetea zegoenean.

Gotzainak Elizaren domeinuen emankortasunaz arduratzen ziren pertsonak ziren. Elizarenak ziren lur eta eraikinak administratzen zituzten gotzainek hiritik. Elizaren ondasunek ez zuten kalte handirik izan Erdi Aro Goiztiarrean. Alderantziz, fedea hedatzearekin batera irabazten joan ziren. Elizari jabetzetatik etortzen zitzaizkion errenta seguruenak. Iraupen giro hartan, Elizak giltzarri bihurtzeko aurkera izan zuen eta, hala, biztanleariaren hazkundea eta Elizaren indartzea lotuta daude. Esan beharrik ez dago Elizaren ekimenek jendea erakartzen zutela ondora[104].

5.1.1. *Ciellas*-ko monasterioaren fundazioaren berri ematen duen *San Juan de la Peña*-ko agiriak 828. urteko data du, baina, beste nonbait esan dugunez, datu hori aizuna da[105]. Azala utzirik gatozen mamira. Ekin diezaiegun idazkian azaltzen diren tokiei eta haien tasunei. Hogeita hamasei dira guztira izendaturiko lekuak, monasteriotxoaz gainera. Agirian toponimoen bidez zehazturiko eremua kokatzea ez da erraza. Hori horrela delarik ere, zenbait alderditan zer tokitan gabiltzan antzematea ez da ezinezkoa[106].

---

[103] Doehaerd (1984: 6, 54).

[104] Op.cit., 38.

[105] *San Martín de Ciella* bete-betean ari zen bere lana egiten 848. urtean; lehenagokoa da. Goñi Gaztanbide (1979:64).

[106] Cf. Ubieto Arteta (1962:12).

Lehenik eta behin, hor ditugu *Ciella* herria eta bere barrutia, *Bubalo* mendia barne. Hori da, hain zuzen, egungo mapetan erraz aurki daitekeen toponimoetako bat, *Forcala* mendia eta (*Punta*) *Cabañas*-ekin batera. Zoritxarrez, ez dira askoz gehiago horrelakoak. *Ciella* herriaren barrutia, eta monasterioarena, *Ordin* ibaian (Berariko *San Bartolomé* azpian) hasi eta Berari ibaian amaitzen zen. Bien bitartean beste hamasei toki aipatzen dira aztergai dugun testuan.

Toki horiek izen espezifikoa baino ez dute gehienetan[107] (*Bubalo*), baina badira izen espezifikoaz eta izen generikoaz osaturikoak ere (*villa de Ciella*). Testua ulertze aldera, izen horiek benetan adierazgarriak dira. Erabilitako izen generiko gehienak orografiarekin dute zerikusia, *montem*, *podium* eta *pennazo* kasu, baina badaude giza-ekimenarekin lotutako generikoak dituzten toponimo batzuk ere: *corrale de Navarro*, *ballato Loriedo*, *casa Corven* eta *pardina de Castellon*. Hitz batean esateko, korraleak, itxiturak eta bizilekuak zeuden, besteak beste, monasterioari emandako barrutiaren barruan.

Hurrengo toponimo sortak monasterioaren eremua zehazten jarraitzen du. Alderdi hartan *Lacuniella*, *Sarrensa*, *Buxite* eta *Aranna* izeneko *pardina*-k aipatzen dira testuan, gizakiaren ekimenarekin zerikusia duten lau toponimo. Ez daude gehiago.

Pardina-k zer ziren azaltzen saiatu aurretik, ikus dezagun nola aipatzen diren goiko izen horiek beste dokumentu batean. Agiri horrek aizuna behar du izan erremediorik gabe, Ubietok (1986:13) ederki asko dioen bezala. 964. urteko data du[108]. Agiriak esaten du Gartzea Enekoitzek (Semenoitzek?) eta *Galindo*-k *Ciella*-ko *San Martín* monasterioa *San Juan de la Peña*-ri eman ziotela. *828. urteko data duen agiriaren sasi-kopia dateke. Aurrenekoan baino toki

[107] Badira izen generikoa baino ez duten toki batzuk: *gleras*, *giniperum* / *ginipero*, *cerro*, …

[108] Sasi-originala 13. gizaldikoa dateke. Bada *Ciellas* gai duen hirugaren idazkia, 950-925. urtekoa hau; Ubieto Arteta (1962:45, 46, 47). Egiazkotzat jotzen da. *Forcos*, *Fontelata*, *Arba*, *Cosculgare*, *Pedra ficta* eta *Forcala* toponimoak ahotan hartzen ditu.

gehiago erabiltzen dira, eta errepikatzen direnak ez dira askotan alde eta aldi oro berdin aipatzen, aurrerago eta bestela baizik (*corrale de los navarros* vs. *corrale de Navarro*). Berrogeita hamar bat dira guztira agertzen diren lekuak[109].

Pardina berak izendatzen dira (*Lacuniella*, *Sarrensa*, *Buxite* eta *Aranna),* baina *964. urtekoan adierazpen interesgarriak egiten dira. Aberatsenak *Berale* (Berari) izeneko herria eta *Aranna* pardina direla-eta egiten dira. Agidanean, Berari herria *pardina* izan zen garai batean, eta bi zehaztapen interesgarri egiten dira segidan. *Aranna* izeneko *pardina* ez zen nolanahikoa, ezta zernahitarako ere. Abeltzaintza gunea zen, *cubile* izena du-eta ondoan (aposizioan). Bestalde *Galindo Aznar*-ek han herria eta eliza egin zituenean jabea zuen pardinak: *Martino* izeneko jauna.

*964. urteko data duen izkribuan —*828koan ez bezala—*Aranna pardina*-ren norainoka jakitera ematen da. Izenak adierazi moduan, haranean zegoen, Berari ibaia eta *Ordin* errekatik gertu. Nafarren edo nafarraren[110] korralea (*corrale de los navarros*) eta *Lorielo* itxitura *Aranna* pardinaren barruan zeuden.

Esan dugu lehen ere, darabiltzagunetatik, ez direla asko egungo kartografian aurki daitezkeen toponimoak. *Berdún* eta *Biniés* artean, Berari ibaiaren haranean irekitzen den aurreneko arroilak *Regordín* du izena (< *erregu* [gazt. 'riego'] + *Ordin?*). Hor dugu, hala berean, *San Salbador* izeneko parajea ere, *Biniés*-ko arroiletik gertu. Ubietok azaltzen duenez, idazkian irakur daitekeen *Sanctum Salvatorem* izena 14. edo 15. gizaldian erantsitakoa dateke. Azkenik, *Punta Cabañas*-tik hegoaldera, *Berdún* eta *Fago*-ko barrutien mugan dagoen gailurrak (969 m) *Punta pardina* du izena, baina, itxura batean, *Aranna* pardina askoz beherago hasten zen, Berari ibaiaren parean hain justu.

---

[109] *Estiva que vocatur Tortella* irakur daiteke testuan, beste toki batean.

[110] Ikus 3.5.1.2. §

5.1.2. Lakarraren (1957:15) aburuz, Errekonkista garaian bi alderdi bereiz litezke Nafarroako mendialdean (edo erdiko aldean): bata erromanizatua, kristautua eta aberatsa, Leire eta Zangoza aldean, Aragoirekin eta izen bereko ibaiaren ibilbidearekin mugan, eta bestea, euskalduna, paganoa eta pobreagoa, Iruñea eta Iparsartaldean.

Jimeno Jurío-ren (1997:42) iritziz, euskarak Aragoin 10. gizaldiaren hasiera arte iraun zuen. *Cillas*-ko monasterioaren barrutian *corral de navarro / corral de los navarros* toponimoa dugu. *Navarro* izenak bi esanahi ditu, osagarriak biak. Dirudienez, frankoak izan ziren *navarro* apelatiboa erabiltzen hasi ziren aurrenekoak, burujabe ziren baskoiak menderaturikoez bereiztearren. Jimeno Juriok (1997:47-49) eta beste askok uste dute Iruñeko erresumaren menpe zeuden euskaldunei esaten zitzaiela *nabarro*-ak eta, azken finean, *navarro*-k 'euskalduna' esan nahi zuela[111].

5.1.3. Baina zer ziren *pardina* direlakoak? Bi testuetan ikusirikoaren arabera, *pardina*-k ez ziren korraleak, ezta itxiturak ere. *Pardina*-k handiagoak ziren. Korraleak edota itxiturak izan zitzaketen barruan. Gainera, garbi dago zenbait *pardina* abeltzaintzarekin lotuak zeudela (*pardina cubile*).

Pardina terminoa gehiagotan irakurtzen da *San Juan de la Peña*-ko kartularioan[112]. Espainolaren Errege Akademiaren hiztegiak dio Aragoin erabilitako *pardina* latineko **parietina* pluralaren oinordea dela (< *paries, -tis*). Bi adiera ditu egungo egunean: 'mendiko larretokia, ardientzat korraleak egoten direna' eta 'hondatutako

[111] Cf. Urzainki & Olaizaola (1998:35-37).

[112] Esate baterako, 948. urtean, *Javierre* gainean (*Javierregai*?) zegoen *pardina* erregek eta *San Juan de la Peña*-k erdi bana ustiatzen zuten, ur eta larre. Ubieto Arteta (1962:55). Badira beste bi aipamen, jatorri iluneko idazkietan biak: *981. eta *992. urteko data dute, baina aizuntzat jotzen dira. *981. urtea: "Villa quae dicitur Badaguasse, cum illa pardina que vocatur Larrasun, quam comparavit ille domno Sancius qui fuit maior de Atares"; Ubieto Arteta (1962:63-65); *992. urtea: "Pardina que bocatur in Oteizo, senior Arapu, senor Ollaz de Elizina usque…"; Ubieto Arteta (1962:81-82).

hormak'. Bigarren hori da latinez zuen adieraren antzekoena, 'hondakina' alegia. Agian horregatik egiten dio *cubile* zehaztapena *pardina*-ri eskribauak *964ko dokumentuan, hots, "larretokia" esan nahi zuela azpimarratzeko[113].

Gran Enciclopedia Aragonesa-k (1980) esaten du Aragoin hutsik dauden antzinako herriei deitzen zaiela *pardina*[114]. Huesca, Zaragoza eta Teruelen ageri den terminoa da. *Yebra de Basa* izeneko herrian (Huescan), adibidez, *Nuestra Señora de Ballarán* izeneko ermita dago, izen bereko *pardina*-n. 1036. urtean dokumentatzen da lehen aldiz. *Orés*-en (Zaragoza) *Virgen de la Pardina* izeneko ermita dago.

Broto Aparicio-k (2000) biltzen du Abarkarrek zenbait pardina zituztela *Gavín* inguruan (*La Baronía y Honor de Gavín; Biescas* ondoan). Abarkarrak jaun eta jabe ziren euren pardinetan. Eskumen osoa zuten (bai zibila, bai kriminala). Gorteak salbuespenezko egoera hori ez zuen begi onez ikusten.

Pardina egungo Nafarroaren mugen barruan ere erabiltzen da[115]. Ustaizen (Nabaskozeko Almiradioan), esaterako, *Las pardinas* izeneko tokia dago. Iribarrenek dio 'mendiko larretokia, ardientzat korraleak egoten direna' adiera duela han[116].

5.2.1. Gatozen *Fuenfría*-ko monasterioari buruzko aztarna idatziak aztertzera[117]. Monasterioaren fundazioaren berri ematen duen *San Juan de la Peña*-ko agiriak ez du data zehatzik, baina 850. urte inguruan sortu zutela diote bai Ubieto Artetak eta bai Martín Duque-k. Data hori jartzeko San Eulogiok Gilesindo gotzainari bidalitako gutuna hartzen dute kontuan. Monasterioaren kokapen zehatza ez daki

---

[113] Cf. García de Cortazar (1982: 95).

[114] Haien barrutia ondoko herriek bereganatu zuten.

[115] Urumea ondoan, *Oroztegui* pardina hartzen da ahotan 1101. urtean Leireko agiri batean.

[116] *NTM-XXIX*, 85.

[117] Ikus Ubieto Arteta (1962:25-26) eta Goñi Gaztanbide (1979:76, 93).

inork. Itxura denez, Erronkaribarren sarreran zegoen, *Salvatierra de Esca* herritik iparaldera joanda, *Esca* ibaiaren sartaldeko ibarrean[118].

Fontefrida (*edo Fuenfría*) izeneko monasterioaz gainera, beste hamar toki berritzen dira *San Juan de la Peña*-ko testuan. Gehienak oronimoak eta hidronimoak dira (mendiak, ibiak, makurrak). Giza-ekimenarekin lotura zuzena duten bi toponimo daude: *castellum Bentauni*[119] eta *cubile Baraosse*.

Egungo mapetan segurantzia apur batekin koka daitekeen bakarra *Garonna* toponimoa da, Nafarroako *Gazteluberri-Salvatierra de Esca* mugan. *Castellum Bentauni* toponimoak *Castillo Nuevo*-kin duke zerikusia[120]. *Sase* toponimoa *Plana de Sasi* izan liteke (*Salvatierra de Esca-Erronkari* mugan), baina hori ez da jakite ziurra, zerikusia izan lezakeen beste toponimoa dagoelako handik gertu (*El Saso*). Izan ere, *saso* izen arrunta da inguru haietan[121]. *Baraosse*-ko *cubile*-a zehatz-mehatz non zegoen ere ezin daiteke jakin, baina *Castellum Bentauni*-ren alboan zegoela ematen du.

Fuenfría-ko monasterioa mintzagai duen beste agiri zaharra dago. 921. urteko data du eta —aurrekoa bezala— egiazkoa da[122]. 850. urte aldera idatziriko agirian ikusi ditugun bost toponimo datoz dokumentu horretan monasterioaz gainera, aldaketaren batekin: *Cateracta* (*Tatarecta*) eta *Ugili* (*Ugile*). Beste lau toponimoak berriak dira. Ez da *Baraosse* izeneko *cubile*-a aipatzen, ezta *Miano*, *Garonna*, *Acoteia* eta *Somorba* toponimoak ere. Ez dakigu zergatik.

5.2.2. Zer da *cubile* bat? Latinez 'ohea', 'gordelekua' adiera zuen *cubile*, *-is* hitzak. Pirinioen erdialdean eta sortaldean *cubilar*

---

[118] Cf. Orella (1996:186).

[119] *Venta Unicastello* formaz ere azaltzen da.

[120] Badaiteke egungo *Alto del Borreguil* izenak testuan azaltzen den *Ugile*-rekin izatea zerikusia.

[121] Euskaraz *zazu* esan izan da hori.

[122] Ubieto Arteta (1962: 42) eta Goñi Gaztanbide (1979: 93).

oinordekoa eman du *cubile*-k, 'abereak gordetzeko babeslekua' esan nahi duena[123].

Leireko monasterioko dokumentazio bilduman 11. eta 12. mendeetan sarritan azaltzen den terminoa da *cubilar*. Gipuzkoako iparraldean nahiz Ori ondoan zeuden saroiak izendatzeko erabili ohi zuten Leireko eskribauek. Ez genuke ahaztu behar Leireko *Fortun* abadea *Fuenfría*-ko monasterioaren sortzaileetariko bat zela.

Iribarrenek dioenez, Nafarroan *cubilar* hitzak 'ganadua gordetzeko korralea' esan nahi du. Aragoieraz, ostera, 'majada' adiera du bere ustez[124]. Nahiz eta Iribarrenek erabilpen-eremua Erriberara mugatu, Erronkarin ere erabili izan da (*kubilarea*), Erdi Arotik. Izatekotan generiko Nafar-Aragoiarra litzateke[125].

Nabaskozeko Almiradioan eta Erromantzatuan ere agertzen da *cubilar*. Nabaskozeko Almiradioan *Cubilar Alto* (Nabaskoze; *NTM-XXIX*, 56), *Cubilar del Cuerno* (Ustaize; *NTM-XXIX*, 80) eta *Cubilar del Zapatero* (Aizpurgi; *NTM-XXIX*, 34) ditugu. Erromantzatuan, ostera, *Cubilar de los Borregos* (Biotzari; *NTM-XXIX*, 147), *Cubilar de Pascual* (Biotzari; *NTM-XXIX*, 147), *Cubilar del Molinero* (Biotzari; *NTM-XXIX*, 147) eta *El Cubilar* (Domeñu; *NTM-XXIX*, 167 eta Murillo-Berroia; *NTM-XXIX*, 183) daude, beste lekukorik ez aipatzeko.

Anso aldean (*Ciella* monasteriotik gertu) *cubilar* ugari ikusten da toponimian, eta Guarrinza aldean ere bai[126]. *Sos del Rey Catolico*-n 'aprisco móvil de troncos; campo abrigado que solía emplearse para el redileo del ganado' adiera bide du[127].

---

[123] Espainolaren Errege Akademiaren hiztegia. Argitalpen elektronikoa.
[124] *NTM-XXIX*, 210.
[125] Cf. *NTM-XV*, 110.
[126] *El Cubilar de las Vacas* izena lekuko. Broto Aparicio (1991: 55).
[127] Gil Ereza (1999).

Garbi ageri da abelzaintzarekin bete-betean dutela harremana *cubile* eta bere oinordeko *cubilar*-ek. Bigarren termino hori *pardina* baino erabiliagoa da Nafarroan[128].

6.1. Erdi Aro Goiztiarreko gizaki gehienen oinarrizko xedea bizirautea zen. Biztanle askok basotik lortzen zuten oinarrizkoa: berotzeko eta eraikuntzarako egurra, fruituak, eztia eta zerriak gizentzeko ezkurra. Ehiza ere hor zegoen, baina jauntxoen eskubide bihurtu zen. Abere arruntak astoak, mandoak, zerriak, ardiak eta ahuntzak ziren. Behiak, idiak edota zaldiak izateak "aberastasuna" adierazten zuen. Zaldi eta behi jendeek gero eta garrantzia handiagoa hartu zuten. Gurdi eta goldeetatik tiraka aritzeko balio zuten bakarrak ziren[129].

Erdi Aro Goiztiarraren hasieratik basoak eta ehizalekuak eraldatzeko nahia areagotu egin zen Europako sartaldean. Luberrien bultzatzaileen artean elizgizonek aparteko tokia dute. 8. gizalditik aurrera basoaren eraldatzea asko suspertu zen. Zenbait tokitan orokorra ere izan zela esan liteke. Indartze horrek, neurri batean, biztanleria-hazkundearekin du zerikusia. Esan dugunez, Aro karolinjioan biztanleriak aurrea egin zuen mendialdean, basoaren kalterako.

Jabetza-eremua hazten zihoan ahala langile trebatuak hartzea beste erremediorik ez zuten jabe handiek, elizgizon izan ala ez izan. Monasterioek langile trebatuak zituztela erakusten digute Aro Karolinjioko idazkiek[130]. Frantzian, konparazio batera, monasterioen elien lehenengo berriak 6. gizaldikoak dira[131].

---

[128] Ikusi dugu lehen *San Juan de la Peña*-ko eskribauek, *Aranna* izeneko *pardina* aipatzerakoan, *cubile* terminoa *pardina*-ren osagarri moduan zerabiltela 964. urtean, *Lacuniella*, *Sarrensa* eta *Buxite* pardinez ari direnean egiten ez dutena, ezta *Aranna*-ren beste agerraldietan ere.

[129] Doehaerd (1984: 24-36).

[130] Op. cit., 126-127.

[131] Op. cit., 38-43.

Antza denez, erromatar inperioaren egiturak ahuldu ahala jauneriaren agintea indartu egin zen. Horrek jabeen artean talde berria bultzatu zuen: gerlariak. Lurralde zabalak menpean izatea leinu indartsuenen egiteko nagusi bihurtu zen. Hori horrela delarik, lurrei benetako balioa ustiatzeko behar ziren giza-baliabideek ematen zieten. Orduko agintea hondarraren hondarreraino ulertzeko gakoa horretan datza, lurren jabetzari nola eusten zaion jakitean.

6.2. Antolamendu-eredu jakin bat giza-talde batek zenbateraino berea egiten duen jakitea garrantzitsua bada, egitura horrek partaideen artean sortzen dituen harremanak ezagutzea ez da hutsala. Ez dago hemen egiari uko egiterik: zerbait epe jakin bateko idazkietan sarri erabiltzeagatik, dena delako hori aipamenen garai berekoa dela ustea erru handia suerta liteke.

Ez dugu behar baino gehiago esan uste 850. urte aldeko *cubile Baraosse* aipamena saroiekin lotura duen lehen aztarna idatzietakoa dela esatearekin. Ez litzateke harritzeko, gainera, *Ciella* inguruko lurraldean ere 9. mendean gisa horretako egiturak egotea. Ekonomia eta gizarte-alorrean Erdi Aro Goiztiarrean inguru haietan jazotako gertaera nagusiek ez dute saroiak bezalako egiturak egotea oztopatzen, alderantziz baizik. Nolanahi ere den, eta honetara heldu nahi genuen, oso litekeena da hala *cubile* nola *pardina* eliekin lotuak egotea.

4

Eliak, garai bateko behi-azienda handiak
Besteren kontura gobernaturiko abere-taldeak

Unaiak, unamaizterrak, buruzagiak eta *eli-jaunak*

> "Ez gara gauza, egungo xaldi xuri politaren aurreko zezen gorri zakar hura sumatzeko ere."
>
> P. Perurena

1. Saroiez baliatzen ziren abere-taldeen gobernuaz mintzatuko gara laugarren atal honetan. Fruituei bagagozkie, eliak ez dira asko ikertu orain arte, edota, ikertu badira, ez da lan horien emaitzarik argitara eman. Aurreiritzi hedatu samarra da –jarduera hori hasi zenetik—hemen abeltzaintza ardiena baizik ez dela izan. Jakina, eliak aspaldi samar desagertu ziren gure mendietatik, artaldeak ez bezala[132].

Aitortu beharrean aurkitzen gara gure aldetik eliak ez ditugula behar adinako sakontasunez ikertu oraindik. Gehiago ere esango dugu: orain dela gutxi arte, bazirenik ere ez genekien. Eliekiko jakinmina abere-taldeok zeuzkaten izenek piztu ziguten (*Ansomezelia*,

[132] Ikus, esaterako, Elortza & Madariaga & Zumalde (1996: 89-80).

Animeria / *Animelia*, *Mozelia, Fraideelia*...). Izen generikoa bera ere, *eli* alegia, deigarri iruditzen ziztzaigun, eta zaigu[133].

Ezin uka asko dela oraindik elien inguruan argitzeko dagoena. Saroiekin izandako loturaz hautatu zaigu begia guri, baina, ikusiko dugunez, badira beste alderdi interesgarri franko (ibilbideak, antolaketa, ...), Euskal Herriko abeltzaintzaren korapilo luze bihurria askatzeko lagungarri izan litezkeenak.

2. *Relación de la costumbre y gobierno de los bustos del Hospital de Roncesvalles* delako izkribuan[134] Orreagako Ospitaleak *Ansomozelia*, *Fermeleria*, *Cilvetielia* eta *Mezelia* izeneko lau eli zeuzkala adierazten da (1617. urtea). *Busto* edo *manada* horiek aberez osatuak zeuden (behi-aziendak ziren). Eli bakoitzak bere unamaizterra (*mayoral*), unaiak (*baqueros*) eta buruzagiak (*ganaderos*) zituen. Azken bi langile-mota horiek unamaizterraren aginduetara lan egiten zuten. Eliek saroi edo "su" jakinak izaten zituzten, eta saroi bakoitzean zenbait zati (edo *zorte*) egoten ziren[135].

Zilbetielian eta Mezelian (Mozelian) abeltzaintza-jarduera urte osokoa izaten zen. Bere barrunbean eliak handik atera gabe egoten ziren. Alduden zeuden biak. Zilbetieliak 83 saroi zituen eta Mozeliak, berriz, 94. Antsomezeliak (104 saroi) negua Garazibizkain egiten zuen[136], eta Fermeleriak (143 saroi) Luzaiden, edota Alduden. Halaz guztiz ere, izkribuan Antsomezelia eta Fermeleria, orduko, Anizlarrean (Orreagatik 100 kilometrora) bazkatzen zirela jasotzen da, aurkintza haiek toki hobeak zirelako edo. Dirudienez, 1698. urte arte iraun zuen elien lurralde-antolamendu horrek[137].

---

[133] Cf., konparazio batrea, *Elgorria*.

[134] NAO3. *Juan de Huarte*-ren (prioreorde izan zenaren) *Historia de las cosas memorables en el sucedidas*... idazkia aitortzen da iturritzat. Bada beste agiri interesgarria, 1600. urtekoa hura (NAO2).

[135] "*En cada busto hay majadas o fuegos*...", NAO3.

[136] Cf. NAO6.

[137] NAO6.

1617ko idazkian behin eta berriz azpimarratzen da lau eliek saroiak zituztela zegokien esparruaren barruan[138]. Saroiok zuhaitzez inguraturiko larretokiak zirela argitzen da. Behi eta zekorrak gordetzen ziren han. Abereek saroietan lo egiten zuten eta unaiek bertan jezten zituzten. Etxolak hantxe egiten zituzten[139]. Saroiek estimazio handia izaten zuten eta ez da harritzeko, beraz, oso garesti saltzea.

Nafarroako Artxibo Orokorreko beste agiri batean jakitera ematen denez[140] Orreagako Errege Etxeak, azkenerako, ehunka saroi bereganatzea lortu zuen eliak mantentzeko[141]. Bada zerbait[142]. Eliak, behi eta idi talde handiak zirela berresten da. Zortziehun burura irits zitezkeela ere zehazten da[143]. Gorago esan dugunez, eliak izenagatik bereizten ziren.

Ematen duenez, Orreagak eliak izan aurretik, Erro eta Baigorriko Haranek euren behialdeak zituzten. Gehiago da, azienda horien gobernu eta mentenua merkeagoa gerta zekien aitortu baitzioten Haranek eliak osatu eta larretzeko eskubide berezia Orreagako Errege Etxeari. Bere barrutian eta Baigorrin zeuzkan larre eta uretan ibili behar zituen eli horiek Errege Etxeak, Kabildoak jarri eta ordainduriko unai eta unamaizterren makilapean. Hitz batean

---

138 "*... bustalizas llamadas en estos tiempos seles...*", NAO3.

139 "*... seles que son unos prados cercados de árboles en los cuales se suelen acubilar las bacas, vecerros, y novillas...*", NAO3.

140 1800. urtea, NAO6.

141 "*El sel es un terreno redondo, que desde su centro tiene ciento sesenta y ocho toesas de radio por toda su circunferencia. Su situación en lo más frondoso y ameno, y su privilegio, el de que ninguno pueda introducir ganado en la pastura de las yerbas sin espresa licencia de su dueño, y si lo hace incurre en la pena de prendamiento*". NAO6.

142 Durangoko Foruak, esaterako, hogeita lau behigatik hiru saroi aitortzen zituen 14. gizaldian: handi bat eta bi txiki. Gogeaskoetxea (1996: 105). Milaka buru gobernatzeko adina larretoki zeuzkan, horrenbestez, Orreagak.

143 Cf. Caro Baroja (1971 [1949]: 160).

esateko, Haranek emandako eskubideaz baliatuz zeuzkan Orreagak lau eliak [144].

Orreagako elien arrastoa 12. menderaino jarrai daiteke: Orreagak 1176. urtean unamaizterra bazuen. Jakin, badakigu 1237. urtean Orreagako unamaizterra *Fray Miguel Pérez de Goñi* zela[145]. *Bustaliza*-k (saroiak) eta eliak direla medio idazki-multzo aberatsa eman du Orreagak, 1284. urteko saroi (*bustaliça*) zerrenda ezaguna kasu. Saroiek eliekin duten lotura zehazkiro aztertu gabeko auzia da, halere. Aski bekigu esatea hemen Orreagako *bustaliza* (< *busto*) baten aurreneko aipamena 13. gizaldiaren hasierakoa dela, 1208. urtekoa hain justu[146].



Auritz eta inguruetako mapa. 1785. urtea.
Gurutzeek saroiak adierazten dituzte. Jatorrizkoak dira.

3. Esan dugunez, Herriek ere euren eliak zeuzkaten. Begira diezaiogun astiroago auzi horri, merezi du-eta. Baztanen, adibidez, eliak egon ziren antzina. *Michelia*, *Animelia* eta *Gorrelia* izena zuten

[144] NAO6.

[145] Miranda García (1993: 50, 10, 112, 148).

[146] Ostolatza (1978: 118-119, 33). 1302. urtean Orreagak harena ez beste inorena zen eskubidea zuen *Guabart-Arizpuruko* (Aldudeko) saroietan. Miranda García (1993: 111).

hango hiru eli nagusiek. Esan beharrik ez, han ere eliek lotura zuzena zuten saroiekin[147]. 76, 27 eta 36na saroi zeuzkaten[148].

Baztango elien idatzizko aurreneko agerraldiak 13. gizaldikoak dirateke. 1288. urtean Urdazubiko monasterioko fraideek Elizondoko Ospitalaren atzean zeuzkaten lur batzuk Azpilkuetako *bustaliza edo majada* batzuen trukean eman zizkioten Agoizko Gartziari[149].

1482. urtetik aurrera Urdazubiko monasterioa erakarpen-gune indartsu gertatu zen, Baztango Haranaren "eskuzabaltasunari" esker. Dena dela, abeltzaintza egundoko hiru elitan moldatuta zuten fraide aurremostratarrek orduko. Urte hartan Baztango Haranak, Urdazubiko monasterioak eta Zugarramurdik bake-agiria sinatu zuten. Monasterioari barruti berezitua eta zilegimendietan larretzeko eskubidea aitortu zioten bi erakunde zibilek. Haranek edo monsterioak zeuzkatenez gainera, Baztango herriek ere euren eliak zituzten garai hartan, Irurita eta Lekarozkoak lekuko[150].

Animelia, Mitxelia eta Gorreliako abere-aziendak liskar iturri izaten ziren; Lapurdi, Nafarroa Beherea, Ultzama, Orreaga eta Belateko abereak hartzen zituzten, baita (gerla garaian) Baztan bertakoak ere. Abereak banatzerakoan, jakina, ika-mikak egoten ziren sarritan.

1580. urtean Baztango Haranak eta Urdazubiko monasterioak sinaturiko hitzamenean monasterioari ehundik gora saroi eman zizkioten. Halaz guztiz ere, akordio horrek ez zituen nahi bezelako fruituak eman. 1591. urtean Baztango Haranak eta Urdazubiko monasterioak liskarrei konponbidea eman behar izan zieten beste epai batekin. Monasterioari Animelia eman zioten, zegozkion 22 saroiekin. Kanpoko buruak hartzeko baimena ere aitortu zioten; hori

---

147 1746. urteko agiri batean saroiei *seles* o *bustos* deitzen diete (BHA3, 221). Gehiago esango dugu: *Animelia* izeneko saroia (*sel*) aipatzen da 1599. urteko idazki batean (NAO6). Cf. Floristan (1970: 28).

148 1748. urtea, BHA4.

149 Zudaire (1983: 9).

150 Op. Cit., 16, 22.

bai, Haranaren beste buru bat hartu behar zuen ordainetan. Monasterioari Mitxelia eta Gorrelia (eta zeuzkaten 76 eta 36 sarioak) kendu zizkioten, baina, trukean, monasterioko abereak Baztango lurretan eta saroietan ibili ahalko ziren[151].

Baztango elion garrantzia ulertzeko unamaizterrak nortzuk izaten ziren erreparatzea baino ez dago: herri-idazkariak, etxe-jaunak, aitonen semeak, jauneria azken batean. *Mayoral* direlakoak maizterrak ziren. Urtero monasterioari dirua, gurina eta gazta eman behar izaten zioten saritako.

4. Leireko monasterioaren agiri-bilduman *bustaliza* (*bustalibus*) hitza aipatzen den aurreneko aldia Peñalengo Antso Erregearen eta Fortun Gotzainaren artean 1071. urtean egindako trukean da[152]. Datu hori garrantzitsua izan liteke, —*bustaliza-busto* lotura aintzat harturik— balitekeelako Euskal Herriko eli baten zeharkako lehen aipamenetakoa izatea[153]. Jakina, ez dugu esan nahi aurreneko eliak 11. gizaldikoak direnik, ezta gutxiagorik.

Unanmaizter eta *buruzagi* hitzen aurreneko agerraldia 1167. urtekoa da. Urte hartan Iruñeko gotzainak eta Bela kondeak *Arimeria* izeneko elia gobernatzeko akordioa hitzartu zuten[154] (Zamartze;

---

[151] Op. Cit., 23- 24. Cf. BHA4; 1584ko sententzia. Urte hartan bertan eta 1591n berretsia.

[152] Martín Duque (1983: 139-140).

[153] Estreinako beste aipamenak ere ordukoak dira (1072). Balitzateke horretaz zer esanik.

[154] Mitxelenak (1990 [1964]: 47) bilduriko testuan honakoa irakur daiteke: "... *quod Orti Leohoarriç faciet ut lingua Nauarrorum dicitur unamaiçter et Aceari Umea faciet buruçagi quem voluerit* ". Gaurko euskaraz: *Orti Leohoarriç*-ek nafarren hizkutzan *unamaiçter* esaten zaion horietako bat jarriko du eta *Aceari Umea*-k *buruçagi* bat..' Bidenabar, diogun *maizter* hitzaren antzinako esanahia ez dela 'alokairuan dagoena', 'artzainen nagusia' baizik (< lat. *magister*). Caro Barojak (1971 [1949]: 165) biltzen duenez, 1167. urtean San Migeleko monasterioak eliak zeuzkan Aralarren. "Maizter" eta "buruzagui" terminoak aipatzen dira orduko, hori bai, beste eginkizun batekin. Azkenik, *bustegi*-ren esanahi hau jasotzen du Caro Barojak Moret-en *Investigaciones históricas de las antigüedades del reyno de Navarra* (1766 ed.) iturri moduan erabiliz:

Uharte Arakil). *Buruzagiak* (edo *buruzaiak*) garai batean aguazilen eta unaien lanak egiten zituzten gizasemeak ziren[155]. Igurainetik bazuten zerbait, hortaz. Lesakan, adibidez, *ysurburuzagui* (< isun?) esaten zitzaien basozain eta landazainoi (Mitxelena, 1990 [1964]: 48). Azken batean *buruzagiak* zaindariak (edo zaindarien nagusiak) ziren.

5. Pirinio aldeko elien arrastoa itsasoraino iristen da. Goizuetako udalerrian zegoen esparruak *Eliberria* izena zuen, esaterako[156]. Orreagako monasterioak Nafarroako iparraldean neguan eliak bazkatzeko zeukan barrutiaren zati zen (Anizlarrearekin batera). Inguru haietan, Artikutzatik ez oso urruti, *Unalbidegi* (1780) izeneko saroia dago[157]. Aranon, ostera, *Unamuno* izenekoa dugu.

1270. urtean Haroko Lopez Diazek *bustaliza* (saroi) bat eman zion Orreagari Anizlarrean (Gipuzkoako mugan). Hasierako emate horri, larretzeko eskubideari, 14. gizaldian zehar lurralde zabalak gehitzea lortu zuten Orreagako fraideek, jabetza garrantzitsua osatu arte[158]. Modu horretan abeltzaintza-igarobidea hedatu zuen Orreagak Nafarroa-Gipuzkoetako mugaraino, kostatik gertu, negurako babeslekuak zituena. Erdi Aroan zehar saroiz irundutako pasabide hori Aezkoan hasten zen eta ia itsasoraino iristen zen neguko larreekin[159]. Lehen ere esan dugu Antsomezelia eta Fermeleria Anizlarrean ibiltzen zirela.

6. Gipuzkoa aldean eliak egon direlako lekukotasunak badaude. Han ere, Nafarroan bezala, Orreagako monasterioa da aintzindari nagusietakoa eliak mintzagai dituzten agirietan, eta Aralar ingurua aipamenetarako izapidea ematen duena askotan. Guztiarekin ere, aitzindari eta eremu gehiago badira.

"[en épocas modernas] era cualquiera de los propietarios, especialmente de ganado, del Roncal y Salazar, ...".

[155] Cf. 5.4.

[156] NAO7, 1794-1803. urtea.

[157] 1780. urtea. NAO5, 311 au.-311 bin.

[158] Miranda García (1993: 63, 70, 225).

[159] Op. Cit. 106, 145, 166.

Gipuzkoako elien aurreneko aipamenak 13. gizaldikoak dira. 1270. urtean Haroko Lope Diazek *Beracoiana, Errenga* eta *Anizlarrea* izeneko Gipuzkoako saroietan (*bustalizas*) zeukan partea Orreagako monasterioari eman zion[160]. Hurrengo urtean, Iruñeko Gotzainari (Armingoti) Irantzu monasterioak utzitako zerga-eskubideen artean, Donostiako Antiguako monasterioarena izendatzen da. Haren ondasunen artean saroiak eta elia ("bustalicis et busto") zeuden[161]. 1330. urtean Andatzan zebilen Orreagaren eliko maizterrak *Fray Lope Yvanes d'Ayzcona* zuen izena[162]. Kostatik gertu gabiltzanez, 1391. urteko agiri batean Itziar-Debako zenbait saroi ahotan hartzeko "seles e bustalizas" erabiltzen da. Ez da asko ustea, Zumaiako eta Orreagako monasterioak tartean daudela ikusirik, elia egoteagatik zerabiltela seguruenera "bustaliza" hitza[163].

Lehen esan dugunez, Gipuzkoan elirik izan bada, Aralarren behar zuen izan. 1302. urtean Gebarako Beltran Ibañezek testamentua egin zuenean Aralar nahiz Anizlarrean zituen saroiak (*bustalizas*) bere arreba Estefaniari utzi zikion, bizirik zen artean haietaz balia zedin; hildakoan, ordea, Orreagako monasteriarenak bihurtuko ziren[164].

---

[160] Mutiloa Poza (1976-I: 39). "Archivo de Roncesvalles".

[161] Martínez Díez & González Díez & Martínez LLorente (1991: 47). 1180. urterako Iruñeko katedralak 15 saroi zeuzkan Urumeako zilegimendietan.

[162] Díaz de Durana (2001: 65).

[163] Martínez Díez & González Díez & Martínez LLorente (1996: 326). Mutiloa Pozak (1976-I: 91) Ibarraren (1936: 270) honako pasartea biltzen du: "Las bustalizas, seles y ergues, en bascuence "saro belarbeteac", son con nombres distintos, una sola cosa. Son unos prados abrigados con árboles en sus contornos , y muchos en medio para comer de la oja en el invierno quando el suelo estuviere cobierto de nieve, y la yerba dellos es la más lozana. Sirven dichos seles para cubillamiento de los ganados y para dormir y y ordeñar las vacas lecheras en ellos, y parir y criar las terneras, y éstos, antiguamente se llamaban Ergues, en los quales suele haver bordas, que son unos cubiertos espaciosos, o algunas cauañas para alojamiento de los ganaderos y vaqueros que allí hacen los quesos y mantecas". Ibarrak aitortzen du iturria Huarteren *Origen y antigüedades de Roncesvalles* dela.

[164] Mutiloa Poza (1976-I: 25). "Archivo de Roncesvalles".

Hurrengo, badakigu Amezketako Oierri 1409an Aralarren bi eli sartzen utzi ziotela, bata Amezketako (bere) etxeak ematen zion eskubideagatik eta bestea Lazkaoko etxeak emandakoagatik[165]. Garai hartan, pentsa daitekeenez, baziren eli gehiago Aralarren. 1452. urtean Orreagako monasterioak Aralarren zuen eliari *Fraideelia* esaten zioten, konparazio batera[166], eta Aralarko saroi bati, berriz, *fagabebeierdi* [*saroea*][167]. Aralarren, Orreagako monasterioarenaz gainera, besteren eliak ere egon direla ikusi dugu. Arin Dorronsorok (1955: 88-89), 1565. urtean Lazkao etxeak Aralarren zituen saroiez ari delarik[168], *Lazcauelia* izeneko saroia aipatzen du (1569).

Díaz de Duranari (2001: 62, 65) esker badakigu 1545-1547an Berastegin eliaren *maizterra* aziendaren jabeek izendatzen zutela. Taldearen baitan ospea zuen norbait izaten zen. Jabeek *maizterraren* esku uzten zuten azienda, eta unaiek haren aginduei men egiten zieten. Beste pertsonaia garrantzitsua *eli-jauna* zen (*señor de los bustos*). *Guardamontes* lana izaten zuen eta, ematen duenez, Berastegiko jauneriak izendatzen zuen[169]. Baliteke beste leku batzuetako *buruzagi*-ren parekoa izatea. Beste lekukotasunik ez aipatzeko, diogun diru-truke auzoko abereak zaintzen zituenari *unaiñ* esaten zitzaiola garai batean Oñatin[170].

---

[165] Díaz de Durana (2001: 68) eta Díez de Salazar (1993: 107).

[166] 1496. urtea. Mutiloa Poza (1976-I: 39, 105).

[167] "..seles de fagave é fagabebeierdi sazoea é fagave beicegui saroea...", 1452. urtea, Mutiloa Poza (1976-I: 333). Díaz de Duranak (2001: 52) honako testua jasotzen du: "[seles invernizos] ... que se avian de llamar en vascuence vehierdisarobeac, que quiere decir seles de vacas paridas..."; (1514. urtea, Oiartzun). Honako oharra egiten du: "Este mismo término era utilizado cincuenta años antes para denominar determinados seles en Aralar".

[168] "Las bustalizas.... no son otra cosa que unas acogidas de porción de ganado qual es el busto. (...) Para designar lo que hoy significa la palabra saroi antiguamente se hacía uso de la palabra vasca eulie."

[169] Díaz de Durana (2001: 62, 65).

[170] Mitxelena (1990 [1964]: 48-49).

7. Aldez aurretik jakina dugu Europan Erdi Aro Goiztiarreko monasterioek eliak zeuzkatela, baita udaran mendira igotzen zituztela ere[171]. Esan dugu lehen ere, Frantzian monasterioen elien lehen berriak 6. gizaldikoak direla[172]. Ez dugu behar baino gehiago esan uste Euskal Herrian ere elien Erdi Aroko hazkundeak monasterioen indatzearekin zerikusia duela esatearekin. Argitu dugu, *bustaliza-busto* loturan oinarri harturik, badaitekeela Euskal Herriko eli baten (zeharkako) lehen aipamena 11. gizaldikoa izatea[173]. Sei gizaldi beranduago elien idatzizko arrastoa ederki asko jarrai liteke artxiboetan.

8. Amaitu aurretik, egin dezagun sartu-atera ahozko tradizioan, eta abereei buruz zer dioen ikusten saia gaitezen. Hona, beste lekukotasunik ez aipatzeko, Oñati aldean bizirik dirauen kondaira: hazitako zezenaren jabeak San Joan gauez aberea zegoen tokia bereganatzeko eskubidea omen zuen. Zezena artamugarrian lotuta egoten omen zen inguruko behi guztientzat, eta horrek ematen omen zion, hain justu, jabego eskubidea zezenaren nagusiari[174].

Hori aski ez dela, Barandiaranen (1972: 247) mitologia hiztegia hartu eta *zezen* hitza begiratuz gero, eite hori duen irelu edo jeinua zenbait kobazulotako biztanle eta zaindaria dela irakurriko dugu[175]. Lur azpiko ireluak zezen gorri itxurarekin agetzen dira askotan.

---

171 Toursko Gregoriok, 6. gizaldiaren amaieran, Brioude-ko Saint-Julien-go (Auverniako) monasterioa mintzagai duela berritzen du hori. Doehaerd (1984: 25).

172 Op. cit., 38-43.

173 Besterik da behi-aziendaren irudikapenen auzia. Izan ere, zezen irudiak dituzten erromatar garaiko hilarriak daude Nafarroan, Gastiaingoa lekuko.

174 Lasa (1964: 163). Cf. Arregi (2001).

175 "Había casos en que, al acercarse los visitantes a algún paraje peligroso, se lo advertía el genio [*Zezen*] desde el fondo de su habitación."; "... un novillo rojo, el cual aparecía en actitud amenazadora a toda persona que intentara entrar en aquella su morada."

Baina nor da zezen gorri antza hartzen duen jainkoa, nor dugu lur azpian abere itxura duena? Mari, eta bere manukoak, tximista sortzen duten horiexek[176]...

[176] Barandiaran (1972: 159, 167). Ikus 8 §.

5

Iruñerriko *sarioak*: eliak gordetzeko itxiturak baino ez? Erdiko gune jakinik ez duten saroiak

Sarioak, *idikorteak* eta *elikorteak*

> "Algún día, a falta de herederos, el Municipio tomaría posesión del viejo templo, pero más valdría dejarlo en paz y esperar a que se viniera abajo por sí solo, no fuera que despertasen ciertas cosas que debían descansar eternamente en los negros abismos de la noche."
>
> H. P. Lovecraft

1. Eliak mintzagai izango ditugu atal honetan ere, bai; baina ez gara, haatik, auzi horretan aurrerago sartuko. Zeharka baizik ez diegu begiratuko. Santanderko *sel* eta *brañak* ere horrela hartuko ditugu gogoan.

Guztiok dakigunez, *saroi* izenaren esanahia ez da beti orobatekoa, eta horri lotuko gatzaizkio abian. Iruñerrian, hain zuzen, *Sario* izena duten leku ugari daude (*Sario*, *Sarioa*, *Sarioaundi*, *Sariozar*), baina ez dute mugarririk, ez erdian, ez kanpoan. Iruñerria diogunean gaur egungo bost zendeez ari gara, hau da, Antsoain, Galar, Itza, Zizur eta

Oltzaz. Asko dira, esan bezala, *Sario* izena duten tokiak han[177]. Gehiago esango dugu: ematen du *sario* gehiago zeudela Iruñerrian. Hiriburuaren ingurune hurbila izanik, Iruñerriak aldaketa azkarra izan du azken urteotan. Errepide eta autobide berriek, hirigintzaren eta, oro har, industriaren hazkundeak, nekazaritzarako tresneria modernoak eta jabetzen elkarreratzeak Iruñerriko ohiko ikusmira antzaldatu dute. Egingo genuke, horrela jarraituz gero, azkenerako Iruñerrian *sario* izenak baino ez duela iraungo. Iruñerrian ez ezik, Iruñean bertan ere bazen *Sario* bat[178].

Atal hau osatzeko erabili dugun iturri nagusia Iruñerriko toponimiaz "Onomasticon Vasconiae" bilduman Jimeno Juriok argitaraturiko bost liburuak dira. Zenbait garaitan informazio hori berak zuzenduriko *Nafarroa: Toponimia eta Mapagintza* bilduman dagoenarekin aberastu dugu. Hori aski ez dela, *sario* izeneko tokietan zehazkiro egon litekeena ikuste aldera, SITNAren Interneteko zerbitzuaz baliatu gara. Aitor dezagun hemen baliagarria dela benetan. *Nafarroako Toponimia Nagusia* izeneko Interneteko datu-basea ere lagungarria gertatu zaigu lanerako. Ez dugu idatzizko informazio iturrietara zuzenean jo, eta badakigu bide hori arriskutsua izan litekeela, baina, ziur gaude iturburua Jimeno Jurio denean arrisku hori franko murrizten dela. Alde horretatik, Artaxoako ikertzaileari egindako laudorioa izan nahi luke atal honek.

---

177 Antsoainen 1, Galarren 7, Itzan 7, Oltzan 5 eta Zizurren 7.

178 Jimeno Juriok (*NTEM-I*, 48-49) Arazuriren (1980) lumatik sorturiko testua biltzen du: "Esta zona se llama El Sario, y hasta hace poco persistían todavía los corrales del mismo nombre... (...) Desde tiempo inmemorial los toros que se habían de correr en las fiestas se conducían por medio de cabestros y pastores, desde las más lejanas ganaderías hasta las proximidades de la ciudad. El soto de Salinas era uno de los más utilizados para pastar el ganado los días anteriores a las corridas. En el siglo pasado se traían al *soto del Sadar* o *Sario*, en donde se construyeron unos corrales. Durante el día, las reses pacían en el soto y abrevaban en el Sadar. Con el fin de que en aquellos días la pastura fuese abundante, el Ayuntamiento prohibía la entrada de ganado desde mayo hasta después de las fiestas. En las madrugadas de los días de las corridas, partía la torada del Sario, conducida por un pastor a caballo y por varios más a pie..." .

2. Iruñerriko bost zendeetako herri guztietan *sario* izeneko lekuak daude, bat bederik: Antsoain zendean Berriobeitin; Galar zendean Arlegin, Espartza Galarren (2), Ezkirotz Galarren, Galarren eta Subitzan; Itza zendean Otxobin, Atondon (2), Aritzen, Eritze Itzan, Leten eta Saratsan; Oltza zendean Orkoienen, Aratzurin, Izun, Izkuen eta Iberon; Zizur zendean, azkenik, Zarikiegin, Zizur Nagusian (2), Zizur Txikian, Asterainen eta Undion (2).

Sarioen aipamen guztiak hemen biltzeak luze joko lukeenez, beste lekukotasunik ez ikusteko, labur beharrez, bereziki adierazgarri diren batzuk ikusiko ditugu. Hasteko, biribilak ziren sarioak daude, Orkoiengo (Oltzako) biak adibidez[179]. Zendea hartan bertan beste bi sario biribilen aipamenak biltzen ditu Jimeno Juriok, hauek ere ahozko tradiziotik hartuak. Bata Izun zegoen[180], bestea Izkuen[181]. Itza zendean ere sario biribilaren ahozko lekukotasuna dago, Atondon hain justu[182]. Formari bagagozkio, Jimeno Juriorentzat sarioak biribilak ziratekeen eskuarki.

Ongi begiratuz gero, *sarioetan* aurki litezkeen beste bi tasun aipagarri aurreratzen dizkigu Jimenok (1989: 24): itxitura izatea eta herri-lurren (edo zilegimendien) barruan egotea. Bi alderdi horiek ukitu aurretik, bihoa ohar bat. Biribiltasuna ez da sario gehienetan azaltzen den eitea, iturritako hartu ditugun toponimia-bildumetan behintzat, iritsi, ez baitira laurdenera iristen Iruñerrian biribilak bide ziren *sarioak*.

---

179 "Hubo dos "sarios", ambos de planta circular, uno en cada soto o dehesa del concejo". Jimeno Jurio (1989: 276). Egungo egunean poligonoak daude han.

180 "Espacio circular rodeado de pared, en el monte, cerca de la regata <<Aingeruiturri>>" y de la chabola de los Larres,..." Jimeno Jurio (1989: 206). Cf. 5.9 §.

181 "Construcción de planta circular, con muros bajos de piedra y piso interior de hierba, en el monte, al O. del término". Jimeno Jurio (1989: 178).

182 "Hubo otro, al parecer, en medio del monte, encima de una mina, donde cerraban ganado; era circular, rodeado de muro" Jimeno Jurio (1990: 140).

3. Ikergai ditugun sarioen erdiak (gutxi gorabehera) hesiaz inguratuta zeuden, hala biribilak nola beste tankeretakoak. Barrutia ixteko erabiliriko gaia askotarikoa da:

Horma: Atondo (2), Lete, Izu, Izkue (harrizko horma baxuak).
Lurresia: Aritz (lurresia eta sastraka), Saratsa (lurresia eta lizarrak), Berriobeiti (hormarik gabeko lurresia).
Ezponda (*Ezpondones*): Arlegi, Zizur Nagusia (ezponda eta sastraka).
Itxitura (*cierre*): Otxobi, Aratzuri (harrizkoa).
Zuhaitzak: Undio (*moso de árboles*).
Sastraka: Galar.

Deigarria da harrizko hormak dituzten *sarioak*, hau da, ezin garaituzko eraikuntzak, eta garaitzeko modukoak diruditen oztopoak dituzten *sarioak* egotea. Egia hau da: itxituraren aztarnarik gorde ez duten *sario*ek antzina zer zuten ez dakigu. Jatorriz *sario* guztiak itxiak izan diren ez da argitu, zenbaiteraino ixten zituzten ez dago garbi.

4. Jimeno Juriok (1989: 24) "dehesas o prados concejiles" terminoak darabiltza Oltza zendeako abeltzaintzaren antolaketaz mintzatzen denean[183]. "Cada concejo poseyó extensas zonas yermas de propiedad comunal destinada a pastos" idazten du alboan[184]. Gehiago behar dutenentzat bihoa beste argitasun hau: Asterainen ere "terreno comunal" esaten du (1986: 136) eta Zizur zendeaz ari denean "prados, dehesas y terrenos comunales" irakur daiteke (1986: 20), abereez eta artaldeak larretzeko tokiez hitz egiten digunean.

[183] Orkoieni eskainitako atalean (Oltza) "soto o dehesa del concejo" idazten du. Zizur txkiko *Sarioa* ere *soto*-an zegoen (1986: 236).

[184] "Los vecinos concejantes eran propietarios y administradores de los bienes comunales"; Jimeno Jurío, 1989: 25. Itza zendeari buruzko zati hau esanguratsua da (16. gizaldia): "Presidía cada concejo un vecino con el cargo de "mayoral", "**buruzagui** y jurado" o regidor, cargo anual que se iba turnando por las casas". Jimeno Jurio (1990: 29).

Iruñerriko *sarioek* eta zilegimendiek (herri-lurrek) jabe bakarra dute, ez dago bereizkuntzarik jabegoaren arabera. *Sario* guztiak herritarrenak dira eta ez dago norbanakoen *sariorik*.

5. *Sarioen* kokapenari dagozkionetan bi taldetakoak ditugu: menditxo edo muino baten gaineko aldean daudenak eta mazelan edo sakonetan ikusten direnak. Guztiarekin ere, *sario* gehienak bigarren multzokoak dira. Gaineko aldean dauden *sarioak* honako herrietakoak dira: Espartza Galar, Galar, Atondo eta Aratzurikoak. Hornidurari bagagozkio, sarioen erdiak ura dute, bertan edo ondoan (iturria, erreka). *Sario* askok bideren bat dute hurbil. Badira, azkenik, herriguneetatik gertu dauden *sarioak*, Arlegi, Eskirotz eta Subizakoak kasu.

6. Antza denez, Iruñerriko *sario* baten aurreneko aipamena 16. gizaldikoa da: *Sareoa* (1590, *Endreçera*[185]; Undio). Horrenbestez, *o* —*e* > *e* —*o* metatesia burututa zegoen orduko[186]. *Sarioa* formaren lehenbiziko agerraldia, berriz, 1837. urtekoa da, Undiokoa hau ere. Aldaera hori 20. mende arte azaltzen da idazkietan (1903, 1942; Ibero). Artikulua gabe ere 19. gizaldian agertzen da estreinakoz: *Sario* (1837, 1880, Asterain; 1837, Undio; 1888, Ezkirotz Galar). Bada salbuespen bat (*Saroizar*, 1862, Atondo; egun *Sariozar*), baina ez diogu gogo-beteko zergatikorik aurkitzen.

Izen elkartuez mintzo bagara, *Sarioaundi* (1848, *Sario andi*; Espartza Galar) eta *Sariozar* (1862; Atondo) ditugu Iruñerrian. Gaztelaniako izenondoa duten toponimoak ere badira: *Sario grande* (Otxobi; Aratzuri), *Sario chiquito* (Aratzuri), *Sario viejo* (1880; Zizur Nagusia) eta *Sario nuevo* (Zizur Nagusia). *Sario* ez da inoiz elkartuaren bigarren osagaia, Jimeno Juriok bilduriko toponimian bederen. **Isario* edota **Ursario* bezalakoak ez ditugu ikusten.

---

185 Cf. Anizlarrea eta Eliberriako mapa. Breans (1863 [1792]).

186 *Sareo carra* (1614; Garralda; *NIEM-XXXIV*, 259); *Sareoçarreta* (1596) / *Sario Jarreta* (1606, Uxue; Salaberri, 1994: 701-702); *Sareogunea* (1591, Ezporogi; Salaberri, 1994: 337).

7. Iruñerritik gertu dagoen Ollarango toponimian ere *sario* erabiltzen da[187]. Salaberrik (1998: 72) dio *sario* ia Iruñerriraino ez dela azaltzen[188], baina, aski mendebalean aurkitzen dugula (Allingo mugako Abartzuzan, Azkoan edota Mañeruibarren). Artaxoako toponimian, ordea, *saroia* aldaera dugu eta Oibar haranean *sario*. Artaxoako aipamena 16. gizaldikoa da[189]: *Garcia saroya* (1589, 'la majada de García').

Goikoaren aldi berekoak dira Artaxoan[190] *Mariare gortea* (1579) / *Mariaren gortea* (1587) eta *Ferran gortea* / *Ferrangortea* (1554). *Korteberria* izeneko lekua ere bada han: *Curte verria* (1111), *Corta Verriam* (1120), *Corto berria* (1104-1134) eta *Corte berria* (1556). *Gorte* / *korte* ('corral') izenaren iruzkina egiten dutenean Jimeno Juriok eta Salaberrik azpimarratzen dute Artaxoan zeuden *corraliza* mordoa antzina artzaintzak (*ganadería lanar*) han izandako garrantizaren lekuko direla. *Corrazila*-k azienda larretzeko aurkintzak ziren, artaldeak bereziki. Gehienak udalarenak izan ziren 19. gizaldia arte.

Corraliza-k ez dira Artaxoakoak bakarrik; Nafarroako Erdiko Aldean eta Erriberan nahiko ugariak dira[191]. Zilegimendietan (*tierras comunales*) larretokitako bereiziriko tokiak ziren. Oinarrizko azpiegitura (itxitura, idoia, ...) udalen kontu izaten zen. Melidan, adibidez, 2.000-2.500 erreguneurriko (*robada*-ko) azalera zuten.

---

[187] 1982-83an egindako inkestetako batean hauxe biltzen du Jimeno juriok Beasoain- Egillorko *sarioak* ahotan hartuta: "Denominan *Sarios* a ciertos parajes sitos en hondonadas o pequeños barrancos cerrados y de facil cierre, donde cerraban el ganado fuera del invierno". *NIEM-XI*, 70; Encuestas. Argitasun gehiago nahi duenarentzat bihoa Saldisen beste inkesta batean jasotzen duena: "Hay en el monte un trozo que llaman *el Sario*, con piedras alrededor. *Sario*s son sitios donde antes cerraban el ganado. Es un redondo cerrado con muros de piedra, ya semihundidos". *NIEM-XI*, 111; Encuestas.

[188] Burundan *saroi* aldaera dugu, Aranatz-Ergoienetan *saroi* nahiz *sare*, eta Ameskoan *saroi* zein *saro*. Lanan ere *saroi* genuen.

[189] Ikus Jimeno Jurio & Salaberri (1998: 115, 208).

[190] Op. cit., 201, 223, 219, 140.

[191] Ikus Alli (2004).

Inguru hartan *corraliza* bakoitzak bere korralea zeukan, urte osoa han egoten zen artaldea gordetzeko. Harrizko eta egurrezko eraikinon estalkia teilaz egindakoa zen[192].

Honenbestez, *sarioen* eta saroien / korten arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ez dira garbi ageri. Ez da hemengo auzia bakarrik. Santanderren ere, konparazio batera, *sel* hitzak adiera bat baino gehiago ditu. Pas-en, esaterako, honako esanahia du García Alonsok (1991: 119) biltzen duenez: babesturiko tokia, sastrakarik gabea, harrizko zirkuluaz mugatua; mendian larretzen diren aziendak han biltzen dira gauean.

Santanderko *sel*-en itxitura dela-eta, García Alonsok (1991: 120-123) dio bi gizaldi baino gehiago dituzten *sel*-ek itxitura izan dutela, nahiz eta beti harrizkoa ez izan (hesia, heskaia, tokiko harkaitzak) edota askotan desagertuta egon. *Sel* berriek ez lukete itxiturarik, Saja haranekoak lekuko. Agidanez, lanerako abereen premia franko hazi zen garai modernoan eta, horregatik, *sel* berri asko finkatu zituzten; azkenerako ez zituzten ixten. Hango *sel*-ak larretokiak dira. Halaz guztiz ere, García Alonsoren iritziz, antzina *sel* hitzaren esanahia oso zehatza zen. Beti ez, baina *sel* batek etxola izaten zuen gehienetan artzainarentzat. Esan liteke *sel*-ak etxola izatea ia derrigorrezkoa zela, hala itxituraren barruan, nola kanpoan.

Santanderko *sel*-ak ez dira biribilak arrunki. Askotariko tankerak eta neurriak dituzte, erdiko gune ezagunik gabe. Azpimarra dezagun jatorriz zilegiak ziren *sel* asko norbanakoen eskuetara pasa zirela. Pas-en gertaera horren 1517. urteko lekukotasunak daude[193].

García Lomasek (1991) dio antzina udako larreetan *sel*-ak egotea arrunta zela, eta toki batzuetan oraindik ere hala dela. Azken finean,

---

[192] Salaberri (1994: 430-432, 484).

[193] 1517. urteko epaian zilegimendiak izandako *sel*-en norbanakotzearen berri ematen da. Beste lekukotasunik ez aipatzeko, esan dezagun "los señores de los seles antiguos" esamoldea biltzen duela García Alonsok (1991: 135). Zuberoa eta Nafarroa Beherean *seigneurs de cayolars*-ak ditugu. Ikus 8.2.§

ugari diren *braña*, *barniza*, *brena*, *breniza*, *braniza* (nahiz *brenilla*, *bernal* eta *bernacho*-ak) Kantabriako mendietan udaran abereek erabiltzen dituzten larreak dira, eta *sel*-ak, berriz, aziendak biltzeko ohiko itxiturak, han gorde eta zaintzeko. Besterik lirateke *busta*-k. Herrixketan, udaran, *buesto* edo *busto*-ko abereak (lanerako idiak) zenbait larretokiz baliatzen dira, *busta* delakoez. Han egoten dira, *guariza*-tan gordez, antzinatik *boerizas*, *borizas*, *bueras* nahiz *dehesas boyales* izenez ezagutzen direnetan, alegia[194].

Antolakuntza-eredu hori gurera ekarriko bagenu, Iruñerriko *soto*-ak Santanderko *busta*-k lirateke, eta *sarioak*, berriz, *boeriza*-k. Ongi begiratuz gero, Santanderren bageunde, izatekotan, *sarioak sel*-ak lirateke, eta ez *braña*-k.

8. Berriobeitiko *sarioa Ikorte* izeneko zilegimendian dago, sotoaren ondoan[195]. *Irisagoi* (Kintoa[196]), *Irixaroa* (Luzaide[197]) eta *Isaroia* (1828; Izaba, Erronkari[198]) toponimoak aintzat hartuz, pentsa liteke *Ikorte* forma **Idikorte*-ren oinordekoa dela, are gehiago Jimeno Juriok (1992: 350) Larragetan *Idikortea* (*Idicortea*, 1797) toponimoa biltzen duela ikusirik. Larragetan bertan, horratik, *Ikorte* toponimoa dugu, *Elcortea* (1833), *Icortea* (1827) eta *Licorte* (1879, 1927) idatzizko oinordeak dituena. Arestian esan moduan, Berriobeitin *Ikorte* izeneko tokia dago, *Icorte* / *Licorte* (1879, 1927) aipamenak dituena[199]. Garbi aitortu beharrean gaude: *Ikorte* toponimoa *Idikorte* (< idi + gorte) nahiz **Elikorte* formetatik datorke (cf. *Eligorta*; 1798, Baranbio, Amurrio[200]; *Elisaroi*; Almandoz, Baztan[201]).

---

194 Op. cit., 125 eta 142.
195 Jimeno Jurio (1992: 226).
196 *NIEM-XXXV*, 242.
197 *NIEM-XXXV*, 192.
198 *NIEM-XIV*, 115.
199 *Sarioa* dago han. Jimeno Jurio (1992: 215).
200 Berganza; Baranbio (Amurrio). Barrenengoa (1989-II: 101).
201 *NIEM- LII*-1, 40.

Ikorte toponimoa Iruñerriko toki gehiagotan agertzen da. Itza zendean, esaterako, Aldaban (1892; Jimeno Jurio 1990: 55), Saratsan (1827; Jimeno Jurio 1990: 355) eta Zuasti Itzan (Jimeno Jurio 1990: 367) ditugu *Ikorte*-ak. *Idikorte* nahiz *Elikorte*, garbi dago *Ikorte*-ek aziendarekin dutela zerikusia, eliekin alegia.

Zizur Nagusiko *Sario nuevo* toponimoaren txartelean "dula" bi aurkintzatan biltzen zela jakitera ematen du Jimeno Juriok (1986: 205), *sario* berrian eta zaharrean. Euntze edo zalduok zilegimendiak ziren eta toki urtsuak. Iruñerrian gaztelaniazko *dula* terminoa euskal *elia*-ren sinonimoa da, baina Allon, ostera, abere-talde zentzua baino gehiago, leku zentzua du: argiune zabala harrizko hormarekin, udalarena, zaldi eta mandoak eramateko. Alboan unaiaren (*dulero*-aren) etxetxoa dauka. Allon bertan *bueyería* izeneko lekua ere badago[202].

9. Zenbait irteera egin ditugu Iruñerriko zendeetan barrena iturri idatzietako aurkikuntzak egiaztatze aldera. Aurrenekoa Aratzuriko *Sario Grande*-ra egin genuen 2004ko udaberrian, Aitor Unanueren laguntzaz. Zergatik hara? Jimeno Jurioren aipamenaren arabera, mendigainean dagoelako, harrizko itxitura eta harlauzazko zola izan dituelako eta, baita ere, izenak handia dela iradokitzen duelako. Aurreneko ezaugarria baieztatu ahal izan genuen, baina ez, ordea, beste hirurak. Golde mekanizatuen laguntzaz, *sario* guztia erabat birrindua dago. Bai, badira hondakin asko bertan, baina nekez antzeman daiteke inolako egiturarik. Mendigaina (460 m altuera) biribil antzekoa da izatez, eta zenbait ezpondaren arrastoak badira oraindik, iparralde eta sortaldean batez ere. Ez da biderik falta bertara iristeko eta Arga ibaia ez dago urruti. Mendigainak 0,7-0,9 hektareako azalera du, eta 125 x 80 metroko luze-zabalera. Muinoaren hegazkin-argazkietan handiagoa den bigarren esparrua

[202] Salaberri (1994: 586-587). Tafallan, *dula* eta *dulero*-az gainera, *boyeria*, *cabreria* nahiz *porquerya* zeuden 15. gizaldiaren amaieran (1490-1493). Jimeno Jurio (2001: 8-9, 171, 204, 235).

ikusten da argi eta garbi, espondaz taiutua hori ere; 195 x 220 metroko luze-zabalera du eta 4,4 hektareako hedadura.



Aratzuriko *sario-a*ren kokapena

Egun berean Zuasti Itzako ordainlekuaren ondoan dagoen Saratsako *Sario* ikustera joan ginen, baina han ez dago ezer aipagarririk egun. Ordeka hartan alorra dago, ez beste ezer. Ondotik bidea eta errekasto txikia igarotzen dira.

2004ko udaran Leteko *Sario*-ra joan ginen. Txurio inguruan dago, Oltzako mugatik gertu eta Beasoaindik ez oso urruti. Alorrak daude egun, baina atentzioa ematen du tokiaren kokapenak. Mendibizkarrean dagoen babesleku bikaina da eta, hori gutxi balitz, nahiko toki laua da. Bidea dago bertaraino, baina ez genuen iturririk ikusi. Beasoaingo gizasemea topatu genuen artaldearekin, eta galdetu genion, baina ez zuen *sario*-en berririk.

Azkenik, Izuko *Sario* ikustera joan ginen. Beasoain-Egillorko (Ollarango) mugatik gertu, Jimeno Juriok aipaturiko tokian, harrilehorrezko itxitura bikaina dago, magal batean, eguteran. Hori bai, ez du esparru biribila osatzen. Hormaren garaiera 0,8 metrokoa da eta zabalera, ostera, 1,3 - 1,5 metrokoa. Ez du *sarioa* erabat ixten. Hobekien gorde den zatiak ehun bat metroko luzera du eta zuzen-zuzena da (NW-SE norabidea). Zati horren beheko muturrean horma

norabidez aldatzen da, izkina biribila egiten du[203], eta NE-SW ardatza hartzen du.



Izuko *sario*-aren kokapena

Bigarren zati horrek hirurogeita hamabost bat metroko luzera du eta puntu batean horma amaitu eta ezponda hasten da, hura ere, zenbait tokitan harrizko egitura bikainetan oinarri harturikoa. Bigarren zati horren amaiera aldera ezponda berdindu egiten da zolarekin. Sartaldean *sarioaren* arrastoa galdu egiten da.

Hormaren azalpenari heldu diogun gunera itzuliz, lubaki modukoa hasten da han sartalderuntz (125 metroko luzera), *sarioaren* goieneko alderdia bailitzan. Hauxe da gure iritzia: han noizbait esparrua egon da, baina ez dirudi biribila zenik; izatekotan, poligonoa zen Izuko *sarioa*.

Iruñerriko *sarioen* aldetik esankizun gehiago ez dugu. Iruñerria *saroien / korten* lurraldearen hegoaldean dago; goazen orain sartalderantz. Hango *kortek* eta Iruñerriko *idikorteek* zerikusirik ba ote dute?

[203] Etxolaren hondakinak han daude oraindik.



Izuko *sarioaren* krokisa

6

Saroiak sartaldeko eremuan
Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kortak

Kortak eta kortarriak

"Gortea, aristokraziaren gorta da."

J. Sarrionaindia

1.1. Saroien sartaldeko eremua Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurrek osatzen dute. Korta ugari daude han. Aguraingo Kontzejuak, esaterako, Petri Gebarakoak (Oñatiko jaunak), bere saroiak (*seles*) zirela argudiatuz, Entzia, *Ubarrutia*[204], Urbia eta Altzanian jarririko mugarriak kentzeko agindua eman zuen 1418. urtean. Zer dela eta izan behar zuen, bada, Oñatiko jaunak bertakoek baino eskubide gehiago hango kortetan[205]? Mugarriak kentzen hasteko, Aguraingoak *Hençia*-n bildu ziren, *Legaydi*-ko (> Legaire) zelaiean. *Esquesabel*, *Arria Arriayu Daruchana*[206], *Sarribiribela*, *Lexargorta*[207] eta *Aytuaryndo Odyeta* saroiak izendatzen dira Entzian.

---

[204] Asparrena (Araba), Nafarroa-Gipuzkoetatik ez oso urruti.

[205] Goikolea (1998: 77).

[206] Aditza du (ikusi?). Cf. *Ibarra Dacochana*.

[207] Forma hori azpimarratu nahi dugu, sartaldeko eitea duelako bete-betean: *leizar + gorta*. Cf. Artaxoako *Ferrangortea*, edota Lakuntzako *Otsotesare*. Leintz-Gatzagan, konparazio batera, *Garayacorta, Urricorta, Arosteguiarangocortea, Larraynerycorta, Yartucocortea, Gupuzerayngocortea, Macaydacorta* eta *Yturriacorta* izenekoak ahotan hartzen dira 1487. urteko idazkian. Lema & Cruz & Larrañaga (2002: 316-318).

1418ko idazkian lurretik ateratako mugarriak zehazkiro nolakoak ziren ez da aditzera ematen, baina, dirudienez, harri bakarrekoak ziren. Saroiak mugatzeko, lau alderdietan mugarri bana jarriak zeudela argitzen da, eta mugarrien ondoko zuhaitzen azpiko aldean gurutzeak eginda zeudela ere bai, hala artamugarrietan nola baztermugarrietan. Esaterako, *Esquesabel* saroiko erdiguneko mugarriaren ondoko zuhaitzetan hiru gurutze zeuden.

Korten mugarriak lurretik ateratzeko elkarturikoak *Hubarrutya*-ra joan ziren Entziako lanak bukatutakoan. Sei saroi aipatzen dira han[208], eta badakigu, Asparrenen, Gipuzkoa-Nafarroetako mugatik gertu zeudela, Albeiz mendiaren ondoan: *Apoheta*[209], *Camaça* (Zamaka?), *Odiol*, *Mendate*, *Bagaduyhederra* eta *Ibarra Dacochana*[210]. *Hubarrutya* aldean ere Oñatiko jaunaren morroiek gurutzeak egin zituzten mugarrien lekuko moduan. *Bagaduyhederra* izeneko saroian, adibidez, lau mugarri eta zazpi gurutze desegin zituzten Aguraingoek.

Inguru hari buruzko informazio interesgarria duten 15. gizaldiko beste lekukotasunak daude. 1481. urtean, esaterako, Albeizko eta Araiako (Asparrengo) bizilagunek *Amamio* izeneko herri hustuko mugarriak ikuskatu zituzten, eta ikuskatze-agirian *Idoya* saroia (*sel*) aipatzen da[211]. Urte hartako beste agiri batean, gizaldi bat lehenago Araiaren (Asparrena) eta Zalduondoren artean egindako mugarriztatzearen leku-aldaketa egiten da. Antza denez, 1362. urteko idazkian *Gaystamele*-ko (*Gaztanbel*) bi saroien berri ematen da. Araia eta Zalduondo arteko mugarri bat bi saroiren artean zegoen[212].

---

[208] Aurrerago *Arrihaya* izenekoa aipatzen da (*Allahondoa*-n). *Hubarrutya*-z landa zegoen. Hiru mugarri eta zuhaitzaren gerrian egindako sei gurutze aurkitu zituzten Aguraingoek han.

[209] Asparenako mapan *Apota* zein *Apotako saroi* toponimoak irakur litezke.

[210] Honen baitan ere adizkia dagoela dirudi (datxekana?).

[211] Asparrenako mapan *Iduiakosaroi* toponimoa azaltzen da, Albeiz eta Araia artean. Pozuelo Rodríguez (2001: 59).

[212] Pozuelo Rodríguez (2001: 62).

1.2. Leintz-Gatzagak eta Landak (Arrazua-Ubarrundia) ika-mika bat baino gehiago izan zituzten *Yurrieta*-ko kortaren ustiaketa zela-eta 14. gizaldiaz geroztik. 1383. eta 1433. urteetakoak ez aski eta[213], 1516. urtean epai berria eman behar izan zuen Gaztelako erreginak jarritako epaileak[214].

Erdiko mugarri berria jartzeko agindu zuen epaileak, baina "fuese medido por la medida del sel de la villa de Çestona ..." zehaztu zuenean, inork ez zeukan han galdeturiko neurria. Azkenean, bi baztermugarriren arteko aldeaz baliatuz konpondu zuten arazoa[215].

1.3. *Monchencorta*[216], *Esquizur* (Larrea), *Alavitazabal* (*Amilalavittazaval*?; Ozaeta[217]), *Derediola*, *Elespuar*, *Zulagagoiti*, *Zulagaveiti* eta *Arrola* (Ozaeta) saroien ustiapena zela-eta, Larrea, Hermua eta Herediako kontzejuek (Barrundia) Barriako monasterioarekin[218] (Donemiliaga) izandako auziaren berri ematen duen 1780. urteko idazki interesgarria dago[219]. Liskarraren zergatia? Monasterioak saroiez baliatzeko ezarritako arauak ez zituen betetzen:

---

[213] Lema & Cruz & Larrañaga (2002: 395).

[214] "...midiese el dicho sel e las tres cuartas partes se señalasen e quedasen por sel de la dicha villa de Salinas e la quarta parte por sel del dicho lugar de Landa ..."

[215] "... mando medir desde el dicho mojon postrero que está hazia el dicho lugar de Landa en el camino que va para la dicha çibdad de Vitoria, hasta el mojon postrero que está hazia la dicha villa de Salinas en el mismo camino junto a una casa de Yurreta, e ansy medido el dicho sel, el dicho juez mandó poner e se puso en mitad del dicho sel un mojon alto e ençima d'él una cruz, la qual dicha piedra e mojon quedó en señal de ser alli la mitad del dicho sel e por ustarria e fogar d'él." Lema & Cruz & Larrañaga (2002: 401-402).

[216] *Monjarencorta* izenez aipatzen da aurrerago (13 bin.).

[217] *Otaza*, *Maturana* eta *Garayo* (Barrundia) kontzejuetan gisa horretan ustiatzen ziren korta gehiago zeudela irdokitzen da.

[218] Barriako Ama monasterio zisterdarra (San Bernardoren Ordena) 13. gizaldikoa dela esaten dute zenbait ikertzailek. Oñatirekin muga egiten duten mendien hego-magalean dago kokatua.

[219] VEKA10.

"..., *segun la cual la leña de los seles ha de sacarse a las veinticuatro horas de ser talada, habiendo vendido los adversos sus derechos para hacer carbon, lo cual ocasionara daños y perjuicios a los dichos seles*".

Ikusten denez, Barriako monasterioa saroietako *material* edo gaiaz baino ezin zitekeen aprobetxa[220]; lur, ur, larre eta ezkurraren eskudunak Barrundiako hiru herriak ziren. Ez dugu uste oker gaudenik korton erabilpenak ondazilegien antza duela badiogu. Aipatu ondasunez baliatzeaz gainera, egurra ere jaso zezaketen herritarrek saroietan[221]:

"... *sino tambien el [aprovechamiento] de llevar, y arrancar libre, e impugnemente por qualquiera vecino e individuo de los tres pueblos, la leña seca y verde caida, y desamparada que hubiese, y se encontrase en ellos*".

Inguruko herrietako mendietan korta gehiago zeuden erabilpen-baldintza berdinetan, izan norbanakoenak izan monasterioarenak, Axpuru, Narbaxa (Donemiliaga) eta Arriolakoak (Asparrenekoak) kasu[222]. Saroi horietan ez zegoen itxiturarik, baina bazeuden, ordea, noraino iristen ziren adierazten zuten mugarriak[223].

1.4. Ez lirateke berehalakoan agortuko ez ahituko Arabako korten (*sel*) idatzizko berriak. Hona, beste lekukorik ez aipatzeko, batzuk: *Andianoama*[224] (1459 [Egiluz], Narbaxa-Zuhatzu Donemiliaga); *Insuste*[225] (1456, Axpuru); *Careza* edo *Mojabaso*[226] (1729 [Luzuriaga]

---

[220] VEKA10, 3 au.-3 bin.

[221] VEKA10, 3 bin.-4 au.

[222] 1782-1786. urtea, VEKA11, 4 au. *Esquisur* korta Larreako *dehesa*-ren barruan zegoen. VEKA11, 9 au. Cf. 5.4.§

[223] "...*y han estado, y estado sin cerradura, ni embarazo, y con solo la demarcazion de mojones para saber hasta donde llega su corta....*"; VEKA11, 5 bin.

[224] 1459. urtea, ZDA1

[225] 1456. urtea, AA1.

[226] Urkitza aldean, Donemiliagako mugatik gertu. 1729. urtea, LA1.

Arriola); *Zorcilanda*[227] (1525, Ganboa); *Basabarria*[228], *Beolarre*, *Olarte*, *Harrita* (1541, Alatxa, *Compas de Barria*, Narbaxa eta Aspuru); *Isasibarria*[229] (1655, *dehesa y sel*[230], Nafarrate, Urrunaga; Legutio[231]). Era berean, Barandiaranek[232] Barrundiako saroia aipatzen du esate baterako (1935), eta toponimia-mapetan ere *-saroi* osagaia duten topinimo franko irakur litezke. Asparrenan[233], adibidez, *Azkasaroi*, *Pisadasaroi*, *Saroizar* eta *Sarotxo* ditugu Aratz-Umandia mendi-lerroan, Altzanitik gertu. *Sel de las Cabras* toponimoa ere hor dago Atain mendian, Entziako partzuergoaren ondoan. Narbaxa-Axpurun *Saroitxu*, *Saroizar* (Laskorta ondoan) eta *Sel de Baltia* toponimoak daude.

1.5. Aiaraldea Arabako ipar-sartaldean dago[234]. Hango toponimiari erreparatzen badiogu, besteak beste, *Eligorta* (1798, *monte castañal*, Berganza; Baranbio, Amurrio; Barrenengoa (1989-II: 101), *Luskorta* (Aldama, Amurrio; Barrenengoa, 1989-II: I114), *Sagukorta* (Aldama, Amurrio; Barrenengoa, 1989-II: 122) eta *Uruskorta* (Aldama, Amurrio; Barrenengoa, 1989-II: 127) ikusiko ditugu. Ez dakigu jatorriz toponimo horiek guztiak kortak ziren; hori bai, jakin, badakigu *Zaqueta* deritzon *sel*-a zegoela (1805) Aiara-Gordexoletako mugan[235].

---

[227] 1525. urtea, VEKA1.

[228] 1541. urtea, VEKA2.

[229] 1655. urtea, VEKA6

[230] "Que en la aldea de Alvenys ayan las dos dehesas que les dicen Albeyssarri e Yunasus..." (1408. urtea). Pozuelo Rodríguez (2001: 47).

[231] Ikus 54. or.

[232] "Jerónimo Irusta (Asterrika-Berriatua) me aseguró haber visto y medido un sel invernizo en Barrundia no lejos delos límites de Salinas de Léniz".

[233] *Asparrenako mapa*, 1: 15.000.

[234] Megalitoak aurkitu dira Aiara haranean, Añesen (tumuluak eta trikuharriak), Oletarren (trikuharria; Menoion) eta Ledoñon (Aiara mugan) hain zuzen. Barrenengoa (1989-I: 17.)

[235] 1805, GA1. Salbada mendikatean *Sel de Bellota* dago; Barrenengoa (1989: II, 409).

Aiarako toponimiaz ari garenez gero, atentzioa ematen digun toponimoa dago Olabezarren: *Zaraobe* edo *Saraobe*[236]. Hasteko, hitz bi hango historiaz. Aiarako Batzar Nagusiak han ospatzen ziren[237]. Aiaraldeko toponimia-bilketan *Saraube* (1799, *casa*, *campo*), *Zaraobe* (*heredad*) eta *Saraobe* aldaerak daude jasoak. Barrenengoak (1989-III: 358) *sarobe* hitzarekin lotzen du Olabezarreko toponimoa, baina, ezinezkoa izan gabe, etimoa hori izatea zaila iruditzen zaigu. Goazen harritu gaituen toponimoaren berri gehiaho badagoen ikustera.

Gerardo Lopez de Gereñuren (1989: 154) *Toponimia Alavesa*-n *Zaraube* toponimoa hirutan ageri da; Amurrion (*antiguo solar*), Letonan (*barranco y fuente*, Zigoitia) eta Letonatik oso urruti ez dagoen Jugon (*labrantío*, Zuia). Hortaz, Amurriokoa ez da *Zaraube* bakarra Araban. Toponimia-bilduma berean *Contrasaroa* eta *Saroa* ditugu Urrunagan (Legutio; 158 eta 441 or.). Hitzak hizpidea ekarrita, esan dezagun *Zaro* toponimoa behin baino gehiagotan ageri dela, bai Zuian[238], bai Sarrian [Zuian], baita Ametzagan [Zuian].

Beste toponimo deigarria Alda-Done Bikendi Harana mugako (Harana) *Zaroichipi* da (1753; Lopez de Gereñu, 1989: 515). Inguru hartan *Saronausia*[239] (1667, Alda-Done Bikendi Harana muga; Lopez de Gereñu, 1989: 441) / *Sarenausi* (1789, Done Bikendi Haraneko

---

[236] Cf. Urdiaingo *Sarabe*.

[237] "En el alto de Zaraobe o Saraobe, a la salida de Amurrio hacia Respaldiza, tenemos el recinto cuadrado de pequeñas almenas, en medio del cual se halla la mesa con sus bancos colaterales de piedra, alrededor de la cual se celebraban las Juntas Generales de la Tierra de Ayala". Barrenengoa (1989-I: 116). Cf. Ibidem 13. Hitzak hizpidea ekarrita, Abadinoko Gerediagaz bi zertzelada. Auzoa muinoan dago kokatua. Abadiño ikusten da handik eta bertan dago San Salbador baseliza. Oso ezaguna da garai batean zinegiteko baseliza zelako eta Merindadeko batzarrak hantxe egiten zirelako. Baseliza aurreko zelaian harrizko hamabi jarleku daude inguru-inguru ezarrita, eta erdian jarleku nagusi bat.

[238] "*Zaroa* (abundantes términos en distintos lugares". Lopez de Gereñu (1989: 515 or).

[239] Txintxetrun *Saroguelu* forma topatzen dugu (1765, *labrantío*), Dulantzi ondoan. Lopez de Gereñu (1989: 441).

mendia; Lopez de Gereñu, 1989: 440) dago. Handik ez oso urruti *Zarpea* (1758, Kontrastako mendia; Harana; Lopez de Gereñu, 1989: 515) / *Zarpia* (Kontrastako pagadia; Harana; Lopez de Gereñu, 1989: 516) eta *Zarpecogaña* (Agurain-Iturrieta muga; Lopez de Gereñu, 1989: 515) toponimoak daude. Halaz guztiz ere, *korta* aurkitzen dugu Entzia-Iturrietan zein Arraia-Maeztun: *Cortachipi*, *Cortagaina* (Iturrietako mendiak; Lopez de Gereñu, 1989: 160), *Cortandi* / *Cortaundi* (Entziako mendi-gaina; Lopez de Gereñu, 1989: 160). Bide beretik, *Cortazarra* (*monte*; Lopez de Gereñu, 1989: 160) dago bildua Birgara Goienen (Arraia-Maeztu).

Azala utzirik, gatozen mamira. *Saro* / *saroi* aldaeren eremua, Gipuzkoa-Nafarroetako mugaz haraindi, Araban sartzen da, barruraino sartu ere. Asparrena-Donemiliaga eta Harana-Iturrieta inguruetan argi eta garbi ikusten da hori, baita Zuia-Legutio aldean ere. Marrazki hori, haatik, ez da zehatza dagoen dagoenean, ezta egiazkoa, era berean *gorta* / *korta* aldaerarena aintzat hartzen ez bada behintzat. Alde horretatik, *-korta* dugu Barrundian, *-korta* / *-gorta* Aiaran eta *-gorta* / *korta-* Entzia-Iturrietan nahiz Arraia-Maeztun. Ikusteko dago Entzia-Iturrietan zehazkiro zer gertatzen den. Izan ere, Entzian ez dugu *saro* / *zaro* aurkitu, bai ordea Urbasan (*-sao*). Hauxe da egia: ez dakigu sortaldeko *saro* / *saroi* sartaldeko eremuan (Zuia-Legutioraino) hedatu den ala, alderantziz, *-gorta* / *-korta* (Agurainen edo / eta Maeztu-Arraian barrena) Entziaraino zabaldu den.

Guztiarekin, Asparrena, Zalduondo, Barrundia, Donemiliaga, Gasteiz, Legutio, Arrazua-Ubarrundia eta Aiaran saroiak / kortak egon dira. Idatzizko lekukotasunak daude. Gehiago behar dutenentzat bihoa beste argitasun hau: erdiko mugarrien arrastoak daude Arrazua-Ubarrundian eta kanpoko mugarri edo baztermugarrienak Barrundia, Asparrena eta Donemiliagan. Entzia mendikateaz mintzo bagara, 1418. urteko liskarra egiazki nola amaitu zen ez dakigu,

alegia, azkenerako Oñatiko jaunak *saroi* / *korta*-rik zedarriztatzea lortu ote zuen ala guztia eginahal hutsean gelditu zen[240].

Arabako *saroi* edo *kortek* (eta euren izenek) tradizio idatzian utziriko arrastoaren jarraipena Donemiliagako zerga-zerrendaren garaia arte luza liteke. *Ola*, Mitxelenak garbiro azaltzen duenez, *olha* formarekin agertzen da Donemiliagako 1025. urteko idazkian (*Harriolha*, *Mendiolha*, *Zuazulha*, *Barolha*, *Olhaerrea* eta *Olhabarri*). Errenteriako maisuarekin bat egiten dugu: alferrikakoa da *-ola*-k 'etxola' edota 'lekua' adiera zuen antzematen saiatzea. Dirudienez, erronkarieraz eta zubereraz ezagutu dugun esanahia ('etxola') da *ola*-k jatorriz Euskal Herri guztian zuena[241]. Galde daiteke orain ea beti 'saroia' adiera izan duen, alegia, *ola* guztiak beti saroiak izan diren.

2.1. 2004ko urtarrilean, Alonsotegiko udalarentzat lan bat egiten ari zela esanaz, Iratxe Uriguenek mezua igorri zigun. Seinalez hornitzen ari ziren *PR* baten ondoan kortak zeudela jabetu ziren eta, asmoa, ezagutzera emateko iragarkia jartzea zen.

Iratxerekin hartuemana estutzen joan zen. Argazkiak, mapak eta idazkiak bidali zizkigun, eta guk, ahal genuen bezala, panela osatzen lagundu genion. Iritsarazi zigun informazioaren artean, aitortu beharra dugu Artiba eta Garrastatxuko kortarrien argazkiek harritu gintuztela gehien. Posta-elektroniko bidez jaso genituen mapa zaharrak ere ederrak dira, bai, baina bi kortarriak adina ez. Mendabioko erdiko gunea zekarkiguten gogora, baina, tamainari dagokionez, Alonsotegikoak halako lau baziren. Artibakoak bere horretan zirudien argazkietan, baina Garrastatxukoan gizaki "modernoaren" arrastoa nabarmen ikus zitekeen. Bi mugarri berri zeuzkan josiak goiko aldetik, zein baino zein zatarragoa.

---

[240] 1408. urteko idazki batean, azkenerako, finkatu zirela esaten da. Pozuelo Rodríguez (2001: 47).

[241] Mitxelena (1989 [1953]: 483-484).

Egunak joan, egunak etorri, Alonsotegiko kortak ikusteko data jarri genuen. Martxoaren amaieran joan ginen mendira, gidari eta guzti gainera: hango mendizaina den Jose Antonio Cáceres. Herriko plazatik abiatu ginen eta ibilbideko aurreneko geldialdia *Gongueda de abajo* korta nagusian egin genuen. Mugarri berria dago han; mugarri zaharraren arrastorik ez genuen ikusi bizkar hartan (455 m). Birlandaketen eta *bulldozer*-en beste fruitu bat? Hurrengo ikustaldia ondo-ondoan dagoen *Peripando*-ko korta nagusian egin genuen, eta berdin. Lepo hartan (480 m) mugarri berria baizik ez dago.

Gongeda, Peripando eta Artibako kortak. Artibakoa goiko aldean dago, eskuinean.

Handik *Artiba mayor*-ko kortara jo genuen eta, baserrira iristen ari ginela, bide-ondoan, kortarria aurrez aurre ikusteko parada izan genuen[242]. Zilindro forma du (0,85 metroko diametroa) eta lurretik

[242] UTM koordenatuak X. 501.898 – Y. 4.785.277 – Z. 425.

0,69 metro ateratzen da. Hareharriz egina dago. Harri askok landuak dirudite, eta eraikuntzan kare-morteroa erabili zutela ikusten da. Gaineko aldea laua da. Hormari eusteko jarriak diruditen hiru harlauza ditu alboan; NW, NE eta SW norabieak dituzte.



Artibako kortarria. Kokapena eta argazkia.

Artiba mayor-tik *Garrastatxu menor* korta txikira hurbildu ginen[243]. Hango kortarria Artibakoa bezalakoa da: zilindro formakoa (1,15 metroko diametroa), harri askorekin egina eta alboetan euskarriekin (W eta NW). Metro erdiko garaiera du. Arestian aurreratu dugunez, beste bi mugarri "berri" ditu gaineko aldean txertauta.



Garrastatxuko kortarriaren kokapena

Garrastatxuko kortarria

[243] UTM koordenatuak: X. 505.205 – Y. 4.784.412 – Z. 515.

Antzekotasunak-antzekotasun, bihoaz ohar batzuk Garrastatxu eta Artibako kortarriez:

Garrastatxuko kortarria ez dago zabalunean, mendiaren kontra baizik, aldapan (520 m).

Garrastatxuko hareharriak meheagoak dira; Artiban baino harri gehiago erabili behar izan zituzten kortarria eraikitzeko.

Hareharriak ez daude landuta eta ez dirudite Artibakoen toki berekoak.

Ez dago karearen arrastorik, harrilehorrezko horma ematen dueta. Haatik, lurra ikusten da harri-artean.

Ez dugu behar baino gehiago esan uste Garrastatxuko kortarriak Artibakoak baino zaharragoa dirudiela esatearekin.

Txangoko azken ikuskizuna *Aldanazarra* korta izan zen. Aurrekoak baino gertuago dago herrigunetik. Kortarria baserriaren ondo-ondoan aurkitzen da, belardiaren erdian. Ez du batere antzik aurreko biekin. Hareharri arrunta baino ez da (0,26 m x 0,17 m x 0,25 m). Esan zigutenez, kortak 9-10 hektareako azalera du. Korta neurtzeko garai batean kateak erabiltzen zirela ere jakinarazi ziguten.

Zenbait datu osagarri eskatzeko 2004ko urriaren hasieran Iratxeri mezua igorri genion. Erantzuna ez zen makala izan. Eskaturiko informazioaz gainera, *Koskorrako* kortarriaren bi argazki eder iritsarazi zizkigun eta, hori gutxi balitz, *Genbeko* (Munitibarko) beste bi kortarrirenak ere bai. Koskorrako kortarria gutxi (edo batere) landutako hareharria da, gaineko aldean gurutzea osatzen duten lau marra dituena. Munitibarko biek ere gaineko aldean lau marra dituzte, baina hango hareharriak landuta daude. Prisma laukiluzeak dira. *Koskorra* izeneko korta *Garrastatxu* eta *Artiba*-tik hurbil dago. Guztiak Pagasarri-Ganekogorta inguruan daude, baina, gorago esan dugunez, bi erdiko gune horiek oso bestelakoak dira.

2.2. Iratxe Uriguenek iristaraziriko informazioaren artean Alonsotegiko korten alderdi interesgarriak biltzen dituzten agiriak daude, batzuk berriak, besteak zaharxeagoak. Berrienak urte batzuk baino ez ditu. *Ganekogorta* mendiaren zedarriztatzeaz egindako behin betiko txostenaz ari gara[244]. Korta hauek daude 499 hektareako mendian[245]: (nagusiak) *Ordaola de Arriba, Ordaola de Abajo, Gibelaranbeiti, Usagortazarra, Abiza, Gastarriaga, La Sebe, La Magdalena, Koskorra, Peripando, Gongueda de Arriba y Beagorta*; (txikiak) *Porteola, Iturrioz, Garrastatxu, Sarrakolanda* eta *Bigorta* edo *Rigoitia*. Txostenak dioenez, korta nagusien azalera 17-18 hektarekoa da eta txikiena, berriz, 8 hektareakoa. Xehetasunetan sartuz gero, korten mugarriztatzeaz honako oharrak egiten dira (BFA3, 1, 3):

> "*... si bien ha existido una tradición oral de medición de los seles con cadena, incluso puede que existan en algunas casas restos de éstas, es a partir de 1909 cuando consta el primer plano con la ubicación de los seles perfectamente circulares, hecho que concuerda con la realidad actual.* (...) *... no conocemos a nadie que haya actuado en una medición de seles con cadena y por el contrario la propia ocupación y uso de estos terrenos demuestra con pequeños errores, a veces por exceso y otras por defecto, que la delimitación de los mismos proviene de mediciones topográficas*."

> "*... es probable que la mayor parte de los seles,* (...) *hubieran basado su delimitación en estos levantamientos topográficos de principios de siglo, promovidos por el Ayuntamiento de Baracaldo y los propios particulares y facilitados por la ausencia de vegetación arbustiva o arbórea que impidiera la realización de visuales largas a partir del mojón central.* (...) *y tampoco existen evidencias de los*

[244] Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mendi-Zerbitzuaren buruak sinatzen du.

[245] Hamaika norbanakoenak dira, eta beste sei Herriarenak.

perímetros de las fincas como cárcavas, muros o cierres que las delimiten, que permitiesen un levantamiento por recorrido."

Zedarriztatzearen azalpen-txostenean ere (BFA2, 1) datu esanguratsuak irakur litezke:

"*... la mayor parte tienen su origen en pocas familias por los años 1800, fechas de las primeras inscripciones*".

Nolanahi ere dela, goiko pasartea ez da oso zehatza, izen-ematea gauza bat delako eta sorrera edo jatorria bestea. Hurrengo hau sinesgarriagoa iruditzen zaigu:

"*... se intersectan con seles colindantes, cosa que probablemente no sucedería si como dice la versión popular, el límite exterior del círculo se midiera con cadena, acomodándose a los relieves del terreno*".

Kortarri zaharra (*piedra cenital antigua*) gorde duten korta nagusiak hauek lirateke (BFA2, 3): *La Seve, Peripando, Artibagoitia, Gongueda de arriba y Gongueda de abajo, Artola, Beagorta, Usagortazarra, Koskorra, Ordaolagoitia, Guibelaranbeitia, Enekogorta, Zamaia*; korta txikiak: *Garrastatxu, Rigoiti, Iturrioz, Porteola, Guibelarangoitia*. Hauek ditugu, ostera, kortarri zaharra galdu duten korta nagusiak: *La Magdalena, Gastarriaga, Ordaolabeitia, Mintetxu, Kortabarri*; korta txikiak: *Pagasarri, Sarrako* eta *Querequiaga*.

Beste dokumentu interesgarria Pagasarri ondoko korta-mugarriztatzearen azalpena da. Idazkia 1830. urtekoa da eta bi mapaz hornitua dago. Garbi esaten du: *Guibelaran beitia* eta *Abisako* kortarriak han zeuden orduko (BFA1, 1):

"*...quedando existentes las piedras cenizales de dichos seles de Guibelaran beitia y el de Abisa*."

Urdaolakoa ez da aurreko bien aldi berekoa, mugarri berria orduan jarri baitzuten:

> "*En el mencionado punto del sel de Urdaola de abajo se ha fijado una piedra cenizal ejecutada de cal y canto (...) En la inmediación de la neveras de Pagasarri bajando hacia la ondonada junto a un calero viejo, se ha fijado la piedra cenizal que faltaba del sel de Urdaola de arriba, la que se ha ejecutado de cal y canto, y en su circunferencia se han colocado ocho mojones...*".

Bi hitzetan esateko, Alonsotegin hogeitik gora korta duaude, gehienak elkarren ondo-ondoan, eta, askotan, bata bestearen gainean[246]. Zenbait gune (Garrastatxu eta Artiba) bereziak dira. Horma moduan eraikiak, zilindro tankerakoak eta handiak. Bestea, Koskorrakoa alegia, bakuna da, gaineko aldean gurutzearekin. Ez dugu uste aurreneko aipamenak 19. gizaldiakoak direlako, nahitaez, Alonsotegiko kortek ordukoak izan behar dutenik, aukera hori, halaz guztiz, ezinezkoa ez bada ere.

3.1. 2004. urteko ekainaren 21ean, San Luis egunez, Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Sailak antolaturiko ibilaldira joan ginen (Elgoibarrera). Irteeraren ikuskizunetako bat *Muniola sarobea* zen eta, inguru hura ezagutzen ez genuenez, aukera ederra iruditu zitzaigun egun hartan goiz eder bat emateko.

Bilgunera iritsi ginenean (A8 autoestratako 14. irteerara), gidariak, Javi Castrok alegia, egitarauan aldaketatxoa egiteko asmoa zuela azaldu zigun guztioi. Aurrena izan ordez, *Muniolako sarobea* azkena ikusiko genuen. Eguerdian etxera itzultzekotan ginenez, Javi Castrori Muniola non zegoen galdetu eta gure kasa joatea erabaki genuen. Aitor dezagun, luzatu gabe, Javi Castro ezaguna dela eta aldez aurretik bagenekiela ez zigula trabarik jarriko. Gehiago ere esango dugu: jakitun ginen beharrezko argibide guztiak emango zizkigula.

---

[246] Cf. Ormaetxea & Zabala (1988: 426).

Joateko modua adierazi ondoren, Javi Castrok argitu zigun ez zekiela *Muniola* (edo *Iturralde*) izeneko kortaren erdiko gunea non zegoen. Aurkitu zituen hirurak baztermugarriak ziren, agidanez. Hark emandako marrazkia eskuan, *Lizundia* baserriraino igo ginen automobilez, *Zabala* eta *Muniolan* (*Momiolan*) barrena. Lizundiatik sartalderantz hartuta iristen da *Muniolako* kortara, baina, Lizundia baserriaren aurrean geundenez, han bizi zirenei kortaren berri emateko eskatzea bururatu zitzaigun, horrelako egoeretan euren laguntza oso baliotsua izan ohi delako.

Lizundiako Antonio Astigarragari[247] eta semeari kortez eta kortarriez galdetu genienean segituan, biek, *Zabaleren korta* adierazi ziguten besoarekin, sortalderantz begiratuz. Esandako tokian *kortarrixa* omen zegoen, aurkitzen erraza. *Zabaleren korta* Lizundia baserrikoa da gaur egun.

Argibide franko eman zizkiguten Lizundiako aita-semeek eta muinoa aurkitzeko arazorik ez genuen izan. Halaz ere, hara iritsi ginenean ezin izan genuen *kortarrixa* aurkitu; belar luzea zegoen. Lotsa-lotsa (eta amorrarazi) eginda Lizundiara itzuli ginen, azalpen zehatzagoak eskatzeko. Antoniok, gutaz errukituta, kortaraino lagunduko zigula esan zigun.

Zabaleren kortako erdiko gunea muino batean (509 m) dago, gune garaienetik 100 bat metro hegoaldera, bidearen ondoan, belardian, hesitik gertu. Madarizuri baserritik 750 metro ekialderantz dago eta Lizundia-Lizundiagainekoa baserrietatik 1.000 metrora, gutxi gorabehera[248]. Kortarria karaitzezko prisma laukia da (0,29 metro ditu alde bakoitzean). Lurretik 0,40 bat metro ateratzen da. Gaineko aldean zortzi marra ditu, izarra osatuz, laukia alde batetik bestera zeharkatzen dutenak[249]. Erdian 0,10 metroko diametroa duen biribil txikia dago harrian landuta. Kortarriak ez du harririk

[247] Azkoitian jaioa.

[248] UTM koordenatuak: X. 551.624 – Y. 4.786.316 – Z. 495.

[249] Kortarriaren gaineko aldean dauden marrenak eta puntu kardinalak ez datoz bat, erabat behintzat.

ondoan, begibistan bederen. *Zabaleren kortako* kortarria Elgoibar-Mendaro mugan dago. Gehiago da: bi herri horien arteko mugarritzat erabiltzen da egungo egunean. *Zabaleren kortak* 250 bat metroko erradioa du eta, hortaz, 18 gorabileko korta da, Bizkaiko eredukoa neurriari dagokionez. Bihoaz bi hitz ildo horretan. Elgoibar eta Mendarokoak tarteko hizkerak dira, sartaldeko eta erdialdeko euskararen artekoak, alegia (Zuazo, 2004: 61-62).

Antonio Astigarragak *Lizundiaazpiko* kortaren berri ere eman zigun, eta ez hori bakarrik; *Zabaleren kortatik* bueltan, talaitxo batetik, *Lizundiazpiko kortarrixa* non zegoen erakutsi zigun. Belardiaren erdian dago, Lizundiazpi eta Lizundiatxabola baserrien azpian[250], 150 metro hegosartalderantz, ordekatxo batean. *Zabaleren korta* eta *Lizundiaazpiko* kortarriak 835-850 metrora daude bata bestetik eta oso antzeko latitudeak dituzte biek.



Lizundiaazpiko kortarriaren kokapena

[250] UTM koordenatuak: X. 550.793 – Y. 4.786.366 – Z. 261.

Kortarria *Zabaleren kortakoaren* antzekoa da. Karaitzezkoa da (0,24 metroko garaiera), prisma formakoa (0,32 metro x 0,34 metro), gaineko aldean izar tankeran landuriko zortzi marra eta erdiko biribiltxoarekin. Kortaren erradioa 250 bat metrokoa da han ere.

Lizundiaazpiko kortarria

Lizundiazpiko kortarriak badu, ordea, ezaugarri berezia. Lurrean sarturiko zazpi harri daude osagai nagusiaren inguruan. Harriok izkinetan daude eta, bat izan ezik, gaineko aldeko marrek adieraziriko puntu kardinalekin bat datoz; hegoaldekoa baino ez da falta. Marren norabidearekin bat ez datorrena hego-mendebaldekoa da. Zazpi harri horiek zentimetro batzuk baino ez dira ateratzen lurretik eta ez dirudite landuak. Baserrikoei harri horien zergatiaz galdetzeko aukerarik ez genuen izan.

Nolanahi ere dela, zazpi harri egotea halabeharra denik ez dugu uste (ikus 7.§). Horrelako kortarria ikusten dugun aurreneko aldia da, baina, dirudienez, badira gehiago. Hori da, behintzat, Barandiaranek (1955: 342) biltzen duena[251].

[251] "...el caserío "Burgoa" de Berriatua es "korta", es decir, sus terrenos forman coto redondo alrededor de la casa y de la piedra o mojón central llamado "korta-arri"

Lizundiaazpiko kortarriaren planta

3.2. Izan, baditugu Elgoibarko kortei buruzko idatzizko berriak, hori bai, ez dira zuzenean jasoak. Duela zortzi urte baino gehiago Koldo Lizarralde adiskideak Elgoibarko kortei buruzko zenbait datu igorri zizkigun. Elgoibarko 1628ko agiri bat iturritzat erabiliz, garai hartan Olaso etxeak honako kortak zituela jakinarazi zigun[252]: (negukoak) *Momiola, Lizundia Goitia, Eyzaga, Orbelz, Ecaiz, Zalteguiaran, Beoain el de abajo, Mendibelza, Ballugoitia, Olazarraga, Insausti* eta *Areizola*; (udakoak) *Urrusta, Aseguinolaza, Azcarate, Astigarrola, Upaegui, Beoain el de encima, Belauztegui, Gambocorta, Cortaduy* eta *Cirarda*. Etxeberriko San Andres monasterioaren kortak, berriz, hauek ziren: (udakoak) *Chispio, Lopeolaza, Olorra, Azalola, Ariznabarreta, Jaurgain, Osaurteaga, Oñastegui, Arnoate*; (negukoak)

---

que está al lado. Es una piedra en forma de prisma de sección cuadrada, metida parcialmente en la tierra. Tiene alrededor piedras de menor tamaño, también metidas en la tierra, tantas cuantos son los terrenos de otros propietarios con los que confina el sel. En la cara superior...". Cf. Castro (1997).

[252] 1451. urtean herri-lurrak zedarriztatu zituzten Elgoibarren. Hogeita bat korta Olasoarrenak ziren (*Momiola, Lizundia, Insusadi* eta *Azcarate*, besteak beste). Iturria: Javi Castrok banaturiko sinopsia.

Igustegui, Insusadi. Berroeta (Markinako) etxekoak, azkenik, *Pererain en Uzcaregui* eta *Muiza* ziren (udakoak biak).

Koldok iritsarazitako informazioaren artean 1628ko idazkiko pasarte batzuen traskribapenak zeuden:

> " [*siempre la villa habia gozado...*] ... *sel del puesto que se nombra de Arricrutz del valle de Ermuaran...*"
>
> ...
>
> "... *y para que no hubiese ningun engaño convenia todos los dichos seles de la jurisdicción se midiesen con la pertica de la casa de Olaederra (...) en los seles enteros y mayores a cada sesenta perticas alrededor y en los menores y medianos a cada treinta...*"

Díaz de Salazarrek (1997: 453), Lasaldeko burdinola mintzagai duela (1446. urtea), *Aranoguíbel*, *Cortaberri* eta *Erenza*-ko gorten berri ematen du. Ikertzaile berak, beste lan batean (1983-II: 86), *Leizaola* eta *Oleraso* izeneko kortak aipatzen ditu *Aranoguíbel*-en. Garbi ageri da Elgoibarren korta franko egon direla, berrogei inguru bai behintzat. Korta horiei buruz gauza bat eduki behar dugu gogoan: Gipuzkoan egonagatik, sartaldeko (Bizkaiko) neurriak dituztela.

4.1. Pirinioen eremu sartaldekoan, erromatar Inperioaren gainbeherarekin, herri germaniarren aurrean makurtu ez zen agintea eratzen joan zen[253]. 5. eta 6. gizaldietan zehar kanpoko aginteen eraginkortasuna ahuldu egin zen eta, frankoen eragina sumatzen hasi zenean, haiei aurre egiteko adina indar eta antolakuntza bazegoen hemen. Barne-harremanak, oro har, indartu egin ziren Pirinioen eremu sartaldekoan, baita batasuna eta zentralizazioa ere. Hizkuntzaren alorrean, esaterako, zatiketaren aurkako eta forma batuen aldeko joera egon zela ematen du[254].

---

[253] Urzainki & Olaizaola (1998: 295).

[254] Mitxelena (1981: 55).

Erdi Aroa arte irauten duten Inperio Berantiarreko bizilekuak gutxi dira. Finaga (Basauri) da salbuespenetariko bat[255]. Zenbait autorek azaldu dutenez, lehen Erdi Aro Goiztiarreko bizilekuak aldakorrak eta iraupen gutxikoak ziren. Horrek, haatik, biztanleak ezinbestean erdinomadak zirenik ez du esan nahi[256].

Ordu arte bizitzeko erabilitako eremuek atzeraka egin zuten 6. gizaldian. Biztanleria urritu egin zen eta toki estrategikoetan batzen joan zen. Gune horiek jauneriaren menpe egoten ziren. Izan ere, elite batzuek egoera baliatzen jakin zuten. Gizartearen antolaketan aristokrazia horiek zuten pisua haziz joan zen eta gudulariok herriarenak ziren eremuen kudeaketan esku hartzen joan ziren. Biztanleriak abeltzaintzari esker ateratzen zuen aurrera bizimodua. Lurraldeari egiten zitzaion presioa arina zen artean[257].

García Caminoren iritziz (2002: 326), Finaga (Basauri) eta Aldaieta (Langara Ganboa) bezalako hileta-hatua duten antzinako nekropoliak frankoek euren hazkunde prozesuan zehar egindako ibilbidearen lekuko dira. Finagako hileta-hatuaren iparraldeko izaera nabarmena da, adibidez. Sartaldeko Pirinioen mugan dagoen 6. gizaldiko hondakin pilaketa lurraldearen antolaketa berriaren lekuko litzateke.

Finagako nekropoliak iberiar penintsulan arrotzak diren ezaugarriak ditu, kontinenteko ohiturekin bat datozenak. Ehorzketa erritook 6. gizaldian hasten dira eta nortasun frankoaren loraldiaren lekuko dirateke[258]. *Facies* goizitiarrekoak diren materialak Pagasarri-Ganekokorta mendi-lerroaren ertzean aurkitu dira. Laburzki mintzatzeko, *facies* goiztiarrak iparraldeko eredu frankoekin du zerikusia, baina besteak, berriak alegia (7. gizaldia), bertako kutsua

[255] Behe Inperioan hasi eta biztanleriaren berrantolaketa garaia arte jarraitzen duen estratigrafia-katea du.

[256] García Camino (2004: 220-221) eta Azkarate (2004a: 39).

[257] García Camino (2002: 330, 376, 377).

[258] Azkarate (2004a: 48).

du[259]. Aurreneko aztarnek iparraldeko eredu frankoen nagusitasuna erakusten badute, aurrerago tokiko kultur ezaugarriak gailentzen dira[260].

Basauriko nekropoliko ehorzketa batzuek Erdi Aro Goiztiarraren hasiera garaiko hileta-hatu esanguratsuak dituzte. Finagako 3 eta 6 hilobiak apartekoak dira: Antzinate Berantiarraren eredu dira. Finagako 3. hilobia testuinguru frankoei dago lotua ezbairik gabe, burruka-aizkorari (*francisca*-ri) begiratu bestela.

Agerian ipini nahi genuke hemen Finagan aurkituriko brontzezko eraztunaren dekorazioa, sastatuzko teknikaz egina. Erdiko gunetik atertazen diren zortzi marrek izar antzeko ikurra irudikatzen dute. Esan beharrean aurkitzen gara Aldaietan eta Momoition oso antzeko marrazkiak dituzten bitxiak aurkitu direla[261]. Ehozrketa-hornidurok Europako sartaldeko eliteen aberastearen lekuko dira, besteak beste.

Basauritik (sartaldetik) Iruñeraino aurkituriko aztarnek erakusten dute 6. eta 7. gizaldietan eragin franko-akitaniar garbia egon zela. Sartaldeko lurraldea muga-eremu handi baten zati zen orduan, irekia eta Europako eraginen hartzaile ona zena[262]. Mitxelenak (1981), senaz, euskararen batasun aldia garai hartan gertatu zela iradokitzen du[263].

8. gizaldian egoera aldatu egin zen: Pirinio-inguruko muga estutzen joan zen, erresuma asturiar-leondarraren sorreraren eta karolinjioen nahiz musulmanen presioaren ondorioz. Jauneriaren indargabetzearekin haran, baso eta larratzak luberritzeko joera areagotu egin zen, erresuma asturiar-leondarraren babesean aurrena

---

[259] García Camino (2002: 326).

[260] Azkarate (2004a: 44).

[261] García Camino (2002: 61, 72-77). Ikus baita ere Azkarate (2004a: 42-45). Badaiteke horrelako nekropoliak Pirinio inguruetaraino iristea.

[262] García Camino (2002: 330).

[263] Gorrotxategi & Lakarra (2001: 429).

eta Iruñekoaren laguntzaz ondoren[264]. Landa inguruko biztanleak izan ziren aitzindariak luberriak sortzen, basoetan soiluneak eginez, etxolak eta gainerako hornidura eraikiz. Horrekin batera, edota handik gutxira, elizak eraiki zituzten eta, Europa osoan bezala, nekazariek ondasunak eman zizkieten. Guztiarekin ere, badirudi nekazari-bizileku egonkorrak agertzea 8. gizaldiaren ezaugarria dela[265].

8. gizaldiaren mugan, eta, batez ere, 9. eta 10. gizaldietan zehar, aldaketa gertatzen da biztanleria-sarean. Erabiliriko tokiak ugaritu egiten dira. Oizko mendi-mazeletan, adibidez, lur berriak eraldatzen dira[266]. Aldi hartan Europako sataldean hazkunde ekonomikoa egon zen. Zenbait eremutan, lehenagotik gertatu moduan, espazioaren ustiapena nahiko txikia izan zen, jauneria abeltzainak lurraldean egindako presio ahularen ondorioz edo.

Giza-taldeak txikiak ziren. Momoitioko aztarnategian, konparazio batera, hamabost bat laguneko taldea bizi zen[267]. Kristau-aurreko

---

[264] Hazkunde hori 8. eta 11. gizldien arteko bizilekuetan ikus daiteke, antza denez. García Camino (2004b: 254-257).

[265] Azkarate (2004a: 38).

[266] García Camino (2002: 377-378). Ikertzaile honen ustez (2002: 116-18, 272), saroiak bi prozesuren ondorioa dira: basoan argigune biribilak irekitzearena eta herri-lur edo zilegimendiak norbanakoek bereganatzearena. Dioenez, Momoitioko nekropoliaren garaian (8.-9. gizaldian) beheko lurrak basoak ziratekeen artean, ez saroiak. Abeltzaintzarako lurrak, eta basoak, norbanakoen eskuetara pasa ziren pixkanaka. Aurrena, Erdi Aroan, saroiak eraikiz. Bizkaiari buruzko lehen testuak agertzen direnean basoa eta mendia norbanakoen eskuetan gelditu zirelako adierazleak ikusten ditu: mugatu eta itxi egin zituzten zenbait zati bereiztean, belardi berriak eta *dehesak* sortzean, seguruenera, saroien aurrekariak direnetan. García Caminoren (2004: 237) hitzetan, 1000. urtean abeltzaintza-eremuan basoa zen nagusi, artean. Haatik, eremu hori atzeraka egiten ari zen. Jabe handiek basoko zatiak luberriru zituzten. Bizileku eta soroetatik urruti zeuden basoko sailak moztu zituzten, belardi berriak sortzeko eta abeltzaintzako itxiturak egiteko, baita belar eta egurretako. Orduko idazkietan *dehesas* (eta Gipuzkoan *cubilares*) esaten zaien aurkintzak saroiak izan litezke, García Caminoren arabera.

[267] García Camino (2004b: 257).

ezaugarriek 8.-9. gizaldia arte iraun zuten Garaiko nekropolian[268]. 24, 27 y 55 hilobietan zeuden gizasemeek toki berean egindako zilarrezko eraztun bana zeukaten. Elipsean txertaturiko (zortzi erradioko) izar antzeko ikurra dute marraztuta eraztun horiek, beste nonbait esan dugunez, Antzinateko Aro Berantiarreko beste hilerrietan ere aurkitu dena. Ez dago hemen egiari uko egiterik: denboraz elkarrengandik guztiz beste direlarik ere, Finaga eta Momoitioko nekropolietan apaingarritako irudi bera dugu, eraztunetan teknika berarekin (sastatuz) landua[269].

Momoition aurkituriko eraztuna

Landa-inguruko biztanleei elizak sortzea komeni zitzaien askotan, diru iturrietara iristea bermatzen zieten eta[270]. Monasterioen inguruko ondasun-elkarreratzea 9. gizaldian indartu zen. Landa inguruko biztanleen errentetara iristeko baliabide eraginkorrak izan ziren elizak; gizartearen feudalizazioa bizkortu zuten. Eliza feudalizazioaren eragile nagusietakoa izan zen. Elizgizonak jabetzak eskuratzen joan ziren, euren ondasunak bana ez zitezen jabe handiek egindako emateez aprobetxatuaz, adibidez[271]. Ezin uka genezake garai hartan saroi berriak sortu zirela, baina darabilgun auziari arreta

[268] García Camino (2002: 115 eta 114). Erdi Aro Goiztiarreko hilerriotan hilobiratzeko kristau-erritoa zen nagusi (horniduarik gabekoa). Joera nagusiaren ondoan, aparteko ehorzketa erritoak antzematen dira eremu batzuetan. Oiz mendiaren mazeletan aurkiturikoak dira adibide garbia. García Camino (2004: 233).

[269] Cf. García Camino (2002: 109, 237).

[270] Op. cit., 378.

[271] García Camino (2004b: 262, 264).

pixka bat opa dioenak badaki, besterik gabe, saroi guztiak ez direla garai hartakoak.

11. eta 12. gizaldietan zehar, 9. gizaldian hasitako biztanleria eta ekonomia hazkundeak jarraitu egin zuen[272]. Erregezko-talde berriek, herrixketako ondasunak bereganatzearekin batera, eskubideak eskuratu zituzten herri-lurretan[273]. Aberatsak gailentzen hasten dira.

4.2. *Gorta* / *korta* hitza mailegua da, latin arrunteko *corte*-tik datorrena. Dokumentazioari eta euskal fonetika historikoari men eginez, Irigoienek (1975: 94) dio antzinako forma *gorta* dela[274]. Bartzelona bezalako beste inguru batzuetan 1000. urte aldera latineko testuetan agertzen den *curte-* formak *gorta* / *korta*-ren antzeko balioak dituela esaten du ikertzaile honek (antzina 'sel' eta ondoren 'cuadra'). Latinez zuen esanahia 'ukuilua' zela aintzat hartuz, alderantzizko bilakaerak bidezkoagoa dirudi, alegia, aurrena 'cuadra' eta gero 'sel' esanahia izatea. *Korta*[275] eta *sario*-rekin, neurri batean, horixe gertatzen da. Hegoaldean ez dute 'sel' esanahia, 'korralea' baizik.

Aspaldidanik esana dago *gorta* / *korta*-ren aurrekaria den *corte* latin berantiarreko *curtis, is*-etik datorrela, *cors*, *cortis*-en oinordea dena (*cohors*, *-ortis*-en laburdura goiztiarra). Latineko *cohors*, *-ortis* izenak *co-* eta *hort* (< *hortus*) osagaiak ditu. Bigarrenak 'ortua eta gainerakoak (txerritokia...) biltzen dituen espazioa' esan nahi du.

---

[272] García Camino (2004: 238).

[273] García Camino (2004b: 265).

[274] *Gorta* latineko *cohorte*(*m*)-etik datorrela aditzera ematen du, sartaldean *-e* eta *-a*-z amaiturako temak nahastu egin baitziren artikulua hartzean. Irigoien (1994 [1982]): 638).

[275] *Arcortea* dugu 1284. urtean Orreagan. Arzamendi (1985: 263).

Frantzian, Erdi Aro Goiztiarrean, izen latindar edo germaniarraren aurrean *ville* nahiz *court*[276] duten toponimo erromaniko andana sortu zen. Toki-izenok 8. gizalditik aurrera egindako fundazioei izenak ematen dizkiete. *Ville* zein *court* dituzten toponimoak antzinako domeinuetako alderdi populatuenetan nahiz luberritzeen ondorioz sorturiko guneetan azaltzen dira[277]. Erromatar Inperio Berantiarreko *villa*-k bezala, frankoen aroko *villa* edo *curtis*-ak landa-inguruko enpresak ziren, jabeek kudeatzaileei uzten zizkietenak. Ustiapenok aparteko garrantzia zuten. Hori dela eta, *Villis vel Curtibus* izeneko kapitularra idatzi zuen Karlomagnok 800. urte aldera[278].

Hitz batean esateko, Bizkaitik Nafarroaraino Erdi Aro Goiztiarraren hasieran eragin franko-akitaniar garbia egon zen. Ez dugu behar baino gehiago esan uste orduko *korta* euskaraz bazela esatearekin[279]. Zein adiera zuen, ordea? Hipotesi bat, lehenbizi 'ukuilua' eta gero 'sel' esan nahi izatea da. Litekeena dela deritzogu lehen Erdi Aro Goiztiarran zenbait kortetan erdiko guneak egotea (finkoak). Ildo horretan, agerian ipini nahi genuke Finaga eta Momoitioko eraztunetan aurkituriko izarñoa eta saroi askoren erdiko mugarrian agertzen dena irudi bera direla. Izan ere, bi aztarnategiak, baita Aldaieta ere, saroi-eremuan daude.

[276] Toursko Gregorioren *Historia Francorum*-en (538-594) *curtis* forma ageri da. Väänänen (1982 [1967]: 233).

[277] Ikus Doehaerd (1984: 43).

[278] Op. cit., 108-109.

[279] Sartaldean *gorta* / *korta* bigarren osagai moduan duen toponimo mordoa dago, erdialdean eta Nafarroan ez bezala, hau da, *Monchencorta* edota *Lexargorta* modukoak erdiguneko eremuko *Antzusarobe* edota *Amitesarobe* bezalakoak baino askoz ugariagoak dira. Osaketa hori duten toponimoak bereziki ugariak dira inguru jakin batzuetan, Gorbea, Urkiola edota Oiz aldean, adibidez.

7

Saroiak erdiguneko eremuan
Donemiliarren Zizurkilgo zazpi saroien neurriak

Gizabeteak, *hamalau-oinak*, *gorabilak* eta pertikak

> "La Gran Sala, como centro de la capital del mundo, debería ser, con un diámetro de cúpula de doscientos cincuenta metros, la más grande de todas las salas de reuniones del mundo entero."
>
> A. Speer

1. Zazpigarrenean, Zizurkilgoak erabiliz[280], neurketez ez ezik, saroien neurriez ere mintzatuko gara. Geografia hiztegian Zizurkili eskaintzen dion pasartean, honela mintzatzen zaigu Madoz (1991 [1845-1850]: 41): Zizurkil noizkoa den inork ez daki, baina udalerri horrek antzinakoa behar du izan; *San Millan* izeneko leinuaren sortetxea dago han, eta markesen jabetza hori aspaldikoa da oso.

San Millan leinukoak (domemiliarrak) ganboatarrak ziren, eta ez geldi egotekoak gainera. Erdi Aroaren mugan jauntxo-arteko

[280] Fortun Gartzia Elgetakoak eta Maria Beltrán Gebarakoak Elgeta-Bergaran zeuzkaten kortak ere zazpi ziren, baita Baztango Haranak Zugarramurdin zituenak ere (kus 8.5§). Orobat Berriatuan, *Elexpuru-nagusiko* gortei dagozkionetan; Barandiaran (1955:343).

guduetan ibili ziren, aurrean ibili ere. Donemiliarrak Gipuzkoako ahaide nagusi gudutsuenetakoak ziren[281], Lazkao, Olaso, Atxega, Jaolaza eta Gebaratarrekin batera.

Ahaide nagusion eta gainerako zizurkildarren arteko harremanak, hori da egia, ez ziren batere onak. Donemiliarrak herriaren jaun eta jabe ziren; elizaren nagusi ere bazirenez, erretorea aukeratu behar zen aldiro berena egiten saitzen ziren. Ez dezagun ahantz orduan elizak diru iturri garrantzitsua zirela, landa inguruko jauneriarentzat zer esanik ez. Zizurkilgo Herriak, noski, ez zuen amore eman nahi izaten eta, azkenerako, auzia Valladolideko Kantzileriaraino iritsi zen. 16. gizaldiaren hasieran gaude, 1527. urtean hain zuzen.

Donemiliakoen eta Herriaren arteko beste liskarra saroien neurriek sortzen zuten. Valladolideko auzitegiko artxiboan, 1539-1571. epean, hiru idazki (auzi) daude donemiliarren saroien neurriak direla eta. Auzien aitzindari nagusia (herriaz gainera) *Martín Ruiz de San Millán* "Zaharra" da[282], *Martín Ruiz de San Millán* eta *Juana Ruiz de San Millán*-en semea[283]. Noiz jaio zen ez daki inork. Hil, 1554. aldera hil zela badakigu. *Margarita Gabirikoarekin*[284] ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten. Maiorazkoak *Martín Ruiz de San Millán* zuen izena eta "bigarren izena", berriz, "Gaztea". 1540an *Isabel de Lasarterekin* ezkondu zen. Alarguna eta bi seme-alaba utzi zituen handik zortzi urtera[285].

Hitzez hitz azalduko dugu saroien neurria dela-eta irekitako aurreneko auziaren (1539-1542) izenburuak dioena[286]:

---

[281] Dakigunez, 15. mendearen erdi aldera dorretxea gudukatzeko erabiltzen zuten artean. Askok eta askotara esan dute, 1350.-1550. bitartean, Gipuzkoako historia ezin uler litekeela bertako dorretxeak (eta euren jabeak) aintzat hartu gabe. Ikus Aginagalde (1997: 73-76).

[282] Zandategi Lizentziadunaren koinatua.

[283] 1518. urtean hil zen.

[284] Errenteriako *Martín Ruiz de Gabiriaren* alaba.

[285] Díez de Salazar (1997: 765 eta 968).

[286] VEKA3.

"Sobre hacer medida nueva de hierro de la brazada o mesura usada para medir los seles del Concejo, la cual se encuentra en el quinto poste del cementerio en el anden de la iglesia de San Millán, existiendo diferencias entre los litigantes por las medidas que el adverso ha dado a los seles que utiliza. El Concejo de San Millán, contra Martín Ruiz de San Millán, señor de San Millán".

Auzi hori izango da atal honen hizpide nagusia, baita ere, saroien neurriak erabiltzeko aukera emango diguna.

San Millango jaunak Zizurkilen zituen saroien neurriez Valladolideko Kantzilerian dagoen bigarren idazkia 1542an hasi eta 1545ean amaitzen da. Izenburu hau du:

"Ejecución de carta ejecutoria de 1542/07/06, sobre hacer nueva medida en hoja de hierro, de la brazada usada para medir los términos y seles del Concejo, ya que según el adverso incumple las ordenanzas de la provincia al ser más pequeña que las usadas en Azpeitia y Azcoitia. El Concejo de Cizurquil, contra Martín Ruiz de San Millán, señor de San Millán[287]".

Hirugarren auzia (azkena) 1549. urtean hasi ziren idazten eta 1571. bukatu zuten. Lerroburu hau du:

"Sobre la medida "brazada", señalada en un poste de la iglesia de San Millán de Cizurquil, que utilizaban para medir los seles y bienes de la tierra de Cizurquil. Concejo de Cizurquil, contra Martín Ruiz de San Millán, vecino de Cizurquil y su hijo[288]".

[287] VEKA4.
[288] VEKA5.

2. Zizurkilgo saroiei lotzen gatzaizkien aurrenekoak ez gara. Luis Miguel Díez de Salazarrek ekarpen aipagarria egiten du 1983. urteko *Ferrerías de Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI)* bikainaren lehen liburukiko 112. orrian[289].

Díez de Salazarrek adierazten duenaren arabera[290], aipamenaren eta oharraren iturburua 1549. urtean hasi eta 1571an amaitzen den idazkia litzateke, goian bigarren tokian aipatu duguna, alegia. Auzietan gertatu ohi denez, Valladolideko Kantzileriako hirugarren (azken) idazki horrek aurretikoen laburbilduma egiten du. Donemiliarren eta Herriaren arteko liskarraren arrasto idatzia 1539. urtean hasten da beraz, eta horrexegatik auziaren iturburura jotzea

[289] "La capacidad del sel originó muchos pleitos, y parece que en toda la provincia se aceptó como criterio único la medida de la brazada que estaba señalada en un poste de la iglesia (luego trasladado a otro del cementerio) de San Millán de Cizúrquil (160)". Hitzez hitz emango dugu 160. oharrak dioena: "Cizúrquil, 2-IX-1539 = el alcalde, Martín de Aranestan, y tres diputados, pidieron al alcalde de Tolosa, copia de la medida de la "gorabille" que sus antepasados utilizaban y habían fijado en un poste "de la yglesia parroquial de Sant Millán", en el cementerio, fuera de la iglesia, "que hera el quinto poste del dicho çimiterio". De toda la Provincia venían a Asteasu a copiarla. Recelando que podría perderse la hicieron nueva, pero temiendo que de noche la deshiciesen, rogaban al citado Alcalde que, asistiendo ocularmente ante aquel poste, comprobase su autenticidad; si así la hallaba, ordenase tomarla "en oja tirada de fierro y sellada la tal …con el sello del conçejo…de Tolosa". Notificada esta petición a Martín Ruiz de S. Millán el mozo (su padre estaba ausente), con la medida sacada se midió el sel de Azarola por el Merino Mayor, Pedro de Sauceda por un lado; Martín Ruiz le dijo que debía hacerlo por todas las partes. El documento cita literalmente el diálogo: el Merino le contestó "ez", "que quiere dezyr non". Martín le contestó en un incomprensible castellano: "pus yo e otro romanze no sé sy esto no que midáys alderredor" y viendo al Merino llegar al "austerriza" del sel, impugnó la medición. Apelada la misma ante el corregidor (sept. 1542), éste decretó que la hoja de hierro (medida del "gorabil") se fijase en un poste de la casa de Andrazábal, ordenando que en adelante fuese tomada como modelo; a la vez sentenció que el sel común debía medir 168 brazas, y el sel menor 64 [sic.] (168 brazas de circunferencia)".

[290] "A.R.CH.V. Pleitos civiles de Fernando Alonso, fenecidos. Envoltorio 67".

erabaki dugu. Hiru auzietatik lehenengoa aintzat hartuko dugu hemen[291].

3. Herriaren ordezkarien arabera, saroien neurria San Millango parrokia-elizako zutabe batean jarrita (eta markatuta) zegoen, elizaren kanpoko aldean, zimiterioan (biltokian), Donostiatik Asteasu aldera errepidean goazela bosgarren zutabean zehatz-mehatz[292]. Zimitorioko neurriak hirurogei urte zeramatzan gutxienez han[293] (1480?). Sanmillandarrek (eta herritarrek) saroiak neurri horrekin neurtzen omen zituzten[294]. Hara nola hartzen zuten saroiak neurtu behar zituzten aldiro[295]:

> "*… y el dicho Martin Ruiz de Sat Millan tomo del quinto poste la medida de la dicha brazada de medir seles e saco su largura en un dardo suyo e fue con la medida e con los sobredichos compañeros al dicho sel de Açarola e medio con la dicha medida e brazada el dicho sel de Açarola fasta llegar a una esquina de la Venta Guruçeaga e con tanto despues de*

---

[291] Irargi-ko *Badator* bilatzailearen bidez aurkitu ostean, 1539-1542ko auziaren kopia bidaltzeko eskatu genion Valladolidgo Kantzileriako Artxiboko erreprografia zerbitzuari; baita haiek, zintzo asko, bidali ere.

[292] VEKA3, 3 au.

[293] *Domingo de Arrichipi* (Zizurkil, hirurogeita hamabost urte), VEKA3, 8 au.-8 bin. Data bera iradokitzen du *Martín de Andrizquetta*-k azken buruan, zeinak Herriak saroi gehiago zeuzkala esaten duen; VEKA3, 36 au.

[294] *Martin Perez de Larrandibuno* (Andoain), 30 au. Hauek dira Donemiliarrek Zizurkilen zituzten saroien izenak, elizako neurriarekin neurtzen zirenak, alegia: *Fagamendi, Areyzguruçiaga, Arrupe, Azquelayn, Mariolaça, Açarola* eta *Andrizquetasarobe*. *Martin de Andrizquetta* (Zizurkil), VEKA3, 36 au. Errezilgo *Tejeria* etxeko *Pedro de Arangoyen*-ek, ostera, honela izendatzen ditu: … *Fagamendi, Areyzguruçeta, Ezquelçu, Andreyzquettasarobe y Mariolaça Açalola e Arrupe (…);* VEKA3, 66 au.

[295] *Domingo de Rettenvarrendi* (Zizurkil), VEKA3, 38 bin. Azkoitian orobat egiten zuten. Balda etxearena zen *Autue* saroia neurtzeko, adibidez, hamasei urte lehenago honela jokatu zuten: "*…el Martin de Autue casero del dicho Hernando de Balda traxo al dicho sel una medida de brazada en un palo diziendo* …"; ik. 49 au. Orobat Errezilen (ik. 66 bin.).

medido el dicho sel bolbieron al dicho lugar de Çiçurquill al palaçio de Sant Millan."

Elizako neurria ez zen Zizurkilerako bakarrik aintzat hartzen. Legorretako San Salbador parrokia-elizan meza ematen zuen Martin Aranetak adierazten duenez, 1515. urte aldera, Zizurkilgo neurriaren bila etorri omen ziren Oiartzungo saroiak neurtu behar zituzten errenteriar baztuk[296]. Izan ere, badirudi Zizurkilgoa Gipuzkoako saroiak neurtzeko neurriaren araberakoa zela[297].

San Millango Martin Ruizek neurria burdinazko orri batean gauza zedila agindu zuen, jatorrizko luzera betiko gordetzeko. Orri horrek bi izkinetan Tolosako neurri-zigilua izan zezan eta elizako zutabean burdinazko iltzeekin jos zezaten eskatu zuen, baita *Ocazarreta* etxeko zutabe batean ere[298]. Aldez aurretik jakina daukagu, egin, horrela egin zutela[299].

Donemiliarrek kopia egin eta elizan jartze aldera erabiliriko argudioa hauxe da[300]:

" *..dize el dicho Martin Rruiz [de San Millá] que çiertas astillas que pareçe que estan quitadas al dicho quinto poste en la señal de la dicha braçada por la parte de abaxo le han hechado a perder la dicha medida* (..)".

---

[296] Hogeita lau urte lehenago; VEKA3, 5 bin.

[297] *Joan de Arangaiz* (Andoain), VEKA3, 31 au.

[298] VEKA3, 9 bin.

[299] "*...Fermyn dyrune al qual le fizo medir la dicha vara de avellano con esta hoha de fierro* (..) *e asi medida la dicha hojade fierro mando a Joanes de Vidasola vezino de la dicha villa que presente estaua sellase la hoja de fierro con el dicho sello acostumbrado de la dicha villa de Tolosa* (..) *para que los pusiesen* (..) *en el lugar donde esta mandado* (..); VEKA3, 10 au.

[300] VEKA3, 38 bin. Iritzi berekoa da *Domingo de Mamarinzelay*, Zizurkilgo Parrokiako erretorea; 52 au. Dirudienez, aspilditik omen zebiltzan fidakaitz neurriaz, aldatua zegoela baitzioten aurrekoek ere; 61 bin.

Hitz bitan: bigarren neurria jarri zuten Zizurkilgo Elizan sanmillandarrek, erabili behar zena hura zela esanez[301]. Horrexegaitik hasi zen, hain zuzen, saroien neurriei buruzko auzia Herriarekin. Neurri aldaketa horrekin sanmillandarrak Zizurkilen zituzten zazpi saroien azalera zabaltzen saiatu ziren[302] (bikoizteko eginahala egin zuten). Mutioren hilobiaren ondoan (bigarren zutabean) ezarritako neurri berriarekin *Fagamendi* eta *Açalolako* saroiak neurtu zituztenean *austerriça*-tik 168 *brazada*-ko luzera eman omen zuten, alegia, donemiliagarrek nahi zutena[303]. Jakina, auzian hitz egiten duten lekukoak alde bat edo bestea laguntzeko deituak dira beti, eta ez da harritzeko, hortaz, zenbait garaitan euren adierazpenak sinesgarriak ez izatea.

4. Gizpuzkoako beste herri batzuetan ere saroiak neurtzeko Udalek jarritako eta markatutako neurriak zeuden, 15. mendeaz geroztik behinik behin[304]. Azkoitian, esaterako, bi *estado o brazada* zeuden. Bata Bergara aldera ematen zuen hiriko (goiko) atean zegoen. Bestea, berriz, Azpeitia aldera ateratzeko atean (erdikoan). Biak antzekoak ziren, eta lurrak, egurra, oholak eta hormak neurtzeko erabiltzen zituzten[305], baita baratzetako ere[306]. Saroiak neurtzeko biak erabiltzen zituzten, hala goikoa (Bergara aldekoa)[307], nola edikoa (Azpeiti aldekoa). Bi *estadio* eta erdiko luzera zuten gutxi gorabehera.

---

[301] Herritarrak oldartzen hasi ziren, *Domingo de Calechipi* zizurkildarra kasu; VEKA3, 35 bin.

[302] VEKA3, 144 au.

[303] *Domingo de Mamarinzelay*, VEKA3, 52 bin. Bidebatez, diogun Zarateko Benta garai hartan *Açalola*-ko saroian zegoela eta *Fagamanedi*-n baserria aipatzen dela.

[304] Ikus VEKA3, 48 au.

[305] *Martín Ruiz de Urquidi* (Azkoitiko alkatea), VEKA3, 49 au.

[306] *Juan de Yçaguirre* (erregeren eskribaua): "*…de çincuenta años poco mas o menos a esta parte ha visto*"; VEKA3, 47 bin.

[307] *Martín Ruiz de Urquidi*-k dioenez, halaxe egin zuten *Autue* saroia neurtzeko. Balda etxeko saroia handia zen eta hamabi "coderas o gorauil" zituen; "*…Martin de Atue casero del dicho Hernando de Balda traxo al dicho sel una medida de brazada en un palo diziendo que la medida avia tomado de la medida que estaua en el dicho portal de Azcoytia por donde salian para Vegara* (…)",VEKA3, 49 au. Ikus, halaber, 63 bin.

Gipuzkoako Probintziaren oneritzia zutela adierazten da 1539ko testuan[308]. Erdiko atean zegoenari (Azpeiti aldekoari) saroia neurtzeko *pertica* esaten zioten. Saroi handiek halako 60 pertika zituzten hausterretzatik, hau da, 12 *codera* edo *gorabil*. Saroi-erdiek, berriz, halako 30 pertika zeuzkaten, hots, 6 *gorabil*[309].

Azpeitian ere saroaik neurtzeko *brazada* zegoen, *Joan Martinez de Oloçaga* kontadorearen etxean jarrita hain zuzen. Neurri horren zabalera etxeko atearen araberakoa zen, halako bat. Gutxienera jota, 16. mendearen hasieraz geroztik zegoen etxe hartan. Igeltserotza lanak, enborrak nahiz lurrak neurtu ohi zituzten, salmentetan bereziki. Azkoitian zegoenaren tamaina berekoa zen. Hau ere saroiak neurtzeko erabiltzen zen inoiz, Azpeitiko *Olarre* (*Solarre*) saroirako adibidez[310]. Gipuzkoako beste toki batzuetatik ere joaten omen ziren Azpeitiko neurria hartzera[311].

Azkoitiko goiko atekoa, Azpeitikoa eta Zizurkilgo Mutioren hilobiaren ondokoa neurri bera ziratekeen, ez ordea bosgarren zutabekoa (bost bat behatz gutxiago zituen). Behinola, *Fagamendi*-ko saroia, Martin Ruiz de San Millanen aginduz, bosgarren posteko neurriarekin neurtu zutenean, antza denez, ez zen 168 *estado*-ra iritsi[312]. Gauza bera gertatzen zen, itxuraz behintzat, *Acerrola* eta

---

[308] *Juan de Yçaguirre*: "*…en el dicho portal de arriba la dicha medida de las dichas dos brazadas e media poco mas o menos con que ha sido en medir los dichos seles* (…)"; VEKA3, 48 au.

[309] *Domingo de Yrarraga* (Azpeitia): "*… los seles mayores de doze coderas o gorauilles sesenta perticas de la dicha medida de dos braçadas e media poco mas o menos desde el mojon de medio que llaman austerriça a cada parte e los medios seles son seys gorabilles treynta de las dichas perticas y la dicha medida de la dicha pertica que esta en el portal de medio* (…)"; VEKA3, 49 bin-50 au. Horrenbestez, 2,74 metro bide zituen Azkoitiko pertikak. Elgoibarren, 1452. urtean 30 eta 60 *vara*-ko kortak aipatzen dira. Ikus 10.2§.

[310] *Juan de Ayzpuru* (Azpeitikoa, arotza, hogeita hamar urte, gutxi gorabehera), 50 bin. Saroia *Martín Peres de Ydiacays*-ena zen; VEKA3, 51 au.

[311] *Martin de Sagastiçaual* (Azpeitia, arotza); VEKA3, 50 bin.-51 au.

[312] Hori dio, behintzat, *Domingo de Murgia*-k (zizurkildarra). *Guruçeaga*-ko bentako ostalaria zen Domingo. Benta, beste nonbait esan dugunez, *Martín Ruiz de Sant Millan-*

Ezquelacar (Equelcar) izeneko saroiekin. Bosgarren zutabeko neurriarekin neurtuta neurriz kanpo zeuden (txikiegiak ziren[313]).

Ematen duenez, Zizurkilgo elizako bosgarren zutoineko neurria Errezilen zegoena baino hiruzpalau behatz txikiagoa zen[314], eta Aian zegoena baino *palmo* erdia edo[315]. Bistan da, beraz, bigarren postean zegoen neurria bosgarrenean zegoena baino luzeagoa zela[316]. Bide batez, diogun Errezilgo neurria *Tejeria* izeneko etxean zegoela, atarian, atetik kanpo, zutabe batean jarrita. Gehiago behar dutenentzat bihoa beste argitasun hau: zutabe horren beheko aldetik etxearen kanpo aldera zegoen markaraino zen neurria[317].

Probintziak saroiak neurtzeko *medida y brazada* jarri zuen Andoaingo *Isturiçaga* etxeetako batean. Oiartzundik etortzen omen ziren neurria hartzera, baina *Isturiçaga* etxea erre egin zen eta neurria desagertu[318]. Hura ere Gipuzkoako Ordenantzetan saroiak neurtzeko zehazturikoa zen (*gorabil* edo *codera*). 1484ko azaroa eta abenduan zehar Azkoitian ospatutako Batzar Nagusiek erabaki zuten saroi arruntak 12 *codera*-ko (edo 168 *brazada*-ko) diametroa izango zuela. Andoainen zegoenak halako *gorabil* edo *codera* bat neurtzen

---

ena zen; VEKA3, 55 bin. *Fagamendin* elizako bosgarren zutabeko neurria 168 aldiz hartuz gero gero zazpi edo zortzi *estado* (neurri) falta ziren itxita eta ereinda zegoen alderdira iristeko, hau da, saroaren mugaraino ailegatzeko (gorabil 1?). *Juan de Leyçaur*-ek (Aduna) jakinarazten du Mutioren hilobian zegoenarekin neurtuz gero, ostera, hiru edo lau *estado* sobera zeudela, saroitik kanpo alegia; VEKA3, 59 bin.

313 *Ezquelacar* saroiari dagokionean ez da harritzeko, txikietakoa zelako.

314 *Martin de Forsetta* (Zizurkil), 124 au. Hori bera adierazten du *Johan Ruiz Dechenagusia*-k (eskribaua, donemiliarren aldekoa), VEKA3, 126 bin.

315 *Domingo de Larrandoguno* (Zizurkil); VEKA3, 135 au.

316 Cf. VEKA3, 126 au.

317 "*…el dicho Pedro de Arangoyen jurado tomo un palo blanco derecho con el que fue a un poste que estaua en la delantera de la dicha casa de tejeria fuera de las puertas della que esta en medio dela dicha casa donde dixo estaua la dicha medida e mesura de medir los seles de la dicha tierra de Rexil señalado desde el pie de dicho poste hasta una señal que esta en el dicho poste hazia el sobrado de la casa …*"; VEKA3, 66 bin. Aurrerago, *Pedro de Arangoyen*-ek azaltzen du Errezilgo neurria behialakoa zela.

318 *Domingo de Ysturiçaga* (Andoain), VEKA3, 56 bin.

zuen[319]. Tolosa, Ordizia (Aralar), Segura eta beste herri askotan ere saroientzako neurriak zueden[320]. Elgoibarren ere ba omen zuten berea[321].

5. *Martín Ruiz de San Millán*-ek, hondarraren hondarrean Donemiliarrek, zazpi saroi zeuzkaten Zizurkilen eta haietatik bik edo hiruk 168 *brazada* zituzten euren esanetan, hau da, handiak ziren[322]; txikiek, ostera, 84 *brazada* bide zituzten[323].

Aldi hartan, jakina, Gipuzkoako beste zenbait tokitan ere saroi handiak eta txikiak zeuden; Zizurkilen inguruko herriei dagozkionetan, Aia, Errezil eta Aizarnanan esate baterako[324]. Sanmillandarrek Zizurkildik kanpo saroi gehiago zituzten eta horietako batzuk ere handiak zirela esaten da, Aiako *Garramyolaça* kasu[325] (168 *brazada*-ko erradioa).

---

[319] VEKA3, 63 au.-63 bin.

[320] *Jeronimo de Achaga* (Zizurkilgo hautetsia); VEKA3, 65 bin. Aralarren hirurogeita hamar saroi baino gehiago zeudela dio.

[321] Ikus 6.3.2. §. *Antonio de Achaga*-k (Zizurkil) ere herri bakoitzak berea zuela baieztatzen du; VEKA3, 69 au.

[322] *Domingo de Murguia*; VEKA3, 129 au. Aurrerago zeintzuk ziren zehazten du: *Açarola, Aresguruçeta* eta *Fagamendi*; 129 bin. Alabaina, *Domingo de Yriarte*-ren arabera (Zizurkil) *Fagamendi* eta *Venta [de Çarate]*-k baizik ez zuten 168 *brazada*-ko erradioa; 125 au.

[323] Cf. VEKA3, 125 bin.

[324] *Domingo de Çunçunegui* (Aiakoa, saroi nagusia zen Legarola baserrikoa); VEKA3, 131 au. Lekuko honek dio *Joan Ortiz de Çarauz*-en (*señor de la casa solar de Çarauz*) Aiako saroi erdiak 84 *braçada*-ko erradioa zuela; 131 bin. Hori bera esaten du *Miguel de Cincunegui*-k (Aia); 133 bin. *Jacue de Legarola*-k (Aia) ere adierazten du *Aranburu* etxearen saroi txikiak 84 *braçada* zituela; 134 au.

[325] *Joan Martinez de Manarinçelay* (Saiazko Alkatetza Nagusiko eskribaua): "… *eçepto que a doss partes no se amplian los dichos cient e sesenta e ocho braçadas poruqe pasan doss arroyuelos e arroyos* (..)"; VEKA3, 132 bin.

Zizurkilgo auzira deitu zituzten Oiartzungo lekukoek han eta Hondarribian saroi handiak eta txikiak zeudela azaldu zuten[326]. Handiek 12 *gorabil* (84 *brazada*) zituzten *austerriaça*-tik bazterreraino eta txikiek, berriz, 6 gorabil (42 *brazada*). 16. mendearen hasieran liskarra izan zuen Oiartzungo udalak Orreagako monasterioa, Rodasko San Joan prioratoa eta beste norbanako nahiz maizter batzuekin saroien neurria zela-eta. Azken erabakia izan zen Oiartzungo saroi handiek *austerriça*-tik 12 *gorabil* (84 *brazada*) izan zitzatela eta txikiek, berriz, 6 gorabil[327] (*42 brazada*).

Oiartzungo udalak epaile batek auzian esku har zezala eskatu zuen, eta Gorteak Luxan Lizentziatua bidali zien. Lizentziatuak Gizpuzkoan zegoen neurri aniztasuna ikusirik[328] (Zizurkilgo elizako bosgarren zutabekoa barru), *brazada* batean bildu zituen guztiak. Lartaungo San Esteban parrokian gordetzen zen neurri hori[329]. Gehiago esango dugu: bi neurri zeuden han, bata burdinan egina eta bestea egurrezko makilan. Biek Oiartzungo Udalaren zigilua zuten. Neurri horrekin, Lizentziatuak saroi handiak 12 *gorabiletan* (84 *brazada*-raino) finkatu zituen[330]. Argi dezagun handiak ziren bi saroi baizik ez zeudela Oiartzunen; gainerakoek 42 *brazada* zituzten. Guztietan bost mugarri ezarri zituzten, bat erdian (*austerriça*) eta beste lau izkinetan[331].

6. 1539-1542ko Zizurkilgo auziaz harturiko azken erabakiak saroi-neurria bosgarren zutabean zegoena izan zedila agintzen zuen. Burdinazko orri batean kopia egiteko ere bai, gal ez zedin, ondoren

---

[326] San Martinek (1988: 263) *Mugínça*, *Andialove*, *Gaiztanos*, *Leyurieta* eta *Leiçanavar* izeneko saroien berri ematen du Hondarribian (Jaizkibel, 1371. urtea). Lakarraren *Vasconia Medieval* lanetik hartuak direla aitortzen du.

[327] *Joannes de Yssasa* (Oiartzun, 64 urte gutxi gorabehera); VEKA3, 146 au.-147 bin.

[328] Cf. Carrión (1996: 60).

[329] *Joan Martinez de Herro* (Oiartzun); VEKA3, 148 bin.

[330] *Joannes de Yssasa* (Oiartzun); VEKA3 147 au.-147 bin.

[331] *Miguel de Arano* (Oiartzun; VEKA3, 154 au.) eta *Esteuan de Olayçola* (Oiartzun; VEKA3, 151 au.).

toki seguruan jartzeko (Tolosako zigilu eta guzti). Zizurkigo saroi handiek 168 *brazada* izan zitzatela ebazten zuen, eta txikiek, berriz, 84 *brazada*[332], baina, ikusiko dugunez, ez dugu uste horrela egin zutenik.

7. Gizaldi eta erdi beranduago, 1699. urtean hain zuzen, saroiak zirela-eta Sanmillandarren eta Zizurkilgo herriaren arteko gorabeherak bizirik zirauen[333]. Sanmillango etxeko jaunek, *Joseph de Aguirre* eta emazte *Doña Michaela de Oquendo San Millán*-ek, Zizurkilen zazpi saroi zituzten artean (*Andrizquetta saroue*, *Azarola*, *Mayolaza*, *Elquelzu*, *Arrespeondo*, *Pagamendi* eta *Arizcurrizeta* / *Arizcurizeta*). Ez dago garbi orduan saroi handiak zenbat ziren, bat edo bi: *Azarola*, edota baita *Pagamendi* ere.

Auzi honetan aurrekoaren berri ematen da eta garrantzizko zehaztapena egiten da. 168 *brazada* ez omen ziren erradioa, diametroa baizik:

> "*Se han expedido y despachado unas reales ejecutorias, y por ellas, y por los fueros de la dicha Provincia se hordena y manda que el sel mayor aya de terner ciento y sesenta y ocho brazadas de extremo a extremo atravesando por el dicho mojon de en medio, y el menor solo la mitad que es ochenta y quatro brazadas de extremo a extremo atravesando por el dicho mojon de en medio* (…)".

Zizurkilgo *Irazu de Yuso* etxearen aurrean burdinazko *brazada* jarri zela ere esaten da (Tolosako Hiriko zigiluarekin markatua). Auzia, saroien neurriaz baino gehiago, saroien ustiapenaz da oraingoan. Donemiliarrek saroiak itxi egin zituzten, Zizurkildarren aziendari sartzea eragotziz. Azken erabakia hau izan zen:

---

[332] VEKA3, 112 bin. Handiei saroi arruntak ere deitzen zaie ebazpenean.

[333] 1698-1703. urtea, VEKA7.

" …y que todos ellos (seles) los tengan libre y abiertos por todas partes sin cerradura alguna rrozadura ni otra fabrica ni inpedimento para que puedan libremente usar y gozar los bezinos con todos sus ganados (..)".

8. Zizurkilgo elizan orain ez dago saroientzako neurrien arrastorik. 1539ko testuan aipatzen diren biei ezin dieugu luzera hartu, zehazkiro nolakoak ziren ezin dugu idoro. Ez da harritzeko, Sanmillango elizak hainbat berrikuntza eta itxuraldaketa izan dituelako denboran zehar. 14. mendekoa izan litekeen eraikina 16. mendearen haseran zaharberritua izan zen, baina gizaldi horren bigarren erdialdean sute batek kalte larria eragin zion. 17. mendearen amaieran zimitorio zaharra bota eta berria egin zuten. Azkenik, duela ez hainbeste denbora, zimitorioan berrikuntza burutu da, pilotaleku txikia egiteko.

9. Elizako neurriaren luzera jakiteko eta, bide batez, aipatzen diren zazpietatik egiazki nagusiak zein ziren ezagutzeko, saroien bila aritu ginen Zizurkilen barrena 2003. eta 2004. urteetan. Toponimiatik abiatu ginen, beti egin ohi dugun legez. Aurrena, idazki zaharretan aurkituriko saroien izenek bizirik dirauten ikusi eta, hala izanez gero, ondoren, tokira joan eta erdiko gunea aurkitzen saiatu. Hasi, Pagamenditik hasi ginen. Arrazoia? Bagenekien Zizurkilen *Venta Zarate* izeneko trikuharria zegoela eta *Gipuzkoako Karta Arkeologikoa* (1982: 176) begiratzen ari ginela aipamen adierazgarriarekin topo egin genuen[334].

Venta Zarate trikuharria Pagamendiko saroiaren mugan dago. Ez da gertatzen den lehenengo aldia (ikus 2 §). Airetik ateratako argazkiek (ortofotoek), eta haiei esker ateratako kartografiak (1: 5000 eskala, 64-35 orria), ederki asko erakusten dute Pagamendiko saroiaren egungo norainokoa zein den. Horretan ez dago zalantzarik. Saroia mendi-bizkarrean dago. Baserria saroiaren erdi-erdian dago

[334] "El dolmen se encuentra en un pequeño espolón, en una especie de encrucijada, a 150 m al N. y sobre el caserío Pagamendi".

eta trikuharria, ostera, muga-mugan[335]. Damurik, ezin izan dugu bertako artamugarria aurkitu[336]. Aireko argazkien arabera, Pagamendiko saroiaren erradioa 188 metrokoa da, gutxi gorabehera. Hortaz, ez du inondik ere 168 *brazada*-ko erradioa (329,28 m); gehiago dirudi 84 *brazada*-ko saroia (164,64 m), hori bai, gaizki neurtua, handitua alegia.

Venta Zarate trikuharria *Andatza* megalitotegian dago. Hamar trikuharri eta zista bat aurkitu dira gaurdaino megalitotegi horretan (Altuna et al., 2002: 9). *Arkutxa*, *Karramiolotz* eta *Olaiko* Zubietan daude (Donostian); *Andatza I*, *II* eta *III* (zista) Usurbilen; *Beldarrain*, *Loatzu I* eta *Loatzu II* Aian; *Belkoain* Aduna-Andoainen eta *Venta de Zarate* Zizurkilen. Andatza inguruan, bestalde, saroi ugari daude. Mutiloa Pozak (1976-II: 151-154) biltzen duenez, 1573. urtean Orreagako monasterioak *Armyarmategui*, *Joanesaroe*, *Nenuto*, *Ondaerdi*, *Oyardo*, *Boyoca*, *Aramunde*, *Calamusaroe*, *Beisiguisaroe* eta *Sarasu*-ko saroiak zeuzkan Iria-Andatzan[337]. *Ondardi* eta *Juanasaroe*-tik trikuharriak ez daude urruti.

Pagamendiren ondoan, bostehun bat metro sortaldera, *Arizcurizeta* (*Aresguruçeta*) saroia dago, mendi-gainean. Ez dugu erdiko gunerik aurkitu han, baina —Pagamendin gertatu moduan— aireko argazkiek primeran erakusten dute saroiaren azalera. Baserria erdi-erdian dago, baina erradioa Pagamendikoa baino txikiagoa da (113 m). Horrenbestez, 42 *brazada*-ko saroia dirudi (82,32 m) eta ez 84koa, baina, noski, hau ere nahiko handitua.

---

[335] 12 metroko diametroa du trikuharriaren tumuluak. *Andatza I* trikuharriarenak 12 metroko diametroa du, *Andatza II* trikuharriarenak 15 metrokoa, *Belkoain* trikuharriarenak 11 metrokoa eta *Beldarrain* trikuarriarenak 13 metrokoa.

[336] Maizterrak, Asteasuko Benito Otegik, ez du erdiko gunerik ezagutu Pagamendin azken hamabost urteotan. Nagusia Andoainen bizi den Balda familia da.

[337] Toponimo ezagunak dira, *Boyoca*, *Beisiguisaroe* eta *Sarasu* izan ezik.

Kokatu ahal izan dugun beste saroia Azarolakoa da, erdiko gune eta guzti. Karaitz txurizko harria biribila da[338]; 0,4 bat metroko altuera eta eta 0,4 metroko diametroa ditu. Perimetroa 1,4 metro dira. Sei zati banatzen dituen hiru marra ditu gaineko aldean. Bi zentimetroko zabalera eta zentimetro bateko sakontasuna dute. Marra batek Iparra-Hegoa norabidea adierazten du (15º-ko aldearekin). Sortalde-Sartalde norabidea adieraziko lukeen marra falta zaio, nolabait esateko.



Azarolako artamugarriaren kokapena

[338] UTM koordenatuak: X. 573.558 – Y. 4.786.869 – Z. 453.

Azarolako artamugarria

Artamugarriaren berri eman ziguna Andresketa baserriko Batista Argaia izan zen. Aurreratu dugu, Azarola toponimoa bizirik dagoela eta, non bestela? Hantxe topo egin genuen berarekin aurreneko aldiz. Erdiko gunea dagoen tokian *Peuskate mendia* jartzen du mapetan, baina, egotez, *Peuskate* beherago (hegoalderago) dago, iturria dagoen tokian. Batistak jakinarazi zigunez, erdiko gunea dagoen tokiari *Seleko gaña* esan diote betidanik. Mapetan ere azaltzen da toponimo hori, *Zeleko gaina* alegia. Jabetza-agirietan, ordea, *Azarola barrena* ipintzen omen du. Saila berea da. *Samelisabe*, *Samenisabe* (< **Sanmillansarobe*) izeneko aurkintzaren berri ere eman zigun.

Zizurkilgo saroiekin lagundu zigun beste informatzailea Anoetako Jesus Mari Zugasti izan zen. Bere sailak Batista Argaiarenarekin egiten du muga. *Sanmillansarobe* haren lurretan dago eta, berak zioenez, ba omen da han artamugarri txiki bat (lau arrastokoa). Hark aditu duenez, Azarolako saroiak 7 hektarea ditu (150 bat metroko erradioa) eta Sanmillansarobekoak, berriz, 4 hektarea (113 bat metroko erradioa), hau da, *Arizcurizeta*-k bezalaxe.

Toponimiari esker idoro dugun laugarren saroia Ezkeltzukoa da. Erdiko gunea mendigainean dago[339]. Karaitzezko harriak 0,44 metroko altuera du, eta 0,38 metroko diametroa goiko aldean. Gainean, lautan zatitzen duen gurutzea dago harrian landuta, 0,03-0,035 metroko lodiera duena (0,012 metroko sakontasuna). Iparsortaldea-Hegosartaldea eta Iparsartaldea-Hegosortaldea norabideak adierazten dituzte gurutzearen marrek. Mugarriaren perimetroa 1,3 metrokoa da. Goian 0,20 metroko zatia falta zaio (10 zentimetroko marra duena). Azpian dago, oinean.

Zizurkilen bada *Andrizketa* izeneko baserria. Gure informatzaile izandako Batista Argaia han bizi zen, hain zuzen. Ondoan *Sarobe* etxea dago, baina inork ez digu *Andrizquetasabe* (*Andreizquetasarobe*) saroia hura denik baieztatu. Andrizketan saroientzako neurriaren (markaren) bila ere ibili ginen Batista eta biok, baina alferrik. Haatik, harritzekoa litzateke hain behean saroia egotea. Bestetik, diogun *Arrupe* eta *Mariolaza* saroien kokapenaren inolako berririk ez dugula izan. Hiru horietako batek behar du izan, bada, *Sanmillansarobe* (edo hori dirudi behintzat), baina batek daki. Erdko gunea kokatu arte, eta jatorrizko toponimioa (izen espezifikoa) zein den argitu arte, ez dago jakite ziurrik horretaz.

10.1. 1539. urteko auzian (eta besteetan) saroien neurriak izendatzeko hitz franko erabiltzen dira: *brazada*, *estado*, *codera*, *gorabill*, *pertica*, *palmo* eta *dedo*, besteak beste. Batzuek izen generikoak dira; 'neurria' esan nahi dute. Beste batzuek, ordea, izen espezifikoak dira, neurri jakinak alegia, *kilometroa*, *metroa* edo *zentimetroa* bezalakoxeak. Zizurkilgo saroiei buruzko auzian erabiltzen direnekin alderatu ahal izateko, goazen saroiak neurtzeko erabili izan diren beste neurri batzuk ikustera.

[339] UTM koordenatuak: X. 574.661 – Y. 4.787.528 - Z. 492.

Neurri guztien oinarria (x 1) ***oina*** da[340]. *Oin* (gazt. *pie*) batek 12 *ontza* ditu. *Vara* baten herena da. Gaurko neurrietan, *oin* batek 0,28 metro ditu. Ezagunenak besterik ez aipatzeko, 294 *oineko*[341] (82,32 m) erradioa duten saroiak zeuden (1869 [1780], Amezketa).

Bi oinek (x 2) *codo* bat (0,56 m) osatzen dute. Jakin, badakigu 200 *codo*-ko erradioko saroiak zeudela (1485, Elgeta-Elorrio[342]) nahiz 294 *codo*-koak (164,64 m) ere (16. gizaldia, Hernani). Hiru oinek (x 3) *vara* bat (0,84 m) egiten dute. Goizuetan 366,5 *vara*-ko erradioa (307,86 m) zutenak (1844) nahiz 550 *vara* x 550 *vara*-ko (462 m x 462 m) luze-zabala zuten laukiak azaltzen dira (1863 [1792]), azken horiek Aranon ere bai. Nolanahi ere dela, *codo*-ak eta *vara*-k ez dira saroiak neurtzeko arrunki erabilitako neurriak; beste neurrien argibideak dira eskuarki.

Zazpi oinek (x 7) ***gizabetea***[343] egiten dute (1,96 m), gaztelaniaz *estado* (1392, Lekeitio). *Braza* (1392, Lekeitio; 1514, Oiartzun) / *brazada* (1577, Errenteria) eta *toesa*[344] (1800, Orreaga) ere esaten zitzaion[345]. Zenbait lekukotasun aipatuko ditugu adibide antzera, gaia erabil dezagun; 42 *brazas*-koak (82,32 m) (1514, Oiartzun); 60 *estados*-koak (117,60 m) (1721, Ataun); 62 *estados*-koak (121,52 m) (1987, Dima); 63 *estados* edo *brazas*-koak (123,48 m) (1392, Lekeitio); 66 *braçadas*-koak (1483, Durango); 84 *estad(i)os* o *braza(da)s*-koak (164,64 m), (1577, Errenteria; 1651, Berastegi-Elduain[346]; 1736, Bizkaia; 1739, Berastegi-Elduain); 126 *estad(i)os o brazas*-koak (246,96 m) (1556, Busturialdea.; 1736, Bizkaia); 132

---

[340] *Palmo* eta *dedo*-ak ez dira saroiak neurtzeko erabili, edo, behintzat, ez dira aipatzen. *Arra* (*palmo*) bat 0,21 m dira eta *behatz* (*dedo*) bat 0,018 m.

[341] "*seis gorabillas*".

[342] "... que sea medido con la medida acostumbrada de dies codos, según la costumbre de Guipuzcoa, e que de esta medida haya el dicho sel veynte baras, çiento e treynta e dos braçadas acostumbradas en Vizcaya". Hidalgo de Cisneros (1998: 32).

[343] Ikus Frank (1993: 79).

[344] *Toise* frantsesez.

[345] Cf. Carrión (1996: 62).

[346] "*Estados*" eta "*gorabillas*" sinonimoak dira hemen.

braçadas-koak (1483, Durango; 1485, Elgeta-Elorrio) eta, azkenik, 168 *toesas* (329,28 m) (1800, Orreaga) edo 168 *brazadas o estados*-ko erradioa zuten saroiak zeuden[347] (1780, Goizueta-Arano; 1739 Berastegi-Elduain).

Hamalau-oina (3,92 m) zer den hitzak berak (x 14 oin) adierazten du (1935, Berriatua). 31 *hamalau-oineko* (121,52 m) saroiak eta 63 *hamalauioinekoak* (246,96 m) zeuden (1935, Bizkaia-Berriatua).

Gipuzkoan erabilitako neurri ezagunenetarikoa ***gorabila*** da (1433, Legazpia; 1508, Oiartzun; 16. gizaldia, Hernani), gaztelaniaz *codera* (1452, Zestoa). *Gorabila* (13,72 m) 7 *estado*, *braza(da)* edo *toesak* osatzen dute (x 49 oin). Haatik, *gorabil* bereziak daude, salbuespenak nolabait esan. Legazpin 10 *codo*-ko gorabila ageri da 1433. urtean eta Hernanin (1716) 8,5 *codo*-ko (4,76 m) *gorabil* edo *pertika* (gazt. *pértiga*) erabiltzen zen batzuetan, baita 8,25 codokoa (4,62 m) ere (16. gizaldia). Inguru hartan bertan (1773, Hernani-Urnieta-Donostia) 2,74 metroko gorabilak aipatzen dira.

Gorabila (13,72 m) eta *estado*-a (1,96 m) nahasi egiten dituzte eskribauek zenbait garaitan (1651, Berastegi-Elduain). 6 *gorabileko* (82,32 m) saroiak (1433, Legazpia; 1508, Oiartzun; 1869, Aralar) eta 12 *gorabilekoak* (164,64 m) dira (1433, Legazpia; 1583, Gipuzkoa) ziur aski Gipuzkoan dauden saroi-mota ezagunenak (arruntenak). Halaz ere, 30 *gorabil* (82,60 m) (16. gizaldia, Hernani), 66 *gorabil*[348] (314,2 m) (1716, Hernani) eta 84 *gorabileko*[349] erradioa duten saroiak (1651, Berastegi-Elduain) (164,6 m) ere aurkitu ditugu.

Oharra, azkenik, bi neurri bereziz[350]. Ez dira askotan azaltzen. Lehenik eta behin, *zardaie*[351] (16., Hernani) delakoa dago, 8,25 *codo*

---

[347] Ikus 10.2.

[348] *Pertiga* ere erabiltzen da testuan.

[349] *Estado*-ren sinonimoa.

[350] 110 *grado*-ko saroiak zeuden 1493. urtean Bizkaian, Oiz inguruan.

[351] "*... la medida de un sel, menor, es conforme Fuero de Guipuzcoa, 33 baras ó, zardaies de 8 1/4 codos de diametro midiendo desde el centro de el Artamugarria*";

dituena (4,62 m). Hain zuzen, 33 *zardaie*-ko (152,46 m) saroiak zeuden Hernanin. Bigarrenik hor dugu *pertika*[352], beste nonbait ikusi dugunez, batzuetan *gorabil*-en sinonimoa dena (1716, Hernani; 1759, Oñati). 8,50 *codo*-ko (*gorabileko*) (4,76 m) *pertikak* (1716, Hernani) eta 9 *pie*-koak (2,52 m) zeuden (1759, Oñati). Xehetasunetan sartuz gero, 60 *pertika*-ko saroiak (151,20 m) (Oñati) eta 66 *pertikakoak* (314,2 m) topatu ditugu (Hernani). Pertikari *vara* ere esan izan zaio. Hain zuzen, 1452. urtean 30 (123,48 m) eta 60 *vara*-ko (246,96 m) saroiak zeuden Elgoibarren[353].



Saroi-neurriak

10.2. Askotariko neurri eta hitzekin adierazten dira, baina bistan da saroien erradio-luzerak bat datozela maiz aski. Neurri guztiak gorabiletara ekarriz gero, hemen darabiltzagun erradioak eta azalerak honela bana litezke:

Arras (Larras?) saroia, 1769 urtea, HUA3. Aierbek (1987: 317) *zarda* hitza *vara*-rekin (makila) lotzen du.

[352] Frankek (1993: 80) dio gaztelaniazko *pértiga*-ren parekoa *hogeitabatoina* dela (5,88 m).

[353] Aierbe & Etxezarraga (1999: 20, 46).

6 gorabil (82,32 m: 2 12 88,63 m²). Gipuzkoa: Enirio-Aralar[354] (1409, 1869), Legazpia (1433), Zestoa (1452), Oiartzun (1508, 1514) eta Ataun (1765).

9 gorabil (123,48 m: 4 78 99,42 m²). Bizkaia: Lekeitio (1392 [1884]), Durango (1483); 128,34 m, Zeanuri (1999); 121,52 m, Dima (1987); 122,80 m, Dima[355] (s.f.); 121,52 m, Berriatua (1935), Alonsotegi; 120,50 m, Bizkaia (1925). Gipuzkoa: Elgoibar (1452).

12 gorabil (164,64 m: 8 51 54,53 m²). Bizkaia (1884). Gipuzkoa: Legazpia (1433), Zestoa (1452), Oiartzun (1514), Hernani-Urnieta-Donostia (1516), Errenteria (1577), eta Berastegi-Eladuain (1651, 1739).

18 gorabil (246,96 m: 19 15 97,70 m²). Bizkaia: (1884) eta (1925), Durango (1483), Busturia (1556), Berriatua (1935), Alonsotegi. Bizkaia-Gipuzkoa: Elgoibar (1452), Elgeta-Elorrio (1485), Berriatua-Mutriku (1999). Gipuzkoa: 237-244 m, Mutriku (2000).

24 gorabil (329,28 m: 34 06 18,13 m²). Gipuzkoa: Berastegi-Eladuain (1739), Hernani, Donostia. Nafarroa: Leitza-Goizueta-Arano (1780) eta Orreaga aldea (1800).

Estado, *brazada* edo *toesa*-tan emango bagenitu, 42, 63, 84, 126 eta 168 *estado*-ko erradioak lituzketen saroiak genituzke. Oinetan jarriz gero, ostera, 294 oineko saroiak [1x7x7x6], 441 oinekoak[356] [1x7x7x9], 588 oinekoak [1x7x7x12], 882 oinekoak[357] [1x7x7x18] eta 1.176 oinekoak [1x7x7x24] izango lirateke. Hauxe diogu: batetik

---

[354] "*Villas de Villafranca como cabeza y acumulativa de Amézqueta, Lazcano, Beasain, Ataún, Isasondo, Zaldibia, Arama, Alzaga, Legorreta, Gainza, Abalcisqueta, Orendain, Icazteguieta y Baliarraín*".

[355] 1987?

[356] 62 *estado* edo 31 *hamalau-oineko* saroiak 434 oin ditu [1x7x2x31] / [1x2x7x31].

[357] 63 *hamalau-oineko* saroia [1x2x7x7x9].

bestera dagoen aldea, saroien erradioek elkarren artean dutena, 3 gorabilekoa (21 *estado*-koa) dela.

Agerian ipini nahi genuke hemen sailkapen horretatik kanpo gelditzen diren saroiak daudela. Gipuzkoan, esaterako, 11 gorabileko (150,92 m: 7 15 53,46 m^2) saroiak zeuden Hernanin: 152,46 m (16. gizaldia); 150 m (20. gizaldia); 147 m (1983). Oñatin ere bai: 151,20 m (1759) eta 150 m. Hernanin 10 *gorabileko* (*137,20 m: 5 91 35,09 m^2) saroiak ere ageri dira (138,60 m); 140 m (20.); 142 m (1983). Hala berean, 8-9 gorabileko ([109,76-123,48 m] 117,60 m: 4 34 46,19 m^2) saroiak ditugu Ataunen (1721). Hernanin 21 gorabileko (*288,12 m: 26 07 85,76) eta 23 gorabileko (*315,56 m: 31 28 24,64) saroiak daude: 287,5 m (1983) (2 saroi) eta 314,2 m (1716).

Besterik da Goizueta-Aranoko saroien kasua. 1780. urtean esaten da biribilak zirela eta 329,28 metroko erradioa zutela (34 06 18,13 m^2). 1844. urtean 307,86 metroko erradioa zuten saroiak zeuden Artikutzan (Goizueta). Alabaina 1863. [1792] urteko mapa batean (Anizlarrean eta Eliberrian) 462 x 462 metroko saroiak ikusten ditugu[358] (21 34 44,00 m2). Badaude lauki tankerako saroi gehiagoren lekukotasunak, Nafarroan beti ere. Zugarramurdin (1746) 196 x 196 metroko azalera zuten saroiak zeuden[359] (3 84 16,00 m^2).

---

[358] Saroi lauki horiek 260,62 metroko erradioa lukete biribilak egingo bagenitu, hau da, 19 gorabilekoak lirateke (*260,68 m: 21 34 77,68 m2).

[359] 100 x 100 *estado*-ko luze-zabala zuten (196 m x 196 m) zenbait kasutan, baina beste askotan ez. Biribilak bihurtuko bagenitu 110,58 metroko erradioa lukete, hau da, 8 gorabil (*109,76 m: 3 78 46,45). Neurri hauetakoak ere baziren Zugarramurdin (1746): 3 89 06,00 m^2 [156,80 m x 245 m], r = 111,28 m; 3 93 76,40 m^2 [160,72 m x 245 m], r = 111,95 m; 3 92 30,42 m^2 [217,56 m x 180,32 m?], r = 111,74 m?; 3 68 79,36 m^2 [117,60 m x 313,60 m], r = 108,34 m; 4 47 20,34 m^2 [137,20 m x 325,95 m], r = 119,31 m. Hala berean, 5 gorabil (*68,60 m: 1 47 83,77 m2) inguruko erradioa zuketen saroiak ere bazeuden Zugarramurdin (1746, 1740-1748) eta Urdazubin (1740-1748). Hiru aipamen baino ez ditugu aurkitu: 1 52 82,12 m^2 [117,60 m x 129,95 m?], r = 69,74 m?; 1 52 12,74 m^2 [117,60 m x 129,36 m?], r = 69,58 m?; 1 35 24 m^2 [98-138 m], r = 65,6 m).

10.3. Bi neurritako saroiak egoten dira eremu berean usuenik, handiak eta txikiak. Bi saroi-mota horien neurriak bazterrik bazter aldatu egin daitezke, baina, halaz guztiz ere, handiak eta txikiak egongo dira beti. Bereizketa-eredu hori Gipuzkoan eta Bizkaian garbi ikusten da, eta Nafarroan ere baietz dirudi. Alde eta aldi berean hiru saroi-mota dituen eremurik ez dago.

Hona hemen aurkitu ditugun saroi bikote batzuk: Oiartzun[360] (1514) *sel grande* (164,64 m) vs. *sel menor* (82,32 m); Berastegi-Elduain (1739): *sel entero* (164,64 m) vs. *sel doble* (329,28 m); Bizkaia (1925): *korta txiki, sel pequeño* (120,50 m) vs. *korta-nagusi, sel grande* (247 m); Berriatua (1935): *sel invernizo* (*korta-nagusia*) (246,96 m) vs. *sel veraniego* (*korta-txikia*) (121,52 m).



Saroien eta korten neurrien mapa

Handien eta txikien arteko erradio-ezberdintasuna dela eta, gauzak nahasi egin izan dira zenbait garaitan[361]. Gehiago ere esango dugu: batzuk aniztasun horretaz baliatzen saitu ziren, Zizurkilgo sanmillandarrak lekuko.

Zizurkilen egungo egunean erraz neur litezkeen bi saroiek 188 m (Pagamendi) eta 113 m (Arizkurutzeta) inguruko erradioak dituzte. 14 gorabil (*192,08) eta 8 gorabil (*109,76) lituzkete, hortaz. Zehazkiro esateko, 96 gizabete (*188,16 m) eta 58 gizabete (113,68 m) dituzte (ikus 7.10.1. §). Neurri horietako beste saroirik ez dugu aurkitu Gipuzkoan. Neurri bereziekin neurtuak izan zirelako seguruenera, hau da, jatorriz 84 eta 42 gizabete zituzketelako.

11. Egingo genuke Zizurkilgo elizako neurria ez zela oso luzea. Baina, baldin eta gure iritzia estalkirik gabe agertu badugu, ez dugu uste gorabil bat zenik (13,72), elizako zimitiorioko nahiz etxe bateko zutabean sartzen zen eta. Makila batean har zitekeen. Oroit gaitezen, bestalde, galera txikiak (ezpalak) eragin handia zuela neurriaren luzeran.

Sanmillandarrek ziotenez, Zizurkilgo elizako bosgarren zutabeko neurria Azpeitia eta Azkoitikoa baino txikiagoa zen. Azkoitiko neurriek (eta Azpeitikoek) gutxi gorabehera 2,5 bat *brazada* (*4,90 m) zituztela esaten da hasieran 1539. urteko auzian, baina aurrerago 2,74 m inguru zituzela zehazten da[362]. Zizurkilgo elizako bosgarren zutabeko neurriak haiek baino bost bat behatz gutxiago neurtzen zituela ere adierazten da. Beste pasarte batean, Zizurkilgoak Errezilen zegoen neurriak baino 3 edo 4 behatz gutxiago zituela adierazten da, eta ez dugu uste Errezilgo neurriak 9 *oin* (2,52 m) baino gehiago zituenik[363].

---

[360] Urte batzuk lehenago (1508) *beyerdi-saroea* (82,32 m) izena erabiltzen da.

[361] Berastegi-Elduain (1651): *sel doble y mayor* (164,64 m). 12 gorabilekoari (164,64 m) askotan *sel común* esan izan zaio Gipuzkoan.

[362] Ik. 10.1.§

[363] *Telleria* baserria garai batean udaletxea izan zela esan ohi dute errezildarrek. San Migel ermita du ondoan. Hura eliza izan zela ere badiote. 1539ko idazkian

Testuan kontraesan ugari daude, aldeen arteko ezinulertuaren lekuko (auzi bat da). Horrez gainera, neurriak zenbat oin zituen ez da inoiz erabat garbitzen[364]. Gipuzkoako legeen araberakoa zela baino ez da esaten. Donemiliarrak egoera nahasi horretaz baliatzen saiatu ziren[365] (saroi txikiak bikoizten ahalegindu ziren). 1539. urteko testuan elizako neurria *brazada* (1,96m) zela berritzen da sarri askotan[366], eta hori iruditzen zaigu, hain zuzen, aukerarik bidezkoena. Ematen duenez Oiartzungo neurria ere *brazada* bat zen[367]. Ez genuke ahaztu behar, gainera, —sanmillandarren arabera— Fagamendiko saroia bosgarren zutabeko neurriarekin neurtuz gero ez zela 168 *brazada* edo *estado*-ra iristen, bai, ordea, bigarren zutabeko neurriarekin neurtuz gero. Egingo genuke neurketa hori *brazada* batekin egin zutela[368]. Zentzuzkoena, bada, Zizurkilgo elizako neurriak zazpi oin (edo gutxiago) zituela uste izatea da, baina hori hipotesia baino ez da, neurriak ez duelako iraun eta, horrenbestez, bertara joanda ezin dugulako egiaztatu.

Saroien neurriak ez ziren ahuntzaren gauerdiko eztula behinola. Oinetxeetan, herriko sarreran eta, zenbait kasutan, elizan gordetzen zituzten; Oiartzun eta Zizurkilgoei begiratu bestela. Azpimarratzekoa da dagoen neurri aniztasuna. Tokian tokian luzera ezberdina dute, ez

---

aipatzen den baserriko ezkaratza (ataria) etxearen alboan dago, eskuinaldean, bidearen ondoan. 2,5 bat metro pasatxoko garaiera du. Aurrealdeko bilbadurari eusten dion habea haga batean dago oinarritua (ez da zutabera iristen). Fatxadako horma amaitzen den zutabetik 2,5 bat metrora dago (alboko horma eta teilategal aldera). Ez dirudi baserriaren egitura denboraren buruan asko aldatu denik; bilbadura-egitura duen fatxadari erreparatzea besterik ez dago. Bihoa ohar bat, bidenabar: Oñatin neurri horretako (2,52 m) *pertika* aipatzen da 1759. urtean.

364 1780. urtean Anizlarrea eta Eliberriko (Goizueta-Aranoko) saroietan egindako neurketan, adibidez, 7 oin (1,96 m) zituen *palo geométrico*-a erabili zuten (ikus 8.5. §). *Brazada* (eta *estado*) ere deitzen zaio testuan. Hango saroiek 168 *brazada* edo *estado*-ko erradioa zuten (329,28 m).

365 Cf. Carrión (1996: 61).

366 "*medida* o *braçada*"; VEKA3, 3 au. *Gorabil* deitzen diote aldian behin: bi hitzak nahasten dituzte.

367 Baita segur aski Andoaingoa ere, *gorabil* dioenean *gizabeteaz* ari delako.

368 Zizurkilgo saroiek hainbat *brazada*-ko erradioa zuten.

dago batasunik. Ezin ahantz dezake inork saroien neurriak aldatu egiten direla toki batetik bestera eta, gainera, sarritan ez dela legediak agindutakoa betetzen.

Saroi handienak (9/18 eta 12/24 gorabilekoak) ertzetan daude (Bizkaian eta Nafarroan batez ere) eta txikienak berriz (6/12 gorabilekoak), erdiko aldean (Gipuzkoan). Gipuzkoa da hiru saroibikoteak (6/12, 9/18 eta 12/24 gorabilekoak) dituen lurralde bakarra. Hiru neurri nabarmentzekotan, *gizabetea* (*estado*, *toesa*, *brazada*), Bizkaiko *hamalau-oina* eta Gipuzkoako *gorabila* aukeratuko genituzke. Hirurak zazpiarekin daude lotuak, eta ez halabearrez. Ikusiko dugunez, tximistak (jaurtikitako aizkorak) zazpi gizabeteko sartu-atera egiten omen du lurpean *tximistarri* bihurtu aurretik.

8

Zuberoako olak: saroien aurrekariak?

Tximistarriak eta ola-nagusiak

> "Ordurarte basati eta anarkheian bizi izandako euskaldunek beren endaren gudu eta herri-organizazionerako ahalkeizunen agerraratu zituen legamia ukhan zuketen german elemendu hori".
>
> J. Mirande

1. Iruñerriko, sartalde eta erdiguneko eremuko saroiak eta kortak ikusirik, gatozen Zuberoako olak ikustera. Atal honen eginkizuna da, hain zuzen, Jakue Belakoak 17. mendean bilduriko ohituratik abiatuz, Euskal Herriko sortaldeko abeltzaintza-guneak aztertzea, Zuberoako olak eta *olhateak* bereziki. Izan, Belakoa leinu zuberotarrak Biarnon du jatorria. Familia protestante (kalbindar) horretako seme batek, Jakue Belakoa (1585-1667) abokatu eta magistratuak hain justu, zenbait lan idatzi zituen 17. mendean Zuberoa gai zuela[369], baina,

[369] *Tablettes* delako entziklopediaren egilea da, adibidez, Oihenarten garaiko humanista eleaniztuna. Lan eskerga horrek *Dictionnaire basque* zein *Conpemdium de grammaire basque* zatiak ditu, eta berrogeita lau euskal esaera zahar edo atsotitz ere bai. *Journal de linsurrection des basques sous la conduite de Matalas* da beste lan ezaguna. Maulekoa San Joanen ordeako zalduna izan zela eta Joana Arbide nafar

damurik, guztiak ez dira gaurdaino gorde. Iraun duenetariko bat *Commentaire de Béla sur la coustume de Soule, pays des Basques, seneschaussée de Guyène, ressort du Parlament de Bordeaux* delakoa da. Dirudienez, eskuizkribua 1660. urte aldera idatzi zuen[370]. Izandako onarpenaren lekuko, Jakue Belakoa hil eta urte askotara, Zuberoako Epaitegietan iturburutzat hartzen zuten lege-zahar bildumari hark egindako iruzkina zalantzaren bat zegoenean, 1789. urtean kasu[371].

Sandra Ottek (1995 [1981]) Theodore Lefebvreren (1933) *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques Orientales* lana hartzen du ahotan sarri askotan Santa Garaziko artzaintzari buruz egindako ikerketan. Liburu horren 192. orrian irakurri genuen estreinakoz De Bélak olak mugatzeko era adierazten duen pasartea[372].

Frantziako Liburutegi Nazionalaren erreprografia zerbitzuaren bidez De Bélak idatziriko testuaren 19. mendeko kopia arazorik gabe eskura daiteke[373]:

---

katolikoarekin ezkondu zela badakigu. Seme batek, Zuberoako bikario nagusi izatera iritsi zen Atanasiok hain justu, idatzi zuen *Catechima laburra eta Jusu-Christ goure ginco jaunaren eçagutcia salvatu içateco Çuberoa herrico uscaldunen eguina*.

370 Lefebvre (1933: 722). 1854-1855 bitartean egindako kopia da ikertzaile gehienek lanerako erabilitako iturria. Hori da, behintzat, Antoine D'Abaddiek idazkiaren izenburuan jarritako data. Pabeko Gorteko kontseilari izandako Bascle de Lagrèze jaunaren originalari egindako kopia da, antza denez. Nussy-Saint Saëns (1942: XX-XXI).

371 Clement-Simon (1894-1895: 219). Uharteko markesa hartzen du berriemailetzat. Izan da, noski, De Bélarekin erabat ados egon ez denik; hori bai, beranduago. Nussy Saint-Saënsek (1955: 89), esaterako, Zuberoako *kaiolarra* eta Biarnoko *cledat*-a nahastu izana aurpegiratzen dio.

372 Hitzez hitz azalduko dugu Belakoak 17. gizaldiaren erdi aldera idatzirikoaz Lefebvrek dioena. "Comment délimitait-on un cayolar? D'une façon simple et rustique qui était encore en usage au XVII^{e}: le pasteur lançait une hache en quatre directions opposées en forme de croix et les points d'atterrissement de la hache marquaient les bornes du terrain de parcours affecté au cayolar".

373 FLN1.

"Aisi ó [les cayolars] peuvent étre seulement de l'espace ou distance, du jet d'une hache, savoir est qu' un homme se mettant au milieu du lieu qui'il constitue fait au dits cayolar tenant une hache ou cognée en main jete i celle hache à 4 divers élans devers les 4 endroits du monde du dit cayolar en croix. De maniére que selon ce procedé l'étendue du dit cayolar ne contiendra plus de circonférence que la comprins en rond des places des chutes de la dite hache en la dite circonvallation. Est pour ce qui'il est facile du fermer tel lieu, et que probablement on la fesait ainsi au tems de jadis".

Lefevbrek jatorrizko testua errespetatzen du hondarraren hondarrean, baina, Belakoaren idazkia irakurriz gero, garbi ikusten da badaudela elkarrengandik guztiz beste diren ñabardurak. Aizkora jaurtitzailearen izaera da bat. Jatorrizko testuan ez da artzaina ote zen zehazten, besterik gabe, gizona (edo gizakia) zela baizik. Horrexegatik beragatik, beste bertsioen bila aritu gara, baina emaitza ez da naroa izan. Zuberoan 17. mendean bizirik zirauen ohiturarekin lotura zuzena izan lezakeen testu bat Aragoin aurkitu dugu. 1990. urtean Antonio Beltrán-ek idatziriko *Leyendas Aragonesas* liburuaren 20. orrialdean dago. Olak zuzenean aipatu ez arren, testuak egiten du, bai, ekarpen interesgarririk[374]. Bigarren aldaera, ostera, Gipuzkoako Aizkorri-Urbietan bildua da[375].

2. Lefevbrek ola (kaiolarra) mugatzeko aizkora jaurtitzen duena artzaina dela esanagatik, Belakoaren testuan "gizon bat" da ekintzaren subjektua. Nahitaez artzaina izan behar ote zuen ez da zehazten. 1506. urtean, Lextarreko Gortean Belaren iruzkinen gai izandako ohitura edo foru-bilketa burutzen ari zen garaian, 107 ola

[374] "En las Cinco Villas un hacha pulimentada era lanzada por los pastores lo más lejos posible del punto donde se hallaban y el área que el objeto recorría quedaba bajo una sobrenatural protección".

[375] "*Urbiko txabolan, ekaitza etorri ezkero, artzai zaarrak, artu aizkora, txabolatik berreun metroraiño juan, ta lurpean sartu, begi aldeti*". Etniker Euskalerria (2000: 895).

zeuden gutxienera jota Zuberoan[376]. Baina, nor ziren olak erabiltzeko eskubidea zuten zuberotarrak, hau da, balizko aizkora-jaurtitzaileak?

Zuberoan portuko larreak –gainerako lur landugabeak bezala— zilegimendiak izan dira (herritarren lurrak), baina, haatik, toki hoberenetan bazkatzeko eskubidea familia batzuen esku egon da mendeetan zehar. Aitonen seme izan ala ez, eurentzat gordetako larretokiak darabiltzate Zuberoako zenbait etxek[377]. Nekazari-abeltzainok ola-nagusi (*seigneurs de cayolars*) titulua zuten behinola[378]. Agintari, erregezko, nahiz jabe huts, ola-nagusiak etxe zaharrenetako oinordekoak ziren. Zuberoako nekazari-abeltzain aristokrazia osatzen zuten[379]. Etxola nahiz eskortaren jabe ziren eta artaldeak bazkatzeko eskubidea zuten; debeku-garaian ere bai. Gainera, etxola edota sua egiteko egurra motz zezaketen[380].

Belakoak ez du garbitzen, baina baliteke ola mugatzeko aizkora jaurti behar zuena nornahi ez izatea; ola-nagusi izatea, alegia. Ahozko tradizioari erreparatzen badiogu, Barandiaranek (1972: 57) biltzen duenez, aizkora jaurtiketa jentilen (eta basajaunen) kulturarekin dago lotua, labur esateko[381]. Juan Garmendia Larrañagak (1994: 51)

---

376 Nussy Saint-Saëns (1955: 90).

377 Nobleziak "etxe" kutsua du Zuberoan Nussy Saint-Saënsen (1955: 99) aburuz, feudalismoaren eta monarkiaren garapenaren kaltetan, asaba zaharren etxea izan delako *aitoren seme* izaera eman duena.

378 Nafarroa Behereko foruan ere ageri da, biarnesez (gaskoiez): "Artigle XXVI. Los senhors & Maëstes deus Cuyalaâs, & Saroys deu present Royaume, no poyran Peignerâ ny carnale los Bestiaas qui etten en aquet, bien los poyrâ far focur & tirar defore sens los endomadgear"; Goienetxe (1985: 287). Zuberoako erregezkoen elitea osatzen zuten agintariek ere larretzeko eskubide berezitua zuten. Bide batez, diogun erregek 16. mendean Zuberoan zituen jabetzen artean ola bat zegoela. Nussy Saint-Saëns (1955:47, 89). *Ola-nagusi* izenaz aski bekigu hemen esatea Pierre Topet "Etxahun"-ek (1786-1862) erabiltzen duela. Beste aukera *ola-jaun* hautatzea zen.

379 Bizkaian, konparazio batera, kortak kapareenak edota jaunarenak ziren 14. gizaldian. Gogeaskoetxea (1996: 105).

380 Cf. Orella (1996: 238).

381 "En efecto, los *basajaun* o *baxajaun* cultivaban el trigo en la montaña de *Muskia* sita en Atáun. Un hombre valeroso –San Martinico–, amigo de ellos, fue a visitarlos en su caverna. Llevaba calzado muy ancho con toda intención. Como viese

Leitzan bilduriko aldaeran, basajaunak izan ordez, jentilak dira San Martinen atzetik lasterka doazenak. Hori bai, jaurtikitako aizkora gelditzen duena gaztainondoa da han ere[382].

3. Neolito Aroan aurreneko artzain-nekazarientzat kirtenari lotutako harrizko aizkora lanabes garrantzitsua zen. Zuhaitzak mozteko, etxolak eraikitzeko, aziendarentzat neguko bazka biltzeko eta beste gauza askorako aizkoraz baliatzen ziren[383]. Alde horretatik, aizkora Neolito Aroaren ikur ere bada[384]. Izan ere, Neolito garaiko zenbait eraikuntza megalitikotan aizkora kirtendunak ikus daitezke harrian landuta. Bi erakusgarri ezagun: Merkatarien Mahaia izeneko trikuharriaren estalkiko aizkora (Morbihan, Bretainia) edota Stonehengeko (Ingalaterra) *53. hegoa* harritzarrekoa[385].

Megalitoetan landuriko irudi horiek zentzu sinbolikoa ala adierazkorra duten ez du inork argitu, ezta harritzarretan landuriko aizkorek (hilobietako) zeremonietan zuketeen erabilpena, zein ere zen. Dakiguna hau da: jadeita, fibrolita eta suharrizko aizkora leundu dotoreak azaldu direla Bretainiako zenbait hilobitan eta aizkora

---

allí los montones de trigo apilado, apostó con los basajaunes a ver quien atravesaba mejor, de un salto, sin tocar ningún grano de cereal. Los basajaunes los atravesaron fácilmente; pero San Martinico cayó en el centro de un montón donde sus albarcas se llenaron de trigo. Luego se despidió de los "señores salvajes", y se dirigió hacia el valle. Pronto los *basajaun* se dieron cuenta de que San Martinico llevaba granos de trigo en su calzado y lanzaron contra él un hacha, su arma arrojadiza. Esta se metió en el tronco de un castaño del término *Mekolalde* sito en San Gregorio (Atáun), distante un kilómetro de la cueva de Muskia, y no alcanzó a San Martinico que ya se había alejado algo más".

382 "Salto egin ondoren, Martin Txikik alde egin zuen, azkar asko, eta jentilak hori ikustean honela oihu egin zion: "Hazia badaramak, baina noiz ereiten den ez dakik". Eta hori esan orduko aizkora bota zion, baina ez zuen Martin Txiki jotzen asmatu, gaztain-arbola bat jo baitzuen".

383 Cf. Cavendish (1993 [1983]: 70).

384 Louboutin (1990: 27).

385 Ikus Green (1993: 11) eta Louboutin (1990: 96). Commanatik gertu dagoen Mougaun ere (Finisterre, Bretainia) aizkora dago landua megalito (*gallery-grave*) batean; Giot (1993: 34, 49).

horietariko asko aldi joanean ez zirela inoiz lanerako erabili. Askotan bitan puskatuta daude, zeremoniaren unean agian [386].

Gatozen gurera. Barandiaranek dio (1973 [1921-1946]: 163) aizkora Euskal Herriko historiaurrean gurtutako elementua izan dela. Baina lasaiago mintza gaitezke horretaz. Aizkorak itzal handia du euskal tradizioan sinbolo moduan, Europako toki frankotan bezalaxe. Barandiaranek (1972: 144-145) *Euskal Mitologia Hiztegian* biltzen duenez, harrizko aizkorak tximista ordezkatzen du. *Hodei*-k lurrera jaurtitako arma da. Altzairuzko aizkorak tximistorratz gisa izan duen erabilpenaren aurrekaria da harrizko aizkora. Thoren mailuaren eta Jupiterren[387] gezien gai indoeuroparrekin lotzen du sinesmen hau Barandiaranek (1972: 186). Azken batean, Neolito-Brontze Arotik hona Europako eremu zabal batean aizkora tximistaren ordekoa izan dela uste du Ataungoak. Euskal ertian gutxi agertzen dela aitortzen du, horratik[388]. Julio Caro Barojak (1984: 26-28) bat egiten du Barandiaranek esandakoarekin eta bere ustez ere Neolito Aroaz geroztik aizkora eta ortzia batera gurtu izan direlako hipotesiak badu oinarririk[389].

---

[386] Green (1993: 14, 20).

[387] Mari ez da, Jupiterren antzera, oineztarria honi edo hari jaurtitzeaz arduratzen. (Hartsuaga, 2004: 41)

[388] Barandiaran (1973 [1950], 488). Hemengo lanak bukatuta, Soalarko menhirraren berraurkikuntzaren berri izan dugu, alegia, orain artean beheraka zegoen aldean irudiak azaldu direlako berri. *Hilarriak* taldekoek Gartzainen berraurkitu dute lau metro eta hiru tonako menhirra, hamaika urte lehenago beretzat hartu zuenaren etxe berrian. Estreinakoz Ondarrak ezagutaraziko historiaurreko harritzarra Elizondoko museoan dago egun. Ia metro bateko luzera duen Burdin Aroko aizkorra du landua. Euskal Herrian halako zerbait aurkitzen den lehenengo aldia da. Portugalen ba omen daude horrelakoak, baina Europa atlantiarrean ez omen dira askoz gehiago. Ik. Bueno & De Balbín & Barroso (2005). Aurkikuntza horrek Barandiaranek aizkoren irudikapenei buruz esandakoa ez du erabat zalantzan jartzen, baina, orain, egon direla badakigu. Ez hori bakarrik; menhirrek saroiekin duketen lotura ikuspegi berritik ikertzeko aukera ematen du aurkikuntza horrek, hots, alderdi sibolikotik.

[389] Thorren eta Jupiterren mitoak (tximistaren) "ozme", "oneztarri" eta "tximistarri" izenen ituburutzat jotzen ditu. Badakigu Ameriketan eta Afrikan ere aizkora ortziko gertakariekin loturiko elementua dela. Ikus Agirre Sorondo (2002: 65).

Harrizko aizkoren inguruan Aragoin bilduriko sinesmenak aztertzean, Beltranek (1990: 19-20) dio kondaira askok fantastikoak diruditen objektu arkeologikoen jatorria ulergarria egiten dietela haien zioa ezagutzen ez dutenei. Historiaurreko gauzen ahalmenean sinestea erromatar tradiziotik datorke bere iritziz. Erromatarrek "ceraunias" deitzen zieten, biltzen eta gordetzen ziren suharriei grekoek emandako izen bera.

Esan dugunez, harrizko aizkoraren tokia metalezko aizkorak hartu du Euskal Herrian[390], aspaldidanik seguruenera[391]. Altzairuzko aizkora da, esaterako, ekaitza dagoenean —tximistak etxea jo ez dezan— alde zorrotza gora begira duela atarian jartzen dena[392]. Zegamakoaz gainera (ikus 6. §), harrizko aizkoraren erabilpenaren lekukotasuna biltzen du Barandiaranek (1973 [1950]: 489) Gernikan[393]. Ezagunenak besterik ez aipatzeko, diogun Azkuek (1989 [1947]: 220) hagin eta hortzetako mina kentzeko aizkorarekin loturiko erremedioa jasotzen duela Bizkaian[394].

4. Jakue Belakoaren testuan jakintzat ematen da saroiek erdigunea dutela. Aizkora "ola izendaturiko tokiaren erditik" jaurtitzen da. Erdigune horren ezaugarrien berri ez da ematen, baina aizkora

---

[390] Metalen Aroko brontzezko berrogeita hamar bat aizkora aurkitu dira Iberiar Penintsulako Euskal Herrian oraindaino. Agirre Sorondo (2002: 147).

[391] "El hacha de piedra es conocida en algunos pueblos *romanzados* del país vasco con el nombre de *piedra de rayo* (Sabando, Faido, Briones, Apodaka). En los pueblos *euskaldunes* apenas era conocida". Barandiaran (1973 [1921-1946]: 162).

[392] Barandiaranek (1973 [1950]: 489) jasotzen duenez, Astigarribian *oñaztarria* (tximista), harrizko aizkora izan beharrean, altzairu puska bat da (1973 [1921-1946]: 162).

[393] "Desde aquel momento (la piedra pulimentada) es símbolo del rayo y del relámpago, dotado, según se cree, de singular influencia sobre estos fenómenos. Colocado en el umbral de la puerta principal de la casa con el filo mirando arriba durante la tormenta, marca la ruta que debe seguir el rayo y les impide que toquen la casa. Símbolo del rayo, la orientación que señale con su filo será fatalmente seguida por el mismo rayo. Es un caso de magia simpática".

[394] "Aguren pipea artu ta aizkora bat lurrean ezarri ta aizkora-ganean matrailea luzarotxo euki bedi". Agirre Sorondok (2002: 65) ederki esaten duen bezala, haurrek soinean harrizko aizkoratxoak eramaten zituzten tximistaz babesteko.

jaurti aurretik erdigunea zein zen erabakita behar zukeen. Erditik hasita finkatzen dela jakinik, olaren erdia zein tokik izan behar zuen nola erabakitzen ote zuten? Irizpideetako bat tokiaren erosotasun eta egokitasuna izango zen noski. Lasak (1964: 163) Oñati aldean biltzen duenaren arabera, saroien erdia erabakitzerakoan ez da gizakiaren iritzia bakarrik aintzat hartu[395].

Auzia ez da hor ez agortzen ez ahitzen. Lasaiago mintza gaitezke, nahi izanez gero, erdiko guneaz. Esaterako, Hartsuagaren (2004: 166) iritziz, Indoeuroparren espazio-antolakuntza erdigune batetik abiatuz eraikitzen da beti. Izadia erdigune baten inguruan antolaturik balego bezala irudikatzen da. Erdigunearen kontzeptuak osotasuna ukatzen duenez, alderantzizkoa ere esan liteke.

Hartsuagarekin (2004: 173) jarraituz, euskal mitologian ikusten den espazio-antolakuntzaren begitan, mundua anitz mikrokosmos burujabeen batuketa litzateke. Entitate horien kopurua zehaztezina da. Unitate burujabeen bilduma bezala eraikitzen den mundu hori indoeuropar erdigune mitologikoaren printzipioarekin ez dator bat. Izan ere, azken hori lurraldearen osotasunaren erabateko ukazioa da.

5. Gatozen orain jaurtikitzeko ekintzak eta osagarriek adierazitakoa ikustera. Hasteko, norbaitek aizkora bota egiten du, ez du atarira ateratzen, edota lurrean uzten. Alde horretatik, Zuberoako ohitura ortzitik jaurtitako aizkorarekin (tximistarekin) dago lotua, baita —haiek ere aizkora-jaurtitzaile diren heinean—basajaun eta jentilekin. Zaragozako Cinco Villas edo Bortzirietako artzainek ingurua babesteko egiten zuten ekintza bera dugu hemen (aizkora jaurti). Bistan da jaurtitako aizkorak tximistorratz lana egiten duela. Horregatik bota nahi dute artzainek ahalik eta urrutien. Ola mugatzeko, ordea, —Aragoin bildutako ohituran ez bezala— aizkora

[395] "He oído contar a varios caseros de este barrio de Aránzazu, que el propietario del toro semental tenía derecho a apropiarse del sitio donde se encontraba el toro el día de San Juan. También he oído referir que el toro solía estar atado junto al mojón central para las muchas vacas del contorno, y el dueño del toro adquiría por esto derecho a la propiedad". Cf. Arregi (2001).

lau aldiz jaurti behar da eta ez noranahi, gurutzea eginez, lau haiezetara baizik.

Saroi asko lau izkinako figura geometrikoak dira. Sarri aski kantoi horiek lau puntu kardinalekin bat etortzen dira. Horrenbestez, darabilgun ohitura saroiak mugatzeko baliagarria litzateke. Ez lirateke berehalakoan ez agortuko ez ahituko hori berresten duten antzinako idazkiak. Aukeratu egin behar eta, Nafarroako saroien mugarriztatzeak erabiliko ditugu oraingo honetan. Zenbait aipatuko ditugu adibide antzera. Aurrenekoa 1780. urtean Anizlarrean (Goizuetan) burututakoa da[396]:

> *"Sel de Saroi-andia. … y como en la mittad de dicha llanadita se puso, y fijo una estaca más gruesa que las antteriores en medio de una cruz que se ha dejado señalada en la tierra con una azada, y una piedra denttro de ella pegante a dicha estaca en señal de mojón del centtro, o, medio de este sel, y practicada este diligencia habiendo el referido Ayero, puestto pegante a dicha estaca el Palo Geometrico buscando la linea para el medio día la tiro bia recta en distancia de ciento sesenta y ocho brazadas de a siette pies navarros cada una, en cuio esttremo por no haver ttampoco mojon alguno se fijo en señal de ttal otra esttaca".*

Hara bigarrena. Baztango Haranak Zugarramurdin zituen zazpi saroietan 1746. urtean egindako mugarriztatzetik hartu dugu[397]:

> "Primeramente, dando principio por el sel llamado Olaberriaga, que vá expressado, a este se le dio ochenta estados de largo por ciento veinte y cinco de ancho, poniendo

---

[396] NAO5, 143 bin.-144 au. Aurrerago hauxe argitzen da (252 bin.): "…*las piedras y estacas puestas en su zenttro y extremos de las medidas tiradas en sus respectivas quattro líneas y las de los tres seles antteriores en lugar de mojones, se an colocado y fijado con expresa reserba que hace reponer los correspondientes mojones formales de piedra* (…)".

[397] BHAO, 218-219 or.

un mojon en el centro con una cruz gravada en su cabeza, mirando sus lineas a otros cuatro lados de dicho sel; y a todos los cinco mojones de este sel, se les pusieron sus testigos de texa a los lados y en todos los demas seles, de que abaxo se hará expresión, se les pusieron los mismos cinco mojones, y testigos expresados."

Garbi ageri da, Zuberoan ez bezala, Zugarramurdin[398] eta Artikutzan ez dela aizkora jaurtitzen saroia mugatzeko. Makila eta soka zerabilten:

"Sel o sitio llamado Sarobeberri. …dos mojones (…) se allan en la distancia de ciento sesenta y ocho brazadas tirando el cordel en linea recta desde el citado del medio[399]*;"*

Pasarte honetan gurutzearen figura geometrikoak saroien eremua zehazteko duen garrantzia ikus daiteke berriro:

"…todos ellos son de piedra caliza y estan ejecutados como es los de los medios en figura redonda con sus cruzes enzima mirando o demostrando los quatro costados o estremos de cada sel, y los mojones de los dos estremos son de cuatro esquinas o figura cuadrada con cada cruz echa en forma de una espada por el costado que corresponde o mira al mojon del medio (...)."

Gogora gaitezen orain arte Gipuzkoan aurkitutako erdiko gune zaharrenek, Gorostarbekoak bezala gurutze tankera ez dutenean, harri-gainean landuriko gurutzeak dituztela, Legarraldekoa lekuko[400]. Hor dago, bestalde, mugarriei gurutzeak jartzeko ohitura ezaguna, bai

---

[398] *Executorial Insertas*-en (BHAO) 262. orrian hau irakur daiteke (1746 urtea): "*Nombramiento de personas, que hace dicho (Fernando Diaz de) Jáuregui por que asistan a tirar de los cordeles en la medida* (…)". Orobat hemen ere: "*…que le asistan a llevar el cordel para la medida;*"

[399] NAO5, 827 au.

[400] Zaldua (1996:72).

artamugarrietan[401] bai mugarri arruntetan[402], 20. mende arte bizirik iraun duena.

6. Aizkora eroritako tokia (olaren "muga") espresuki adierazten zenik ez da esaten Mauleko humanistaren testuan. Ez dakigu, egitekotan, hori nola egin ohi zen. Muga edo norainokoa behin betiko zen ere ez du argitzen Belakoak. Aizkora noiz jaurtitzen zen ere ez dago garbi. Ola "erabaki" edo finkatzen zenean ala olaren muga zela-eta zalantzaren bat sortzen zenean.

Olaren erditik aizkora erortzen zen tokiraino oztoporik (zuhaitzik) ezin zuen egon, bestela harrizko tresnak bide hori egitea ezinezkoa litzatekeelako; Basajaunek eta Jentilek botatako aizkoren kasuan zer gertatzen zen gogoratu bestela. Handiagoa dirudien zerbaiten (soilune-larretoki baten) zatia besterik ez litzateke ola, aizkora erortzen den tokiraino hain justu: gainerakoa ez zen ola.

Honaino ikusi dugunaren arabera, Zuberoako olak mugatzeko zedarririk erabili denik ez du ematen. Hori hala delarik ere, 1861-1864an, Zuberoako saroiak banatu nahi zituztela-eta irekitako

---

401 Hernanin dagoen Akolako saroiaren artamugarrian elorri eta erramu adarrez egindako gurutzea jartzen zuten bertakoek duela gutxi arte. Ikus Etnogintza (1996: 21).

402 "Al hacer los conjuros y la bendición de los términos el día de la Ascensión –a lo que llaman vulgarmente *gurutze epintzea* (= imposición de la cruz)—se coloca una cruz en este término (*Arrestorz*). Esta costumbre es antiquísima en Ataun. En 1536 se hicieron conjuros y la imposición de las cruces en los términos de la villa por el día de Santa Cruz. El 1695 Tomás de Urdangarín puso diecisiete cruces desde *Otamendi* hasta *Askoa*, cinco desde *Irumendi* hasta *Aralegi* y dos en *Muñobitarte*. En 1757 se pusieron cruces en *Irumendia*, *Ardiranburu*, *Inzarzu* y *Arastorza* por distintivos y señales de los mojones, pues se habían desecho las que antes había. En 1758 se colocaron siete cruces de roble en los mojones de los parajes de *Ayesu*, *Aranzazumendi*, *Trintxaleku*, *Otamendi*, *Elorralde*, *Lareo* y *Muñobitarte*"; Arin Dorronsoro (1929: 60-61). Cf. Agirre Sorondo (2002: 125).

epaian, aditu batek esan zuenez, olen mugak zehazteko, harkaitzetan gurutzeak lantzen ziren[403].

Mugarririk ez zegoen tokietan mugak adierazteko aizkorak izan duen erabilpenaren berri ematen digu Anizlarreko saroietan 1780an egindako mugarriztatze honek:

> *"Sel llamado Arriurdiñetta. …, en cuio esttremo careciendo asi mismo de mojon, se fijo en calidad de tal una esttaca de palo con igual reserba de colocar un lexittimo de piedra, y para ese fin asi en los arboles proximos a este como en los de el antterior se hizo señal de descorttezarlos en parte con una acha*[404]*, (…)".*

Gehiago behar dutenentzat bihoa beste argitasun hau. Gauza bera esaten da Urumeako Zilegimendietan (Donostia-Hernani-Urnieta) 1773. urtean egindako saroi-ikuskaketan[405]:

> *"Sel de Zuloetta. … no se hallo mojon alguno, pero si hallaron señales echas con achas, las cuales se acostumbran hazer de cortte, â cortte,* (…)".

Barandiaranek (1973 [1921-1946]: 162) osaturiko kontakizun-altxorrean aizkora erortzen den tokian gertatutakoari buruzko berri

---

[403] "l'on grava des croix sur des rochers por en fixer les limites"; Nussy Saint-Saëns (1955: 154). Erdiguneaz ala kanpoko aldeaz ari den ez dakigu. Begira Leitzarango honi: ... *se tiran quatro limes.. segundo a la peña que estta entre Argarate Garaicoa y Azpicoa, y en dicha peña se hizo la señal de la Cruz...*", VEKA8; *Argarte Garaicoa* saroia (1701). Hara, hitzez hitz, zer dioen Agirre Sorondok (2002: 65) aizkoratxoei eta harkaitzei dagozkionetan: "También han aparecido pequeñas hachas votivas y colecciones completas de hachas en hendiduras de rocas donde, según apuntan algunos especialistas, se dejaban como ofrendas a las divinidades paganas".

[404] NAO5, 141 bin. Hauxe ere gehituko dugu (140 bin.): "*Sel de Izcue. …, y en señal de que sirban de tales mojones, se han descorttezado en partte algunos de los arboles proximos a dichas esttacas: y del mismo centro, sin mober el referido Palo Geometrico buscando asi mismo la linea del oriente la tiro dicho Ayeroa* (…)".

[405] Zaldua (1996:73).

interesgarriak daude[406]. Iberiar Penintsulako beste toki batzuetan ere antzeko kontakizunak daude, Bujaralozekoa (Zaragozakoa) lekuko[407].

Aizkorak (tximistak) zazpi urte irauten dituen sartu-atera egiten du lurrera erortzen den tokian. Zazpi urte irautea ez da halabeharra. Aspaldidanik esana dago zenbaki horrek aparteko zama duela[408]. Saroien kulturan zazpia ere zenbaki berezia da. Ikusi dugu, esate

---

406 "Según informe recibido en Zegama, [el hacha de piedra] en este pueblo la llaman *suarrie* (piedra de fuego), nombre con el que también se designa el pedernal. Créese que es el mismo rayo, que, al caer de las nubes, se introduce en el suelo hasta la profundidad de siete estadios, y que después va saliendo afuera, un estadio cada año, de suerte que, al cabo de siete años, se halla a flor de tierra. Como muestra de sus excepcionales virtudes, se cuenta que si se le pone al fuego rodeada de un hilo de lino o de otra sustancia combustible, ésta no arde ni se consume". Gernikako kontakizunak (Barandiaran, 1973 [1950]: 489), berriz, honela dio: "Se dice que esta piedra, al ser lanzada de las nubes, se introduce siete estados bajo tierra; después va subiendo un estado cada año, de suerte que a los siete años se hallará en la superficie".

407 "…una mujer de mediana edad quien me explicó que los rayos, al caer en la tierra se hundían cinco "estados" en el suelo, uno por año, deteniéndose entonces y recobrando el espacio recorrido, ahora hacia la superficie, por medio de otro "estado" anual, hasta que quedaba a flor de tierra solidificado". Berriemaileak Eneolito Aroko brontzezko punta zeukan etxean. Kontakizuna Asturiasen eta Katalunian ere ezaguna da (batean zazpi *estado* sartzen da tximista eta bestean zazpi *cana*). Beltrán (1990: 19-21). Aizkora eroritako tokiaz hau deritzo:

"Los escritores clásicos consideraron el rayo como un medio de expresión de la divinidad, especialmente atributo a Zeus o de Júpiter tonante, con el que podía fulminara sus enemigos; el lugar donde caía quedaba "sacralizado" como receptor de un mensaje divino y se protegía por los griegos con brocal como los de pozo, convirtiéndose en elemento pasivo del culto".

Cf. Agirre Sorondo, A. (2002: 65).

408 Ikus Perurena (1993: 169-193). Garmendia Larrañagak (1995: 47-48) jasotako kontakizun honetan ere zazpia da neurria: "[Por cambiar furtivamente de sitio un mojón] Pastores de Aralar escuchaban un gemido y eran testigos de la presencia de una pala de hierro para asar la torta de maíz, que, en llamas, se movía en el aire. (Inza). (…) Este personaje misterioso (hombre ataviado con una capa) midió siete pies en dirección a una pieza de labranza del caserío Zamargin, arrancando para ello desde una heredad de Joangonea, y le dijo al pastor: "Ese mojón mételo aquí".

baterako, *gorabil* batek (Gipuzkoan saroiak neurtzeko antzina erabilitako neurriak) zazpi gizabete[409] zituela.

7. Belakoaren testua irakurrita Zuberoako olak biribil antzekoak direla pentsa liteke, *circonférence* eta *circonvallation* hitzak darabiltza-eta. Ez da harritzeko, saroiak irudikatzerakoan horrela egin baita sarritan[410]:

> *"… , y que el dicho mojon puestto en medio del sel de Pagobilletta es el centtro y esttendiendose desde el dicho centtro en ttoda su circunferencia en ciento y sesenta y ocho brazadas como se esttienden ttodos los seles de Anizlarrea, Eliberria, y Leiza,* (…)".

Garbi mintzatzen da Ott (1995: [1981]: 22) Zuberoako olen tankeraz eta azaleraz *Artzain-komunitate euskalduna (II)* liburuan[411]: "Bullta, batez beste, txabolaren inguruan kilometro baten erradiokoa izaten da". Horrela izan da eta horrela bego esana: ez dugu neurri horretako saroirik aurkitu.

Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren 11. alean datu interesgarri franko daude Nafarroa Beherea eta Zuberoaz. Batzuk besterik ez aipatzeko, Liginagan (Zuberoa) larretokiak dauden aurkintzei *bultak* esaten diete. Etxebarren (Zuberoa), berriz, *ohaltea* deitzen zaio artzainaren *olha* (etxola) eta *korraleak* (eskorta) dauden mendiko larretokiari. Garazi aldean (Nafarroa Beherea) artzainek erabilitako

---

409 Ainhoan 'gizon baten altuera', Azkueren (1984 [1905]: 349-503) hiztegian irakur daitekeenez.

410 NAO5, 845 bin. Artikutzako beste ale bat: "*Sitio Urdalluecodisidua …*[*cinco piedras labradas*] *la una de centro y las otras cuatro para los costados de su circunferencia* (…)", 517 au.

411 "Santa-Grazin, uda partean olan jabego amankomuneko artaldeak ibil daitezkeen lurrek *bullta* osatzen dute. Artzainek diotenez, *bullta*-ren mugak ez daude inon idatzirik, baina aspaldi-aspalditik usadioak markatu ditu. Muga horiek denek ederki ezagutzen dituzte, eta normalean artzain-elkarteek errespetatu egiten dituzte. Artzainek ez dute jakiten euren artaldeak zenbat hektareatan larratzen diren."

bortalde-gaineko mendi-eremuak *saroa* du izena. Atlas Etnografikoan egun Zuberoako *olhateen* mugak elementu orografikoak (errekak, gainak) direla egiaztatzen da (cf. 2.2.1. §)[412].

8. 1506. urtean ehunda zazpi ola zeuden Zuberoan, baina 1864. urtean laurogeita hiru baino ez ziren gelditzen. *Le Païs de Soule. Essai sur la coutume basque* liburuan datu horiek[413] ematen dituen Nussy Saint-Saëns-entzat (1955: 89-90 eta 155) ola eskubidea da funtsean. Jabetzatik, erabilpenetik zein (aldizkako) zorretik, bakoitzetik du zerbait. Larretzeko eskubidea da oinarria[414]; etxolaren eta eskortaren jabegoa bigarren mailakoa da. Inguruko basoez baliatzeko eskubidea ere bai. Ola-nagusiek harrapaketa eskubidea zuten, hau da, saroian kalte egitera sartzen zen animalia arrotza harrapa zezaketen[415] (*saisie privée*).

Nussy Saint-Saëns-ek (1955: 155), Cavaillès-i jarraikiz, olak erabiltzaile edo onuradun bakarra izatea arraroa dela azpimarratzen du. Bat baino gehiago dira beti eskubidedunak eta sarritan, sei, bederatzi, hamabi edo gehiago. Gehiago da: olak jabetza pribatu bihurtzeko irekitako auzietan Donapaleu nahiz Pabeko Apelazio Epaitegiek ezezkoaren alde egiten zuten beti.

Jabegoaz ari garenez, Hartsuagak (2004: 180) dio Erdi Aroko ugazabek ordezkatzen dutela indoeuropar ideologiaren sarrera euskal testuinguruan. Haren ustez, Lurraren balioespenetik Lurraren objektutasuna eta banagarritasuna datoz. Indoeuroparren ereduari

---

412 Etniker Euskalerria (2000: 495-500). Datu hau ere badago: "En el *kaiolar* bajonavarro, concretamente en Elhursaro, la choza, etxola, se situa junto a un prado redondo delimitado por un muro de piedra seca. Algunas chozas disponen de una huerta".

413 Zuberoako Sindikatuko Artxiboa (Maule) eta Jaurgainen *La Vasconie* darabiltza iturritzat (II. liburukia, 400 or.). Orellak (1996: 238) datu horiek berresten ditu. Ez dakigu zehatz-mehatz gaur zenbat izango diren, baina litekeena da, asko jota, hirurogei baino ez izatea.

414 Ikus Gipuzkoaz Etxegaraik (1984 [1924]: 261-262) dioena, eta Gogeaskoetxeak (1996: 112) Bizkaiaz.

415 Nussy Saint-Saëns (1955: 66).

euskaldunen Lurrarekiko atxikimendua eta konkista eskubidearen ezeztapena kontrajarriko litzaizkioke[416].

9. Figura geometrikoa bereizteko behar diren lau puntuak zehazten dituenez, De Bélak idatziriko ohiturak saroiak mugatzeko balio duke. Haatik, hipotesi hori oztopatzen duen kontraesan bat baino gehiago daude. Batetik, testuan igartzen diren kontraesanak daude. Aizkora "jaurti" egiten denez, saroiak lau alderdietan neurri bera edukitzea ezinezkoa da. Bestetik, testuinguruaren azterketak azaleraziriko kontraesanak daude. Lehenbizikoa: tximistorratz moduan erabiltzekotan, aizkora ezarri egin beharko litzateke, eta, hortaz, lau aizkora erabili beharko lirateke (ez du hori ematen). Bigarrena: mugak ez dira adierazten, baina guztiek dakizkite. Hirugarrena: olak zuhaitzik gabeko inguruak direla iradokitzen da, baina ola-nagusiek egurra egiteko eskubidea zuten.

Arrazionalizazioak badaude. Esaterako, prozedura erraza dela eta horregatik antzinakoa izan litekeela, De Bélarentzat bigarren puntu hori argi ez badago ere. Errepikapen nabarmena dago: aizkora, *lau aldiz*, *lau haizeetara* eta *gurutzea eginez* jaurtitzen da. Nahikoa litzateke "lau haizeetara" jaurtitzen dela esatea. Gaizki azaldutako gauzak ere ikusten ditugu. Olaren erdian zer dago? Hori irudituagatik, ez da etxola dela esaten. Aizkora eroritako tokian zedarririk edota antzeko zerbait jartzen al da? Deigarria da, baita ere, olek erabiltzaile bat baino gehiago izan arren, jaurtitzaile bakarra egotea. Jakina, batek daki "jaurtitzailea" nola aukeratzen zuten.

Testuak ez du garbitzen aizkora lurrera erortzen zen ala zuhaitzen bat jotzen zuen. Ez dugu jakin aizkora elementu babeslea ala arma zen. Testuak argi esaten du olak erdia zuela beti eta aizkora jaurti egiten zela (bertsio eraldatuenean utzi egiten da), ahalik eta urrutien gainera. Zuhaitzik gabeko tokiak izateaz gainera, olek biribilak dirudite. Aizkora-jarutitzailea ola-nagusia zela ez da adierazten.

[416] Ikus Hartsuaga (2004: 175, 33).

Belakoaren kontakizuna 17. mendean bizirik zirauen ohitura da gure ustez. Aizkora elementu sinbolikoa dela garbi dago. Mugarri edo adierazlerik jartzen ez den heinean, ekintzak luzarora begira ez du zentzurik, momentu jakin baterako irtenbidea baino ez da. Gainera, hor dugu halabeharra ez den *lau* norabideen errepikapena. Horrengatik guztiagatik, pasarteak erritual kutsua du. Bistan da tximistaz babesteko egiten zela. Maiztasuna ilunpean gelditzen da, ordea. Urteroko erritoa zen ez dakigu. Ez dezagun ahantz ola —erakundea den aldetik— urtero biltzen zela altxonbidean[417]. Ohiturak antzinakoa dirudi, idazleak aitortu moduan.

10. Ez dakigu zergatikoa, baina ez dirudi, oro har, Zuberoako olak eskubide izatetik jabego izatera igaro direnik[418]. Hipotesia da olek, han, aldi joanean Euskal Herri osoan[419] ziratekeen bezala iraun dutela. Olek partaide (*txotx*) bat baino gehiago izateak, *jabegoa* baino gehiago, *eskubidea* ideia iradokitzen du. Mugarririk ez egotea ulertzekoa da, beraz[420]. Galdera askoren artean batek kezkatzen gaitu. Nonbait (erdian) hura ola dela adierazteko zerbait egon al da? Ola dela adierazten duena (erdia, alegia) etxola izatea da aukera bat[421].

Dugun irudi eta ustea da olak, besteak beste, babestutako lekuak direla, gizakiaz gaineko izakiez gordetakoak. Horretarako, "bedeinkatu" egiten zituzten olak. Erritua, aizkora lau haiezeetara jaurtitzea alegia, olaren barruan burutzen zen, ez kanpoan. Gehiago

---

417 "Le jour de l'Annonciation (25 mars), chaque groupe de "cabaniers" se réunit; c'est l'*artzambide*; là, on fixe *verbalement* les conditions de l'exploitiation collective (…)". Nussy Saint-Saëns (1955: 91).

418 Norbanakoen saroien aztarnak daude Zuberoan. *Betzulan* (*Ori* ondoan) 1115. urtean bi aipatzen dira: "Lope López de Liedena da al abad Raimundo de Leire los dos cubilares de "Bezulla Mayor", en el monte Ory, que su abuelo Enecón Sanz compró a Guillén Arnald de Sola, y recibe a cambio diez vacas con sus terneros". Martín Duque (1983: 348-349).

419 Ikus Zaldua (2000: 442).

420 Etxoletan teilarik ez egotea ere bai, jabego pribatua adierazten baitu.

421 Cf. Barandiaran (1972: 174).

ere esango genuke: neurri horretan, olak inguru sakratuak[422] dira, erdigunea eta aizkora eroritako tokia bederik.



Olak eta saroiak

[422] Hitzak izpidea ekarrita, ohar bat ipini nahi genuke Legazpiko Santa Maria elizaren eta saroien arteko loturaz. Eliza 15. gizaldirako egin, eta 18. gizaldiaren hasieran berritu egin zuten. Lan hori ordaintzeko garaian istiluak sortu ziren. Ingurumari horretan, auzira deitu zuten lekuko batek honakoa esan zuen, hitzez hitz: "*Y que en tiempos antiguos y antes que huviese Yglesia en la dicha Villa de Legazpia el sitio a donde se halla fue sel de ganado de Segura. Y que despues de hauerse fabricado Yglesia...*". Legazpiko Udal Artxiboa, 35161 paper-sorta, 3. txostena. Xabier Lopez de Munaini zor diogun informazioa. Testuak honela darrai: "*Y que esto selo oyo dezir a Bartolome de Lezea su padre que murio veinteycinco años poco mas o menos, y a tiempo tendria sesenta y ocho, y aquel asi habia oydo dezir a otros mayores*".

9

Erdiko guneen behin-behineko sailkapena

Hausterretzak, *artamugarriak* eta kortarriak

> "Habrás observado que las historias que se cuentan son sobre los buscadores de oro y no de las gentes que lo hayan encontrado."
>
> E. Allan Poe

1. Saroi-eremuaren lau aldeetara gauzak nola diren ikusi ostean, erdiko guneei lotuko gatzaizkie. Hori bai, zenbait ezaugarriri baino ez diegu begiratuko hemen. Izan ere, saroien erdiko guneak sailkatzeko ahalegina egingo dugu azken aurreko atal honetan. Saia gaitezen, bada, mataza askatzen.

Erdiko gunearen euskal izenaren aurreneko erakusgarri idatziak 15. gizaldikoak dira. Bat aipatuko dugu diogunaren lekuko, 1433. urteko (Legazpiko) hau[423]: "Sean medidos desde la foguera que es dicho Austerreça[424]". Elgoibarren 1452. urteko lekukotasuna dago, baina han, *abstarria* mugarria zela jakinarazten da, ez su-tokia[425].

---

[423] Díez de Salazar (1993: 209, 211).

[424] Cf. Aierbe (1995: 70). *Austerraça* traskribatzen du Andoaingo ikertzaileak.

[425] [*sel de momiola] mojon de piedra que es llamado en vasquenze abstarria que está puesto en mitad de dicho sel...";* Aierbe & Etxezarraga (1999: 46).

15. gizaldiko beste aztarna idatzia, 1485 urtekoa hau, Beremerrioko barrutia zela medio, Elorriok eta Elgetak sinaturiko hitzarmenean dago; *Vstarriça* tokia dela zehazten da[426]. Leintz-Gatzagako aurreneko aipamena 1487koa da. Alabaina, han ez da *-tza* atzizkia ageri (*abstarri*) eta erdiko gunea mugarritzat daukate[427]. Inguru hartan bertan, 6. atalean erabili dugunez, Leintz-Gatzaga eta Landa (Arrazua-Ubarrundia) mugan zegoen *Yurrieta* kortako erdiguneari "(h)ustarria[428] e fogar" esaten diote 1516ko idazkian. Gaineko aldean gurutzea zuen landuta harri nagusiak: "mojon alto e ençima d'él una cruz...".

Ez dago hemen egiari uko egiterik: 15.-16. gizaldian *hausterretza* hitzak ez zuen beti 'mugarria' esan nahi, egun eskuarki ematen diogun zentzuan bederen ('jabetzak banatzeko [ikurra duen landuriko] harria'). Idatzizko lekukotasunek 'sua egindako tokia' adiera ere bazuela erakusten dute.

Zizurkilen 1539-1542ko idazkian *austerriça* deitzen diote saroiaren erdiko guneari. Oiartzunerako ere balio zuen izen horrek[429]. Garbi dago han *austerriça* mugarria zela (*...el mojon de medio que llaman...*). Irigoienek dio (1975: 113), Ziortzaren *Locia* izeneko saroiaren *apeo* edo banaketan "piedra cenizal ó austarri" esmoldea errepikatzen dela behin baino gehiagotan 1788. urtean. 20. gizaldian *austarria* biltzen du Gamiz eta Morgan (1935) Barandiaranek eta, hala berean, *austarrie* jasotzen du Ataunen (1955) Arin Dorronsorok (1955: 89). Hitz bitan, 20. mende arte luzatzen den tradizioa du *hausterretza*-k.

---

426 "... dicho sel [de don Martín Saes] sea medido del lugar que se dize a Vstarriça...". Hidalgo de Cisneros (1998: 32). Pasarte berean *mojones* terminoa erabiltzen da bi urdalerrien arteko muga adierazten duen harriaz mintzatzeko.

427 "... dixieron qu'ellos [amo]jonaban e amojonaron el dicho sel de Olabarri[eta...] sel ser de los seles antiguos de la dicha villa, en que pus[yeron] el abstarri, un mojon..."; Lema Pueyo & Cruz Mundet & Larrañaga Zulueta (2002: 315).

428 Op. Cit., 402.

429 1539-1542. urtea, 49 bin.-50 au. eta 146 au.-147 bin. Cf. Carrión (1996: 64-65).

Garrantzitsua da *austerreça* (1433), *austerriça* (1539-1542) vs. *(h)ustarria* (1516), *abstarri* (1487), *austarri* (1935, 1955) aldaerak zergatik dauden jakitea, bestela esan, batzuetan *-tza* zergatik hartzen duen eta beste batzuetan zergaitik ez argitzea. *-Tz(a, e)* atzizkiaren esanahia dela-eta, Salaberriren (1997: 37) aburuz, batzuetan toki hutsa adieratzen du. Bide horretatik hainbat toponimo txiki eta handiren etimologia egokiro azal daitekeela deritzo. 'Tokia' adiera 'ugaritasuna' baino egokiagoa da askotan toki izen batzuk garbitzeko, zenbait garaitan biak hertsiki loturik egoten badira ere.

Horretan oinarri harturik, eta *-tza* atzizkia duten hiru aipamenetan (1433, 1485, 1539-1542) bigarren osagaiaren lehen silaba *e* dela gogoan, baita dardarkari anizkunaren aurrean bokal erdikoa ireki egiten dela ere (*berri* > *barri*), uste dugu *hausterretza*-ren etimoa *(h)aust* [hauts] + *erre* + *-tza* dela, eta ez *(h)aust* [hauts] + *(h)arri*. *Austarri* aldaerak artikuluaren erabilpenarekin duke zerikusia (*erre* + *-a* > *erria*): *(h)aust* [hauts] + *erre* + -a > *(h)austerria* > *(h)austarria*. *Austerreça* / *austerriça*-ren esanahia 'errautsak dauden tokia', 'sua egin den tokia' da, hortaz. Izan, esanahi horrek lotura gehiago du *foguera*, *fogar*-ekin *mugarri*-kin baino.

Tradizio idatzian lehenbizi azaltzen dena *hausterretza* da, baina saroi edo kortaren erdiko gunea izendatzeko beste bi hitz badira: *artamugarri* eta *kortarri*. Aurrenekoa, eta *baztermugarri*, maiz aurkitu ditugu dokumentazio historikoan 1607. urteaz geroztik Urumeako zilegimendietan; 20. gizaldia arte bizirik iraun duen terminoa da han. Ondoan, *Artamugarri* izeneko hiru baserri daude Errenterian (1857). Erdiko gunea izendatzeko bigarren hitza, *kortarri* alegia, Berriatuan biltzen du Barandiaranek (1955: 188) eta Murelagan (*Barbariola*) Irigoienek (1975: 94), erakusgarri ezagunenak besterik ez aipatzeko. Beste bat ekar genezake diogunaren lekuko. Castrok (1997 eta 2000) jasotzen duenez, eta geuk entzun dugunez, bizirik dirau oraindik Mutriku-Berriatuetan (Burgo) eta Elgoibar aldean.

Nafarroan saroiaren erdiko gunea izendatzeko zein termino erabili den ez dakigu, baina garbi dago Euskal Herriko sartaldean eta

erdialdean *hausterretza* (*austarri*) erabili dela, *sel* esateko batean *korta* eta bestean *saroi* aurkituagatik. *Korta* eta *saroi* han parekoak direla garbi adierazten du horrek. Ohar bat egin nahi genuke hainbat lasterren: erdiko gunea saroiaren alderdi garrantzitsuena izanik, alegia, *saroi* / *korta*-ren eta *hausterretza*-ren artean franko lotura hertsia egonik, erdiko guneak bi inguruetan (eta euskalkietan) izen bakarra dute, eta gordetzen duen egiturak, ordea, ez (*sel*-ak alegia).

Gerta daitekeena dela deritzogu *hausterretza* vs. *korta* / *saroi* izan ordez, bikote osagarria *austerriza* vs. *ola* izatea, *kortarri* vs. *korta* nahiz *artamugarri* vs. *saroi* liratekeen bezalatsu. Hipotesi hori gauzatuko balitz, olak saroien / korten aurrekariak lirateke, eta hausterretzak, ostera, artamugarri eta kortarrienak. Hori sakon ikertzea merezi du. Lanean hasteko behar den lehenbiziko datua Nafarroan saroiaren erdiko gunea izendatzeko erabilitako hitza da.

Ikus dezagun *hausterretza* eta *artamugarri* / *kortarri*-ren artean esanahiaren arabera egon litezkeen ezberditasunak zein diren. *Hausterretzak* ez du bere kokalekuari buruzko argibiderik eskaintzen, *artamugarrik* bai, ordea: "erdiko mugarria'. *Hausterretza*-k ez du *saroi* edo *korta*-rekin duen loturaren berri ematen; *kortarri*-k, berriz, bai, eta neurri batean *artamugarri*-k ere bai. *Korta*-rekin duen zerikusia garbi adierazten du (*kortako harria*). Gehiago da, besteak *harri* duen bitartean, *mugarri* osagaia du bere baitan *artamugarri*-k, esanahiari dagokionez horrek duen zamarekin ('jabegoa', 'nagusitasuna', 'muga'). Oroit gaitezen *hausterretza*-ren aipamen batzuetan alboan *foguera*, *fogar* eta *lugar* daudela idatziak.

Argi ez badago, hauxe da hipotesia: hasiera batean, olek *hausterretzak* zituztela, besteak beste, jabetzak ez zirelako. Olek saroiak eta kortak zituzten usuenik. Ez zuten harri berezirik, ezta muga zehatzik ere seguruenera. Behinola *ola* horiek *saroi* eta *korta* bilakatzen hasi ziren. Harriak jarri zizkieten eta biribil tankera betiko eman zieten.

2. Saroien erdiko guneak sailkatzeko aintzat hartuko ditugun ezaugarri edo kategoria nagusiak lau baino ez dira: egitura, forma, dekorazioa eta elementu osagarriak. Badira gehiago, baina aurreko kategorien menpe daude eskuarki gure ustez, gaineko aldeko marra kopurua (dekorazioa) kasu.

Bi egitura mota daude saroien erdiko guneen artean[430], osagai nagusi bakunak eta konposatuak dituztenak. Bereizketa hori, gainerakoak bezala, ez da aldi oro erabat zuzena, baina, hori bai, gehien-gehienetan baliagarria da. Harri bakarra duten saroi gutxi daude, ia beti bat baino gehiago izaten direlako erdiko gunean, euskarritako bederik. Baina ez gara horretaz ari, saroiaren erdiko gunearen osagai nagusiaz baizik. Harri bat ala bat baino gehiago dituzke osagarri nagusiak, eta hori da, hain justu, aintzat hartu dugun ezaugarria.

Askotariko formak dituzte saroien erdiko guneek, hala bakunek nola koposatuek. Badira prisma formakoak, zilindrikoak... eta, noski, badira eite jakinik ez dutenak, hots, gutxi edo batere landu gabeko "harri hutsak" direnak.

Dekorazioa da axola zaigun beste tasuna, eta irudi bat bereziki, gurutzea. Badira, haatik, irudi gehiago: ikurrak, zenbakiak, hizkiak, izenak. Gehienak behe-erliebeak izanagatik, badaude goi-erliebeak ere.

Saroi askok, azkenik, elementu osagarriak dituzte: lekukoak, erradio antzeko kapoko harriak, euskarriak, harri landu solteak. Horietako askoren egitekoa zein den ez dakigu, eta beste askorena ez dago erabat garbi. Sarritan helburu anitz dituztela dirudi.

2.1. Bi motako erdiko gune konposatuak idoro ditugu: gurutze tankerako osagarri nagusia dutenak eta biribila nahiz zilindrikoa dutenak. Gurutze fomako osagarri nagusia duten erdiko guneak

[430] Sailkapen honetatik kanpo daude "su-tokiak". Ikus 9.1.§.

Urumeako Zilegimendietan baino ez ditugu aurkitu, Amunolabekoan, Gorostarben eta Untzuegaraikoan. "Aurkitu" diogunean lekukotasun idatziez ari gara, egiazki kokatu eta ikusi dugun bakarra Gorostarbekoa delako. 1773ko idazkiaren arabera (VEKA1), Untzuegaraiko erdiko gunea Gorostarbekoaren antzekoa zen:

> "*... tres piedras unidas a manera de cruz mettidas en tierra descubierttas como pie y medio...*"

Amunolakoa, ordea, bi harrikoa zela dirudi, baina litekeena da hiru harrikoa izatea eta —hausturaren bat dela medio— 1773. urtean begi-bistan bi baino ez egotea.

> "*... forma con dos piedras como una cruz perfectta mettidas en tierra...*"

Zilindro formako erdiko gune konposatuak Alonsotegi aldean eta Urumeako Zilegimendietan idoro ditugu. Idazkietan forma biribileko erdiko gune gehiagoren lekukotasunak daude inguru hartan:

> "[*Anchista de yuso*] *... un monton de piedras en redondo echo como pared, con cal, y canto aunque ya bastante desmoronado...*"

> "[*Uzcalcue*] *... formado en redondo con barias piedras a cal y canto...*"

Mendabioko erdiko gunea berezia da, ezbairik gabe. Mugarria du txertatuta, gaineko aldean izar irudiko dekorazioa duena. Egituraren ondoan harri lau eta biribila topatu genuen indusketan. Harrizko zilindroaren estalkia dirudi. Hori dela-eta, pentsa liteke txertaturiko mugarriek eta zilindro formako egiturek ez dutela garai berekoak izan beharrik. Mendabioko erdiko gunea osatzen zuten harrien artean lurra baino ez zegoen[431]. Hala berean, Mendabioko zenbait harri

[431] Cf. Mauleon & Flores & San Jose (1996: 144).

landuak direla azpimarratu nahi dugu. Alonsotegin ez bezala, egiturari eusteko harririk ez dago alboetan eta, arestian esan moduan, Mendabiokoa hangoak baino txikiagoa da.

Arkeologian sartu-atera eginez, bihoaz ohar batzuk:

Gaurdaino induskatu diren erdiko guneez ari garenez, C14 bidez datatu direnetatik batak *K.o. 2. gizaldia* eta besteak *K.o. 5. gizaldia* emaitzak izan dituzte, datuok kontuz erabili beharrekoak badira ere, gizakiaren jarduerarekin lotura dutela ez baitago argi.

Bi erdiko gune horietan, nahiz induskatu diren beste bietan (Altzustan eta Antxistagaraikoan), ez da inolako hondakinik agertu, teila zatirik eta antzekorik esan nahi dugu. Menhir edo iruinarrirekin dute antza erdiko guneok alde horretatik, denok dakigulako beste erdiko gune batzuetan teila zatiak egoten direla harri nagusiaren azpian.

Berezia da Altzusta[432] edota Olaberriagako saroien kasua, Urumea aldekoak hauek ere. Bien erdiko guneek harri bat baino gehiago dituzte, baina osagarri nagusia harri bakarrekoa da bietan (prisma fomako harri zabala). Harri horrek izarñoa du gaineko aldean, baina, estua denez, dekorazio hori txikia da eta, gainera, ez oso sakona, azalekoa baizik. Garbi aitortu beharrean gaude behin baino gehiagotan erdiko gune konposatutzat jo ditugula Altzusta eta Olaberriagako erdiko guneak, baina sailkapen honetan erabiltzen ari garen irizpideen arabera bakunak lirateke, osagai nagusia harri bakarra delako. Gaineko aldeko dekorazioa egitura baino berriagoa delako aukera kontuan hartzen dugu.

Mendabiokoa alde batera utziz gero, ez da dekorazioarik azaltzen erdiko gune koposotauetan. Norabidea adierazten duten marren arrastorik ez dago. Gurutze tankerako erdiko guneetan eginkizun hori osagai nagusiak berak beteko luke, baina forma zilindrikoa dutenetan

[432] Ikus San Jose & Flores (1997: 178-181).

ez dago horrelako ezer[433]. Gaude erdiko gune konposatuak, jatorriz, babes-elementuak direlakoan, ez mugarri arruntak.

2.2. Osagai nagusi bakuna duten erdiko guneez mintzo bagara, bi multzo bereiz litezke: gutxi edo batere landu gabeko harriak eta landutako harriak, bestela esan, forma jakinik ez dutenak eta forma ezaguna dutenak. Formei bagagozkie, eite jakinik ez duten saroien erdiko guneen osagarri nagusiak, hots, asko landu gabeko harri bakarrak, ez dira nolanahikoak, mugarri tankera dute eta. Gutxi-gehiago, laukiluzeak (paralepipedoak) dira[434]. Inolako dekoraziorik ez dute izaten askotan. Barruan sar genitzake[435] *Saroiko bizkar* (Baztan), *Bagordi* (Baztan), *Leizarateka* (Aezkoa), *Ondarre* (Aralar-Oidui) edota *Intzensao*-ko erdiko guneak (Aralar-Oidui). Alonsotegiko *Koskorrakoa* da dekoraturiko bat.

Bigarren multzoan dekoraziorik ez duten landuriko harri bakarrak sailkatu ditugu. Errenterian bi erakusgarri eder ezagutzen ditugu, bata *Belaskanpan* aurkintzan eta bestea *Igantzi* lepoan. Prisma laukiak dira biak. Muliskuen (Urumean) dago horrelako bestea, eite piramidalekoa hura.

Erdiko guneen artean multzo ugariena elementu nagusitzat dekoraturiko harribakar landua dutenek osatzen dute. Tamaina askoko prisma eta zilindroak daude talde horretan. Gaineko aldeko dekorazioa izan liteke bata bestetik bereizteko irizpidea. Tresneriaz mintzo bagara, pikotxa (1454) erabili dela ziurra da eta, seguruenera, suarria[436] (1487) ere bai[437].

---

[433] Alonsotegiko erdiko guneek dituzten alboko harriek euskarriak diruditela esan dugu.

[434] *Artamugarri*-koa izan liteke salbuespena.

[435] Antxistabekoa ere multzo honetan legoke.

[436] "...en la qual dicha peña ficieron vna cruz fecha con el dicho pico de fierro [en nombre de mojón]...", Pozuelo Rodríguez (2001: 24).

[437] "[*abstarri*] ... mojon grande que tenía unos gra[...de] pedernal en somo con sus testigos a los lados...", 1487 urtea; Lema & Cruz & Larrañaga (2002: 315).

Prisma formako erdiko guneen artean, gaineko aldean **lau marra**[438] (Elordi [Aralar-Amezketa], Zotaleta [Aralar-Amezketa], Aranegi [Aralar-Amezketa], Oñati[439], Legazpi[440] [Udanakorta, Uregoneta, Bederatziturrieta, Beain, Petrinazenaritz], Genbe [Munitibar], Aldoia I [Dima], Olaberriaga, Gorostegia, Gerestiaga, Loiaga, Urbia, Urrizondoki [Baztan[441]], Olabarrieta [Leintz-Gatzaga[442]], Iurrieta [Leitz-Gatzaga-Legutio[443]]), **zortzi marra**[444] (Orentzunazpikoa

---

[438] Cf. *Euba berrigoitia* (Dima). Prisma laukia da, gaineko aldean gurtzetxoarekin eta alboan gurutzetxoak dituzten lau lekukorekin (erradioak). Laratzu taldea.

[439] *Alkorta* da salbuespena, zortzi marra dituen bakarra, alegia. Lau marra dituzte Zeriaga (*Zedeaga* aipamen zaharretan), Aldaola, Arratola, Jarondo, Arenartza (*Arenarri* behinola), Arriona, Bildosola, Elorrola, Gesaltza-Kortakogain, Akuin (*Acuegi* lehen), Bellotza (*Beguioleza*), Astegikorta (*Astegui*), Labiaga, Labiaga (*Labiaga-Palaciocorta* lehen), Aristillun (*Aristillo* lehen), Kortabarri, Murgiolatza, Frantziakorta, San Julian buru, Arriurdineta, Amiño (*Arizmuño* lehen), Irabiartza, Albitxuri, Lukainka muño, Eltzikorta, Urdansoro eta Lizarragak. Manu Arregik emandako datuak.

[440] Jose Luis Ugarteri zor diogun informazioa.

[441] "[*sel llamado Olaberriaga*] ..., *poniendo un mojon en el centro con una cruz gravada en su cabeza, mirando sus lineas a otros cuatro lados de dicho sel; y a todos los cinco mojones de este sel, se les pusieron sus testigos de texa a los lados y en todos los demas seles* [*Gorosteguia, Guerestiaga, Loyaga, Urbia, Urrizondoqui*]. 1746.urtea; BHA0, 218-220.

[442] Lema & Cruz & Larrañaga (2002: 315).

[443] "([h]ustarria e fogar) ... mojon alto e ençima d'él una cruz, ...";1516. urtea; Lema Pueyo & Cruz Mundet & Larrañaga Zulueta (2002: 401-402.

[444] Saroi askoren gaineko aldean agertzen den izarra Aldaieta, Finaga eta Momoitioko bitxietan dagoen izar bera da. Hiru aztarnategiak saroi-eremuan daude. Bidenabar, gogora dezagun askok eta askotara azaldu dutela Nafarroako armarriaren jatorriak ez duela Navas de Tolosako guduarekin zerikusirik, ezta Antso Indartsuarekin ere. Izan ere, bat baino gehiago dira 1212. urtearen aurreko lekukotasunak, hala elizetan nola liburuetan: Chartres-ko katedralaren atean (1164), Lizarrako San Migel elizan (12. gizaldikoa) eta Iruñeko Bibliako ilustrazioan (1197), adibidez. Ikus Urzainki & Olaitzola (1998: 51) eta Urzainki (2003: 194). Hortaz, Nafarroako armak ezin dira argitu Antso Indartsuak (1194-1234) ekarritako aldaketa bezala. Urzainkik (2003: 191-193) dio Iruñeko Erresumarekin zerikusia duten zortzi besotako eguzkiaren irudikapenak azaltzen direla 10. gizaldiaz geroztik. Askotan ilberan dagoen ilargia dute ondoan. 12. gizaldiaren buruan zortzi besoek lore formak eta flamigeroak hartu zituzten (*carbunclo* delakoa). Erdikoa harribitxia zen, errubia hain zuzen. Ezaugarri magikoak zituela uste zen. Kateak dituen aldaera egiazki 16. gizaldia arte ez da ageri. Urzainkiren aburuz hondarraren hondarrean nazio-ikurra da, hamar gizalditan orobat

[Elduain], Txertudi [Elduain], Urdalekun [Elduain], Burgo [Mutriku-Berriatua]) eta **hamasei marra** (Alkatxurain, Arlotegi [Urumea]) dituzten harriak aurkitu ditugu. Zilindro forma dutenen multzoan, ostera, **lau marra** (Artikutza[445] [Goizueta], Ezkeltzu [Zizurkil]), **sei marra** (Azarola [Zizurkil]) eta **hamabi marra** (Lete [Mutriku]) dituztenak daude.

Bada beste ezaugarria gaineko aldeko dekorazioan: batzuetan, erdian edota periferian dagoen biribila. Erdiko biribiltxoa prisma tankerako osagai nagusi bakunetan idoro dugu (Akola, Akoliturrieta, Alkatxurain, Añoa, Arlotegi, Larregain, Listorreta, Pagoeta [Hernani], Zabaleren korta [Elgoibar], Lizundiazpi [Elgoibar], Burgo [Berriatua-Mutriku], Ugatzerreka-Otadiaundi, Leotarangoikoa [Altzania]), baita zilindro formakoetan ere (Lete [Mutriku]).

Periferiako zirkulua, ostera, zilindro formako osagarri nagusietan topatu dugu (Mendabio, Zuloeta [Urnieta]). Kanpoko biribila duten bi mugarriok ez daude ondo-ondoan, baina neurriak nahiz marrazkerak oso antzekoak dira. Litekeena da garai berekoak izatea.

---

iraun duena; irudikapena baino ez da aldatu, ezaguterrazak diren eta zerikusia duten aldaeretan beti. Nafarroako estatuaren ikurrak behinola ugari ziren eguzki-ikurretan duke jatorria, zortzi besotako *carbunclo*-a bilkatu zena. Fondo gorrian irudikaturiko marra zuzenak dituen armarria 12. gizaldiaz geroztik erabiltzen da. Barandiaran (1955: 342) da Nafarroako armarrian eta saroien erdiko gunean azaltzen diren irudiak lotzen dituen lehenengoa. Bat gatozkio, eta uste dugu, gainera, Aldaieta, Finaga eta Momoitioko bitxietan azaltzen den irudiak ere Nafarroako armarriarekin duela zerikusia.

[445] "*…todos ellos son de piedra caliza y estan ejecutados como es los de los medios en figura redonda con sus cruzes enzima mirando o demostrando los quatro costados o estremos de cada sel, y los mojones de los dos estremos son de cuatro esquinas o figura cuadrada con cada cruz echa en forma de una espada por el costado que corresponde o mira al mojon del medio*: …", (828 bin.); Beste bat aipa genezake diogunaren lekuko: "*…quatro piedras labradas para mojones tendidos en tierra, sin duda para amojonar dicho paraje [llamado] Belzunze, pues la una de ellas es redonda para mojon de centro y las otras tres quadradas para los estremos, …*", (498 bin.-499 au.). Horrelako hogeitazortzi lekukotasun daude 1780. urteko idazkian. NAO5. Anizlarrea. Cf. *Arikutzako Gidaliburu Ekologikoa*, 80, 82 or.

Gaineko aldean zulotxorik badagoen ere aintzat hartu behar da; gutxi dira, halaz ere, tasun hori duten erdiko guneak (Artamugarri [Errenteria]; Aldoia I [Dima]; Larrebilbekoa [Altzania] eta Alkorta [Oñati]).

Gaineko aldean izan ordez, izarra albo batean duen erdiko gune bat dago, Larrebilgoikoan (Altzanian) hain justu. Adibide hori besterik ez dugu ezagutzen. Esan beharrik ez, osagai nagusiek askotako irudiak dituzkete alboetan, edota gainean: jabeen ikurrak (Artikutza, Larrebilgoikoa), saroi-izenak (Urdalekun), erdiko gunea berritutako urtea (Lete), nahiz puntu kardinalak adierazten dituzten letrak (Aldoia I).

Egitura osagarria da prisma edo zilindro tankerako osagai nagusia duten erdiko guneak sailkatzeko laugarren irizpidea. Lehen esan dugu osagai nagusi batzuk harriak dituztela alboan, lekukotako nahiz euskarritako. Lekukoak bi, hiru edo lau izan litezke eta euskarriak, gutxi-gehiago, beste hainbeste. Horretara heldu nahi genuen, Lizundiazpi edo Burgoako erdiko guneetako erradio moduko egituretara. Lekukoek helburu sinbolikoa badute, eta euskarriek helburu praktikoa, erradio moduan jarritako harriena funtzionala dateke, hots, osagai nagusiaren gaineko aldean dauden marren jarraipen edo luzapena dirateke.[446]. Bada beste aukera, halere: Lizundiazpi eta antzekoak erdiko gune konposatu (Gorostarbe) eta bakunen tarteko aldaerak izatea.

Badira mota gehiago erdiko gune bakunen artean[447]. Bat aipa genezake diogunaren lekuko, Legarraldekoa (Urnietakoa) hain zuzen. Harri zabalaren gainean gurutzea dago landuta. Alde batera ematen du tenteka ikusi ohi dugun harlauza etzanda jarrita dagoela.

---

[446] Gogora dezagun Leitzarango saroiez mintzatzen den 1701ko pasartea "... *ponga cada moxon por index y demostrador como las miras de una escopeta para dirigirse al moxon de la circunferencia...;* VEKA8.

[447] Hor dago, konparazio batera, Arnoateko harri ezaguna. Hagitz zaila bada ere, saroiekin zerikusia izatearen aukera ezin da erabat baztertu, ikusi dugunez, inguru hartan saroiak bazeudelako (Ikus 6.3.1 §).

Aztxistaazpiko (Urumea) erdiko gunearen kasua ere hona ekarri nahi dugu; landu gabeko bi harriz osatua dago.

3. Goazen ikustera askotariko erdiko gune-motak lurralde berean nola banatzen diren. Izan ere, eremu bereko erdiko gune guztiak zenbait garaitan ez dira berdinak izaten. Bi kasu erabiliko ditugu, bata Urumeako zilegimendietakoa eta bestea Aralarkoa.

Urumeako zilegimendietan berrogei bat saroi ezagutuko ditugu. Saroiotatik hogeitabi Iruñeko Katedralarenak izan ziren 16. gizaldia arte, Hernani eta Donostiak erosi zituzten arte. 12. gizaldian hogeitabi horietatik hamabost idatziz aipatzen dira. Saroi horien erdiko gune asko (ez denak) konposatuak dira. Gainerako saroiak inguruko edota zilegimendietako jauneriarenak ziren (Altzega, Epela edota Ereñotzuarrenak). Bigarren multzo horretako erdiko gune guztiak bakunak dira eta osagai nagusiaren dekorazioa berdinberdina da: erdiko biribiltxotik ateratzen diren zortzi edota hamasei marra[448].

Aralarri buruz mintzo bagara, bitariko erdiko guneak egoteak atentzioa ematen du: prisma tankerako harri landu dekoratuak eta gutxi edo batere landu gabeko harri dekoratugabeak. Gaineko aldean gurutzea duten harriak Amezketa aldean daude, eta Oidui aldeko erdiko guneak, berriz, landu gabeko harri luze antzekoak dira (dekoratugabeak biak).

Begira diezaiegun, azkenik, eraikuntzan erabiliriko materialen arabera erdiko guneen artean egon litezkeen antzekotasunei. Adibidez, ezberdinak izan arren, Gorostarbe, Mendabio eta Altzustako erdiko guneen artean badaude loturak eraikuntzari dagokionez, eta orobat erabiliriko gai (harri, lur), osagarri (euskarri) eta teknikei dagokienez.

[448] Saroi nagusiak eta txikiak daude alderdi hartako saroien artean. Urnieta aldean, ostera, txikiak baino ez daude.

4. Orain arte ikusitako ezaugarri edo kategoriak zuhaitz tankerako eskema batean irudikatuko bagenitu, lehenik eta behin, zuhaitzaren zenbait adarrrek beste batzuk baino adarkadura gehiago dituztela ikusiko genuke. Askotan, ihartutako adarrak edota begiak (salbuespenak) diren ez dago garbi, gaineko aldean hamabi marra dituen erdiko gunea kasu.

Bada, gainera, beste arazo bat, aski axolazkoa. Ezaugarri edo kategoria bakoitza zuhaitzaren zein tokitan ezarri behar den, alegia, adarrek nahiz adarkadurek enborretik urrutiago ala gertuago egon behar duten. Zenbaitetan, garbi dago (dekoratuak vs. dekoratugabeak), baina beste zebaitetan ez hainbeste, ihartutako adarrak edota salbuespenak izan litezkeenean batez ere (zulotxoa gaineko aldean, dekorazioa alboan). Adar batzuek adarkera trinkogoa dute eta, horri esker, adierazgarriak ematen duten irakurketak egin litezke denboraren ikuspegitik.

Ez dugu behar baino gehiago esan uste erdiko gune bakunen osagai nagusiak aurrena dekoratugabeak zirela esatearekin. Dekoratzen geroago hasi ziren, baina horrek ez du esan nahi harri dekoratugabe guztiak dekoratuak baino zaharragoak direnik, enborraren lehen adarra dekoratugabea dela baizik.

Dekoratuen artean, lau marra dituztenak zortzi edo gehiago dituztenak baino zaharragoak dirudite, baina lau marrako guztiek zaharrenak izan beharrik ez dute. Gero zortzi (eta hamasei) marrakoak sortu bide ziren, geometriari dagokionez, lau marrakoak baino konplexuagoak direnak. Berrienak, gure iritzi apalean, sei eta hamabi marrakoak dira, baina horrelakoak, dakigunez, oso gutxi dira. Nolanahi ere den, karbono 14 bidezko datazio gehiagorik ezean, zortzi marrakoak lau marrakoak baino zaharragoak direla ezin daiteke esan, besteak beste, badelako hirugarren aukera bat: bi motak adarkadura berekoak izatea, hots, lau marrakoak eta zortzikoak aldi berekoak izatea.

Gaineko aldean zortzi eta hamasei marra dituztenen artean, kanpoan edota erdian biribila dutenak eta ez dutenak daude (saroiaren biribiltasuna azpimarratzeko?). Agerian ipini nahi genuke hemen ez dagoela biribildunik lau marra dituztenen artean. Biribila erdian dutenen artean, hamabikoak barne, biribil hutsa dutenak eta marratua dutenak ditugu. Hutsa dutenak bide dira zaharrenak, baita ugarienak ere. Biribil marratua dutenen multzoan badira zortzi marra dituztenak, eta lau baino ez dituztenak ere bai. Gutxi dira biribila kanpoko aldean dutenak, hots, zortzi marrak erabat biribilaren barruan dituztenak. Kanpoko biribila zortzi marra dituztenen artean baino ez da ageri eta ez dago biribila duen sei marrako erdiko gunerik, ezta hamabi edo hamasei marrako harri biribilgaberik.

Guztiarekin, erdiko guneetan aurkituriko irudiak hauek dira:

Nahi bada, irudi berak beste modu batera antola litezke:



Gaineko aldean zulotxoa (biribila edo laukia) dutenak dekoratuak dira beti, lau edo zortzi marrarekin[449]. Deigarria da *Aldoia I* izeneko kortaren erdigunea: norabideak adierazten dituzten S, E eta O hizkiak ditu gaineko aldean, NE, SE, SW eta NW norabideak dituzten lau marren artean. Edonola ere, ez dira asko gaineko aldean zulotxoa dutenak. Hori bai, ez dirudite oso berriak. Zulotxoa, saroia sokaz edo katez neurtze aldera, makila edo burdina sartzeko egina dela pentsa liteke. Ez dago dekoratzeko biribilik horrelakoetan.

Dekoratu gabeen artean landuriko harriak (prismak, zilindroak) eta gutxi landuak edota batere landu gabekoak daude, izan harlauza izan harri luze. Landurikoak gutxi dira eta berriagoak direteke; eman ere, horrela ematen du, ezinbestean hala izan beharrik ez badu ere.

Dekoratuen artean denetarik dugu. Gutxi edo batere landu gabeko harriak eta prisma edota zilindro dotore askoak daude. Prisma formakoen multzoan gehienak paralepipedoak dira (laukiak eta laukiluzeak), piramide tankerakoren bat tartean. Zilindro formakoen sailean konikoak diren ale bakar batzuk badaude. Edonola ere, zilindro tankerakoak urri ditugu dekoratuen artean. Egokienak, geometrikoenak nolabait esan, zortzi (eta sei) marrakoak dira, prismak bereziki. Berri samarrak diruditen lau marrako harri landuak badira, baina lau marra dituztenak nagusitzen dira argi eta garbi gutxi edo batere landu gabekoetan. Asko landuriko harriak, ederrenak alegia, gutxiago edo baldarrago landuak baino berriagoak izan litezke.

Inguruan erradiotzat ezarririko harriak dituzten bi aleek prisma forma dute, ez daukate zulotxorik, eta dekoratuak daude. Biek zortzi marra dituzte gainean eta batek biribila du gaineko aldearen erdian (marratua).

Aldoia I-eko erdikogunean dauden hizkiek (*S*, *E* eta *O*) garbi erakusten digute, baztermugarriak non diren adierazteaz gainera, osagai nagusiaren dekorazioak puntu kardinalekin duela zerikusia.

[449] *Artamugarri*-koa (Errenteriakoa) dateke salbuespena.

Ildo horretan, Peña Basurtok (1960: 7) hain ederki esan zuen bezala, puntu kardinalak adierazteko mairu-baratze (cromlech) askotan harri handiagoak daude[450]. Hitz batean esateko, biribiltasuna antzinako ezaugarria da erdiko guneetan (Mendabio[451]), baita lau norabideen adierazpena ere (Gorostarbe[452], Legarralde). Dekorazioaz mintzo bagara, zortzi marrakoek laukoek baino lotura estuagoa dute biribiltasunarekin.

Orain arte 50-60 bat erdiko gune baizik ez ditugu ezagutzen, eta hori oso lagin eskasa da. Gaiari arreta pixka bat opa dioenak badaki, gutxienera jota, 1000 baino gehiago egon direla[453]. Erdiko gune horiek nola banatzen diren ikusten saiatzea merezi du. Salbuespenak salbuespen, zenbait lurraldetan mota bereko erdiko guneak egon ohi dira, bestela esan, mota bateko erdiko guneak nagusitzen dira leku batzuetan. Gehiago ere esango dugu: lau marrako dekorazioa duten erdiko guneak dauden inguruetan ez dira, arrunki, zortzi marrakoak azaltzen, ezta alderantziz ere. Lau marratik zortzi marrarako balizko bilakabide baten aztarnarik ez dugu aurkitu inon.

Erdiko gune konposatuak elkarrengandik urruti dauden bi gunetan baino ez ditugu topatu (Alonsotegi eta Urumean). Egiturez ari garenez, oroit gaitezen 15. gizaldiaren mugan *hausterretza*-k '[sua egindako] tokia' adiera zuela artean.

---

450 "Salvo escasas excepciones, se destacan en ellos –distinguindose con facilidad—las piedras indicadoras de los cuatro puntos cardinales, dato revelador de que sus constructores ponían en ello voluntad bien determinada para que así fuera, inicicando con ellas –acaso como base— el trazado o construcción de la figura definitiva, bien fuera circular u ovalada".

451 Mauleon & Flores & San Jose (1996: 144).

452 Mauleon & Ibañez (1995: 211-214).

453 Esaterako, ez dugu batere berririk Bera, Aurizperri (1534-1535), Ezkurra (1606-1611), Beruete (1606-1611, 1754), Beintza-Labaien, Eratsun, Baraibar (1525-1526), Igantzi (1564-1567), Urdazubi (1746-1749), Etxalar (1561-1574) edota Ultzamako (1568-1569) saroietako erdiko guneei buruz.

Erdiko gune bakun dekoratugabeak, Baztan (2), Aezkoa, Errenteria, Hernani, Urnieta eta Aralarren ageri dira. Gaineko aldean lau marra dituzten erdiko guneak, berriz, Baztanen, Artikutzan (Goizuetan), Aralarren, Zizurkilen, Oñatin, Legazpin, Leintz-Gatzagan, Legution, Diman, Alonsotegin eta Munitibarren aurkitu ditugu[454]. Zortzi marrakoak ditugu Hernanin, Urnietan, Elduaienen, Leitzan, Altzanian, Oñatin (1), Elgoibarren, Mutriku-Berriatuan eta Murelagan. Hamasei marrakoak, azkenik, Hernanin baino ez ditugu Ikusi. Seikoak Zizurkilen, eta hamabi marrakoak Mutrikun baizik ez daude.



Erdiko guneen dekorazioa

Saroien eremuaren hegoaldean, sortaldean eta sartaldean lau marrako erdiko gune bakunak nagusitzen dira eta Erdigunean-Iparraldean, berriz, bi motakoak ditugu, lau eta zortzi marrakoak.

[454] Legarraldekoak ere lau marra ditu, baina etzanda jarritako harlauzan daude irudikatuta. Ez dugu aintzat hartu sail honetan, baina, bai, ordea, beste batean.

Zortzi marra dituztenak eremu txikiaren barruan daude (Bizkaiko sortaldea eta Guipuzkoa), lau marrakoen esparruaz inguratuta erabat. Ez daude elkarren ondoan.

Laburesanda

1. Europa atlantiarrean historiaurreko egitura biribil handiak daude. Britainiar Irletakoak izango dira ospetsuenak seguruenera. Irlandako eta Britainia Handiko *henge*-ak, *causewayed enclosure*-ak, *hillfort*-ak, eta itxitura handiak oro har, hango harrizko zirkulu edo cromlechak baino handiagoak dira. Euskal Herrira etorriz, alderdi batean harrizko zirkulu txiki edo cromlech franko daude, baina ez dago historiaurreko egitura biribil handien arrastorik. Europan dauden antzinako egitura biribil handiak ez dira Euskal Herriko saroiak bezain naroak. Hemen ehunka saroi daude eta ez du ematen bi hektarea (edo gehiago) dituzten hainbeste *henge*, *causewayed enclosure* eta *hillfort* daudenik.

Euskal Herriko bost saroi-mota nagusien azalera duten egitura biribil handiak daude Europan[455]: 6 gorabileko saroiaren parekoak[456] (2, 1 hektarea), 9 gorabileko saroiarenak[457] (4,8 hektarea, gutxi gorabehera), 18 gorabilekoarenak[458] (19,1 hektarea) eta azkenik, 24 gorabileko saroi baten antzeko hedaduraren bueltan dabiltzanak[459] (34 hektarea). Aztertu dugun multzoan hiruk baizik ez dute parekorik Euskal Herriko saroien artean azalerari dagokionez[460]. Garbi esateko, 12 gorabileko euskal saroiaren neurrikorik ez dugu aurkitu.

---

[455] Azalerari dagokionez, Euskal Herriko saroiekin antza gehien duten lau egitura biribilak *Ballynahatty* (2,5 ha), *Navan Fort, Thornborough* (4,5) eta *Hindwell* (34 ha) dira.

[456] *Ballynahatty, Wolstonbury, Holkham Camp* eta *Goloring*.

[457] *Stowe's Pound, Hill of Tara*, *Navan Fort*, *Robin Hood's ball*, *Thornborough* eta *Knowlton*.

[458] *Durrington Walls* eta *Marden*.

[459] *Hindwell* da (itxitura) bat.

[460] *Avebury, Mount Pleasant* eta *Grimspound*.

Europako biribil handiek askotariko kokapenak dituzte. *Super-henge*-ak, esaterako, ubideetatik (ibaietatik) gertu azaltzen dira. Badira lautadan dauden egiturak, baita muino-gainetan eraikitakoak ere. Mazelan daudenak gutxi dira. Euskal Herriko saroi gehienak, ordea, mendi-mazeletan daude. Mendi-gainetan edo muino-gainetan dauden saroiak badira, halere. Kasu horietan baizik ez da antzekoa Europako eta hemengo egitura biribil handien kokapena.

Harrizko zirkuluak bata besteari erantsita egoten dira askotan, hala Euskal Herrian nola Europa atlantiarreko gainerako lekuetan. Guztiok dakigunez, saroiak ere bai, baina ez, ordea, *henge*-ak. Elkarrengandik hurbil egon litezke, baina ez bata besteari datxekiola.

Saroiak, bestalde, multzotan azaltzen dira beti, eta gehienetan *henge*-ak (eta itxiturak) ere bai, baina, saroiak ez bezala, bakarka ere ager litezke.

Europan badaude arrautza tankerako itxitura eta harrizko zirukulu handiak. Ahotan hartu ditugunen artean erdia eta erdia izango dira biribilak eta arrautza formakoak. Lauki eitekoak ere hor daude, baina *hillfort*-ak dira gehienak, ez *henge*-ak. Euskal Herrian, biribilak diren saroiez gainera, arrautza edota lauki tankerako saroiak egon dira; Hori bai, jatorriz biribilak zirenen itxuraldaketak baino ez dira, berandukoak gainera.

Ikusi ditugun Europako egitura handi guztiek itxitura dute kanpoko aldean, izan lurrezkoa (arruntena), izan harrizkoa edota egurrezkoa. Itxiturak bi osagai izaten ditu (lurresia eta zanga). Hori da, hain zuzen, Euskal Herriko saroien eta Europako egitura biribil handien arteko ezberdintasun nagusietakoa: jatorriz saroi guztiak ez dira eremu itxiak izan, urteen buruan zenbait saroitan harrizko itxiturak egin arren.

Begitan hartu ditugun eraikinetatik batek baizik ez du harrizko zirkulu handia barruan[461]. Euskal Herriko saroi askok zirkulua finkatzeko beharrezkoak diren lau harri dituzte kanpoko aldean, eta ez dira gutxi kanpoko aldean zortzi harriz osaturiko oktogonoa dutenak. Hamasei mugarri dituzten saroiak ere badira, hogeita lau gorabilekoen sailean.

Zirkuluak ez diren egiturak dituzte barruan Europako historiaurreko itxitura askok. Saroi frankok ere egiturak dituzte beren barruan, baina etxolak eta izan ohi dira, ez hilobiak. Alde nabarmena dago horretan Europako eta Euskal Herriko egituren artean. *Henge* eta antzeko itxituretan hilobiak egoten dira, baina ez, ordea, saroietan. Ez dago barnean hilobirik duen *hillfort* eta *causewayed enclosure*-rik, baina etxolen oinarriak dituzten horrelako itxiturak badaude[462].

Goloring-ekoak izan ezik, aztertu ditugun Europa atlantiarreko hamasei egiturek ez dute ezer berezirik erdian. Horrenbestez, saroien erdiko gunearen parekorik ez dago han[463]. Erdiko guneak euskal saroietan (eta mairu-baratzetan) izan duen garrantziaren aurrean gaudela ez dirudi. *Goloring*-eko itxituraren erdian habe luzea sartzeko zuloa dago. Ez dira berehalakoan agortzen horrek sortzen dizkigun gogoetak: harriek (menhirrek) baztuetan, gizakiak ez ezik, zuhaitzak ez ote dituzte ordezkatu?

Erabilerari dagokionez, Euskal Herriko saroiekin antza gehien duen egitura *Grimspound*-goa da. Hura ere bizilekua izan dela dirudi

---

[461] *Avebury*-z ari gara.

[462] *Grimspound* da saroiekin antz gehien duena. Ez dezagun ahantzi, gainera, *Durrington Walls, Marden* eta *Mount Pleasant*-en egurrezko egiturak idoro direla, baita, agian, *Navan Fort*-en ere. Aurrenekoan ez beste guztietan hilobiak edo bestelako egiturak daude, egurrezkoekin batera.

[463] *Hill of Tara*-ko *Lia Fáil* (harria) litzateke beste salbuespena, eta ez erabat argia, gainera.

eta hango itxitura abereentzat egina dateke, ez gizakientzat[464]. Barnean hilobiak dituzten egiturek eta euskal saroiek erabilpen bera izan dutela ez dugu uste. Barruan hilobirik ez duten *henge*-ak eta gainerako egiturak zertarako erabili diren inork ez du argitu. Zenbait garaitan bilguneak izan dira, antza denez.

Europako eraikin biribil handi eta txikien Kultura Historiaurrean dago errotua. Neolito Aroan hasi eta Burdin Aroa amaitu arte iraun zuen, erromanizazioa arte. Honek nabari behar luke izan: Euskal Herrian historiaurreko eraikin biribil txikiak badaude (cromlech edo mairu-baratzak), baina ez da orain arte orduko egitura biribil handirik aurkitu.

Historiaurreaz ari garenez, esan dezagun aizkora, —Zuberoako olak babesteko egindako erritoan erabilitakoa adibidez—, Neolito Aroaren ikurra dela. Horregatik edo, garai hartako Europako zenbait eraikuntza megalitikotan aizkora kirtendunak ikus daitezke harrian landuta. Barandiaranek dio aizkora gurtutako elementua izan dela Euskal Herriko historiaurrean. Izan ere, Europako eremu zabal batean aizkora tximistaren ordekoa izan da Neolito-Brontze Arotik hona. Euskal ertian aizkora gutxi ikusten da, horratik.

Begira diezaiogun astiroago megalitoen auziari. Euskal Herriko mendietan saroiak eta megalitoak elkarren ondoan daude. Saroiak dauden hainbat tokitan (edo ondoan) trikuharri edo dolmenak, mairu-baratze edo cromlechak eta iruinarri edo menhirrak daude.

Izen bera duten saroi eta megalito mordoa dago. Eta ez hori bakarrik, *saroi* osagaia duten megalito-izenak daudelako. Honek nabari behar luke izan: izen berarekin ala beste batekin, elkarren ondoan dauden saroi eta megalito franko daude.

---

[464] *Stowe's Pound*-en ere etxola biribilen oinarriak daude, baina gotorlekua ematen du, bizilekua baino gehiago, eta, guztiok dakigunez, saroiak ez dira gotorlekuak arrunki.

Megalitoak aurkitu diren toki gehienetan saroiak daude, edo egon dira. Arabako Errioxa da salbuespen nagusia. Halaz guztiz ere, saroiak dauden toki guztietan ez dago megalitorik. Saroiak dauden inguru askotan ez dago megalitoen arrastorik. Megalitoen eta udako saroien eremuak bat datoz, bai, baina neguko saroienarekin orobat gertatzen den ikusteke dago oraindik, horrela mintzatzea zilegi bada.

Saroiek eta megalitoek osagarriak dirudite maiz aski. Saroi bakoitzeko megalitoa dagoela ematen du. Megalito gutxiko hainbat tokitan saroi andana dago, haatik. Saroi horietako asko berriak direla uste dugu. Trikuharriak eta mairu-baratzak bi aldetan banatuta dauden eremuetan, alde bietan saroiak daude.

Ez dago megalitorik saroien barruan, baina megalito ugari saroien muga-mugan daude. Ez dugu behar baino gehiago esan uste saroiak finkatu zituztenean megalitoak han zeudela aintzat hartu zutela esatearekin. Azken batean, etxolak megalitoetatik gutxieneko bat urruntzen zituztela deritzogu, eta alderantziz. Alderik alde, bazterrik bazter, megalitoak saroien gain-gainean daude gehienetan.

Saroiek eta mairu-baratzek tankera bera dute. Biribilak dira biak. Hori aski ez dela, bietan erretako zerbait egon liteke erdian, dela errauts dela ikatz. Tamainari dagokionez, berriz, alde handia dago. Mairu-baratzek saroien aldaera txikituak dirudite. Askotariko neurriak dituzten mairu-baratzak daude, bata bestearen alboan sarritan. Saroiekin orobat gertatzen da, saroi txikiak eta handiak egon litezkeelako elkarren ondoan. Elkar ukitzen duten mairu-baratzak daude, baita saroiak ere. Badira bi udalerriren arteko mugan dauden mairu-baratzak; horrela kokaturiko saroiak ere bai.

Mairu-baratzek eta saroiek barruti biribilak mugatzen dituzte, baina ez dituzte erabat ixten. Puntu kardinalak adierazteko harri handiagoak dituzten mairu-baratzak daude. Saroi frankotan ere lau norabideak zedarriztatzen dira. Tumulua duten mairu-baratzen pareko saroi-mota aurkitzeke dago oraindik. Bestela esan, ez dakigu puntu horretan kidekotasunik zergatik ez dagoen.

Erdiko gune batzuek monolito edo iruinarrien dute antza. Gehiago da: megalitotzat jo diren zenbait harritzarrek saroiekin dute zerikusia. Soalarko historiaurreko harritzarrean landuta aurkituriko giza-irudiek eta Burdin Aroko aizkorak menhirrek saroiekin duketen lotura ikuspegi berritik ikertzeko aukera eskaintzen dute.

Orain arte induskatu diren lau erdiko guneetan[465] ez da inolako hondakinik azaldu, ez zegoen teila zatirik azpian. Alde horretatik iruinarri edo menhirrekin dute antza egitura horiek. C14 bidez datatu ahal izan diren bi erdiko guneetatik, batek *2. gizaldia* eta besteak *5. gizaldia* eman dute. Edonola ere, datu horiek kontu handiz erabili behar dira. Hipotesia da erromatarren garaian erdiko guneak zituzten saroiak bazeudela[466]. Erdiko gune horiek mugarri arruntak zirenik ez zaigu iruditzen, inondik ere ez gainera. Zentzu adierazkorra eta sinbolikoa ikusten diegu, bietakoa. Seguruenera ez zituzten mugarri izateko jarri, babes-elementu izateko baizik. Gutxi dira, damurik, gaur arte iritsi diren horrelako egiturak.

Oraingo zenbaiten ustez ez dago jarraipenik Antzinatearen eta Erdi Aroaren artean. Bizkaian, izan, gutxi dira Erdi Aroa arte irauten duten Erromatar Inperio Berantiarreko bizilekuak. Baliteke hirietan eta horrela izatea, baina landa inguruan eten hori egon zela ez du inork frogatu oraindik.

Ipar Euskal Herriko zenbait megalitotan Burdin-Aroko ehortz-erritoek Kristo ondotik ehunka urte iraun zutelako lekukotasunak aurkitu dira. Blotek (1993: 67-68) dio ez dela batere kontraesanik Euskal Herrian Historiaz eta bereziki Kristautasunaz dakigunarekin.

---

[465] Gorostarbe, Mendabio, Altzusta eta Antxistagaraikoa, laurak Urnietakoak.

[466] Erromatar Inperioaren garaian *fundi* izeneko landa-ustiapenak zeuden Nafarroan. 500-1.000 hektarea zituzten, eta urteen buruan herri bihurtu ziren. Askotan izenek *jabearen izena* + *atzizki berezia* (*-ain...*) egitura dute. Landa inguruko biztanleriaren elkarretaratzea, neurri handi batean, garai hartakoa da. Halaz ere, horrelako izenak dituzten herri askok erromanizazioarekin duten zerikusia azalekoa da. Hori horrela delarik, bestelako jabego motak baziren, jakina. Hain justu, jabego komunalaren nagusitasuna gizarte gentilizioen euzagarritzat jotzen da, esaterako.

Bost megalitotan oinarritzen da hori esateko: *Bizkartzuko tumulua* (Lapurdi), 714-1113. urtea; *Ahigako tumulua* (Nafarroa Beherea), 869-1209. urtea; *Sohandi IV*-ko harrizko zirukulu edo cromlecha (Nafarroa Beherea), 1150-1370 urtea; *Sohandi II*-ko harrizko zirkulua (Nafarroa Beherea), XI-XIV. mendea (?); *Urdanarre 1*, Erdi Aroaren mugan (1301-1471) berriz erabiliriko Brontze Aroko tumulua (Nafarroa Beherea).

Guztiok dakigunez, Erromatar Inperioaren gainbeherarekin eta bizimodu hiritarrarren atzerakadarekin mendiratze aroa hasi zen Pirinioen eremu sartaldekoan. Garai hartan Pirinioen bi aldeen artean muga igaroezina zegoenik ez du ematen. Euskal Herriko sartaldeak Pirinio-inguru hurbilarekin lotura bazuen.

Orduko gizartearen xede nagusia irautea zen. Abeltzaintza zen jarduera nagusia eta askok basotik lortzen zuten oinarrizkoa. Behiak, idiak eta zaldiak edukitzeak "aberastasuna" adierazten zuen. Pobrezia eta demografiaren ahulezia lotuak daude. Lurraldeari egiten zitzaion presioa arina zen eta bizilekuak aldakorrak eta iraupen-gutxikoak ziren. Agintea eraginkortasun eta egonkortasun txikikoa zen. Inperioaren egiturak ahuldu ahala bertako jauneriaren (gerlarien) agintea handitzen joan zen.

6. gizaldian, ordu arte bizitzeko erabilitako eremuen atzerakada gertatu zen alderdi batzuetan. Biztanleria gune estrategikoetan elkarretaratuz joan zen. Dirudienez, leku horiek tokian tokiko agintarien esku zeuden. Gizartearen antolaketa aristokrazia horietan oinarrituko zatekeen. Gudulari taldeok guztienak (herriarenak) ziren basoak eta eremuak bereganatu zituzten. Gaurko zenbaiten iritziz, Erdi Aroko ugazabek ordezkatzen dute indoeuropar ideologiaren sarrera euskal testuinguruan.

Germaniarren menpe ez zegoen agintea eratzen joan zen Euskal Herrian. Etorri zirenean, frankoei aurre egiteko adina indar eta

antolakuntza bazegoen[467]. Halaz guztiz, Bizkaitik hasi eta Nafarroaraino aurkituriko aztarnek erakusten dute hemen eragin franko-akitaniar garbia egon zela Erdi Aro Goiztiarrean. Bizilekuak, sartaldeko europa osoan bezala, iraupen gutxikoak eta aldakorrak ziren. Gainera, gutxitu egin ziren[468], biztanleria ahulezia zela eta. Garai hartan ezarri izan da euskararen batasuna, "aro iluna" delakoan, alegia.

Euskal Herriko sartaldea ere mugako (Pirinioetako) eremuaren zati zen. Esparru hori irekia eta Europako eraginen hartzailea zen[469]. Baskoiak bisigodoen eta frankoen etsaiak ziren. Guztiok dakigu, esaterako, 653. urtean baskoiek Zaragozari eraso ziotela.

Gizartea hazitzen hasi zen. Aginte sendo eta iraunkorraren ezean, jauneriak herri-lurrak bereganatzen jarraitu zuen, eta zergak jasotzen ere bai seguruenera[470]. Ehorzketa-hornidurak Europako sartaldeko eliteen aberastearen lekuko dira. Aldaketa prozesu guztiok, jakina, ez ziren alde eta aldi oro berdin gertatu. Gainera, giza-taldeak txikiak ziren. Euskal Herriko sartaldean dauden Erdi Aro Goiztiarreko hilerri batzuetan zenbait gizaseme euren gauzekin horniturik ehortziak izan

---

[467] Zenbaiten iritziz Baskoiak indar gehien izan zuten aroa 6.-7. gizaldia da.

[468] Badaude salbuespenak. Finagakoa (Basaurikoa) da bat. Inperio Berantiarrean hasi eta biztanleriaren berrantolaketa-garaian amaitzen den estratigrafia-sekuentzia du aztarnategi horrek. Finagak Iberiar penintsulan arrotzak diren ezaugarriak ditu, ez ordea kontinentean. Ehorzketa erritook 6. gizaldian hasten dira, eta "nortasun frankoaren" lekuko direla diote batzuek. Erresuma frankoko ereduak dira ezbairik gabe, iparraldeko nortasunera begiratzen dutenak.

[469] Finagako hileta-hatuaren iparraldeko izaera (frankoa) nabarmena bada ere, *facies* berriak, ostera, bertako kutsua du (7. gizaldia). Aztarna zaharrenek iparraldeko eredu frankoen nagusitasuna erakusten dute, baina aurrerago tokiko kultur ezaugarriak gailentzen dira. Aldaietan aurkituriko aztarnek (aizkorek) ere Iberiar penintsulako eredutik urrundu eta Europako sartaldeko eredutara gerturatzen dute. Aldaieta ez da kasu bakarra. Bistan da oraindik argitzeke dagoen aroaren aurrean gaudela.

[470] *Annona* inperiokoa bezalakoak agian, alegia, 828. urtean Ipar Euskal Herrian zirauen zergaren gisakoak.

ziren[471]. Besteak beste, marrazki astralekin dekoraturiko zilarrezko edo brontzezko eraztunez ari gara[472].

Erdi Aro Goiztiarraren hasieratik basoak eta ehizalekuak eraldatzeko joera indartsua ikusten da Europako sartaldeean. 8. gizalditik aurrera, gainera, biztanleria hazten hasi zen. Janari falta areagotu egin zen, basoaren kalterako. Aldaketa ikusten da biztanleria-sarean[473]. Erabiliriko tokiak ugaritu egiten dira. Garai hartan Europako sartaldean hazkunde ekonomikoa egon zen.

Landa inguruko biztanleek mendi, haran, baso eta larratzen eraldaketari ekin zioten, erresuma asturiar-leondarraren laguntzaz aurrena eta Iruñekoaren eskutik ondoren. Biztanleok luberriak sortzen aitzindariak izan ziren, basoetan argiguneak irekiz, etxolak eta gainerako hornidura eraikiz. Aldi berean, edota handik gutxira, elizak eraiki zituzten. Landa-bizileku egonkorrak orduko gizartearen ezaugarria dira.

Pirinio-inguruko muga estutzen joan zen, hala erresuma asturiar-leondarraren sorreraren ondorioz nola karolinjioen eta musulmanen presioagatik. Frankoen armadaren nagusitasuna erabatekoa zen. Horrexegatik beragatik, Iruñeko erresumaren sorrera Orreagako mendi-pasabidearen kontrolarekin dagoke lotua.

Frantzian izen propio latindar edo germaniarraren aurrean *ville* eta *court* osagaiak dituzten toponimo andana dago Erdi Aro Goiztiarrean. Toki-izenok 8. gizalditik aurrera egindako fundazioenak dira. Nagusiek kudeatzaileen eskuetan uzten zituzten ustiapenak ziren.

Korta / *gorta*-ren aurrekaria den *corte* latin berantiarreko *curtis, is*-etik dator (*cohors*, *-ortis*-en oinordea). Latineko *cohors*, *-ortis*-

---

[471] Badaiteke horrelako nekropoliak Pirinio inguruetaraino iristea.

[472] Ehorzketa-errito bereziak dira. Izan ere, Oiz mendiko mazeletan aurkituriko nekropoliak apartekoak dira.

[473] 9. eta 10. gizaldietan zehar gorpuztu zen erabat.

izenak *co-* eta *hort* (< *hortus*) osagaiak ditu. Bigarrenak 'ortua eta (txerritokiak) dituen espazioa' esan nahi zuen.

Ez dugu behar baino gehiago esan uste 8.-9. gizaldirako euskaraz *korta* / *gorta* hitza bazela esatearekin. Baina zein adiera zuen? Litekeena da hasiera batean 'korralea, ukuilua' adiera izatea, eta geroago 'erdigunea ardatz duela biribilean mugaturiko aurkintza irekia' bihurtzea. Seguruenera *korta* askotan erdiko guneak zeuden orduko. Argi geldi bedi Erdi Aro Goiztiarreko zenbait hilerritan aurkituriko eraztunetan agertzen den izarñoa eta *saroi* / *korta* askoren erdiko guneetan dagoena irudi bera direla[474].

Gaurko zenbaiten ustez saroiak bi prozesuren ondorio dira: basoan argigune biribilak irekitzearena eta, aurrerago, herri-lur edo zilegimendiak jauneriak bereganatzearena. Euren aburuz, 8.-9. gizaldian saroiak basoak ziren artean, ez besterik. Guk ere geure iritzia azaltzen dugu, den bezalaxe: saroi guztiak ez dira ordukoak, zaharragoak direnak badaude. Besterik da garai hartan saroi berri asko sortu zirela, eta lehendik zeuden hainbat abeltzaintza-gune aldatu zirela.

9. gizaldiaren hastapenetan gudu-jaun leinua gailentzen da baskoien artean[475]: Enekoarrak. Iruñeko erresuma 824. urte aldera sortu zen, haiek buru zirela, Frankoen *Galia comata*-ren barnean[476]. Enekoarrak euren mende zegoen lurraldea Aragoiko konderriraino zabaltzen ahalegindu ziren.

---

474 Garai berekoak izan ez arren, Finaga eta Momoitioko nekropolietan apaingarritako irudi berak daude. Orobat teknikaz, sastatuzko teknika erabili baitzuten bietan. Erdiko gunetik atertazen diren zortzi erradio zuzen dituen ikur astralaz ari gara. Aldaietan antzeko marrazkiak dituzten pieza berdintsuak aurkitu dira.

475 "Agintea" kargu publikoak izatetik ere etor zekiekeen.

476 Alfonso 3.aren kronikaren arabera (883. urte aldera), asturiarrek Bizkaia eta Arabako zenbait ingurutan eurekin harremana gauzatu eta bideratzeko moduko aginteak ikusi zituzten, ez ordea Gipuzkoan.

9. eta 10. gizaldietan zehar hogeita hamar herrixkatik gora sortu ziren Echo eta Anso haranetan. Izan ere, aldi hartan biztanleria nabarmen hazi zen inguru haietan. Hazkunde horrek, jakina, luberritzeak ekarri zituen.

Iruñeko erresumaren sorreraren ondoren etorritako lasaialdian kristautasuna nabarmen suspertu zen Pirinioen eremu sartaldekoan. Monasterioak atertu gabe sortu ziren. Anso haranaren sarreran eta *Echo* haranaren barruan, adibidez, monasterio sorta zegoen 9. mendearen erdialdean. Biztanlearіaren hazkundea eta Elizaren indartzea lotuta daude, haren ekimenek jendea erakartzen baitzuten beti ondora. Monasterioen ondasun-elkarretaratzea 9. gizaldian hasi zen. Europa osoan bezala, landa-inguruko biztanleen ondasun franko elizen eskuetara pasa ziren.

Haranen sarreretan zeuden monasteriook gotorlekuak ziren alde batetik. Halaz ere, monje bat baino ez zen egoten sarritan. Iparraldetik (Karlomagnoren inperiotik) etorritako monjeek sagaratuak izan arren, baliteke fundazioa bertako jendearen ekimena izatea. Landa-inguruko biztanleei elizak sortzea komeni zitzaien alde batetik, diru iturrietara iristea bermatzen baitzieten.

Elizaren jabetzak hazi ahala ogasun-zerrendak ugaritu egin ziren. Agiri horietako asko gezurrezkoak izanagatik, monjeek sinesgarriak izan zitezen idatzi zituzten guztiak, sarritan originalak erabiliz. Guztiarekin ere, Erdi Aro Goiztiarrari buruz iritsi zaigun informazio gehiena elizgizonek idatzitakoa da.

Eraldatutako idazki batek dioenez, 828. urtean Gartzea Semenoitzek (Iruñeko erregeak) eta Galindok (Aragoiko kondeak) Anso haraneko *San Martín de Ciellas* monasterioa eta herria *San Juan de la Peña*-ri eman zizkioten. Alabaina, monasterioaren fundazioaren egiazko data 833. urtearen ondorengoa da. Monasterioari emandako barrutian itxiturak, etxeak eta *pardina*-k izendatzen dira. Urte batzuen buruan, 850 aldera, Gartzea Enekoitzek (Iruñeko erregeak), Gilesindok (Iruñeko gotzainak) eta Fortunek

(Leireko abadeak) *Fuenfría*-ko monasterioa sortu eta sagaratu zuten. Erronkari haranaren sarreran zegoen (*Salvatierra de Esca*-n) eta, monasterioaz gainera, *cubile Baraosse* aurkintza azaltzen da idazkian.

Garbi dago *pardina* batzuk abeltzaintzarekin lotuak zeudela (*pardina cubile*), *828 urteko *Aranna pardina* kasu. Egungo Nafarroaren mugen barruan ere ezaguna da *pardina*, 'mendiko larretokia, ardientzat korraleak egoten direna' esanahiarekin. *Pardina*-k, ordea, ez ziren korraleak bakarrik; azalera handiko nekazal-basa-abeltzain ustiapenak ziren, basoak, mendiak eta larretokiak zeuzkatenak, *pardinero*-aren bizilekuarekin, eta abereentzat korraleekin. 'Biztanle gutxi dituen herria edo herrixka' adiera ere izan du *pardina*-k[477]. Bestalde, latinez 'ohea', 'gordelekua' esan nahi zuen *cubile*, *-is* hitzak, 850. urteko agirian azaltzen denak alegia, Pirinioen erdialdean eta sartaldean *cubilar* (kubilarea) oindorea eman du ('abereak gordetzeko babeslekua'). *Pardina* baino erabiliagoa izan da Nafarroan[478].

*828ko *pardina* eta 850. urteko *cubile* saroiekin lotura duten aurreneko aipamen idatziak dirateke[479]. Bi testuak Iruñeko erresuma sortzen eta indartzen den garaikoak dira. Aitzindari nagusiak ahaideak ziren: Gartzea Semenoitz (edo Eneko Semenoitz) eta Gartzea Enekoitz aiton-ilobak bide ziren[480]. *Ciellas*-ko elizari emandako barrutian zegoen *Aranna* pardinak bazuen jauna, eta hala dago idatzia (*Martino* izenekoa). Ongi begiratuz gero, testua *pardinez* eta *cubile*-ez mintzatzen denean, gune horietako horniduraz baino gehiago, gune horien jaunek zituzten eskubideez (edo aukerez) ari

---

[477] *Pardina* izena latineko **parietina* pluralaren oinordekoa da (< *paries, -tis*). Adiera bat baino gehiago ditu Aragoin, besteak beste 'mendiko larretokia, ardientzat korraleak egoten direna' eta 'hondatutako hormak'. Latinez, 'hondakina' adiera zuen.

[478] *Cubilar* hitza sarritan azaltzen da Leireko monasterioko dokumentazio bilduman 11. eta 12. mendeetan, Gipuzkoako iparraldean nahiz Ori ondoan zeuden aurkintzak izendatzeko.

[479] Bi agiriak egungo Nafarroatik kanpo dauden tokiez mintzatzen zaizkigu.

[480] Enekoarren menpeko lurraldean saroiak zeuden.

da, korraleen balioa, besterik gabe, hutsaren hurrengoa zelako. *Pardina* eta *cubile* terminoen esanahia aski zehatza zen erabili zituzten elizgizonentzat. *Pardina*-k zuberoako oletatik gertuago ikusten ditugu Euskal Herriko erdiguneko korta eta saroietatik baino.

Erdi Aro Goiztiarraren amaieran elizak baliabide hagitz eraginkorrak ziren landa inguruko biztanleen errentetara iristeko. Landa inguruko gizartearen feudalizazioa bizkortu zuten. Elizak feudalizazioaren eragile nagusietakoa izan ziren. Euren ondasunak bana ez zitezen, jabe handiek (erregek, jauneriak, ...) egindako emateez aprobetxatuz, monasterioek jabetza asko eskuratu zituzten. Begiratu bestela Donemiliaga, Leire edota San Juan de la Peñari.

Pirinioen eremu sartaldekoan, Erdi Aro Goiztiarrean, landa inguruko biztanleriak ez zuen osatzen familia-harremanetan erabat oinarrituriko giza-taldea, espazioaren erabilpen-eskubidearen inguruan antolaturiko gizartea baizik. Erabilpen-eskubidea bereganatuz indartu zen hemen aurrerago saroiak elizari emango zizkion aristokrazia. Saroiak ez dira Erdi Aro Goiztiarraren mugan sorturiko zerbait. Antzinateko giza-antolaketaren oinordekoak dira zenbait gauzatan. Denboraren buruan, erabilpen eskubidea zena jabego bihurtuz joan zen, monasterioen eta jauneriaren eraginez, besteak beste.

Erdi Aro Berantiarraren hasieran biztanleria eta ekonomia hazkundeak jarraitu egin zuen. Abeltzaintza-eremuan basoak atzeraka egin zuen. Jabe handiek basoko zati asko luberriru zituzten, abere-taldeentzat larretokiak izateko. Bizileku eta soroetatik urruti zeuden basoko sailak moztu zituzten, belardi berriak sortzeko eta abeltzaintzarako itxiturak egiteko, belar eta egurretarako. Erregezkoek, herrisketako ondasunak eskuratzearekin batera, hango herri-lurretako eskubideak bereganatu zituzten. Aberatsak nabarmentzen hasi ziren. Zenbaiten ustez dialektoen bereizkuntza (dialektalizazioa) Erdi Aro Goiztiarraren mugatik aurrera nabarmentzen hasten da, "Erdi Aroko euskara" izendatzen duten hizkuntza-aroan.

Behi-aziendak orain arte eman zaion baino garrantzi gehiago du Euskal Herriko abeltzaintzaren kondairan. Ez dira artaldeak (eta artzainak) bakarrik izan saroiez baliatu direnak. Ildo horretan, Euskal Herriko elien aurreneko aipamenak berandukoak dira, 11. gizaldikoak[481]. Elien gorakada eta monasterioen indartzea lotuta daude. Orreagak, adibidez, Aezkoan hasi eta ia itsasoraino iristen zen abeltzaintza-igarobidea eratu zuen saroien eskutik.

Aziendaren gobernu eta mantenua merkeagoa gerta zekien, Haran batzuek eliak izateko eskubide berezia aitortu zieten monasterioei. Euren eliak eta monasterioenak batera gobernatzea eroso gertatu zitzaien hasiera batean. Monasterioen eliek kanpoko buruak hartzeko baimena izaten zuten, hori bai, kanpoko buru bakoitzeko herriko beste bat hartu behar zuten. Jauneriak ere eliak zeuzkan.

Eliek lotura zuzena dute saroiekin. Eliek saroi jakinak erabiltzen zituzten (*busto* vs. *bustaliza*). Hain zuzen, eli bakoitzak zituen saroien batez bestekoa laurogeikoa zen[482]. Eli batzuetan artzaintza urte osokoa izaten zen eta beste batzuetan, berriz, eliak bazkalekuz aldatzen ziren.

Eliak unaiek zaintzen zituzten, unamaizterra buru zutela. Elien unamaizterrak jaunerikoak izaten ziren edo, bestela, jabeen artean ospea zuten gizasemeak. Elien gobernuaren arduradunok maizterrak ziren. Buruzagiak edo *eli-jaunak* ere bazeuden, baina ez abere taldea gobernatzeko, lapurretak eta antzeko gaiztakeriak saihesteko baizik.

Eliek giza-antolakuntza berezia behar zuten, askotariko zereginak zituzten arduradunetan oinarritzen zena: unaiak, unamaizterra, buruzagi edo *eli-jauna*... Bistan da antolakuntza hori ez dagoela odol-harremanetan oinarritua. Erdi Aro Berantiarretik ezagutzen da

[481] Frantzian, esaterako, elien lehenengo berriak 6. gizaldikoak dira.

[482] Durangoko foruak hogeita lau behi zituenari saroi nagusi bateko eta bi saroi txikiko eskubidea aitortzen zion (14. gizaldia).

Pirinioen eremu sartaldekoan, baina lehenagotik datorrela uste dugu. Aldi hartan jauneriak eta monasterioek saroi berriak sortu zituzten, elien hazkundeari eutsi ahal izateko.

Donemiliagako burdinsarean azaltzen direnez gainera, 11. gizaldian badaude *ola*-ren aipamenak. *Ola* Euskal Herri osoan ageri den hitza da, *korta* edota *saroi* ez bezala. Alde eta aldi jakin batzuetan *ola* eta *saroi* parekoak izan dira, hori bai, aurreneko aipamenak aurkitu diren sartaldeko eremutik (Orreagatik) urruti[483].

Ola guztiak *saroi* (edota *korta*) bihurtu ez arren, *saroi* bihurtu ziren asko. *Ola* eta *saroi* pareko moduan erabiltzea *saroi* franko jatorriz *ola*-k izatearekin dagoke lotua, *ola* asko eta asko *saroi* izatera igarotzearekin, alegia. Hipotesia da, hortaz, lehenbizi *ola*-k zeudela, eta beranduago *saroi* / *korta* bihurtu zirela[484]. Daitekeena da toponimian *ola*-ri 'tokia' zentzua aurrena *saroi* izateagatik etortzea. Orobat *saroi* eta *korta* hitzekin. Hasiera batean ez zuten 'sel' adiera, baina, hori bai, *sel* guztiek (*olez* gainera) *saroiak* edota *kortak* ('korraleak') zituzten. Izan ere, zenbait tokitan *saroi* hitzak 'korrale' esanahia baino ez du, oraindik jatorrizkoari eutsiz (cf. *sario*).

Saroien erdiko gunearen euskal izenaren aurreneko lekukotasun idatziak 15. gizaldikoak dira[485]. Aldi hartan *hausterretza*-k ez zuen ezinbestean 'mugarria' esan nahi. Idatzizko lekukotasunek 'sua egindako tokia' adiera ere bazuela garbi egiaztatzen dute (*foguera*). Guztiok dakigunez, batzuetan *-tz(a, e)* atzizkiak tokia adieratzen du.

---

[483] *Saroi* hitzaren aurreneko aipamena 1284koa da. 'Sel' adiera finkatuta zegoen orduko. Orduan *sarohe*-ren esanahia eta *olha*-rena kidekoak ziren. Inolako argibiderik gabe (saroi zerrendan) *sarohe*-tzat hartzen dira hango *ola*-k. Honako datua biltzen du Mitxelenak pasarte berean: "En Iranzu, *otra bustaliza quell dicen Ola eueyna*, es decir, "agotada, "extenuada". (*AV*, 137-138.).

[484] Irigoienek uste du Bartzelonan, 1000. urte aldera, latineko testuetan ikusten den *curte*-k *korta*-ren antzeko esanahiak izan dituela: antzina 'sel' eta ondoren 'cuadra'. Halaz ere, alderantziz bidezkoagoa dirudi, alegia, aurrena 'cuadra' eta gero 'sel' adierak izatea.

[485] Arabako zenbait ingurutan jauneria saroiak mugarriztatzeko eginahalak egiten ari zen garai hartan.

Hausterreza-ren etimoa *haust* [hauts] + *erre* + *-tza* dela uste dugu, eta ez *haust* [hauts] + *(h)arri*. *Abstarria* (1452) / *abstarri* (1487) / *(h)ustarria* (1516) / *austarri* (1935, 1955) aldaeren ondoan *austerreça* (1433) / *austerraça* (1433) / *vstarriça* (1485) / *austerriça* (1539-1542) aurkitu ditugu.

Austarri aldaerak artikuluaren erabilpenarekin (*erre* + *-a* > *erria*) duke zerikusia, baina *(h)erri* ('lekua') ere egon liteke. *Austerreça* / *austerriça*-ren esanahia 'errautsak dauden tokia', 'sua egin den tokia' litzateke, beraz. Esanahi horrek lotura gehiago du *foguera*, *fogar*-ekin ohiko *mugarri*-rekin baino.

Tradizio idatzian lehenbizi ageri dena *hausterretza* da, baina saroi edo kortaren erdiko gunea izendatzeko beste bi hitz ere badaude (*artamugarri* eta *kortarri*). *Hausterretzak* ez du bere kokapenari buruzko informaziorik ematen, *artamugarrik* bai, ordea ('erdiko mugarria'). Azken batean, *mugarri* du bere baitan *artamugarri*-k, esanahiari dagokionez, horrek duen zamarekin ('jabegoa', 'muga'). *Artamugarri*-k, honenbestez, *hausterretza* baino berriagoa dirudi.

Euskal Herriko Erdigunean eta Sartaldean (eta hango euskalkietan) izen bakarra dago erdiko gunea izendatzeko (*hausterretza*), baina elementu hori duten egiturentzako, *sel*-entzako alegia, bi izen daude (*korta* eta *saroi*). Hipotesia hau da: bikote osagarria *hausterretza* / *ola* dela, *kortarri* / *korta* eta *artamugarri* / *saroi* diren bezalatsu. Hori frogatzen hasteko behar den aurreneko datua Nafarroan erdiko gunea izendatzeko erabilitako hitza da.

15. mendean saroiak neurtzeko Udalek jarritako neurriak zeuden Gizpuzkoako herri askotan. Azkoitian *pertika* deitzen zioten. Azpeitian, Errezilen, Elgoibarren, Aian, Andoainen, Tolosan, Ordizian (Aralarrerako), Seguran eta beste herri askotan saroientzako neurriak zueden. Saroien neurriak oinetxeetan, herriko sarreran eta, zenbait

kasutan, elizan gordetzen ziren[486], Oiartzungoa lekuko. Gizpuzkoan 16. gizaldian neurri aniztasuna zegoen, baina, sartaldea alde batera, hiru saroi-mota baino ez dira agertzen, bi bikotetan eskuarki: 6 gorabil / 12 gorabil; 12 gorabil / 24 gorabil (ikus 3.1.§). Agerian ipini nahi genuke hemen, neurri ezberdinak izan arren, hondarraren hondarrean, saroi eta kortentzat Bizkaian, Araban, Gipzukoan eta Nafarroan oinarrizko neurri bera erabili dela, gorabila alegia.

1506. urtean ehun eta zazpi ola zeuden Zuberoan[487]. Toki hoberenetan bazkatzeko eskubidea gutxi batzuen esku egon da han. Nekazari-abeltzain horiek ola-nagusi (*seigneurs de cayolars*) titulua zuten. Agintari, erregezko nahiz jabe huts, ola-nagusiak etxe zaharrenetako oinordekoak ziren. Zuberoako nekazari-abeltzain "jauneria" osatzen zuten. Etxola eta eskortaren jabe ziren eta artaldeak bazkatzeko eskubidea zuten.

Iruñerriko *sarioen* lehen aipamen idatziak ere 16. gizaldikoak dira, Zuberoakoak bezala, zedarriztatugabeak hauek ere. Garai hartan Zestoako saroi-neurria erabiltzen zen Gipuzkoan, eta Arabako alderdi batean ere bai.

17. mendean aizkora jaurtitzeko ohiturak bizirik zirauen Zuberoan. Aizkora elementu sinbolikoa zen. Belakoak idatzitako testuak erritual kutsua du, eta erritual hori zertarako egiten zen bistan da, olak tximistaz babesteko. Urteroko erritoa zen ez dakigu, horratik. Ohiturak antzinakoa dirudi, idazleak berak aitortu moduan.

18. gizaldian, azkenik, artamugarrietan teila jartzen zelako lekukotasun idatziak daude. Saroi zedarriztatuak jabetza bihurturik zeuden erabat, ez ziren eskubideak, eta ez zuten osagarritasunik

[486] Zizurkilgo elizako neurriak zazpi oin (edo gutxiago) zituen. Gal ez zedin, burdinezko orri batean kopia egin zuten, ondoren (Tolosako zigilu eta guzti) toki seguruan jartzeko.

[487] 1864. urtean laurogeita hiru besterik ez ziren gelditzen.

inguruko zilegimendiekin. Orduko, saroi lauki eta laukiluzeen lekukotasunak daude Nafarroan[488].

2. *Saroe* hitza, eta dituen eratorriak, "erdiguneko Euskal Herria" delakoaren barruan erabili dira. *Saroi* (*saroe*, *sario*, *saro*, *sare*, ...) hitzaren esanahia ez da, ezinbestean, 'erdigunea ardatz duela biribilean mugaturiko aurkintza irekia', erdiko gune ezagunik ez duten eremu askok *saroi* (*sario*) izena dutelako[489], Iruñerrikoak lekuko. Litekeena da jatorriz saroiak (eta *sarioak*) 'korraleak' izatea. Denboraren buruan zenbait saroi erdigunea ardatz harturik biribilean mugaturiko eremu irekiak bihurtu ziren.

Saro / *saroi* aldaeren eremua, Gipuzkoa-Nafarroetako lurrez haraindi, Arabaraino iristen da. Asparrena-Donemiliaga[490] eta Harana-Iturrieta inguruetan nahiko garbi ikusten da hori, baita Zuia-Legution aldean ere. Entzian ez dugu *saro* idoro, bai ordea Urbasan (*-sao, -sare*). Sortaldeko *saro* / *saroi* sartaldeko eremuan (Zuia-Legutioraino) sartu den ala, *-gorta* / *-korta*, Agurainen eta Maeztu-Arraian barrena, Entziaraino igaro den ez dakigu.

Artaxoan korta hitzaren 12. gizaldiko lekukotasunak daude (*gorte-*). Iratxeko idazkietan ere ageri da. *Corta* [*aldeco*] dugu 1198an. *Korta* Artaxoa baino hegoalderago iristen da. Hala berean, *-korta* dugu Barrundian, eta *-gorta* / *-korta*, Araian, Entzia-Iturrietan (*Lexargorta*) nahiz Arraia-Maeztun. *Saroi* hitzarekin gertatu antzera, ezin liteke esan *gorta* / *korta*-ren esanahia beti 'erdigunea ardatz duela biribilean mugaturiko aurkintza irekia' denik.

2.1. Iruñerriko *sarioen* lehen aztarna idatziak 16. gizaldikoak dira. *O — e* > *e — o* metatesia ikusten da orduko. Iruñerriko zendea

---

488 Deigarria da saroi laukiak Nafarroan baizik ez azaltzea.

489 Orobat *gorta* / *korta*-rekin.

490 Barriako monasterioa hango saroietako *material* edo gaiaz baino ezin zitekeen aprobetxatu; lur, ur, larre eta ezkurraren jabeak Barrundiako herriak ziren (Larrea, Hermua eta Heredia). Saroiok ondazilegien dute antza.

guztietan *Sario*[491] izeneko tokiak daude. Gehiago da: garai batean Iruñerriko herri gehienetan *sario* bat zegoen gutxienez.

Sarioak zilegimendi edo herri-lurren barruan daude beti, saroiak bezala. Ez dago norbanakoen *sariorik* Iruñerrian. Mendi-gainean nahiz mendi-bizkarrean (edo sakonean) egon litezke. Batzuen-batzuk herritik hurbil egon arren, usuenik ez daude herri-ondoan. Askok eta askok ura dute, bertan edota aldamenean, eta bideren bat ere bai.

Sario biribilak egotea ez da halabeharrezkoa. Biribiltasuna, itxitura edukitzea eta abereentzat izatea Iruñerriko eta inguruko *sarioen* ezaugarriak dira. Ez du ematen Iruñerriko *sarioetan* unaiarentzat etxola zegoenik, haziendarentzat bordarik ezta. Iruñerriko *sarioek* erdiko gunea izan dutelako berririk ez dugu idoro.

Larretokiak baino gehiago, *sarioak* abereak gordetzeko guneak ziren. Asko udaran baino ez ziren erabiltzen. *Ikorte*-ek bezala, lanerako abereekin dute zerikusia *sario*-ek[492]. Hala ere, *sarioen* jatorria zein den ez dago garbi, saroiak ziren esparruen (zalduen, *ikorte*-en) oinordekoak nahiz saroien eragina duten korraleak izan litezkeelako. Jatorriz *sarioak* eta *saroiak* 'korraleak' baino ez izatea da beste aukera.

2.2. Zuberoako olak mugatzeko ez da zedarririk erabili izan. *Bullta*-ren norainokoa ez dago inon idatzita, aldi joanetik usadioak finkatu baitu. Zuberoako olen mugak elementu orografikoek adierazten dituzte (errekek, gainek, …). *Bullta*, batez beste, etxolaren inguruan kilometro baten erradiokoa izaten da[493].

---

[491] *Sarioak* esparru itxiak dira, askotariko oztopoak dituztenak. Askotan ez zituzten erabat edota betiko ixten (lurresiak, zuhaitzak, sastraka, ...). *Sario* aldaera hegoaldekoa da (ia Iruñerriraino ez da azaltzen) eta aski mendebalderaino iristen da (Abartzuza, Mañeruibar). Hegoaldean Oibar haraneraino ailegatzen da, baina, Artaxoan, ostera, *saroi* irakurtzen dugu.

[492] *Sarioetan* gordetzen zen eliari gaztelaniaz *dula* esan izan zaio Iruñerrian.

[493] 17. gizaldian idatziz jarritako ohitura burutu zedin, saroiaren erditik erortzen zen tokiraino oztoporik (zuhaitzik) ezin zuen egon; bestela, aizkorak bidea egitea

Zuberoako ola eskubidea da azken buruan. Eskubide horrek, jabetzatik, erabilpenetik zein (aldizkako) zorretik du zerbait. Larretzeko eskubidea da oinarria; etxolaren eta eskortaren jabegoa bigarren mailakoa da. Ez du ematen Zuberoako olak eskubide izatetik jabego izatera igaro direnik.

Zuberoako olek erabiltzaile edo onuradun bakarra izatea ez da ohikoa. Bat baino gehiago dira beti eskubidedunak eta sarritan, sei, bederatzi, hamabi edo gehiago. Saroiek partaide (*txotx*) bat baino gehiago izateak ere, *jabegoa* ideia baino gehiago, *eskubidea* iradokitzen du.

3.1. Bi neurritako saroi mugarriztatuak daude: handiak eta txikiak[494]. Bereizketa edo eredu hori Gipuzkoan eta Bizkaian garbi ageri da. Nafarroan ere horrela izan dela dirudi.

Saroien erradioen (eta azaleren) oinarrizko sailkapena hau da:

6 gorabil (82,32 m; 2 12 88,63 m^2). Gipuzkoa.
9 gorabil (123,48 m; 4 78 99,42 m^2). Bizkaia.
12 gorabil (164,64 m; 8 51 54,53 m^2). Bizkaia eta Gipuzkoa.
18 gorabil (246,96 m; 19 15 97,70 m^2). Bizkaia eta Gipuzkoa[495].
24 gorabil (329,28 m; 34 06 18,13 m^2) Gipuzkoa eta Nafarroa.

Saroiak neurtzeko erabilitako gizabetea (gazt. *estado*, *toesa*, *brazada*), Bizkaiko *hamalau-oina* eta Gipuzkoako *gorabila* zazpiarekin daude lotuak. Oroit gaitezen goiko zerutik jaurtikitako aizkorak (tximistak) zazpi urteko sartu-atera egiten duela lurrera eroritako

---

ezinezkoa zatekeen. Handiagoa dirudien soilune-larretokiaren zatia baizik ez luke hartuko saroiak. Badaiteke olen erdia adierazten duena etxola izatea.

[494] *Sel grande* (164,64 m) vs. *sel menor* (82,32 m); *sel entero* (164,64 m) vs. *sel doble* (329,28 m); *korta-nagusi*, *sel grande*, *sel invernizo* (246,96 m) vs. *korta txiki*, *sel veraniego*, *sel pequeño* (121,52 m).

[495] Elgoibarren berrogei korta inguru zeuden garai batean eta Bizkaiko neurriak zituzten. Hain justu, 60 eta 30 pertikako kortak zeuden, 9 eta 18 gorabilekoak, alegia.

tokian[496]. Zazpi urte irautea ez da halabeharra, zenbaki horrek zama adierazgarri ezaguna duelako. Guztiarekin, saroien kulturan zazpia zenbaki berezia da.

Informatzaile batzuek behinola kortak neurtzeko kateak erabiltzen zirela esaten dute, eta badaiteke horretarako kateak egotea, baina erabili dituen inor ez da bizi. Korta asko elkarren ondo-ondoan daude, eta, sarritan, bata bestearen gainean. Zaila da, hortaz, saroi horiek bederik, kateekin neurtuak izatea.

Handienak (9/18 eta 12/24 gorabil) saroi-eremuaren ertzetan daude (Bizkaian eta Nafarroan batez ere) eta txikienak (6/12 gorabil), berriz, erdiko aldean (Gipuzkoan). Guipuzkoa da hiru saroi-bikoteak (6/12, 9/18 eta 12/24 gorabil) dituen lurralde bakarra.

3.2. Bi egitura mota daude saroien erdiko guneen artean: osagai nagusi bakuna eta osagai nagusi konposatua dutenak. Hala bakunek nola koposatuek, askotariko formak dituzte saroien erdiko guneek. Badira prisma formakoak, biribilak... eta, noski, forma jakinik ez dutenak ere bai.

Dekorazioa da beste ezaugarri garrantzitsua, eta irudi bat bereziki, gurutzea. Badaude irudi gehiago: ikurrak, zenbakiak, hizkiak puntu kardinalak eta izenak. Gehienak behe-erliebeak dira, baina goi-erliebeak ere badira.

Erdiko gune askok, azkenik, elementu osagarriak dituzte (lekukoak, euskarriak, harri landu solteak). Horietako elementu askoren zergatikoa iluna da.

3.2.1. Erdiko gune konposatuen artean bi forma dituztenak bereiz litezke: gurutze tankerako osagarri nagusia dutenak eta biribila dutenak. Erdiko gune konposatuak elkarrengandik urruti dauden bi gunetan baino ez ditugu aurkitu, Alonsotegin eta Donostia, Hernani,

[496] Iberiar penintsulako beste toki batzuetan ere antzeko lekukotasunak daude.

Urnietan. Artiba eta Garrastatxuko (Alonsotegi) erdiko guneek Urnietan dagoen Mendabiokoa dakarkigute gogora, baina, tamainari dagokionez, Alonsotegikoak halako lau badira. Mendabioko erdiko guneak, gainera, badu berezitasuna: mugarria du txertatuta, gaineko aldean izar irudiko dekorazioarekin. Txertaturiko mugarriak eta zilindro formako egiturak ez dute garaikideak izan beharrik.

Erdiko gune konposotauetan ez da dekorazioarik azaltzen askotan. Gurutze tankerako erdiko guneetan funtzio hori osagai nagusiak beteko luke. Alabaina, batzuetan harri handiak izarñoa izaten du gaineko aldean. Dekorazio hori egitura baino berriagoa delako aukera ezin da baztertu.

Bada kasu berezia, hots, osagai nagusiaren periferian batzuetan ikusten den biribila. Badaiteke erradio moduan jarritako harriok osagai nagusiaren gaineko aldean dauden marren jarraipen edo luzapena izatea[497]. Su-toki edo antzeko zerbaiten hondakina izatea da beste aukera. Gogora dezagun 15. gizaldian *hausterretza* terminoaren antzinako esanahaiak bizirik zirauela artean ('sua egindako tokia'). Hipotesia da *hausterretzak* osagai nagusi konposatua dutenen oinordekoak direla. Nolanahi den, biribiltasuna antzinako ezaugarria da erdiko guneetan, baita lau norabideen adierazpena ere.

3.2.2. Osagai nagusi bakuna duten erdiko guneen artean bi multzo bana genitzake, landuak eta landugabeko harriak, hau da, forma zehatza dutenak eta forma jakinik gabekoak. Esan beharran aurkitzen gara forma jakinik ez duten saroien erdiko guneen osagarri nagusiak ez direla nolanahikoak, mugarri tankera izaten dute eta ia beti. Gutxi-gehiago, laukiluzeak (paralepipedoak) dira eta, sarritan, ez dute inolako dekoraziorik.

[497] Inguruan erradio moduan jarririko harriak dituzten bi osagai nagusiak prisma formakoak dira, ez dute zultxorik, eta dekoratuta daude. Hain zuzen, biek zortzi marra dituzte gaineko aldean. Batek biribila du gaineko aldearen erdian (marratutakoa).

Erdiko guneen artean multzo ugariena elementu nagusitzat dekoraturiko harribakar landua dutenek osatzen dute. Tamaina askoko prisma eta zilindro formako harriak daude talde horretan[498]. Prisma formakoen artean, gaineko aldean lau, zortzi eta hamasei marra dituzten harriak aurkitu ditugu. Zilindro forma dutenen artean, ostera, lau, sei eta hamabi marra dituztenak daude.

Osagai nagusiok jabeen ikurrak, saroien izenak, erdiko gunea berritu zen urtea, nahiz puntu kardinalak adierazten dituzten hizkiak dituzkete alboetan, edota gainean. Hipotesia da erdiko gune bakunen osagaiak dekoratugabeak zirela aurrena, eta dekoratzen geroago hasi zirela. Bestalde, baliteke lau marrakoak eta zortzikoak garai berekoak izatea.

Gaineko aldean zortzi eta hamasei marra dituztenen artean, kanpoan edota erdian biribila dutenak eta ez dutenak daude (saroiaren biribiltasuna azpimarratzeko?). Ez dago biribildunik lau marra dituztenen artean. Gaineko aldean zulotxoa dutenak dekoratuak dira, lau edo zortzi marrakoak. Ez dirudite oso berriak. Zulotxoa makila edo burdina sartzeko egina dateke; saroia sokaz edo katez neurtze aldera, agian. Gaineko zulotxoa azaltzen denean ez dago apaingarritako biribilik.

3.3. Saroiak dauden Euskal Herriko alderdi frankotan mota bateko erdiko guneak topatu ditugu. Ildo horretan, lau marratik zortzi marrarako balizko bilakabidearen aztarnarik ez dugu aurkitu inon. Batzuetan, ordea, eremu bereko erdiko gune guztiak ez dira berdinak. Horrelakoetan erdiko gune-mota ezberdinak nola banatzen diren ikustea interesgarria da. Urumeako Zilegimendietan, adibidez, jauneriarenak ziren saroien erdiko gune guztiak bakunak dira eta osagai nagusiaren dekorazioa beti bat dator: erdiko biribiltxotik ateratzen diren zortzi (edota hamasei) marra[499]. Aralarren,

[498] Badira mota gehiago erdiko gune bakunen artean, Legarraldekoa (Urumea) lekuko. Etzandako harri zabalaren gainean gurutzea dago landuta.

[499] Saroiok Urumearen sortaldeko bazterrean daude (mairu-baratzerik ez dagoen alderdian). Han saroi nagusiak eta txikiak daude, elkarren ondoan. Sortaldeko

konparazio batera, bitariko erdiko guneak ditugu, hori bai, mendilerroaren alde bietara banatuak. Prisma tankerako harri landu dekoratuak alde batera daude, eta gutxi edo batere landu gabeko harri dekoratugabeak bestera.

3.4. Orain arte hamarka erdiko gune baizik ez ditugu ezagutzen, baina ehunka egon dira[500]. Erdiko gunea duten saroiak aurkitu ditugu, besteak beste, Aezkoa, Baztan, Basaburu Txikia (Goizueta, Leitza), Oiartzun, Errenteria, Hernani, Urnieta, Zizurkil, Elduain, Aralar, Altzania, Leintz-Gatzaga, Oñati, Legazpi, Elgoibar, Legutio, Arrazua-Ubarrundia[501], Dima, Otxandio, Alonsotegi, Mendexa, Amoroto, Markina, Gamiz, Morga, Murelaga eta Berriatua-Mutrikun.

Saroien eremuaren hegoaldean, sortaldean eta sartaldean lau marrako erdiko gune bakunak nagusitzen dira. Ediguneiparraldeetan, berriz, bitarikoak daude: lau eta zortzi marrakoak. Zortzi marra dituztenak esparru txikia hartzen dute (Bizkaiko sortaldea eta Guipuzkoa), lau marrakoen gerrikoaz inguratuta erabat. Ez dute lurralde bateratua osatzen.

Saroien lekukotasunak ondoko lekuotan aurkitu ditugu: Zaraitzun (Ori, Abodi, Ezkaroze), Aezkoan (Garralda), Orreagan, Erroibarren, Esteribarren (Larrasoaña), Zugarramurdin, Urdazubin, Beintzan (Labaien), Basaburu Nagusian (Beruete), Larraunen (Baraibar), Berastegin, Andimendin, Entzian, Asparrenen, Zalduondon, Donemiliagan, Barrundian, Aiaran, Orduñan, Zeanurin, Busturian, Lekeition, Elorrion, Markinan, Durangon, Aramaion, Aizarnan, Errezilen, Aian, Villabonan, Usurbilen, Ataunen, Zegaman, Azkoitian, Azpeitin, Bergaran eta Elgetan, asko eta asko erdiko gunea izan dutenak, guztiak ez esateagatik. Orobat Luzaiden, Alduden, Kintoan,

---

urertzean saroi nagusirik ez dago (mairu-baratzak badaude). Hori horrela delarik, batak bestea ekarri duenik ezin da esan, baina, bai, agian, saroi multzo guztiak aldi berekoak ez direla.

[500] Oso antzeko latitudeak dituzten kortarriak daude.

[501] Barrundia, Asparrena eta Donemiliagan kanpoko mugarri edo baztermugarriak dituzten saroien lekukotasunak daude.

Eiheralarren, Urepelen, Bankan, Lasan, Bortzirietan (Etxalar, Bera), Hondarribin, Deban, Amorebietan, Busturian, Zeberion, Igorren, Gueñesen, Sestaon, Arrigorriagan, Berrizen eta Mañarian. Badaiteke, Gasteizen, Ollaranen (Senosiain), Etxarri-Aranatzen, Arbizun eta Larrainen ere saroiak egotea.

Bestelakoak dira Nafarroa Beherea, Zuberoa, Erronkari, Anso eta Echon dauden abeltzaintza-guneak. Egitura berezirik ez dute erdian, ez dira biribilak. Iruñerriko *sarioek* ere ez dute ezer erdian.



Saroiak Euskal Herrian

Hirugarrenik, *saroi* eta *korta* hitzen lekukotasunek beteriko lurralde zabala dago, erdiko gunea duten saroien eremua biltzen duena. *Saroi* hitzaren hegoaldeko muga Harana-Iturrieta, Urbasa-Andimendia, Deierri, Zirauki, Gares, Artaxoa, Tiebas, Muru

Artederreta, Eslaba, Ezporogi eta Irunberri lotuz marraz liteke. *Korte / gorte*-ren hegoaldeko muga, ostera, Arraia-Maeztun, Entzia-Iturrietan eta Artaxoan barrena igarotzen da. Iparraldean, azkenik, *saro / saroi*-ren arrastoak daude Sara, Arnegi, Baigorri, Arrosa, Ortzaize, Irulegi, Azkarate eta Lekunberrin.

